

JOHANN W. GOETHE



F A U S T

JOHANN W. GOETHE

FAUST

(Der Faust)

AITA ONAINDIA'K

Alemaneratik Wilhelm Goldman'ek (Münche, 1964)
egin eban argitalpenetik euskerara itzulia.

Bear díran baimanakaz

O Aita Onaindia, Euskerazaintzakoa, 1986

Taulor'en apaingarriak

Depósito Legal: BI - 575 - 86

IGARRI, S. C. L. — Rafaela de Ybarra, 1 — Deusto - BILBAO

J. W. GOETHE

BIZITZA.-Francfort da Goethe'ren jaioterri, antxe munduratu bait zan 1749-VII-28'an sendi aberats batean. Aita, Johann Kaspar Goethe, erregeren kontseillari zan, prestu ta izakera oneko; ama, Katariña Elisabeth Textor, emakume mazala, biak Francfort'en jaiioak. J. W. Goethe jaiio zanean erri onek 35.000 arima eukazan. Bertako giro ta oiturak eta gurasoenak, arduraz moldatu ta mugarritu eben, urteak joan urteak etorri, benetako idazlea izango zanaren egiera ta jakitate zabal sakona, Goethe'k berak bere bizitz-orrietan autortzen dauskunez, jainkoak be etziran zeken agertu lurrean opa izan geinkenaz, edertasunez, talentuz eta aberastasunez jazten.

Leenengo ikas-urteak gurasoen ondoan emonaz, Leipzig'era joan zan 1765'an, Eskubide karrerako ikasketak ango Ikasgu Nagusian jarraitu al izateko. Emen erre zituan iru sirte, ez nagi liburu artean bizi izanik. Ementxe biztazi jakon, bete-betean gero, giza-izamenaren deia geratu barik, izate-oxiñean oiartzun ederra egingo eutsona: idazle ta olerkari izango zan.

Eskubide ikasketak itxi barik., idazten asi zan, baita osotu be bere leenengo lanak, barruan bolbolka ekarren literatur joera ta oler-indarra erakutsiz. Ementxe biribildu eban, Bergili'ri jarraiturik, «Amina» eritxon artzain kutsuzko idazki atsegiña, maitemindu baten naikeri, taranta ta illargi-aldiz aberats. Orrez gaiñera, «Danak barruan» komeria idatzi eban. Lan biok frantses gudu-literaturan modan egoan aogozoz eioak, eta asibarri baten lanak lez, ez eben balio aundirik. Izadia goratu ta berau lits ederrez margoztuten ardura geiegi ipiñi ebalako batez be. Gerora, askoz bere-

bereagoak izan ziran aren idazlanak; gai eske ta argi billa, kanpora ez bere kautara jo eban geroztik, eta olan bere egiazko pozak eta oiñazeak ixurika joango jakoz idazkortz-erpiñetik zear, bai berari egokionez eta bai mundu aundik ibilki ez-ustez gaiñeratuak.

Gaixorik Francfort'era biurtu ta emen, 1769'tik batez be, zientzi ezkutuetara, alkimi, aztikuntza ta olako artu-emon batzuetan sartua ebillen. 1770'an Estrasburgo'ra doa, aitaren esana egitearren, bere lege-karrerako ikasteak amaitzeko. Ogibideari egokiozan ikasgaiak sakonduz-gain, ementxe aurkitu eban benetako giroa be bere barruko deiari kemena ta bizitasuna emongo eutsen elementuak. Adiskide mordoa eban ingurumari, bere bizitzea garatzen lagungarri izan jakona nunbait. Lagun talde au oneik osotzen eben: Johann Gottfried Herder, bera baiño bost urte gazteago zana; (onek bizkor-azo eban, «Sturm und Drang» taldeko egiñik, Homero, Shakespeare, Ossian, Goldsmith eta olakoak irakurtera bultzatuz, erri-olerkia txastazera); Herder'ek, ostera, «lied» leun ikugarrietaz zaletu eban, gero idatzietan sarri erabilli zituan gai polit, atsegintsuetara. Ordukoak ditu «Sesenheim'en Kanak» (1770-1771) eta «Heidenröslein» (1771) batez be.

Goethe gaztea, bere lege-ikasurteak amaitu ta irakasle diploma lorturik, Francfort'era itzultzen epaikaaritza asteko. Ortan diardu, baiña urduri dabil: Estrasburgo'n izandako igieraren ekaitzeragin bultzadak ez dautse baketan izten. Eta idazteari lotzen da, oraiñarte bizi izan dauan edozer gaitzat arturik. Barne-jita doakio urterik urte biziagotuz. Garai onetan, 1774'rantz, erabat osotzen dausku drama bat naiz nobela bat. Gaiok ez dira besterik berak bizitako edo asmautako zeren alkartzetse antzetsu baiño. Orduan ernea «Werther» eleberri gogoangarria! Lera ta iduriz jori mamindua, ziñez!

Adiskidego, idazlan, maitakeri ta arte arazoan murgildua, doi arnasa artzeko ebillen idazle bizkorra, ustebagean etorri jakon jazoera batek ekarri eban Goethe bear-bearreko eban gogo-askatasunera, 1775'ko udazkenean: Weimar'ko Karl August duke gazteak, gobernuko edeak artu-barri zituanak, dei egin eutson bere ondora. Goethe geroztik Weimar'i lotua izango zan betikoz; idazle asmotsuarentzat aringarri ta gozagailu gertatuko jakozan ango ze-

regiñak jasan-eziñez ekarren barru-oiñazaldi etengabeen; ementxe asi zan aldi berean aren bizitza ta sorpen arrigarrien erabateko aroa, aren lanen garatzerik ederrenekoa ain zuzen.

Turingiar erregetxe txikian, Karl August dukeak doixtar jakintsuen egoitzan biurtuan aurkitzen zan Goethe, ango eguzki dizditsu. Beronen inguruan bizi dira, batera naiz sasoi ezbaridiñetan, Wieland, Herder, Schiller eta Wilhelm eta Alexander Humboldt anaiak, izar txikiago batzuen artean. Oso lanpetua dabil leenengo amar urteetan, ikasketak, joan-etorriak, milla eratako artu-emonak eta erti-sorpenak bide dirala. Gorenengo zirkin dagi Administraziño kontuan; kargu onek eraginda ezin-konta ala urteera ditu, Alemania'n eta andik kanpo Suiza, Italia ta abar zearkatuz.

Samur-bera zan Goethe, eta, bere kargu ta idazlanak ortarako astiune askorik ez laga, ba-zituan bere kutunak. Beste batzuen artean, berrogei urteko zala, Christiane Vulpius, Weimar'ko neskatilla ogetairu urtekoaz maitemindu ta ezkondu zan. Bost seme-alaba jaio ziran ezkontza onetatik, zarrena, 1789'an munduratua izan ezik, beste laurak arin il ziranarren. Emakume onen maitasunari ta Erroma'n izandako biotz-zauskada samur-gozoai eskiñitakoak dozuz 1778-1780'ra bitartean osoturiko «Erromar Eresiak».

Weimar'ko Korteko Antzokia zuzendu eban 1791'tik 1817'ra, bere eritxiz lan bikaiñak ziran asko antzeztuteko abagunea izanik. Orduantxe jazo da Frantzia'ko Iraultza eta jazoera au gai arturik lan ederrak osotu zituan. Orduantxe, 1799'an, daroa Schiller Weimar'era eta idazle gotor onen adiskidetasunari esker, zerbait jausita egoan Goethe'ren adorea barrero biztu-azo ta indartu zan, bere bizitz-unerik kementuenetan lez lanaldi dirdaitsu barriari asiera emonik. Biak —Goethe'k eta Schiller'ek— adiskide ta idazle, jaso ta edertu eben doixtar literatura.

Alan eta guzti, bardiñik bako ekiñaldi errime onek uste bageko azkena dauko Schiller'en eriotz lasterragaz: 1805'ko maiatzaren 9'an, berrogetasei urte eukazan Schiller'ek. Amar urte zarrago zan Goethe, ta oraindik luzaroan bizi izango zan. Eriotz a, baiña, beretzat azkenaren amaia edo, nahi ba'dozu, bere bizialdiaren azkenaren asiera izan zan. Goethe'k uste dau, Schiller'en eriotzaz,

bere zati-erdia galdu dauala. Eta, izan be, apurka erio-orbelez estalduz joakon ingurua.

Urteak aurrera egiñik be, Weirnar'ko Kortean aolkulari zan, eta 1815'an leen ministru izentatua. Urte bi geroago Teatru-zuzendaritza itxirik, bere adiñari egokion bizi-moldea eroian. Urteak dirala ez dagi joan-etorririk. Christiane emaztea ilten jako 1816'an. Zazpi urte geroago idazle gazte bat agertzen jako, Johann Peter Eckermann; adiskide ta idazkari izango jako, eta beronek batu ta argitaratuko dautsoz il-ondorengo idazlanak. 1828'an ilten da Karl August dukea, ta 1832'ko epaillaren 22'an Goethe, Weimar' en bertan biak.

IDAZLE TA OLERKARI. — Bizitza guztian, etenbako idadana burutu eban Goethe'k, bertsoz ta itz-lauz kontatzen-ala artikulu ta liburu. Ona oneitatik zerrenda ez oso bat, urtez urte bezela jarria: «Die laune des Verliebten» (Maiteminduren apeta), 1767; olerki oneik: «Ondo-etorri ta agur», «Maiatzeko abestia», «Basa larrosa» ta «Bioltxo»; «Götz von Berlichingen», kondairazko drama, 1771; «Von deutscher Baukunst» (Doixtar Etxegintzaz), 1773; «Die Leiden des jungen Werthers» (Werther gaztearen zoritxarrrak), 1774; «Bidaztiaren ekaitz-kantak», «Ganimede», «Mahoma», «Prometeos», eta abar, doixtar olerkia gailen-gailen ebena; «Stella», ezkontza drama, 1775; «Ilargiari», «Bidaztiaren gau-eresia», «Ur-gaiñeko ezpirituen Kanta», «Elfaen errege» ta beste balada batzuk; «Eg mint», kondaira drama, 1787; «Iphigénie auf Tauris», 1787; «Torcuato Tasso», 1789; | *Reisa» (Italia'ra txangoa), 1789; «Des Gross-kophta», 1792; «Der Bürgergeneral», (Uritar komeria, 1783; «Die natürliche Tochter», (Sasi-alaba), 1804; «Die Campagne in Frankreich», (Frantzi'ko gudaldia), 1822; «Hermana und Dorothea», poema, 1798; «Korinto'ko emaztea», «Jainkoa ta dantzaria», «Azti ikaslea» baladak eta «Xenien» epigrama saila, 1796; «Die metamorphose der Pflanzen», (Landaraen Itxura-aldatzea), 1970; «Beitrag zur Optik», (Optikarako orni-ikasteak), 1791; «Die Farbenlehre», (Margoen teoria), 1810; «Wilhelm Meisters Lehrjahre», 1785; «Wilhelm Meisters Wanderjahre», 1786; «Die Wahlverwandtschaften», (Kidetasun autatuak), 1809; «Ichtung*

und Wahrheit», (Olerkia ta egia), 1811-1833; «*Trilogie der Leidenschaft*», 1833; «*West-Östlicher Divan*», olerki lirukuen bilduma, 1819; «*Der Faust*», lenengo zatia, 1808, eta bigarren zatia, 1832, tragedia. Ba-dira oraindak beste liburu ta zati batzuk be «*Einführung in die Literatur des deutschen Sprachraumes von ihren Anfängen bis zur Gegenwart*», (Viena, 1963); deritxon literatura liburuan ikusi daikegunez.

FAUST.‡

Gaztetatik gogotan ekarria, bere *Sturm und Drang* garaian ausnartua ta bizitz-azkenerantza amaitua. Beste lan askori ekiñarren, auxe erabillen Goethe'k barruan, izatezko mundua irudimen biziz asmatuiko suster bakoiz gatzatuan. Zati bi daukaz traiedi onek, leenengoa zatika beintzat 1790'tik argitara emona; gaur zati biak daukazuz emen geure izkuntzan.

Goethe'ren egunetan goi-goi egoan Alemania. Burutakeri, idealismuaren egunak ziran. Jainko lez ziran gizonak, egitez ezik be, bai al-izatez, eta izaki guztien gaiñ jaubetza izateko gai genduzan. Doixtarren kultura, beste aldetik, gerkar eta erromatarrena baiño giar bikaiñagoa uste zan, areik baiizen sentikor eta leundua izan ezta be. Indarrari ta ekintzari garrantzi berezia ezarten eutsoen doixtarrak. Beraz, ezpiritu sendoen eta argi-zuzi distikorren garaian bizi zan Goethe, olerkari-senez oparo jantzia, adimen argi zorrotz baten jaube, zentzunez oarkor, iduri la itxurak jasoteko zuur, burmuñean gogaiak borborka, gauzarik lau ta zirtzillenak edertzeko gai

Lan gotor en azurtzeko goi-maillako alor batera jauzi egin euskun Goethe'k. Eta gaiñ ortatik begiraturik, jakin nai izan eban munduaren asiera, berau sortu eben indarrak arakatu; orixegaitik, deabrugaz beragaz be berbatu egiten da, besteai jaramonik egiteke aurrera jo gura dau bere xedean; misteri sakondu-eziña dozu gizona, elkor, zeken, bekaizti, maitekor; ez dozu santu, ez gizuren, ez eroankor, ez jakitun. Gizaseme aldakor eta basati au margozten dausku Goethe'k, gerkar eta erromar alegiak doixtar bere aberrikoen oitura ta ekanduakaz koropillo egiñik.

Asko dira leenengo zatian ondo biribildurik geratzen dirala, diñoenak, Goethe'ren antzerki-ideiak. Orrela da, izan be. Errekoia-

goa jatzi , biotz-zirrara gozoagoa damotzuna. Zorrotz sakonagoa da bigarren zatia, egia; landuagoa antzez eta pentsamentuz. Buru ta biotzaren arteko gezi jaurtzea beti, eder zoragarria. Gaia jagia da, izkuntza bipil-bipilla. Olerkigintza, ezin ohea leenengotik azken era: Goethe'k ez dan potik egiten, ez neurrian eta ez oskide-Izan. Euskal poetok, ar au gogotan!

Ez dakit itzulpen au eder izango jakon irakurleari. Bertso bikaiñez idatziriko lan eskerga batek, itz lauz ermona bada, naitaez galdu bear zertxobait. Orrela jazoko zan emen be. Itzulpenean lortu eziña dozu, egilleak bere sorpen-lanean jarri oi dauan bizitasun, jatortasun eta bame-ritmu gozoa. Orixe jazoten da emen be; alan eta guzti emen daukazu, irakurle, euskeraz munduko literaturako olerki-lanik bikaiñenetako bat.

Larrea, 1986-IV-1

Aita Onaindia

FAUST

—POEMA

ESKINTZA

Aurrera zatorkidaze barriro be, aize-itzalok, argiaren eta urrearen tarte dantzari. Zuen egaldia geldi-azoten saiatuko ete naz orain? Nire biotz onek, urte ta atsekabez igar, sumatu al izango ete dau iñoizko amesik? A! , zatoze; urrera zaitzeze, el niganaiño, irudi eztiok; gaur, bada, zuok odei ertzetik nigana bultz-eraginda ikusirik, gauza miresgarri! , gazte dardara bat nabari dot neure biotzean, zuok nigana bultzatzen zaituen giro oskarraren eragiñak eraginda.

Egun zoriontsuen irudia dakust zuengan; itzal kutun bat baiño geiago doaz jagiaz euron artean, antxiñako abots batek, ia agiñik egoanak, bizkortuta Legez, eta neure bizitz-udabarran izan nituan len-sentimentu bi aurreratzen yataz barriro: maitasuna ta adiskidetasuna. Naigabea be, orrez gaiñ, adoretuz doa; aiene ta arrenkurak negar-azo daroe giza-mataza, eta onen ibilte biurria; naigabe onek, onak izan ziranak oro izentatzen ditu, zorionaren guzur-dirdaiz lilluratuak noski, neure begi aurrean ain zuzen be euren adiñik ederrenean urtu ziranak.

Ezin izango dozue, gogo gurenak, nik lenen zuzendu dautzue-
dazan kantuak entzutea; galdua da oso-osorik len-egunen
oiartzuna, itzalia bait da laguntalde adiskidea. Ez-ezaguna dan talde
baten belarriak bakar-bakarrik zauritzen ditu nire negar-erostak,
eta olakoen txaloak biotza samin-azteko yataz soil-soilki; nire bu-
larrak jalgi kantuekin euren oiñazea aaztu-azo oi eben guztiak, au
da, aldikada baten nire itza zala-ta birloraturik geratzen ziran guz-
tiak, munduan bizi ba'dira be, ai! , sakabanatuta dagoz.

Atzera be biztuaz doazala neure biotz-barruan dirudit, beste
orduz bizi-bizi nerabiltzan gurari gartsuak, bide laino orreik, bai,
ezpirituen mundu benetan eder nareak eragiñak nunbait; coldar
arpak lez, dardar dagi nire kantuak doñu ezkututsuz, eta dardar-
ikara zoriontsu yatan lurrun ezitia sortzen daust nato ta garbiki.
Matrail beera jarioka doakidaz negar-tantak; inguru epel leunak
daust ezerezten biotzaren gogorra; urrin dakust euki negan guz-
tia, eta neuregandik igesi joan zana oro, egi biurtzen yat.

AURRE-SOLASA ANTZOKIAN

Zuzendaria. Antzerki-olerkaria. Barre-eragillea.

ZUZENDARIA.—ZUOK, bearraldian eta neke-lorretan ainbat bider babestu nozuenok, esaidazue argi ta garbi gure eginkizun onetaz zer uste dozuen Alemania'n. Egiaz atsegin izan gura naiako laguntaldeari, ta auxe besterik ez dago egon be bizi izateko ta bizi izan eragiteko. Gibel-zapiak jasota dagoz, olak gertu ta antzezlarri bakotxak jai eder bat opa dautzue; ikusleak, jezarrita, geldi daukaguz, begiak zabal-zabal eta artega, eta miretsi besterik ez dabe nai. Ba-dakit ikusleak zelan erakarri ta, alan eta guzti be, egundo ez neban lenago asmatu izan gaur lako artegatasunik; egia baldin ba'da maixuen antzerki-lanez txarto oiturik ez dagozana, egia da baita asko be asko irakurriak dirala. Zelan jokatu, ba, dana barria irudi izan dakien, atsegingarri ta onurakor izan dakien? Egi-egiaz eder yat lagun-talde aundia ibaika lez antzokiratzen, ari bultz eta oni saka ate txikitik barruratu nairik moltzo betean ikus-tea. Egun argitan, laurak baiño len, sarrera saltokí guztiak ingu dabez; eta eskas-aldian ogi bategaitik makillatu oi diran lez ogitegiko atean, orrelaxe orduan be azurrak ausi oi dabez sarrera bat lortzearren. Olerkaria da gauza bakar-bakarrik olako miraria orren askotariko laguntaldean burutzeko. Ene laztan orrek, egizu, otoi, gaur be.

OLERKARIA.—Ez eistazu aita dalako laguntalde naasi ori, goi-argia bere begituz bakarrik igesian jarten dauan ori; gorde eidazu jente-aldra zalapartaria, geuk nai ez arren, leza-ondorantz bultz daragiskuna. Ez; zuzen nagizu edo-ta lagundu atsegin garbia oler bakarrik dizdizka dagoan zeru-mugalde artarantza; an bada maitasunak eta adiskidetasunak, gure arimaren bedeinka-

uenak, gauzak jainkoen laguntzaz sortu, a bete daroez. A! Cure arimaren barrenetik orduan eme oi dana, gure ezpan dardaratiak, un naiz txar, tirli-torlo diñoena, unearen zorahio oldartsuan mur-gildu ta ostendu oi da, ra batzuetan oindiño, gizaldi asko igaro ondoren, barriz jagi oi da bere itxurearen betetasun osoan. Dirdir dagiana, unetxo batekoa da; egiazki eder dana, ez da iñoiz be galdua etorkizunerako.

BARRE-ERAGILLEA.—Beti-betikoa etorkizunaren lelo! Egizu neuk be nai dodala etorkizunari eder izan. Nok poztu ta jostera-zoko leukez nire urteide ta denporakoak? Orreik, alan be, jolas-tu nai dabe, ta orretan saiatu bearra daukie. Gazte zangar baten begiera, beti da zerbeit, nire ikusi-arauz; adimenean ditun gogoe-tak duinkiro adierazten dakianak, *jentearen* kasketaldien bildurrik ez dau izan bear: jenretza aundiago, jakin bei, eraso ta biotza iku-tzen errezago. Olan, ba, biotz on; eta aurrera zaitetze bekoki zut. Irudimena ager bedi, alegiñez, bere jarraigo osoaz, errazoi, asma-men, sentipen eta griñaz; ezta ez egizue erre ezelango alegiñik zo-ramena aitzuteko be.

ZUZENDARIA.—Ekintzaren zatia izan beite, alan be, zabala; ikusteko dator jentea, ta naitaez ikusi gura dau, Gai-rnataza, ikus-leak zurturik eta begiak zabal-zabalik itxi-azoteraiño naspiltsua ba'da, egon zaitetze ziur, zeuen elburua jadetsi dozue-ta; orduan txalotu ta miretsiak izango zarie. jazoera moltzo baten bilduma egiñik lortuko dozue bakar-bakarrak jenteari interesgarri izatea; bakotxak, bada, uka-eziña danez, norberari geien dagokiona bi-llatzen dau; asko dagoan lekuan, danentzako dago, ta bakotxa asean eta betean doa etxera ikusi izan dauan jardunaz pozik. An-tzerki bat emokeran, emon egizue zatika; eta ikusiko dozue zein gogoko izango dan zuen abazuzia, gertatzea baizen erreza zerbitzea ba'da beintzat. Zetarako da gauza oso eder bat burutzea, erriak asko luzatu barik ataletan banatzekoa baldin bada?

OLERKARIA.—Baiña, ez zara oartzen olako eginbidea guztiz maskal urda dala, ta oso iguingarri egiazko olerkariarentzat? Da-

kustanez, zeu be jaun orrei ain kilikigarri yaken naas-maas orren aldekoa zaitut.

ZUZENDARIA.—EZ dagokit esan ori. Esku arteko hincan nabarmendu nai dauanak, ondoen datorkion tresna aukeratu bear dau; gogora egizu egun ariña zatitu bear dozula, ta ez aiztu norentzat idazten dozun! Nagikeriak ba'daroa ikusle au, beste bat jan-edate oparotik urtengo da; eta, are txarrago, batzuen batzuk egunerokoak be irakurriko dabez. Ona etorri oi da jentea, kukuwnarrozko dantza batera lez, lkus-miñaren ego-gaiñ; andrandiak curen apaindurarik ederrenakaz yatortzuz ikustokira, ta dubarik jokatzen dabe euren papera. Zergaitik ameslari ibilli olerkiaren gaillur garaiak zear? Ba ete dago antzokia bete-beterik eukitea baiño aintza andiagorik? Begitu urretik zure mesedegilleak eta euretatik erdiak, ikusiko dozu, ardura bako ta edozer bardin dautsenak dituzu, ta gaiñerakoak ozpin zakarrak; batzuk antzerkia amaitu-ala joango diran jokoa darabille gogoan, eta besteak gabaz izango daben asete ta nabarmenkeria. Zergaitik, zentzun bako gaiñuok, gauza orren utsagaitik, zer dala-ta zabilte maitagarri eztaiz gogait eragiten? Barriz diñotzuet, izan zaiteze esku-zabal, zeuen jomuga lortu nai ba'dozue; sa'a gizonai interesgarri izaten, pozik eukitea zailla da-ta. Baiña, zer dozue? Gaiñezkaldi da ala oiñaze?

OLERKARIA.—Zoaz nigandik eta billa beste jopu bat! Ikusi dagidanez, zuri eder egiteko olerkariak zoroki ta biotz-alai ukogin bear dautso bere eskubide aurrenari, gizona izateko Jainkoa' gandik artuta daukon eskubideari. Zer indarrez dardarazten ditu biotz guztiak? Zeren al-izatez menderatzen ditu gaiak? Bere izatea beteten dauan oskidetasunagaitik, onek bait dautso jaso-eragiten bere biotzaren mundua. Izadiak, axola-bage, bere ardatz inguruan betidaniko aria batzen diarduan bitartean; izakien moltzo zurrunbillotsua bere artean nasten dan bitartean, nork bereizi daroa errezkada beti itxura batekoa berau bizi-azoteko, zirkiña ta kopurua ezarteko? Nok dei dagitso gizakiari langintza orokorrera, bizi indartsu ta zoli neurrizkora? Nok jarten dau orroaz griña ekatxa? Nok dirdir ipinten ete ortzargia, bere aunditasun eskerga guztitan? Nok ereiten ditu udabarriko lora ederrak maite dogun ainge-

ruak ibilliz zapalduko dauan bidean? Nok eiotzen ditu osto berdeak, osto pitiñak aintzazko koroetan, merezi izan dauanaren on-egiña ordaintzeko? Nok dauka zutik Olinpo ta nok batzen ditu jainkoak? Gizonaren indarrak; eta olerkaria da indar orren adierazler

BARRE-ERAGILLEA.—Ederto; erabil gaitasun eder guzti orreik, eta jardun zeure olerkizko lan guztietan maitasun-joko baten egin oi danez, Urreratzen da bat alanbearrez, berotzen da, bere lekuan dirau ta jausten da azkenez abaíl eginda, azkaturik: poza aundia-gotzen eta eraso asten; sorgor oartzen da bat, eta sorgor eta pozaren ondoren dator atsekabea; eta ona emen, igarri barik, elebarri baten mataza osoa. Emoidazu era ontako antzerki bat; ar eredu lez giza-bizitza osoa, bakotxak daroan bizitza, gitxik ezagutu arren, eta egon ziur, zure lana interesgarria izango da. Askotariko irudi ugari, argitasun gitxi, oker asko ta egi-izpi ezin-oartuzkoz, osotu al leiteke entzuleak egundokorik geien lilluratu ta jasoko leukezan lanik bikaiñena. Zuk egindako lanaren antzekizunera doake orduan gazteria eurrez, jokaldi ta gorabera bakotxa adi-adi ikusi ta entzunik; sentipen samurrik ez da izango zure lanean janari kaden larria aurkituko ez dauanik, bakotxak bere biozkadak lan orretan aurkeztuta ikusteko gogo bizia guztiena izanaz. Ba-dakizue gizon batzuk barrean i emonak dirala ta beste batzuk negarrari; beraz, dedua emon oi dautsoe danak olerkariaren alegiñari: bakotxak bere dauan amets-lillurari irri-par egiten. Mundua ezagutzen dauan gizonarentzat ez dago ezer onik, baiña kontuan ar daiteke beti gazte asi-barriaren eritxi ona.

OLERKARIA.—Betorkidaz, ba, ostera ni be etorkizunean bizi nintzaneko denpora arefik, nire arima barrutik ater-bako kantuak erneten ziraneakoak, lurkoi zana gorde oi eusten nakarrezko odei egunak, lore-kukulu guztiak miresgarria esinka neukazala, aranik jorienak edertzen ebezan lorak millaka artu al izan nebazan uneak. Orduan ez neukan ezer, baiña alan be, bear neban guztia neukan: egiauren guraria ta ames zoroen egarria. Itzul eidazue lera jarki-ezin areik, zoriontasun sakon its a, indar a gorrotoan, aalmen a maitasunean. **A!** Itzul eidazue neure gaztaroa!

BARRE-ERAGILLEA.—Ene adiskide on! , gaztetasunari dei egin zeinkeo etsaiak burrukan zirika ba zeunkaz, neskatx alai ederrak euren besoz zeure samea estutzen ba'letorkizuz, olinpiar koroia gauza lortu-eziñeruntz zabuka etortzen ikusi bazekus, edo-ta dantza suak artutik urtetea, zeure gabak likiskeria igaro bear ba'zendukez; baiña lira oituan polito ta indartsu jotea, atsegiñezko ames zorotan murgil noberak nairik jarritako gauzaki batera eldu gura izatea, orixe da zuen arazoa, zar jaunok, gure ederra ta oneretxia merezi izatea nai ba'dozue. Zartzaroak ez gaitu, sarritan esan oi danez, aurtzaroan murgil-azten, baiña bai oindiño egiazko ume aurkitu garoaz.

ZUZENDARIA.—NaikO da itz-jario ta barriketarik; ekar azkenik be lanak. Betegiñetan alkar-muturka zabiltzen bitartean, gauza onurakorren bati eskua luzatu zeinkioe. Zergaitik ainbeste jardun, batek izan bear dauan egoeraz? Zalantzak, uste dozue, ori eskura al izango dautzuela? Zeuon buruak olerkaritzat ez daukazuezan ezkerok, egin zaitezte olerkiaren jabe. Ba-dakizue zer yakun egoki: edari gogorak nai ditugu; saia zaitezte beingoan olako batzuk guri aukeratzen. Gaur egiten ez dana, biar ez da egingo; beraz, ez dafgun zalantzan egun bat bera be galdu. El erabagia gogor al dala uleetatik, eta ez itxi eskuetarik arrapakia; ekin lanari, naitaezkoa da-ta. Ondo dakizue zuok, gure doixtar antzokietan bakotxak al dauana egin oi dau; ez zakidaze, ba, urri ta eskas izan, ez tresnaz ez apaingarritz. Ots-egin zeruetako argi aundiari ta txikiari; esku beteka erein zeinkiez izarrak; ur, su, arkaitz zutak, abere ta egaztiak, ez yatzue ezer palta; orrela ba, metatu apaingarriak apaingarrien gaiñ toki estu onetan; ez ar atsedetik Izadiaren bira osoa bategiña izan arte; eta zeuen bultz-oldar arin neurtuan, joan zerutik asita, ludian zear, inpernuraiño.

ZERUAN ITZ-AURRE

JAUNA, ZERUTAR TALDEAK MEFISTOFELE GERO

Iru Goi-aingeruak datoz aurrera

ERRAPEL.—Eguzkiak, antxiñatik ekandu dauanez, esku artu daroa anaibiren txandako kantuan, eta bere ibillaldi jakiña trumoi-otsez amaitzen dau. Aren begituak indarra ezarten dautse ain geruai, iñok be ulertu eziña izan arren; egintza gurenak, barren-du eziñak, eder dira lenengo eguna lez.

GABIREL.—Eta ikus zein arin, ezin-garaitua, bira dagian Lurraren aunditasunak aren inguruan, eta Atsedeen-tokiko dirdira zelan gau baltz sakon biurtzen dan. Itxaso apartsua suminkor jarten da bere zabalera osoan, baita arkaitzen oge barrenean bertan be; eta urak lez arkaitzak narras eroanak dira goiko-biren ibilte betikor bizian.

MIKEL.—Eta ekatxak orro dagie zeñek geiagoka itxasotik ondartzara ta ondartzatik itxasora; eta, euren asarrean, kate oldartsua eratzen dabe obo aren zabalera osoan. Oinaztarriaren dizdiz aurretik doa garrezko ondarena; eta, alan be, zure mezulariak, Jauna, zure egunaren ibilli baketsua gurtzen dabe.

IRURAK.—Zure begitzeak adorea damotse aingeruai, naiz-ta eurotatik iñor be begirada ori ulertzeko aiña ez izan; eta egintza guren guztiak dirdait suak dira lenengo egunean lez.

MEFISTOFELE.—O, Maixul Barriro be urreratzen zakidazan ezkerro, eta gure artean zer jazoten dan itaunka zaukadazan, beiñola ikusi oi ninduzun lez ikusten nozu oindiño zeuendarren artean. Parka, otoi; ez dakit esakun sakonik ariltzen, na; z-ta jarraigoaren begietan barregarri geratu; beste aldetik, nire izkera bakanak zuen barre gurea erne-erazoko leuke, irri egiteko oitura galdu izan ez

ba'zendue. Ezin dot ezer esan ez Eguzkiaz eta ez munduetaz; gauza bat baiño ez dakust: gizasemeen arrenean bizi izatea. Munduko txikia beti da giro-ari berekoa: lenengo egunean baizen bitxia, egi-egiaz. Zeruko argiaren dirdaia emon ez ba'zeuntso. Zeuk, jaun orrek, apur bat obeto bizi izango zan; dirdai orri Errazoi izena ezarten dautso, eta orrez baliatu oi da bakar-bakarrik abereen artean aberena izateko. Gizona begitantzen yat, ez bekit iraindu Zurre Eskerra, zango luzedun matxin-saltari orreitako bat, beti egazka ta egaz egiterakoan saltari, eta euren txinta zaarra abesten beti, bedar artean. Beti bedartzan ba'lego be! Baiña ez, zulo guztietan sartu bear dautzu bere sudurra!

JAUNA.—Beste zerbait esateko? Beti-beti ez zaiataz erremuska ta negarrez ibilliko? Zuretzat ez al dago iñoiz ezer onik Lurrean?

MEFISTOFELE.—Ez, Jauna; argi ta garbi, an bean dana aurkitzen dot aspaldi danik nazkagarri ta zantar. Errukia damoste gizonak euren ezbear orduetan; txerren gaixoak, biotzean ikutzen nabe oso, ta ez dot adorerik be eurak oiñazetzeko.

JAUNA.—Ezagun al dozu Faust?

MIFI s TOFE LE.—Ma! Xua?

JAUNA.—Neure zerbitzaria.

MEFISTOFELE.—A, bai! Era bitxitan otseintzen zaitula autor-tu bear dautzut! Zoro alakoa! Ez daki lurreko gauzakaz azi ta janaritzen! Barruan aginka daroan atsekabeak goietara saka dagitso ta erdizka baiño ez dazagu bere zoramena; Zeruko izarrik ederrinak nai ditu ta Lurreko likiskeri guren guztien atzetik dabil, eta, ez urrundik ez urretik, ez leukez ezertxok be aren barne-irrits asekatzak naikotuko.

JAUNA.—Gaur okerbidean zerbitzari baldin ba'dot, argira zuzendu gura dot laster. Baratz-zaiñak ba-daki ondo be, abetxoa oriurdindu danean, lorea ta alea ekarriko ditula bere garaian.

MEFISTOFELE.—Egin daigun oraindik be galduko dogula, apurka-apurka neure bidera ekarten itxi badagistazu.

JAUNA.—Eskua dozu aren gaiñ, Lurrean diraeño. Gizonak, bere elburu billa dabillenean bidea galtzen dau bakar-bakarrik.

MEFISTOFELE.—Eskertzen zaitut, ildakoai buruz ez baít naz egundo askorik arduratu, eurakin ezer egin ete leitekenik edo; naiago izan ditut beti be larrosa kolorezko papo guriak. Gorpu

illen zoritxarra! Orreikin dagit katuak arratoiak egin oi dauana.

JAUNA.—Ederto, eskuetan izten dautzut. Erauz ezpiritu ori bere sorburutik, eta eroaizu narras, beraz jabetzeko gai ba'zara, zeure aldapa beera; baiña eraxi ta kuku-eragiña autor zakidaz, gizon artez bat, bere kontzientziaren illun artean be, bide zuzenaz oroi izan dala, ezagutu ta ontzat artu bearrean zeure burua ikusi ba-zengizu.

MEFistoFELE.—Guztiz ondo. Tamalez, guzti onek ain gitxi iraun bearra! Nire apostuak ez daust ardura larregi emoten. Neure itu, asmoa lortzen ba'dot, laga eidazu, arren, garaipenaren gozamen oso betea. Aginka dagiala autsa ta atsegiñez atan be, nire izeko Suge ospetsuak egin eban lez; orixe gura dot.

JAUNA.—Jo zeinke bildur barik zeure asmo guztietara; ez dodaz iñoiz gorrotatu zure antzekoak; ezpirituak, ukatzaileago ta ardura gitxiago dakarste. Gizonaren jarduna errez sortu oi da, atsenden oso baten lillurari emotea ez luzatzearren. Auxegaitik, akulatu dagian lagun bat emon gura dausat, eta, Deabrua izanda be, zerbait egitera bultz-eragin dagian. Zuok, barniz, jainkoen seme utsok, aintza zagiezala maitasunaren lokarri bigunetan eta zuen pentsamendu tinko ta iraunkorrak itxura emon dagioela oratu-eziñeko eran dantza-dantzari doazan gogai-agerpenai.

MEFISTOFELE (*bakarrik*).—Aundia da benetan neure antxiñako Aita ikusteaz artu oi dodan atsegiña; orixegaitik ez dot Onekiko ar-emonik apurtu gura. Jaun ain aundia, orren samurkiro, Deabruarekin itz-mitz jardunean!

LENENGO ZATIA

GABAZ

*Gela gotikua, estu ta goi-sapaiduna; Faust dago bertan, idaz-
nrai aurrean jarrita.*

FnUsT.—Ai! , Jakintza, Zuzenbide, Osalaritza ta zu be bai, Teoloji, dana ikasia dot gero ta griña geiagotan. Emen nagokizu orain, zoro gaixo au, len bestean jakitun! Egiaz Maixu, Doktor diñoste, ta an-emen, edonun, neure naitara erabil neikezan ikasleak ditut konta-ezin ala; baiña egia, baita, ez dogula ezer jakiterik jaristen! Onek urratzen daust biotza osoro. Alan be, or-zear ezagun doguzan txatxo, maixu, irakasle, eleizgizon eta lekaideak baiño geiago dakidalakoan nago; ez dot ezeren kezkarik, ez zalantzirik; bestek izutzen ditun ezek ez nau izutzen, ez sulezak ez txerrenak, eta ain zuzen onexek aizatzen daust itxaro ta poztasun guttia; ez dak't ezer onik zuzena autortzeko, ezin dauset gizonai ezer erakutsi obeagoak izan daitezcan. Beste aldetik, ez daukat ondasunik, dirurik, dedurik ez jauntasunik munduan; edu onetan txakurrik be ez litzateke bizi izango; auxegaitik aztikeriari emona nab'l. A! Ezkutu batzuk beiñik-bein gogo-indarrez eta itzen oldez iragarriak bai litzak'daz! Odol-izerditan ez dakidana esaten bear-tuta ez ba'nengoke geiago! Munduak errai-barne daukana ezagutu al ba'nengi, sakondu bai orren erne-miñaren muiña, ez nintzake oraiñarte lez zentzun bako itz utsak saltzen ibilliko.

O zu, gau-erregiñ!, zuzen arren zeure azkenaldiko soa ta begira nire atsekabea, gauerdi ostean ainbat bidar lorik-eza egin dautzut-eta idaz-mai onetan: orduan, ene adiskide zurbil, liburu ta paper gaiñean argi egiten zeustan! A! Oraintxe alba-neu zure argizirzarta gozo-leunetan, mendigain erpiñetara igonik, trokarro sa-

konetan ezpirituakaz aizatu, zelaitan dantzatu zure illun-orduetan, eta, jakin-min oroz azke, zeure goiz-iruntz ezean gazte-zur ureztatu!

Noiz arte, ai ene! , igartu bear nik morroillope ontan? Illunpeko orma zulo baltz onetan, zerutiko argi ezitia ozt-oztan bertora bide dagiala! Pipiak jandako liburu meta au dakust soilki urrin-ertz bezela, eta goi-sapairaino eltzen paper-txorta autsez be-teak be bai. Leiarrak, kutxak, zedenak iruntsitako tresnak, neure aurretikoen seniparte bakarra nunbait, ez dot besterik neure biran ikusten. Auxe dozu mundua; oni esaten yako mundua!

Eta itaunez zagoz oindiño zergaitik biotza taupaka daukazun zeure kolkoan? Zergaitik, oiñaze ezin-esan batek geldi-azten dautzun bizi-zirkin oro? Zergaitik bizi zarean kirats eta zeden artean? Jainkoak gizona izadi bizian jarri eban; baiña, orren orde, pizti-azurrak eta giza-iltxankak ez dozu besterik ingurumari.

Igesari emonik, zoaz urriñeko eskualdeetara! *Nostradamus'en* esku artezak idatzita liburu zuur ori ez ete yatzu, bear bada, gidari ziurra? Ortxe ikasiko dozuz izarren goraberak, eta Izadiak eskolatu nai baldin ba'zengiz, arimearen kemen osoa zabalazten sumatuko zeunke zeure barnean, baita ezpiritu batek besteari zelan itz dagion jakin be. Orain alper-alperrik barrendu nai izan, zentzun igarrez, jainkozko ezaugarriak. Zuok, neure biran egaka zabilzen ezpirituok, erantzun eidazue. zuenganaiño beintzat nire abotsa el ba'dadi!

Liburua edegi ta Makrokosmus ezaugarria agertzen yako.

Ezaugarri onen aurrean, a! , len be barruko indarrak oso dararazten yatazan; eta orain bardin, nire kirio ta zanak indartsuago darabiltzan bizi gazte, done baten poz-zoria nabari dot neure kautan! Goitiko izaki bat izan ete zan, bear bada, nire barru nastua baretu, nire biotz doakabea pozez bete ta inguru dodan Izadiaren indar guztiak agertazi dausteezan ezaugarriok marratu ebazana? Neu be, Jainko-ñirñir ete naz gero? Ain argi yat dana! Zirriborro uts onein bidez izadi eragille osoa daukat arima aurrean. Gaur egundo lenengoz dazaut jakitunaren itzon mamiña: «Ezpirituen mundua ez dago itxirik, eure zentzuna daukat itxita, eure biotza illik! Jagi adi, ikasle, ta oa luza bagarik eure buztiñezko soiña goiz-argitan gantzutzero! »

Ikurra begirutzen dau.

Danak zirkin dagi osotasun billa, batak besteari bultz-egin eta bizia ezarten. Gora ta beera dabilta zerutar indarrak, eskuz esku urrezko godeletak, eta zelan, euren egoz eroanak, onespena arnasten dan lekutik, zeru-zear etengabe egaz, eres-ots zoli ozenez bete oi dabe gaudia!

Au ikus-ispillu! Baiña, a! , ikuskari dozu bakarrik! Nun nik oratuko Izadi azken bage orri? Eta zuok, bularrok nun? Zuok, bizitz orenen sorburu emokor, zuokandi bait dagoz dingilizka zerrua ta lurra, zuokana biurtzen da bular naigabetua; zuok ibaika dariozue ura, mundua ekarkor egiñik, eta ni, elbitz igar, itzaliz noa onura bage?

Orria biurtzen dau zabarki, ta lur-ezpirituaren ikurra dakus.

Beste era batean bai daragistala ikur onek! Ur zaukadaz zu, antza, Lurraren ezpiritu ori; nire indarrak bada geiturik doaz, eta ardao barriaren zoroaldia lez sumatu daroat barruan. Orain ez yat palta kemenik, mundura urtenaz, lurreko ezbear eta pozai arpegi egiteko, ekatxakaz burrukatu ta ontzi-ondatze baten izu-ikara ta laborriak begi-kliskatze barik ikusteko. Gaiña laiñotzen yat, illargiak gorde dau bere argia, kruselua da itzali! Ke-sunda! Zearka dabildez adimenean eta loki biran dirbai bizkorrak. Eta barnenetik gorantz datorkit latz-ikara dardaratzen nauana! Oar naz, zu zara, Gogo deitu ori, nire biran dardaratzen zareana. Ager zakidaz! A! , biotza bai urratzen yatala! Sentipen barrien atzean doa nire izate osoa! Nire biotza osorik zurera igaroz dot somatzen! Ager, ager zaitetz, bizia gal bear ba'dot be!

Liburua artu ta ezpirituaren ikurra oguzten dau itzalkiro. Sugar gorri batek dizdiz dagi beingoan, eta Ezpiritua agertzen da sugarrean.

EzPIRITUA.—Nor dot deiez?

FAUST (*burua atzera biurtuz*).—Ikuskizun gorri!

EZPIRITUA.—Ots egin daustazu indar aundiz; neure biratik urteten beartu nozu, ta oraín...

FAUST.—Ai! , ezin zaitut eroan!

EzPIRITUA.—Dei egin daustazu, ni ikusi naita, nire abotsa entzun eta nire arpegia beatu; zure gogozko dei zoliari erantzunik, emen naukazu orain! Eta zure gizadiz-goitiko izatasunaz latz-ikara

kupigarri bat jabetzen da! Nun *dago*, ba, zure arimearen ulua? Nun mundu bat sortu oi eban bularra, bere gogora zuzenazi ta ernerazten ebana, eta bere pozaldietan ezpirituen maillan jarteraiño arrotu oi zana? Nun zagoz zu, Faust, zeure aotsez nire belarriak zauritu ta zeure indar guztiz niganaiño eldu nai izan zenduna? Zu zara Faust a, zu, neure amasan bildua, bizi-sustrajetaraiño dardar dagizuna, ar bildurti ta oskol txikortua?

FAUsir.—Atzerantz egingo ete dot zugandik, suzko mamu? Neu nozu, bai; neu nozu Faust, zure bardiña.

EZPIRITUA.—Bizitz-olatueta, ekintzen erasoetan, gora ta beera nabil, ara ta ona zabuka; kuma, illobi, itxas azken bakoa, lan aldakorra, bizi ixiotua. Olan lan dagit aldiaren euntegi irardausian, jainkotasunaren soiñeko bizia irazi dagidan.

FAUsT.—Gogo gartsu, mundu zabalaren biran kulunka zabiltzana, zugandik ur-ur ni bai sumatzen!

EzmarrUn.—Sor oi dozun ezpirituairen antza dozu, baiña ez nirerik.

FAUST. (lazturile).—Zure antzik ez ba'dot, norena ete? Jainkotasunaren irudia nazan onek, zure antzik be ez eta dot izango? (*Dei dagie*). O, eriotz! Neure morroia da, buruak emoten daust; ona emen nire zorion guztia urtuta. Izan ete daiteke ikuste orren bikaiña, orduzkanpoko eragole zirtzillagaitik, ondoren barik geratzea?

Wagner dator barrura, etxeko soinekoz ta gau-txanoz jantzia; arda dakar eskuan. Faust aregana biurtzen da urna re txarrez.

WAGNER.—Parka! Zure aldarriak entzun ditut; gerkarren trajediren bat irakurten zenduan, bear bada? Naiko neuke guztiz erri ori ezagutu, gaur egunean onuragarri izan leikit eta. Sarri entzun dot, izlari bati erakutsi legikeola antzezlari batek.

FAUsT.—Askotan jazo oi danez, izlaria antzezlari danean, bai.

WAGNER.—A! Beti bere ikas-gelan sartuta, jai egunetan ezik jentea ikusi bage, ta orduan be urriñetik eta leiar baten ostetik, zelan beregandu leike jente ori, sifiist-erazpenaren bitartez?

FAUsT.—Alperrekoa dozu ortan pentsatzea, egiazko sentipen baten jabe ez ba'zara, entzule guztien biotzak iñarrosi ta zeuganatu bear ditun su-berorik zeure arima barrenetik erne-azten ez ba'dozu. Bakar zaitez zeure barruan batu al dozuna, besteen

oturuntzatic, ots, ondakiñetatik egizu zuk txopleteko ta abazuzi bat, puzka ta puzka nunbait; erne-azo egizu gar bat zeure autspillotik. Onegaz, ume ta tximiñoien arrimena kilikatzea jadetsiko dozu, ori nai baldin ba'zeunke; baiña egundo be ez dozu gizonak zurturik iztea jadetsiko, zure mintzatze ederra biotz-ondotik jalgia ez ba-da.

WAGNER.—Alan eta guzti be, uka-eziña dozu garrantzi aundia emon oi dautsola iztunari eragiñezko txairotasunak; ni, barriz, olako trebetasunetik urrintxo naukazu.

FAUST.—Urteera apal batera jo beti be, eta ez nai izan egundo be euren koskabilloak eten barik oska darabillezan zirtolarien papera egiterik; ezta bear ainbeste azaluseri errazoa ta zentzun ona erakutsi al izateko; gaiñera, esan bear dozuna gora aundikoa ba'da, zertarako joan bear itz-billa? Bai, zure mintzoaldiak, oso dizditsuak, zuk gizasemeen ergelkeriz ondo ornidu arren, legorrak dira orbel artean oiudagian udazkeneko aize belunaren antzera.

WARNER.—Ai, ene Jainko! Luze dozu ertia ta labur gure bizitza. Nik neuretik esan neinkena da, neure erabateko gau-ikastaldietan, sarri goibeldu oi yataz burua ta biotza. Zergaitiak ezagutzera eroango gaituen bideak lortzeko, zenbat zoztor eta eragozpen! . Eta au, diabru gixagaixo bat bidearen erdia ibilli aurretik il daitekela, kontuan artu barik.

FAUST.—Larrutxa dogu, beraz, arimearen egarria betikoz itzali oi dabean uren sorburu sagaratua? Pozaren grazia ez dogu iñoiz be lortuko, zeure biotza bera ortan saiatzen ez dan bitartean.

WAGNER.—AzketS eidazu; baiña atsegin aundia da arimearentzat beti be, joan egunetara barriz itzultzea; jakitunak gure aurretik zelan pentsatu eban, eta guk geure aldetik zelan egin doguzan aurrerakuntza izugarriak ikustea.

FAUST.—A, bai, izarretarañoakoak? Ene kutun, joandako gizaldiak guretzat zazpi zildaiz silaturiko liburu dira; aldien ezpiritua deritxazuena ez da, bere kautan, olako aldiak ñirñirturik dagozan gizaseme aundien ezpiritua besterik. Eta ori be, noizik bein, begiak baztertzera bultzatzen gaitun mixeria ikusteko bakar-bakarrik: sats-pillo bat da, zarkindegia bat, edo-ta geien-geien be, edesti-drama aundi bat, txingote naiz popintxu baten aoran egoki legokezan oiturazko esaera dotorez bete.

WAGNER.—Ba'ña munduak, biotzak eta giza-ezpiritua beti jakin gurako dabe gauza orreitako zerbait!

FAUST.—Bai, jakitea deritxon ori nai dabe. Nor arro ibilli dai-teke umeari egiazko izena emon dautsola-ta? Gauzetatik zerbait jakin eta euren arimak gaiñezkatu ta euren sentipen eta ikusmirak erriari erakusteraiño zoroxka izan diran gizasemeak, gitxi atan be, beti ta nun-nai jazartuak izan dira ta sutan erreta iltera bear-tuak. Baiña, parka eidazu, ene adiskide, berandu da-ta; itxi daigun au beste bitarte baterako.

WAGNER.—Poz-eztitan jarraituko neukean gau-bela au zu lako gizon bategaz zientziari buruz jarduteko. Baiña biar, Pazko le-nengo eguna da-ta, itxaron dodan lez, uste dot, itaun bat edo bi nik zeuri egitea atsegin izango yatzula. Ikasteari emona nabil go-gotsu; eta dagoneko asko dakidala egia dan arren, alan be dana jakitera eldu gura dot.

FAUST. (bakarrik).—Itxarokizunak ez dau iñoiz be bertanbera izten gauza suster bakoetan aspertu barik ari dan ezpiritua, altxo-rrak aurkitzeko esku gutartsuz irauli ta koko bat idoro ezkeru po-zik geratzen dan orreitakoa.

Zelan izan daiteke, gizon onen abotsak, ezpirituzko moltzo ba-tek inguratu nauan leku onetan durundu egitea? Baiña ez dautso; eskertzen zaitut oraingoz, lurreko semeen artean errukarriena ba'zara be, zentzunak naasten asita neukan etsipenetik askatu nozu-ta. A! Agerkizuna orren erraldoi bait zan, aren alboan naitaez ketotzat jo bear neure burua.

Ni, Jainkoaren irudia, dagoneko egi betikorraren ispillua esku-ratu nebala uste neban au! Nik, kerubiñak baizen garai etsita, onein kemena, itxaropenez ase, izadiko zain-gorri guztiak zear borbor egin nairik, eta, sortzera joaz, jainkoei dagokien bizitzaz gozatzen asia nintzan onek, garesti be garesti ordaindu bearko dot orain neure asko-eritxi puzkorra! Itz bakar bat naiko izan da ni eratxita izteko.

Eziña izango yat zurekin bardintzea; zu neuretzeko keme-na izan ba'dot be, ez dot orraitiño zu neuri itsatsita iraun-azoteko adorerik izan. Une pozgarri atan ain txikitat neukan neure burua ta ain aundizat erabat...! Zergaitik ain gogorki murgil ninduzun barru gizadiaren zalantz-arteetan? Nok eskolatuko ete nau orain?

Zelan jakin i.tzuri bear dodana? Dardarazten nauan erasoari kuku egin bearko ete? Ai! Gure egintzak, ezta gure sentipenak be, ez dabe geldi-erazten gure bizitzearen ibillia.

Gauzkaia aurka dago eten barik ezpirituak sortu oi dauan gu-renetarikoz guztiari; mundu onetako zorion pizkat jadetsi ba'da-gigu, ames eta ames zorotzat jo daroagu orduan orrek baiño geia-go balio dauana; eta leen bizia emoskuen sentipen bikain guztiak beti-betiko il oi dira lurreko aize-burrumba ta mari-txikar artean.

Irudimenak lenengoz betikotasuneraiño jagi uste dau egada ausartean; baiña naikoa dau uts-arte mugatu bat bere itxaropen porrot egiñai leku emon al izateko. Orduan esker txarra laster jabetu oi da gure biotzaz, baita bertan nagusi ziran atsegiña ta baretasuna oso-osorik ondatuaz, barne-oiñaze ezkutuak biztu-azo be. Egunero itxura barriz agertzen da oiñazea: gaur sukaldea naiz errege-jauregia, biar emakume bat, aur bat, sua, ura, sastakaia naiz edena darabiltz orretan. Kalterik egin daiketzuaren aurrean dardaraz zagoze, oi gizonok! , eta oindiño daukazuenagaitik, galdua balitzan, negar dagizue atertu barik.

Ez, ez nago jainkoen antzeko nazalakoa; ez, geiegi dakust neure mixeri gorria; aar ezerezaren antza dot, autsetik bizi dan kokoarena bakar-bakarrik, bidez doanaren oiñak zapaldu ta lurperatzen dauanarena nunbait.

Auts ez al da orma garai orrek, an goian, zutoin askoren gaiñ jarria; erakusten daustan guztia, ta ni bizi nazan zedenak jandako mundu onetan loturik naukan milla zirtzilkerizko naste-borraste guzti au? Millako idazti-ale orreik arakatzen joango ete naz, au irakurteko bear bada: gizonak nun-nai ta beti euren zorion-billa oiñazetu diran arren, Izadiko une batzuetan bakar-bakarrik izan izango zala gizaseme zorionsuren bat? Eta zuk, gar-azur uts orrek, niri nausa egin naiean zakustan orrek, orregaz adierazo gura daustazu bear bada, leen barruan zeunkan ezpiritua, neurea lez, saiatu zala argia billatzen, eta porrot egin ebala, saporez, illunpetan beti bere egi-egarriz? Zuok be bai, ene tresnok, zuen txirrinka, agin eta txiboakaz niri trankart egiten zagozela dirudizue; ateraiño eldua nintzan eta zuok giltza eskuratu bear zeusten. Ezkutuz beterik egunez, Izadiak ez dautso iñori izten bere estalgiak tolestu dagiozan; eta ez dago giza-indarrik, arek ezpirituari ostendu nai

dautsonetik ezer aren erraietatik aterateko beste danik. Zugaz zer egin ez dakidan tresna ta etxariak, zuok zaartuok, emen zagoze beiñola nire aitaren zerbitzari izan zintzazelako; eta zu, txirrintol zaar, baltzituta zagoz baita, ikas-mai au neure lanparargiaren ke-lai-ñoz baltz dagonez. A! Obe litzakidan neure ondasun exkaxak pozari emonda eralgi izan ba'neuz, eta ez emen lurra jo daukadan apurraren pixupean. Zeure gurasoengandik artutako ondasunak, zeuretzat izatea nai ba'dozuz, barriro irabazi bear dituzu. Bearrez doguna beti izan oi yaku zama astun; onurakor bakar-bakarrik une jakin batean zer-edo-zertarako baliotsu yakuna dozu. Baiña, zergaitik toki onetara zorroztu oi ditut neure begiak beti? Nundiko erakarpena dau ontziko orrek nire begientzat? Zergaitik, bera ikusiaz bakarrik, oian itzaltsuaren erdian bere izpi argiz losíngatzen gaitun illargiaren antzera, argitasun ongillez ni asetzen ete?

Agur, ene pototxin, begirunez urreratzen naiatzu; zugan go-raipatzen dot eta aintzat artzen gizonen ezpiritua, ta jakituria. Lo gozora daroen guriñen mamin, bere baitan daukaz baita eriotza lekarkeen indar mee guztiak be; on zakioz zu zaukazanari, Zu begi-aurrean zaitudalarik, nire oiñazea arindu oi da; zu eskuetan arturik, nire atsekabea gitxitzen, eta apurka lotaratzen yat nire ezpirituaren zalaparta; itxaso neurtu eziñera eroana, oartzen naz; ur nareen ispilluak dizdiz dagit oínpean eta egun barri bat daukat ondartzaz ez-ezagunetaruntz, sakaka.

Suzko burdia neugana dator olatu bizi gaiñ; bertara igongo naz, eguratseko borobillak igaroz ibilteko, ta ekintza utsaren eskualdetara zuzenduko nauan bide barria edegi dagidan. Baiña, zelan nik uste izan merezi daikedala bizitza orren bikaiña, ta are geíago, aar bat besterik oindiño ez nazala, olako zoraldi ain jainkozkoak? Ez dautso, naiko izango dot ori lortzeko bizitzearen eguzki leunari erabagiz bizkarra emotea; biotz on, beraz, ta eratsi lurrera atea, dardarazi barik iñortxo be euretatik sarten ez baita. Giza-duintasunak, jainkoen euren anditasunaren urrean be, ez dauala kuku egiten egintzakaz egiztatzeko garaia eldua da; irudimena bere oiñaze bere-beretan gaitzesten dan leza orren aurrean dardarazten ez dan unea, su-lezako garrak bait dautsoe sarrera esitzen, antza danez. Ordua da biotz barerik aurrera egiteko, ezere-zera jo bear-ta be.

Leiar gardenezko edontzi, luzarorik aaztua, zu, beiñola gure aurretikoen oturuntzetan dizdiz egona, ta eskuz esku ibillirik be' koki guztiak izur-gabetu ta teink jarri oi zenduzana! Urten orain zeure zisku zaaretik; zure irudi antzez egiñak bertsoan adierazo ta zurrutada baten berori ustu, orixe zan edalearen arazoa. Zu ikusirik, neure gaztetako ainbat gau ederren gomuta datorkit oroi-menera, barriztuta. Oraingoan ezingo zaitut neure lagunetatik iñori be eskiñi, ezta ez dot neure asmamena zorrozten alegiñik egingo zu orrela edertzen jakin eban ertilaria goratzen be. Ezbat ezbi orditu daroan edaria dauko barruan, nik ixurketa goren lez egun-sentiari eskintzen dautsodana.

(Ezpanetara daroa txola. Kanpai-durunduak eta abesbatz-eresiak).

AINGERUEN ABESBATZA.—BiZtu da Kristo! Bete-beteko bake ta zoriona emen bean, zoriotxar gaizto ta odoletiko gaitz zitalen lokarri artean ai-eneka dagoan gizaseme ilkorrari.

FAUST.—Zalapart aundia ziñez! Garbiak bai edontzia nire ezpanetatik eratxiazten daben abotsak! Bear bada, kanpaiak, Pazko eguneko ordua iragarriko dozue zeuen dinbi-danba ozenean? Soiñutzen diarduzue, apika, abesbatz goitarrok, antxiña baten itun barri baten ezaugarri lez, aingeruen aboz illobiaren gauan zizpurutu ziran poz-abestiak?

EMAKUMEEN ABESBATZA.—Guk, Aren jarraille zintzuok, usain gozoz igurtzi izan genduan Aren gorputz bikaiña; bere illobian etzan-azo geuntson, aren soin-atal bllosak oial mee ta apaingarriz estalduaz. Baiña, ai gureak! Kristo ez da agiri, ta ez dogu iñun aurkitzen.

AINGERUEN ABESBATZA.—Berbiztu da Kristo! Zorioneko ari-ma maitemindua, gurutze latz, neketsu ta osasungarria eroapenez jasan dauana!

FAUST.—Zerutar kantu, zoli ta gozoak, zergaitik autsean nire billa? Zuzen zakioze, obeki, arei oraindik alaitu daikezuezanai; baidantzut dakarstazuen barri ona, baiña federik ez dot bera siñistuteko, ta miraria dozue siñismenaren seme laztana. Ezin naz igon barri ain zoragarriak durundu dagian borobil orreitaraiño; eta, alan be, ni umezaroan obauba gozoz lotarazi ninduen abots ezti orreik, bizitzara nakarre ostera be. Lenago, igandeko barne-ixillaldi

gurenean, jainko-maitasunaren mosua jatsi oi zan nire gaiñera; kanpaien doñu atsegintsuak aintzin-susrho leunez bete oi ninduen, eta otoitza gozamen gartsu zan dretzat; barne-su garbi baizen ulertezin batek nindaroan oian, zelai ta landetara, ta emen, maiko eztizko ase-betea, mundu barri baten esnatzez oar oi nintzan. Kanpai ori zan, baita, gaztetako jolas pozkorrak eta udabarriko jaialdi errubageak iragarten ebazana; gomutagai atsegingarri onek biztu-azoten ditu nire biotzean umetako sentipenak eta orain geldí-azo nroa azken-muga izugarria igaroteko nengoan une onetan. Zeruko santuak, entzun-azo egidazue beste bein zeuon eresi deuna! Jaríoka doakidaz malkoak; lurak bigarrenez azpiratu nau!

IKASLEEN ABESBATZA.—Opagai orbanbagea bere illobi barre-netik gorantza jagi da gaurgoitik, Zerurantza, bai, aintzaz beterik. Dirdai-bitsetan gorantza doa zeruen altzora, egurats neurri bagea zearkatuz poz aunditan. Eta gu? A! Geure kezka biurriagaitik, mixer ta nekez beteriko mundu onetan geratzen gata oindiñokarren! Maixu, Zu ba-zoaz zorionaren egonleku aintzatsura, eta bakarrik izten gaituzu lautada elkor onetan. Zure zona bai dala opagarri!

AINGERUEN ABESBATZA.—Erioren galtzarretik berbiztu da Kristo. Ausi, ilkorrok, pozaren pozez zeuon kateiak. Arima gartsu, zabal ta samurok, egintzaz jaso, zeuen anaïen alde jasanik euron negar-angpuluak txukatu oi dozuezanok, ba-dator Jauna. Ba-dator, jadanik ba-dator zuentzat; eldua da gaur-gero!

URIKO ATE AURREAN

Landara doaz ainbat eratako iperlokak

LANGILLE GAZTE BATZUK—Zergaitik goaz ortik?

BESTE BATZUK.—Eiztarien etxera goaz.

LENENGOA.—Gu, barriz, errotara goaz.

LANGILLE GAZTE BAT.—Nire onuz, alan be, zoaze ibairantza.

BESTE BAT.—Alderdi ortatik landea ez da bape atsegingarri.

BIAK BATERA.—Zuk zer egiten?

IRUGARRENA.—BeSteakaz noa.

LAUGARRENA.—ZatOze Burgdorf'era; antxe aurkituko dozuez,

ain zuzen be, neskatillarik liraiñenak, garagardorik onena, ta jente onenakin artu-emonean, asiko zarie.

BOSTGARRENA.—Atsegin yat! Irugarren jipoi berotze bat nai dozu, bear bada? Nik neuk beintzat ez dot neure burua arrisku ortan ipiñiko; toki a gogora ekarriaz bakarrik, dardarka jarten naz bildurraren bildurrez.

NESKAME BAT.—EZ, ez! Ni urira noia ostera be.

BESTE BATzUK.Ziurrik asko, ezki arein azpian aurkituko dogu.

LENENGOA.—Niretzat ez da ori poz-iturri; beingoan etorriko da zuen ondoan jartera; eta, beti lez, zeugaz bakarrik dantzatuko da bedartzan. Zure atsegiñak zer lekarskide niri?

BESTE BAT.—Ia ziur, a ez yatzu bakarrik egongo; berak esan daust beragaz joango zala ule kizkurdu gazte a.

IKASLE BAT.—Arraiea! Orra, zelako jasez dabilzan gazte perxenta orreik! Goazan, mutillak, neskatil orrei lagun egitera. Garagardo ona, erregarri gozoa ta ondo apaindutako neskatxa bat, egi-egiaz, ez dakit zer geiago eskatu; onegaz nire irrisak ba-dabe euren asean.

NESKATX URITARRA.—Begira gazte orreik! Lotsagarria benetan! Edozeiñen atzetik doaz, obeto lagunduta ibilli daitekezanak, olakoei jarraika!

BIGARREN IKASLEAK LENENGOARI.—EZ ibil azkarregi! ; gure atzetik datoz bi itxura ederrekoak. Bata neure auzokoa da, galdu-irabazi bakoa ez yatan, izan be. Astiro dabilzan arren, laster elduko dira gugana.

LENENGOA.—EZ, txo! Ez naz bat bere sino-mino zale. Gabil-tzan azkar, eiza begitfk galdu bage. Larunbatez itsuskia darabilen eskua da onena igandez laztantzeko.

GIzoN URITARRA.—Nik neuretik esan daiketuet ez nazala auza-pezaren aldeko; orain aginpidea daukala, eroan eziñago egingo yaku oraindik. Eta zer egiten dau uria obetuteko? Ez al doa gero ta txartoago? Dana da leen baiño esaneagoak izan eta egundo baiño geiago ordaintzea.

EEKALE BAT (*abestuz*).—*Jaun* onak, andra ederrak, ain apai-ñak, matraillak loran! , zuzendu niri zeuon begiak, ikus nire la-zeri ta kale gogorra, ta erruki zakidaze. Ez eizue laket izan ni aika

egoterik, ez zuoi alperrik eskatzerik. Esku zabalez emon oi dauana, Jainkoak bedeinkatzen. Egizue egun, au guztiontzat pozgarri dan egun au, niretzat izan dedilla labore ugarizkoa!

BESTE URITAR BAT.—Igande ta jaietan gudak eta erasoak aizatzea beste ez yat ezertxo atsegin; an urrin, Tukia'n, erriak alkarri oratu ta narrua kentzen dabilzan bitartean, bat leioan dago naretsu, bere edontzia utsitu ta ibaira begira ainbat itxas-ontzi daukaz begipean, kolore guztitariko ikurriñez ara ta ona dabilzanak. Gabaz, gero, etxera doa bat pozik, bakea ta bakezko aldi zoriontsuak bedeinkatuz.

IRUGARREN BAT.—Eritxi bardiñekoa nozu ni be, auzokide maitete; ez daust niri ardurarik bestek burua apurtu ta dana deabruak eroanagaitik, nere etxeak beti lez ondo jarraitzekotan.

ATSO BATEK ANDEREÑO BATZUI.—Bai jantzi poxpoliñak! Miresgarri yat oso gaztedi eder ori! Zuek ikustean, nori ez burutik eragin? Baiña, siñist, arren: etzaitzeze ain arroputz izan; tira, orre-la bai; saiatuko naiatzue nai dozuen guztia zuoi eskuratzen.

LENENGO ANDEREIÑO.—ErdU, Agate; ez gagiezala ikus olako sorgiñagaz autuan. Ander Deunaren gabea, alan be, berak ikusi-azo eustan senargai izango dodan gaztea.

BESTE BAT.—Neuri be bardin kristal baten; gudari jantzita, beste buru-bero batzukaz egoan. Baiña begiak neure birara zorroturik, alperrik nabil an eta emen aren billa; ez yat iñoiz be begi aurrean jarten.

GUDARIAK.—Orma sendoz gordetako erriak, begitu zuri maltzurdun emakuma arroak, dana irabaziko dogu! Arriskutsu baldin ba'da egitekoa, joria baita saritakoa! Ots begie turutak, aintzarako edo-ta eriorako. Oi, turut zoliak! A, zuon zalapara! Au bizi, au zori! Emakume ta erri, naitaez buruak makur-azi bearako. Arriskutsu baldin ba'da egitekoa, joria baita saritakoa! Eta gudariak ortan dabilza.

Faust eta Wagner aurrera

FAUST.—Ona emen ibaia, eta, udabarriaren irripar gozo bizi-korrari esker, euren burdiñezko presontegia apurtu daben amil-degi ta uriolak; itxaroa musker dager aranean; negu zaartua, urrats-labur bere gorantz doan aulerian, mendi-zulo latzenetara baztertu da, ta bere igesean andik bialtzen dauskuz azkenengo .leiak,

txorimalo ezindua, beren zidarrezko litsez lautada ezea ederrago-
tzeko baiño ez diranak. Eguzkiari, barriz, atsegin yako aren lana
urtzea, ta beingoan orban zuri oro eskutatzen yatzu; jarduna ta
itxurea barriz erneten dira nun-nai ta Izadia asten da bere kolore
barrizko mantu aberatsa erakusten. Zelairik ez da agiri oindiño
loraz jantzita; baña ez dautso, arein ordez landak bete dagiezan
laguntalde apaindu ori eukiko dau loratzat. Zuzendu begiak erpin
oneitatik urira, ta ikusiko dozue zelan estutzen dan jente pillo
aundia ate illunaren ondoan, nasai-nasai eguzkia artu nairik. Gaur
Jaunaren Berbizkundea ospatu nai dau mundu guztiak, eta gizonak
eurak be, esan daiteke, euren eguneroko kezka ta arazoan pixuz
lurperatuta dagoan egoitz goibeleatik berbiztu yakuzala; azke,
azkenik be, zapaltzen dabezan sapaieantik, euren kale medar lupe-
tzez bateak zearkatu dabez, ordu batzuk emon dabez euren eleiz-
barruetan baturik, eta or orain eguzkia artzeko ta landako atsegin
erruge ta laiño batzuei ari emoteko gertu. Begira, bizkor be bizkor
artzen dauz jenteak zelaiak eta lorategiak; begira, zein arin zearka-
tzen daben ibaia ontziño liraiñak, eta zein azkar doan, jentez be-
tea, ur-ertzetik urrintzen dan txalupatxoa! Mendiko bidez-
dorrik urriñenak be mataba jantzien margo nabarrak erakusten
dabez; emendixek dantzut dagoneko erriaren oiua ta bizi-poza, an
dago baserritarren benetako atsegintokia; aundi ta txiki, zapart
dagie danak pozaren pozez; emen esan nei gizon nazala, emen
gaiñera ez naz lotsa gizon izaten.

WAGNER.—Zugaz egurasteak, irakasle maite, gauza bi dakaz
batera, dedua ta onua; alan be, ni bakarrik egotekotan, ez nin-
tzateke jente orregaz nastauko, baserritarkeri guztia iguingarri yat-
eta; ezin dodaz irunsi orrein uio, garraxi ta arrantzak, ezin ditut
ikusiri orrein bola-jokuak, ezta orrein musika iskanbillatsua entzun
be. Orro ta intziri dagie suak artuta lez, eta oni esan oi dautsoe
josta ta kanta.

*Baserritarrak ezkipearan
dantza ta kanta*

Jakez, txigolaz ta lorez
jairako apain, artzaiñak
esku artu nai dau dantzan.
Ezkipea jentez dago,
dantza ta dantza guztiak.
Gora! Gora!
Poza! Gora, biotz!

Biziki dabil moltzoa,
ezker, eskuma azkartxo,
ta gona-tolozak egan.
Gorri dagoz, dira bero,
besoz beso alkar joka.
Gora! Gora!
Poza! Gora, biotz!
Eta ipur-txuntxur ta ukondo.

Dantzari dala bera be,
irra-zirimol estuan,
neskatxa jo dau ukondo;
neskatx nasaiaik, itzuliz,
diño: «Zer, ba, ni naiatzu! »
Gora! Gora!
Poza! Gora, biotz!
«Ez izan ain lotsabako! »

«Ez eizu aurreregi jo,
ezkontzaz zin-egin arren
bete oi ez dauanak antzo! »
Artzaiñak, baiña, neskata
ezki azpira daro:
Gora! Gora!
Poza! Gora, biotz!
Garrazi ta zelai-mako.

BASERRITAR ZAR BAT.—Eskertzekoa da zuk, irakasle jauna, gure jolasolgetan ez gitxi estea ta, orren jakintsua zarean arren, erri zearen julu-ala ta iskanbilla onetan esku artzea. Ar, bada, pitxer au, daukagunik onena, edari ozkirriz betea! Goi jasoten dot zeure osasunerako, eta beronek ezpei soilki zeure egarría arindu, baita beroni darion tanga bakotxa zuretzat bizi-egun bat geiago izan dadin be.

FAUsT.—Pozik artzen dautzut zeure edari osasungarria, eta, ordaiñez, guztioi opa dautzuet osasuna ta poza.

Erria euron birao alkartzen da

BASERRITAR ZARRA.—Izan be, ondo egin dozu gaur gure jai onetan esku artuaz, egun goibeletan be ainbat aldiz ikertu gaituzun ezker; emen jostari dabilzanetatik bat baiño geiago askatu eban zure aitak sukarr bizitik, izurriteari azkena emon yakonean. Eta zu be, gazte orduan, gaixo guztiak ikustera joan oi ziñan, gure baserriak ia eremu itxi ebazan izugarrizko gaixoardi aretan, arris-

ku aunditan egon arren, etziñan egundo be ikaraz atzeratu. Zurretzat a egi-egiaz, saio-aldi ta azaiera latzen aroa izan zan; baiña Salbatzailleak goi-goitik gure emen beeko salbagillea zaintzen eban.

DANAK.—Gora gizaseme bulartsua! Urte luzez, oindiño, lagun gagizala!

FAUST.—Jar zaiteze belauniko goiko Aren aurrean; Aretxek bakarrik urgazten gaitu, Aretxek bakarrik!

Wagner lagun, aurrera dator

Wagner.—Zurea bai poz aundia, o gizon guren, jenteak olan omenduta zeure burua ikusiz! A, zorionsu benetan ditun doiaia-kaitik olako obariak aztren dituna! Aitak bere semea dakartzu, itaun dagi bakotxak, estutzen zaitue azkar, soiñua eteten da, dantzea geratzen. Ba-zatoz zu, ta danak moltzotzen dira, ziskuak gora doiaz, eta doi-doi belaun-makur jarten yatzuz Gure Jaunaren aurrean lez.

FAUST.—Goazen arri artaraiño, ta an artuko dogu atsedean pizkat geure ibillaldi ostean, Zenbat bider, bakarrik nenbillela, jarri izan nazan bertan, oldozkor, otofítez eta barauz oiñazetua. Itxaroz jori ta fedez sendo, uste neban negarrez, zizpuruz ta eskeragiñez lortuko nebala Goi-goikoak gu izurri bildurgarri aretatik ateratea. Orixegaitik jentearen zaratok orain ixeta lez ots-dagiste. A, irakur al ba'zendu nire izate-barnean, laster ikusiko zeunke ez dabela merezi ez aitak ez semeak olako aintza ta osperik! Gizon on bat zan nire aita, baiña illuna, jakintsua izanik be, bere gisako lan apetatsuz uste eban Izadia ta beronen ezkutu gurenak aztertu ta argitzea; orrela, bere aldekidez inguraturik, sukalde keztu baten sartu ta bertan, konta ezin-ala sendarauz, aurkako zeren ixurz aldatzea lortu oi eban. Leoi gorri bat, limurtzaille ausarta, artu ta zitori bategaz alkartzen eban ur epeletan, eta gero naste ori surtan ipiñirik, jario-ontzi batetik bestera aldatu oi euskun. Orduan, erregin gaztea agertzen zan ontzian, kolore ñabarretan; osakaia zan au; gaixoai emoten yaken, eta oneik il egiten ziran, iñok be itandu barik nor zan euren osasun-arduraduna. Orrela, geure naastekadura deabruzkoz, izurriak benak baiño be eriotza geiago egin genduzan guk emengo ibar eta mendietan. Neuk be millaka jenteri aurrera eroan dautset erioga-

rri yaken pozoi zitala, eta bizi naz oindiño olako iltzaille ausarten aldeko gorak entzuteko.

WAGNER.—Origaitik izutzen ete? Gizaseme prestuak ez ete dau bete bere egitekoa erakutsi izan yakon antzean alik eta artezen jokatu ondoren? Bere aitari begirunea dautson gazteak pozik artuko ditu aren irakatsiak; eta, aundi egiñik, bere kasa azi-azten ba' dau bere jakite-oiña, aren semeak, jakiña, itu goiagoko batera eldu izan daiteke.

FAUST.—Bai zoriontsu, utseg;te ta errakuntza itxaso onetan oraindik be gainigeri egiteko ustez dauana! Beti bear izaten da batek ez dakiana, ta dakiguna ezin geinke erabili egundo be. Baiña zergaitik goibeldu gomuta illunez ordu onetako zorion atsegingarria? Begira zelan dizdiz dagien, sartuz doan eguzkiaren izpitara, berdetasunaren itxasoan erdi-murgildurrik, txabola areik; eguzkia beerantza doa, ta itzaliz, eguna il-urrenik, baiña beste eskualde batzui bizi barria emon nai dautse. A! , egoz ornidua ba'nintz ni gorantz egiteko ta aren atzetik eten bage egaz egin al izateko! Orduan argitasun betierekoan ikusiko neuke neure oinpean mundu nare ta nasaia; goiak sutarazten ikusiko neukez, ibarrak illuntzen eta zidarrezko errekek urrezko ibaietaruntz makur-azten. Mendi laka-rrak berak be, bere trokarte ta añube sakonakaz, ez leuskio eragozpenik jarriko orduan nire jainkozko egaldiari. Itxasoa dagoneko, bere iz-adar ta kolko ixetuakaz, begi aurrean dot arriturik; jainkoa (eguzkia), alan be, ostendu egin yat; baiña beste gurari barri bat itxartzen niregan, aren argi betikoan murgiltzera bultzdaragistana; aurrez aurre daukat eguna, atzean barriz gaba; ortzia buru gaiñean dot, oinpean ostera olatuak. Ames garai! Eta, alan eta guzti be, eguzki aita suntsituz. Ai, Gorputz-egoak iñoiz be ez eben ain errez jadetsi ezpirituaren egazkadarik. Eta, alan be, ez dago iñor bere sentimentu-egoz zeruraino jasoar ez danik, txorabioak artua, goi urdiñean galdutako larratxoriak bere kantu gartsua buru-gaiñ abestu oi dautson bakotxean, arranoa egoézabalik, ler-ondoak azten diran arkaitz-arte malkartsuetan egaz dagian bakotxean, kurrilloa lautadak eta itxasoak zear bere sorlekura itzultzen ikusten dauan bakotxean.

WAGNER.—Neuk be ba-ditut noizik-bein gogai izugarriak, amezkoak, olako gogomiñak sekula biurritu ez ba'nau be. Oian eta

zelaiak palta ez yakuzan ezkeru, ez nagoke, nik uste, egaztien egoen iñartsiz; niretako ezpirituaren pozkidak liburu batek, orri batek, orrialde batek dakarstazanak dira; liburuak bakar-bakarrik egin leigue eroan-errez, baita atsegingarri be, neguko gau luze bat; orobat, gure soin-atal guztiak bizkor-azo leikezan bizikera dontsua eroaten lagundu be. A! Eta batek, larrutxa edo pergaminu gurgarri bat estalgetzeko gauza danean, bere biotzean nabari oi ditu zeruko poz-atsegin esan-ezin guztiak!

FAUST.—Zu gurari bakarrez oartzen zara. Jainkoari ba'letsa, zuk besterik iñoiz be ez sentitzea! Ai! Arima bi daroadaz neure bularrean, nik banandu nai neukezanak; bata, leratsu ta bizia, munduari erantsia dago gorputz-atalen bitartez; bestea, ostera, burrukan ari da beti ingurumari ditun illunpeak urtu ta betiko bizilekurantz bidea edegi nairik. A, goi-eskualdeetan ezpiritu goitarrrik ba'da lur-zero artean erakan, jatsi bedi, arren, bere urrezko odeietatik eta eroan nagi ni beste bizitza barri ta argitsu baterantz! Urriñeko eskualde areitara ni zuzentzeko lain dan txabux arrigarri bat ba'leuka, nik ez neuke jantzirik bikaiñenakaitik truk-egingo, ezta erege baten soin-gaiñekoagaitik be.

WAGNER.—EZ egiozu dei egin ezpiritu txarren moltzo lar eza-gunari, gizonari etenbako lakioak jarteko eguratseko laiño-lurrunetan batzen danari. Ipar aldetik, gure kaltetan datoz oldarka agin zorrotz eta ezten irukoitzezko miiñak dabezan ezpirituak; Sortaldetik datoz beste batzuk aize kiskalkor baten egoetan, eta gure birikietan triskantzak dagiez. Eguerdialdeko eremuak bialduta, sugarrezko zirimolak metatzen dabez geure buru-gaiñ; Sartaldeak beretik euretariko moltzo ikaragarria egozten, eta onek, lenengotan bizkor-azten ba'gaitu be, gero geure landa ta uztakin, geu be aren janari gara. Txar-senak jota, entzun oi dabez gure oi-deiak, eta gure gurariak be erdizka beintzat bete oi dabez, gu, eurengan uste ona izanik, errezago zakuan sartu al izateko; zeruak bialduta lez yatorkez begi aurrera, ta olantxe, aingeru-abots eztiz guzurra sakatu oi dauskue. Baiña ordua da emendik alde egiteko; illunduz doa osertza, aizea unetik unera ozkirriago yatorku, ta laiñoa be jagiten asia da. Gizonak ez dau illuntzean baizen ondo bere bizilekuak balio dauana jakiten... Baiña, zergaitik zu lo ge-

ratzen? Zer da, illuntzerakoan, zure adipeña gisa ortan limurtzen dauana?

FAUST.—Ikusten al dozu txakur baltz a, erein eta galtzuondo artetik zear dabillena?

WAGNER.—Aspalditik dakust, baiña ez dausat jaramonik egin, gauza bakana ez da-ta.

FAUST.—Begira egiozu ondo; zer deritxazu abere orri?

WAGNER.—Ur-txakurra dala dirudit, bere senak eroanda, kez-katsu bere ugazabaren lorratz billa dabillena.

FAUST.—Ez al dozu ikusten bior, kiribil bat marratzen dabi-llela ta gugandik gero ta urrago dagoala? Eta, oker ez ba'nago, igaroz doan lekuan, suaztarna izten dau.

WAGNER.—Nik ez dot ur-txakur baltz bat besterik ikusten; ba-leiteke zuri ikusmenak kaparra sartzea.

FAUST.—Geure inguruan, me-me, guri oratzeko, aztilakioak jarten dabilhela begitantzen yat.

WAGNER.—Nik ikotika dakust geure inguruan bildurti, bere ugazabaren orde ez-ezagun bi aurkitzen dabezalako.

FAUST.—Estutuz doa oboa: emen daukagu geugandik ur-ur.

WAGNER.—OndO ikusten dozu! Txakurra da, eta ez iratxo. Kurrinkaz dago, ta ezta azartzen gugana urreratzen; eta bere endako guztiak lez, narras dabil, buztenari eragiñik.

FAUST (*txakur rari*).—*Zatoz* gurekin! Erdu ona!

WAGNER.—Enda bakanekoak dira txakur orreik. Geratzen ba'zara, zain daukazu; mintzatzen ba'zaiakoz, aurrera yatortzu; zerbait galdu ba'dagizu, aurkitu arte ez yatzu geratuko, eta uretara be amilduko litzateke zuk ara bota dautsazun zotzaren billa.

FAUST.—Orrela da; ez dot orregan ezpiritu bat dala diñostan ezer ikusten; egin oi dauan guztia eziketari ta bere mueta-bereiz-tasunai zor yakena dozu.

WAGNER.—Txaku rrak , ondo eskolatuta dagoanean, jakintsu baten txera be merezi dau; onek, beraz, merezi izan leike zure on-beratasuna, eta ikasle guztietatik aurrenena izan be bai.

Uriko ate ondora eldu dira

IKASGELA

FAUST (*ur-txakurraz barruan sarturik*).—*Gau* illunetan itxi dodaz zelaia ta ordokia; gaiñeko arimea itxartuz doa ene kautan, bildur gurena dixursten aurre-susmo artean. Zentzun trakatzak lo dagoz, ta ariketa zakar oro areikin batera; eta gizakumeenganako maitasuna, ta baita Jainkoaganakoa be, barriro dira bizkortzen nire barruan.

Txakur, ago geldirik; ez adi ibilli andik ona: zer ago usainka, ate orren zapatan? Berokin ostean etzun adi, ta neure lumardirik onena emongo dauat. Mendi-bidetik gentozala, eure artazi ta biurrakaz jolasgarri izan akiguzan ezkeru, bidezko dok orain nik etxelagun maite-baketsu lez i artzea.

A! , lanparargi txeratsuak gure gela medarra argituaz bat, gure bularrera dator argia, barriro be bere burua aurkitu daroan gure biotzera noski. Errazoia be barriz mintzari asten, itxarokizuna loratzen, eta biziaren ur-bularretan ezkotzen da bat, ernera izan eban sorburu gardenean.

Ez sarramuskarik, txakur! Ire uluak ez yatozak bat, orain nire arimea osorik beteten daben doiñu gozo-gurenakaz. Ez dogu gitxitan ikusten gizona ulertu ezin dabezan gauzak arbuiatzen, baita gogaikarri yakon on-ederraz marmarka be: txakurrak ere, arein antzera, girrintzaka?

A! Argi dakust, nik opa izanda be, nire barruan ezin dauala abirik egin ezetariko pozkario ta onek. Zergaitik legortuko ete ibaia orren arin, gure egarria il barik? Zenbat bider izan dodan etsipen bardiña! Zorigaizto onek, alan be, ba-ditu bere kitugarriak; orrela ikasi oi dogu lurreko gauzen gaiñetik dagoanaren balioa ezagutzen; orrela goaz iragarpenera be, iñun baiño obeto Itun Barrian argitasun guztiz aratzez dizdiz dagiskunera, ain zuzen be. Aren textuak lilluraz ase oi nau; bera irakurri gogo dot, burua damoskedazan sentipenetan oso-osoan murgilduta itxirik; eta textu jatorra neure doitzera kutunera itzuli arte murgildu be.

Ale bat edegi ta irakurten jarten da

Idatzita dago: «Asieran ba-zan Itza! » Emen geratu bearra dot! Nok lagunduko nau aurrerago egiten? Guztiz eziña yat *Itza* orren goitzat jotea; beste era batera itzuli bear dot, ezpirituak

argi ba'dagist beintzat. Idatzita dago: Asieran ba-zan *ezpiritua*. Arretaz begiratu daigun lenengo lerro au, ta ez bedi ariñegi joan gure idazkortza. *Ezpirituak*, zalantza barik, dana egin eta eratzen dau; beraz, onela esan bear leuke: Asieran ba-zan *indarra!* Au idaztean, orraitíño, neure barnean oar naz au ez dala benetako zentzuna diñostanaz. Azkenez, ezpiritua bide datorkit ni lagun-tzera. Argiago dakust orain, ta esku sendoz idazten dot: Asieran ba-zan *egintza!*

Bai, gertu naukazu, txakur, gela au zugaz erdi-bana egiteko, eure ulu, erosta ta marraioak izten da'dozak; neure alboan ezin yoat, ba, luzarago jasan lagun ain gogaikarririk. Biotatik bat alperrik gagoz aterpe onetan. Naiz-ta naigabe aundiz, arrotz-maitasunari zor yakozan eskubideak ausi bearrean aurkitzen naz: zabalik daukazu atea, ta igarobidea be azke. Baiña, zer da dakusta' na? Arrigarria da au! Amesa ete da, ala egia? Zelan puztuz doan nire txakurra! Ozt-oztan jagiten yat, eta lenbiziko itxura be galdua dau. Sunbil bati edegi ete dautsat atea? Ur-zaldi bat dirudi bere suzko begi ta ao izugarriz. Aurrerantzean neure izango zara, Salomon'en giltza uts-eziña da itxura ontako leza-illortuarentzat.

EZPIRITUAK (igaro-bidean).—Geuretariko bat dago or barne atxillo; ezpiritu gartsuok, gera zaiteze or kanpoko aldean, azeri baten antzera, ba, deabru zaar bat jausi da manturioan. Egaz gaitzean aren biran, ta laster askatuko yaku; ez daigun bertan-bera itxi gugaitik beti ainbat egin dauan adiskidea.

FAUST.—Lenengo, abereagana urrera tzeko, Lauren araotik asiko naz: Kiskal dedilla Elubia, narras bebil Lamiña, aiena bedi Silfoa ta zazpi deabru ikus beiz ireltxoak. Gaikiak, euron indarra ta menduak, ezagutzen ez dabezana ez da iñoiz be izpirituen jabe egingo.

Sutan, Elubia, bana zaitez;
murgil zu, Lamiña, ur-olatutan;
gal zu, Silfo, ostagi argitan;
ta zu, Ireldxo, zakit lagun lanean.

Lauretatik, alan be, ez da iñor aberearen barne bizi. Geldi geraturik, ortz-karraska dagist, nik berari kalterik egiteke. Baiña itxoin, jakingo dot nik arao gogoragoakaz i erasoten.

Bear bada, oi lagun! , inpernutik urtendako etoi bat ete az? Orrela ba'dok, zabal eizak begiak eta ikus egik ezaugarri au; lezatar taldeak alperrik gogor egingo leuskio oni.

Asi da puztuten; kizkurtu yakoz zurdak. Izaki gaizto, irakur ete einkeo? Argi ete da'kezu Ulert-eziñaren. irasi-gabearen, zeruak gurtzen eta gaiztakeriak bere zorabioan bota nai izan ebana' ren izena?

Berokiñaren ostean elefante bat lez puztuten da, utsartea betetik: edozeiñek esango louke, orrela puztua ikusirik, odei biurtzen doala. Ez adi sapairaiño igon; oba litzakik curen ogazabaren oiñetan etzuten ba'az. Tira, egik esana mormox barik; ba-dakik, ba, nik ez dodala alperrik zemaitzen, eta i sugar-itxaso baten be kiskaltzeko lain nazala; ez egik itxaron irutan gori dan argiarengan; ez, ez adi egon geldi neure arao guztietatik indartsuena bota arte.

(Laiñoa urtzen da, ta Mefistofele, ikasle-jantzitan, berokin ostetik urten eta Faust'egana aurreratzen).

MEFISTOFELE.—Zergaitik, onenbeste zarata? Zaldunok, zertan izan naikezue morroi?

FAUST.—Ur-txakurrak, ikasle alper egiñik, gauza bitxia dirudi!

MEFISTOFELE.—Ondo izan, ainbat izerdi atera-azo deustan maixu jakintsu ori.

FAUST.—Zelan deritxazu?

MERRSTOFELE.—Utsaren urrengo deritxat itauna, itzak ainbestean nardatzen dabezanarantzat, batez be, ta itxurak ezetsi bearrez, izakien muiña bakarrik ezagutu nai dabenarantzat.

FAUST.—Zuen artean, jaunak, edozein izaki daroan izenaren bitartez erreztu ezagutu daiteke, Belzebu, galtzaille, sabel-zuri ta olako izenak emon oi yatzuez-eta. Alan be, esaidazu: nor zara?

MEFISTOFELE.—Beti txarra nai ta beti ona dagian indar aren zati bat nozu.

FAUST.—Zer esan gura dau asmakizun onek?

MEFISTOFELE.—Dana ukatu oi dauan ezpiritua naz, eta ez zio barik, lurrean dan guztia utsera bear litzateke-ta; oba litzakean, beraz, ezertxo be jaio ez ba'litz. Zuok gaítz, ondamendi ta pekatu izenez ezagutzen dozuen guzti orixe da nire biziaren bitsa.

FAUST.—Zati bat zareala diñozu, eta nik, alan be, osorik zakustaz neure begi aurrean.

MEFISTOFELE.—Egi utsa diñotzut. Gizonak, buru-eritxiz ta zoramenez beteriko mundu txiki onek, uste ba'dau geienik oso bat dala, nik esan neinkizu, asieran osoa zan zatiaren zati bat bes-terik ez nazala; argia eme zan illunpeen zati bat, argi arroa, orain bere Gau amari, leenago onek eukan duin-mailla ta agintzen eban utsarte dala-ta, liskar egiten dautsona; ondoren on barik, alan be, alegiñak alegin egin arren, ba, nun-nai ukatua da, gorpuz-zen zalez txirrist egitea soil-soilki lorturik. Gaitik ernerik, berau edertzen dau, ta alan be gorputz soil bat naikoa bere ibillian gel-diazteko. Augaitik ez dot uste iraupen luzea izango dauanik, eta azkenez gorputzak in okil, goibera egiña geratuko da.

FAUST.—Orain dazaudaz zuk bete oi dozuzan egiteko duiñak; ezin dozu osoa suntsitu ta zatia deuseztu nairik zabilta.

MEFISTOFELE.—Eta, egia esan, ez dot askorik aurreratu neure egitekoan. Ezerezaren aurka dagoana, zerbait ori, mundu gaikora au, ez dot ezereztu al izan oraiñarte, alegiñak alegin egin dodazan arren; uiñak, ekaitzak, lur-ikarak, sutzarrak, ezek be ezin daiteke beretik atera ta lurjo-erazo, oso-osorik beintzat; itxasoa ta lurra atzera be euren erdira biurtu oi dira beti. Azi madarikatu au, orrela, abere ta giza-oiñarri, ez da iñoiz be betiko galtzen. Asko obiratu ditut, eta alan eta guzti be, odol barria dakust beti jiraka. Zoratu eragitekoak dira igaroz doazan gauzak; eguratsean, uretan, lurrean, labur, nun-nai, gero ta altsuago da sor-indarra, ta nun-naitik jalgi oi dira etenbarik izaki barriak. Ez neukean ezer neuretzat eukiko, sugarra ar ez ba'neu neuretzako.

FAUST.—Zuk ba, orrela, ekintza betikoari, indar osasungarri ta sortzailleari aurka jarten dautsazu bere gaizto-izatean alperrik ikoltzen dan deabruaren esku izoztua. Beste zerbaiti oratu bearko dautsak, naspillaren seme bakan orrek!

MEFISTOFELE.—Onetzaz geure urrengo ikustaldian mintzatu-ko gara luze ta nasai. Oraingoz alderatu ete naiteke?

FAUST.—Ez dakit zergaitik itaun dagistazun. Ezagun nozun ezkerro, gogo dozunez ikus naikezu aurrerantzean; emen dozu leioa, atea ta tximinia bera: zeuk aukera.

MEFISTOFELE. Autortuko al dot? Zoztor txiki batek eragoz-ten deust ute&era; zeure ate-zapatan daukazun azti-ezaugarriak.

FAUST.—Orrenbeste kezkatzen ete zaitu bost-lerrokoak? Esai-

dazu, sulezeko seme, orren gogaikarri ba'yatzu, zergaitik sartu zara emen? Daitekena ete da zu lako ezpiritu batek bere burua orrela atzemoten iztea?

MEFISTOFELE. GerO ulertuko dozu, txarto ipiñirik dago-ta: ertza kalerantza zabalik dauala, ikusten dozunez, edegisamar iruditzen yat.

FAUST.—Alanbear zorioneko! Neure giltzapeko izango ete zaitut? Ona, ustekabez, neure xedea jaritsi dot bear bada.

MEFISTOFELE.—Txakurrak ez eban ezer asmau jauzi batez egonlekuan sartu zanean, baiña orain guztiz bestera da gauzea, ta deabrua ezin da etxetik urten.

FAUST.—Baiña, zergaitik etzara urten leiotik?

MEFISTOFELE.—Lege dabe deabru ta sunbillak sartu diran lekutik urtetea. Egintza bi oneitatik bata geure gaiñ dago, baiña bigarrenaren jopu gaituzu.

FAUST.—Inpernuak be orduan bere legeak ditu? Atsegin yat jakitea. Gisa onetan, jaunak, al ete daiteke bildur barik, zuokaz egiune bat izenpetu?

MEFISTOFELE.—Gozamen osoa izan zeinke agintzen yatzunaz, eta zatirik pitiñenik be ez dautzu iñok kenduko; baiña au garrantzi aundikoa da-ta, urrengo ikustaldia orretzaz jardungo. Orain arren bai arren eskatzen dautzut itxi naizula emendik urteten.

FAUST.—Unetxu baten beintzat geldi zaitez, geroaren barri aurretik gaztigatu daistazun,

MEFISTOFELE.—Laga, otoi, gaurkoz joaten; luzatu bage itzuliko naitzu, eta orduan itanduko daustazu nai dozun guztia.

FAUST.—Ez dautzut zelatarterik jarri, ta zeure erruz bakar-bakarrik jausi zara lakioan. Esan oi danez, deabrua daukanak ez dautso iges egiten itxi bear, barrero ez bait dau orren arin esku-ratuko.

MEFISTOFELE.—Orren biziari nai ba'dozu, geratuko naz zuri lagun egiteko; baiña zuri aldia duinkiro igaro-azoten neure antze ta maiña-bide guztiak erabilteketan.

FAUST.—Atsegin aundiz jarten naz zeure eskuetan, zure antzea jolasgarri izatekoz.

MEFISTOFELE.—ZUre adimenak, adiskide maite, onura geiago aterako dau ordu bakar onetatik, urte luzeen bardin igarotik

baiño. Ezpiritu samurrak eta onein inguruko iduri ederrak abes-tuko dautzuen, aztizko ames utsak ez ditzuzu izango. Zure ao-sa-paia ta sudur-zilloak atsegin izango dabe, ta zure biotzak be gai-ñezkaldi leunak izango ditu. Urrun gertaketa alperrikakoak; al-karrekin gagozan ezker, asi zaitez!

EZPIRITUEN TALDEA (*ikusten ez dala*).—Alde zuok, goi-uztai illunok! Eta jatsi bei onaiño oztiña, bere irri-oarrez gure begiak poz-alaiturik. Ur zaiteze, odei goibelak! Izar argiak dizdiz dagie; eguzki leunagoak argitan dira jarri. Zeru-semeak, gogozko ederta-sunez blei-blei, geugana datoz egan eta biran zabuka ibilli ostan, urrinduz doaz barriro; gure gurari ta biotz-samurtasunak arein atzetik doaz egalari. Aren jantzien zapiak klunkatuz lur-zelaiak zaintzen dabez, oianak be, maitaleak euren oldozkUNETAN sor ta lor, bizarren bata-beste emonda dagozan oianak be, zaintzen dabez. Oi, abaro eztiak! Oi, maasti loratuak! Maats-mordo emon-korrek dolaretan yatzuz jausten, eta oiñak gaiñetik zapart; ardao apartsuak, lats txikietan doala, dizdiz dagi arri-bitxi aratz artean; goi-aldeak laga, ta muiño berdeen pozkari artean zingirak egiñaz doa. Eta egaztiak ara doaz atsegiña edaten, eta egazka, egazka, egazka dabiltz eguzkiaren aurrean, uiñen kulunkaz jolas dagien ugarte zirzartekoen biran. Antxe dantzuguz pozezko kantak, eta landetan dakusguz dantzariak, ibarraren gozotasunean, talde alaie-tan sakabanaturik. Batzuk muiño gaiñetara doaz; zingiretan uger dagie beste batzuk; a'dean egan dabilta enparauak. Bízirantza guztiak. Urriñeko zeruetaruntz guztiak, antxe dizdiztzen bait dabe jainkozko ederraren aldeko izarrak.

MEFISTOFELE.—Ederki, lo dago, egurats-semeok. Errez lillu-razi dozue zeuen kantuakaz, eta egiaz eskertzen dautzuet zeuen abestaldia. Ez, etzarie oindiño iñor deabrua atzitu ta lotzeko. Bir-lora eizue zirrara gozoz, murgil eizue eztikeri bitsetan. Niri dago-kidanez, ate onen sorgindura azpiratzeko, arratoi baten ortza bear dot; ez dot uste luzaroan arao egin bearko dodanik; ona emen berton marraskari bat, laster entzungo nauana. Arratoi ta saguen jaunak, euli ta ugarazioenak, tximitx eta zorrienak agintzen dautzu: musturra aterarik, zatoz ona ate onen zapata ozkatzera, orioz igur-tzita ba'lego lez. Ederto; emen zagoz. Nireketz, lanari lotzea baiño ez da palta. Egotzi nauan ertza antxe daukazu egalean; beste ain-

kada bat, eta dana eginda. Orain, Faust, jarrai zuk zeure amesetan; ikusi arte.

FAUST (*itxartuaz*).—*Beste* bein be, bada, nausa egiña izan ete naz? Ezpiritu-moltzoa itzalia ete? Orduan dana amesa izan ete da, nik deabrua ikusi ta txakur batek iges egin eustaneko ames bat?

IKAS - GELA

FAUST.—Deiez ete? Aurrera! Nor datorkit ostera be alamena emoten?

MEFISTOFELE.—NeU nozu.

FAUST.—Aurrera!

MEFISTOFELE.—Irutan esan bear dozu ori.

FAUST.—Aurrera, ba!

MEFISTOFELE.—Ederto! , orrelaxe! Alkar ondo jantziko dogu, nik uste. Emen naukazu zure txakur-amesak aienatzeko gertu, gazte leiñargi lez gorri apaindurik, urrez bir-jositako soingaiñekoz, seda-oial lodizko besanga bizkarrean, oillar-egatsa txanoan eta ez-pata luze zorrotza aldean. Orain, barriz, itz labur onua damotzut; jantzi zaitez zeu be nire antzera, azke ta ezeren zoztor barik, bizia zer dan zeuk zeuretara jakiten neugaz etorri zaitez.

FAUST.—Ai, edozein jantziz apainduta be nik, ez dodaz ori da-la-ta gitxiago sentiduko geure lur-bizitza onen neke-miñak! Zaa-rregi naz jolasketan bakarrik pentsatzeko, ta naiko gazte oraindik olako irristsik ez izateko. Baiña munduak, zer onik eskiñi daiket? «Itxi ori! Gabe zaitez ortaz! » Auxe dozu betiko leloa, belarri guztietan durundu dagiana, ta geure bizitza zear, orduz ordu, zarataska zurbiltzen gaituna. Izuak jota esnatu oi naz goizero, ta pozik ixuriko neukez maiko garratzak, egun barriak, nire naikun gartsuetatik bat bera be asetu barik, bere ibillaldian, poz ooren susmoetaraiño, biziak ditun milla barregarrikeriz, itzali ta neure biotz dardaratuaren sorpenak illor biurtuko daustazala ikustean. Eta gero, gaba datorrenean, neure oian etzun oi naz kezka aundiagotan, bertan zain daukadazala jakiñik, ez atsedena, ames ikaragarriak baiño. Nire altzoan datzan ezpirituak zakar dardarazi leikit arimea ta nire indarrak oro bere naitara erabil; azaletik

alan be, itxura danez, aalgabea da; astun biurtzen daust onek bizia, ta auxegaitik, biziari uko egiñik, eriotza opa dot.

MEFISTOFELE.—Eta, alan be, eriotzea ez da iñoiz ondo arturiko arrotza.

FAUST.—A! Zorionekoa, erioi burruka iskanbillean ereiñotz odoltsuz koroatu daroana, edo-ta dantzaren irra-mozkor ostean, bere maitearen beso artean atxik! A! Nik ikusi eziña, zoritxarrez, Ezpiritu Aundia, ta il ondoren neure zorabio gurenean!

MEFISTOFELE.—Eta, alan be, ba-da bat azkenengo gauetz dako edari baltzizka artzen azartu etzana.

FAUST.—Antza danez, ez dautzu txutxu eragiten zelatarizkoak.

MEFISTOFELE.—EZ naz jakite orokorraren jabe, baiña gauzarik asko dakidaz.

FAUST.—Ederto; kantu ezagun eta atsegingarrik neure estutasun larritik askatu naben ezker, aldiune zorionsuko doiñu ez-tiz neure aurtzaroko sentipenen azken-lorrazak lausengatu dabazan ezker, *gure* arimeak inguru ditun lillurak eta iruzurrak madarikatzen ditut; orobat, igurtzi, itz-zurizkatu ta zorarazten dabaren bildurrez, leza maskal murriz ontara egozten ditulako be, biraotzen ditut! Madarikatua bedi, gaur-gero, ezpirituak bere biran arrotu oi dauan gardi ta eretxipena! Madarikatua *gure* zentzunak ditun zoramena ta itxurea! Madarikatua, *geure* lo-aldietan, ospe ta aintza illezkorrezko sunbilla erakutsi oi dauskun guzurrezko ziria! Madarikatua *geure* gauza lez txera-laztandu oi gaitun edozer, dala ume bat naiz emakume bat, dala morroi bat naiz beribil bat! Madarikatua beitez Mammon eta bere altxorak, arazo ausartegietara bultz-eragin eta gero, atsegin bidezko ez diranak eskiñirik, sorgortu ta ordi-erazten gaituenak! Madarikatua matsaren zumo lurrundua! Madarikatua maitasunaren onaurki garaiak! Madarikatua itxaropena! Madarikatua fedea! Eta madarikatua, batez be, eroapena!

EZPIRITU TALDEA (*ez da ikusten*).— Bai, bai! Ezereztu dozu mundu ederra zeure esku indartsuaz! Ondakin batzuk besterik ez da geratzen onezkero, bilin-bolaka naspillaren ondarreraño joango diranak; triskantza orokor au erdi-jainko baten lana da; laket bekigu beintzat ainbeste edertasun estaltzen dauan illobi zabalaren gain negar egitea! O zu, lurreko semeen artean eder eta al-

tsuena, eraiki eizu barriro; bizi barria ezar begi zure biotzak, abestu daikegun guk zure egintza ezin-illa!

MEFISTOFELE.—Entzun, entzun, nire ezpiritu guztietatik txikienak dira. Begira, zelan iragarten dautzuen zuk zearkatu bear dozun bide-zidorra. Bai errazoi ta jakite sakonez bultz-daragitzeula mundurantz, arimearen janari izan bear leukien gun-esneak gantzagiñen toki illun onetatik kenduaz!

Itxi, otoi, goibeldasun ortan atsegin artzea, onek, sai aragi-zaleak iduri, bizia iruntsi daroatzu. Txarra izanik be zengokezen lagunartea, somatu al izango dozu beintzat gizona zareala gizonen artean; ez uste, orraitino, biligarro artean bizi azo ta erabiliko zaitugunik. Nigaz alkartu nai bazendu, ta biok alkarregaz bizitz-bidea egin ni izan, ni ez nozu lenengoen artekoa, baiña oraindexek pozarren nagoke zugaz, zure adiskide, zure morroi, ta zuk nai ba' zendu, zure jopu be izanik.

FAUST.—Eta nik egin-bearra zein izango litzake, ordeko?

MEFISTOFELE.—**Ba-** dozu astirik ori gogoz ausnartzeko.

FAUST.—Ez, ez; berekoa bait da deabrua, ta Jainkoaren maitasunarren ez yaku, oi dauanez, onurakor izaten; orrela ba, esaidazuz zeure baldintzak, argi ta garbi mintzatuz, olako morroia etxean eukitea beti be arriskugarri dozu-ta.

MEFISTOFELE.—Morroi izango naiatzu oraindexek, emen goian, etentzaka ta atsedeen barik, zure nai ta guraririk pitiñenetara be beti zintzo ta leial izanik, gero, an beian, barriro alkar ikustean, zeuk be neugaz beste ainbeste egitekotan.

FAUST.—An beekoak ez daust, egi-egiaz, orrenbeste ardura emoten. Asi zaitetz mundu zar au suntsitzen, eta betorke gero bestea! Lur ontatik datoz nire gurikeriak; orixe dozu nire neke-miñak argiazten ditun eguzkia! Ortatik azke naitenean, gerta bedi gertatzekoa! Ez dot geiago onako eztabaidarik entzun gura: gero-roko bizitzan, gorrotatzen eta maitatzen ete dan; urruneko biribilletan, ba ete dan goi ta berik.

MEFISTOFELE.—Orrela baldin ba'da zure gogo ona, ederto baietsi zeinke esandakoa; ortara zaitetz, eta jakingo dozu bai zeintzuk diran nire esku-aireak ekarri leikezuzan poz-atsegiñak; iñungo gizonen erdi-ikustera be eldu ez dana emongo dautzut.

FAUST.—Txerren gaixo, zer ete da zuk emon ziñeñstana? Zure

kidekoen artean izan da, bear bada, iñor gizona bere gora-nai garaie-*tan* ulertu al izan dauanik? Zer eskiñi daikedazu? Asetzen ez da-
ben jatekoak; zidar-bizia lez, esku artean labantzen dan urre zir-
tzila; egundo irabazten ez dan joko bat; neskatxa bat, bere mai-
tasun-itzen erdian auzo neukakenari kiñuka, edo-ta jainkoen poz-
bitsa dan dedua, ostargi baten antzera ostendu oi dana. Erakustazu
umotu aurretik usteltzen ez dan frutua, eta zugatzak egunero ber-
detasun barriz jazten diranak!

MEFISTOFELE.—EZ nau ikaritzen taiu ortako arazoak; zeure
aukeran ditut ondasunak ugari. Baiña elduaz dator ordua, ene
adiskide, guk be zarrastelkeri ta sabel betekadari pizkat emoteko
ardua nunbait.

FAUST.—II nadilla bertatik, neure oge bigunean etzunik,
neure gorputza atsedenari emongo dautsodan egunean! Ni zeure
palagu ta legunkeriz, neu neure kautan pozik aurkitzerairio, lillu-
ratzea lortu ba'zengi; atseg'ñean ni lokartzea jadetsi ba'dagizu,
bedi orixe nire azken eguna! Auxe eskintzen dautzut baitura lez!

MEFISTOFELE.—Egiña.

FAUST.—Zuzen! Igaroz doian uneari iñoiz esan ba'dagiot, «zu
bai ederra, ez zaitez joan, zagoz emen! », a! , orduan lotu naikezu
kateakaz; orduan, bai, gura izango dot lurra edegi dedilla nire
oin-azpian, orduan jo zeinke illen kanpaia; azke geratuko zara
orduan eta zeure zerbitzu-saria artuko dozu, niretzat azken orduak
ots-egingo leuke-ta!

MEFISTOFELE.—Ausnar egizu ondo, ez bait dogu aaztuko.

FAUST.—Oni buruz, eskubidezko zaitut. Ez eizu uste izan au
onartzean bizkorregi jokatu dodanik; oraintxe be ez ete naz, bear
bada, jopu? Zer niri zu naiz beste bat izan nire jabe?

MEFISTOFELE.—Gaurtik, ba, maixuaren morroi izango naz;
gauza bat bakarrik oar-azo bear dautzut, au da: zer gerta be,
lerro batzuk idaztera bearresten zaitut.

FAUST.—Nola! Ez neban iñoiz be uste izango zure arronuz-
keria niri idatzi bat eskatzeraiño elduko zanik! Ain gitxi ezagutzen
ete dozu gizona onen itzak zenbat balio dauan ez jakiteko? Ez
al da naikoa nire egunak betikoz denda oi ditun arena nik oguzi
izana? Mundua irauli ta bere orpo-gain dardarazten dauan eka-
txaren erdian, zuk uste dozu, itz idatzi batek ni ortara beartzeko

lain indar dauala? Ori bai ames zoroa gure biotzetan ondo sus-traitua! Eta, nok gurako leuke edolan be ori ez betetetik iges-egin nai izatea? Zoriontsu, noski, bere bularrean fedea garbi iraun-azo ta jagoten dauana! Oni ez yako egundo be buru-ukapenik aldatz-gora egingo. Baiña pergaminu idatzi ta ikurraztu bat beti dozu mamu bat, mundu guztia izutu oi dauana; eta, alan be, itza, idaz-kortzak aldatzean, kuku eg'ñik geratzen yatzu, ta ez dozu argiza-giak eta pergaminuak emoten dautzuen autorra baiño besterik. Zer nai dozu nitaz, ezpiritu gaizto: borontze, atxurdin, pergaminu naiz paper? Baita zeure aukerara izten dot eztenez, zanez edo-ta lumaz idatzi bear ete dodana be.

MEFISTOFELE.—Ori bai barritsukeri! Zergaitik jaso bear dozu orrela zeure burua? Edozein ingi-txatal naikoa dozu, odol-tanta bategaz idaztekotan.

FAUsT.—Olan nai ba'dozu...

MEFISTOFELE.—Gun berezi-berezia dozu odola.

FAUsT.—Tira; ez uste egiune ontan paltako danik; neure ale-giñak neure indarrak dira, ain zuzen be, eskintzen dautzudazanak; orren goi jarri bait naiatzu, onezkero zeure kidako bakar-bakarrik izan naiteke. Ezpiritu sortzailleak jaurti ta asagotu nau; Izadia kiribildu da neure begi aurrean, nire oldozkun-aria etena da, zientzi oro naskagarri yat. Naiak egin daiguzan bada, lizunkerizko lezetan geure griña beroak aseberetik! Azti-zapi sar-eziñaren pean, egu-nero, mirari barriak gerta daiguezala! Oldar gaitezcan gizarteko zurrunbilloan, gertakarien aize-ziskuan; eta orduan atsekabea ta atsegiña, ondore ona ta porrota, bebiltz nigan alkarren atzetik nastean. Gelditu bako ekiñean ikusten da nor dan gizona.

MEFISTOFELE.—EZ yatzu jarten ez mugarik, ez gauzakirik. Zuk gozamina nai ba'dozu danetik pizkat txastatuz, gauzak egan atzemon, kea atera nai dozun guztiari. Auxe eskatzen yatzu bakar-bakarrik: argi ta garbi joka daizula, aalke ta lots oro saiets itxirik.

FAUsT.—Ikusten dozunez, ez gabiltz emen atsegin utsalen atzetik; bestera, oso-osorik zorameneri, gozamen larrienai, gorro-toaz erdikide dan maitasunari, gora jaso daroan etsipenari emona bizi gura dot. Nire biotza, jakin-nai sukarretik osatuta, ez da aurre-rantzean itxirik egongo oiñaze bat-baterentzat be; alderantziz, na-bari nai neukez baita neure izatearen ondar-ondarrean gizatasunari

emondako atsegiñak oro, jakin bai eurotan dagoan gurenena ta sakonena, neuregan moltzotu ona ta txarra osorik bere etorri bakarra bait da, nire gaitza areneraiño luzatu, ta azkenez bera lez itzali.

MEFISTOFELE.--Siñist deikedazu: neuk diñotzut, millaka urteetan janari latz au ausnartzen nabillen onek, gizaseme batek be kumatik illobira ezin dauala iruntsi labazari zarra. Siñist egiozu onela diñon guretar bati: «Gaudi au Jainko bakar batek egiña da. Betiko ñirñir artean bizi da bera; gu illunpetara bota gaitu; eta zuok bakarrik daukazuez eguna ta gaba.

FAUST.—Baiña nik gura dot!

MEFISTOFELE.—Ulertzen zaitut, baiña gauza batek bakarrik nauko kezkatan; aldia laburra da, ta antzea guztiz luzea. Eskolatu bear zeunke, nik uste; alkar zaitetz olerkari batekin; itxi, emon daiola askatasun oso bere idurimenari, ta ixur daizuzala gaitasun trebe guztiak, au da: leoiaren indarra, oreiñaren arintasuna, italiarraren kemena, Ipar aldekoaren iraupena. Idoro daijala biotz-zabaltasuna maltzurkeriaz alkartzeko bidea, ta alako nastura baten bitartez, gazteriaren griña gartsuz ornidu zaizala. Nik neure alde tik auxe esan daiketzut: atsegin aundiz ikusiko neuke olako gizaseme bat, Ludi-Txiki edo Mikrokosmos maixu izena emon al dagian.

FAUST.—Ni zer naz, ba, nire zentzun guztiak opa daben gizatasonaren koroï ori eskuratu ezin ba'dot?

MEFISTOFELE.—ZU zara, azken batean... zareana. Jar zeure buru gaiñean milla kizkur-lakaindun ule-ordekoa, jantzi zeure oiñak kana bat goi daben koturnuak, eta ez zara origaitik zarean baiño geiago izango.

FAUST.—Ondo dakust! Alperrik batu ditut giza-ezpirituak ditun ondasun guztiak, neure bakar bizitze ontan bada ez dot nabari neuregan adore barririk sortzen, ezta ez da geitu nire aunditasuna ule baten Jodiera bera be; izpirik be ez naz mugabagekora urreratu.

MEFISTOFELE.—Ene jaun on, ori da dana ikusten dozulako ekanduz eta geienetan ikusi oi dan lez; trebetasun geiagoz jokatu bear da, bizitz-atsegiñak, iges egiñik, osoan itxi gagiezan baiño len. Dakusgun! ; zure eskuak, zure oiñak, zure burua ta sorbaldak

zeureak dozuz, ezpai barik; eta gauza bat azartu gozaten ez dalako, ezin daiteke esan nirea gitxiago danik. Sei zaldi ba'daukadaz, arein indarra be ez ete da nirea? Ona bada, zaldiz ba'nabil, nik gizon kaixkar onek, arein ogetalau anak neure mende dagozala esan daiket. Laga, beraz, gogapenok eta zatoz neugaz mundura. Neuk diñotzut: gizaseme biotz-illekoa, ezpiritu gaiztoak eremu zear biraka darabilen abere antzekoa dozu; orrelaxe dabil mekotua, bere inguruan larra jori ederrak zabalazten diran bitartean.

FAUST.—Enietik alde egin bearra dogu beintzat, langela au oiñaze-toki besterik ez da-ta. Bizi izatea dozu, ausaz, norbere buruari eten barik gogait eragin eta ikasleentzat be gogaikarri izan? Laga egizu egoera goibel au, zeure auzoko gilbor aundiarentzat. Zertarako nekatu geiago galtzua joten? Dakizun onena be, ez zara ausartzen zeure ikasleari esaten. A! , oin-otsak dira sollairuan.

FAUST.—Dana dala, eziña yat iñor artzea.

MEFISTOFELE.—Ain luzaro zain egon ostean, mutil gizajoa ezin daiketu geure nasaipiderako zeozer esan barik laga. Tira, ekatzuz zeure jantzia ta txotoa; koko ederra artzen dot, edo bestela ederto baiño edertoago dator kit katamalo au. (*Jazten da*). Orain, uste on neugan; ordu lauren naikoa dot; bien bitartean, gerta zaitez geure ibillaldi ederrera.

Ba-doa Faust

MEFISTOFELE (*Faust'en jantzi luzeaz*).—*Bai*, bai, ezetsi erra-zoia ta jakintza, gizonaren indar garai; itxi, ta ezpiritu gaiztoak itsu zagizala bere ames zoro ta lillurakaz, eta neurea zaitut bapo bildintza ta kondiziño barik... Alanbearrak ornidu eban, bere ibilli galga bakoan eusteko gauza etzan ezpirituaz; bere gora-nai gartsuaren egoetan lurreko atsegiñak oro txastatuak ditu dagoneko; neuk daroaket orain zarra-zarra bizi-eremuak barna, erdizkako eze-rez-bideketatik zear; ortxe jarki ta saiatuko da burruka etengabean ikoldua ta bere irriks ase-eziñak atzeraka ikusiko dau beti edontzia, bere ezpan kiskalduen aurrean ain zuzen be. Alperrik dei egingo dau bere egarrían... Deabruari emona izan ez ba'litz be, aren galera naitaezkoa izango.

Ikasle bat dator aurrera

IKASLEA.—Eldu barria naz, eta apal-apalik nator ona guztion

begirunea ta ederra sustatu, erne-erazo daroan gizon bat ezagutu ta beragaz berba egin gurarik.

MEFISTOFELE.—Gutziz atsegin yat zure adeitasuna; niregan soil-soil beste edozein lakoxe gizon bat ikusiko dozu. Zer egin aurretik pentsatuta ete zatoz?

IKAsLEA.—Nire ardurea zeuk izan daizula, eskatzera nator; gogo onez beterik naukazu, ba-dot diru apur bat, baita osasun ona be; amak ez dau nai izan bera-ganbik nik alde egiterik eta nekez be nekez emon daust baimena, baiña nik emen gauza onurakor bat ikasi nai izateak eragozpen guztiak azpiratu ditu.

MEFISTOFELE.—Ezin zeinkean bide oberik aukeratu.

IKASLEA.—Alan be, egi-egiaz, emendik urrundu nai dot, orma ta areto oneik niretako ez daukie-ta ezetariko atsegin eta errekes-tarik; utsune au gaiñera guttiz estua da, eta bertotik ez da ikusten zugatzik bat bera be; areto ta jarleku oneitan entzumen, ikusmena ta oldozkuna bera be galtzen ditut.

MEFISTOFELE. Zelan oituta zagozan. Seintxoak be ez dau lenengotan pozik artu oi amaren bularra, ta gero zelako atsegiñez xurgatzen dauan artan bere janaria. Orobat jazoko yatzu zuri be jakituriaren bularraz.

IKAsLEA.—Benetan opa dot aren samatik neure burua esegi; baiña erakustazu ori jadesteko bidea.

MEFISTOFELE.—AZal zaitez aurrera jo baiño len; zein da zuk zeuretzat aukera nai zeunken ikasgaia?

IKAsLEA.—Nire ikas-lera izugarria bait da, zeru ta lur, zientzi ta Izadi, aurkitzen dan guztia besarkatu gura neuke.

MEFISTOFELE.—Bide onean zagoz, baiña kontuz iñok gogoa naasi ez dagitzun.

IKASLEA.—Ortan nago gorputz eta arima; alan be, ez litzakit txarto etorriko askatasun pizkat eta asti-aste batzuk udako jai-egun eder orreitan.

MEFISTOFELE.—Bai, atera guna aldiari: ain laster doatzu! Baiña ikasbideak berau irabazteko modua erakutsiko dautzu. Orre-la, ba, ene adiskide on, nik batez be *Collegium logicum* aolkatzen dautzut, onexek bait dau zure ezpiritua zuzen-aziko; ortxe jantzi-ko dautzuez bortzegi estuak, pentsamentuaren bidetik artez eta zentzunez ibilli zaitez, eta ez bidea galdurik ara ta ona, su-txi-

rriinga iduri, eguratsean. Eta gero egun askotan erakutsiko yatzu, gauzarik errezenetarako be, begien itxi-edegi baten egingo zeun-kezanerako, jan eta edan adibidez, naitaezkoa dozula, osoro izan be, arauz ta aldika jokatzea. Eta, egin-egiñean, oldozkunarekin gerta oi da eundegi bategaz lez, emen bada bultzada bat aski dozu millaka ari jokoan jarteko; anezka tai barik dabil, eta, txirrist egite-rakoan, iges doaz ikuskari ez diran ariak eta erabat milla korapillo eratzen. Ba-dator jakintsua be ta edu aretan izan bear dauala era-kusten dautzu: lenengoa auxe dozu ta bigarrena axe; gero iruga-rrenak eta laugarrenak bestea izan bear dabe; eta lenengoa ta bi-garrena barik, etziran iñoiz izango irugarrena ta laugarrena. Ona emen zer txalotzen daben munduko ikasle guztiak, baiña euretatik iñortxo be ez da eldu eule izatera. Garrantzizkoa dan zerbait ikasi ta ezagutu nai ba'da, ezagumena soiltzetik asi oí gara, jakiña; or-duan, gaikiak oro daukazuz zeure mende, baiña, tamalez, gauza bat falta yatzu, adimenak dagian korapilloa. Kimikak orri *Enchei-resin naturae* (izadiaren erabilketa) deritxo, eta, uste barik, adarra joten dautso bere buruari.

IKASLEA.—Ez dot ondo ulertzen.

MEFISTOFELE.—Askoz obeto ulertuko dozu, dana egokiro batu ta sailkatzen ikasi daizunean.

IKASLEA.—Diñostazunak oso arriturik eta lo izten bait nau, buruan errotarri bat daukadala begitanduten yat.

MEFISTOFELE.—Eta gero, ezer baiño lenago, metafisika ikasi bearko dozu; gai orretan gogoz sakondu bearko dozu giza-adime-nak ulertu ta barrendu daiken guztia; orri dagokiozanetan edo-ta ez dagokiozanetan, jo beti itz tekniku batera. Lenengo ikastaro ontarako, izan denpora alik arautuena; egunean bost ikastaldi izango dozuz. Joan euretara lenengo kanpai-otsera, egoki gertatu-ta, zeure ikasgaiko atal guztiak ondo ikasi ondoren, beingoan eta obeto ikusi dag¹zun liburuan ez dagoanik ezer be ez dala esaten; idatzi zeinke, orraitíño, Gogo Deunak esango ba'leutzu lez.

IKASLEA.—Ez daustazu birritan esan bearrík izango! Errez dagit, ba, onurakor izan daitekela batek daukana, zuri naiz baltz, eta noberearekin eroan gaiñera segurantzaz.

MEFISTOFELE.—Orrela, ba, aukera eizu karrera bat.

IKASLEA.—Ezin naz bat etorri eskugoa ikasteaz.

MEFISTOFELE.—EZ dautzut nik origaitik agiraka egingo, ez orixe; ba-dakit naiko be zientzi ori zer dan. Legeak eta eskubi-deak alkarren atzetik dabiltz egundo amaitzen ez dan gaixoaldiaren antzean; belaunez belaun igaroten ikusten dira, toki batetik bestera ixilgordeka narrazturik; zoraldi biurtzen da errazoaia, ta ondo-egiña oiñaze. Zori gaiztoko zu, zeure gurasoen seme zarealako...! Geugaz jaio zan eskubidezkoari buruz, onetzaz ez da ezer esaten ondikoz.

IKASLEA.—Zuk aziago egin daroazu zientzi orri neutson nazka ta betetasuna. A! , zorionsu zuk eskolatua! Ia-ia urtziztia ikastekotan nago.

MEFISTOFELE.—EZ neunke nai zu oker-bidean jarterik; zientzi orri dagokionez ez da errez oker-bidetik iges egitea; bertan euki be ainbat pozoï daukazu gorderik, osakaiaz nastu ta bereizten errez ez dana. Gai orren samurrean egin daitekenik onena da bat bakarrari baiño ez entzutea, ta maixuaren itzez gauzak baieztu. Labur: ar ontzat itzak, urrats tinko ta seguruz ziurtasunaren jauretxera eldu nai badozu.

IKASLEA.—Alan be, itz bakotxak beti euki bear dau gogai bat be.

MEFISTOFELE.—Orixe! Baiña origaitik bat larregi ez kezkatzekotan, gogaien ordez bada ba-dira itzak areik ordezkatu leikeezanak; onekin eztabaidatu daiteke ondo be, baita eraketa edo xistema bat sortu-azo ta oiñean jarri be. Neurri batean siñistu daiteke itzetan; gangar edo azentu bat be ezin daikeo kendu itz bati.

IKASLEA.—Parka, otoi, neure itaunez zure autua eteten ba'dot be. Ezin zeuskit osakuntzari buruz ezer esan...? Iru urte iraisean doaz, ta beste aldetik oso zabala da eskintzen dauskun eremua! Oar naiz argitasun bat izan ezkeru, bizi ta adoretuago aurkitzen dala bat aurrera egiteko.

MEFISTOFELE (beretzat).—Gogaikarri yat onezkero doiñu idor au; egokiago datorkit nunbait deabruaren papera. (*Abots zoli*). Osakuntzaren ezpiritua errezago uler daiteke; ikas ondo mundu txikia ta andia, azkenean Jainkoak geien nai dauan tokirantz joaten izteko. Alperrik saiatuko ziñake zientzia sakontzen, bakotxak bada ikasi al dauana ikasi oi dau bakar-bakarrik; zernolak eta noiz-nolak bakarrik, edo obeto, aukera ta abagunez balia-

tzear, egin zeinke txit argi ta ospe aundiko. Itxura ona dozu zuk, eta gaiñera oldartsu ta ekin-zale emoten; orrela naikoa dozu zeugan uste ona izatea, besteen konfiantzea zeugaz izateko. Jo batez be andrazkoetara; orrein ai-eneak, milla bider bardin esanak, danak bear dabe osabide bardiña, ta erdizkako begirunez artu ba'dagizuz, laster dituzu oso-osorik irabazita. Titula bat naikoa dozu arein konfiantza irabazteko, eta gure jakiteak besteenak baiño askoz geiago balio dauala siñist-erazteko; orduan lortu zeinkez gauza batzuk, beste batzuk urte askotan labankeriz ta palaguz ibilli ostean jaritsi oi dabezanak; ar egiezu gero biotz-pilpil edo pultsua, begitu gartsu bat batera zuzendurik, eta igaro ondoren besoa arein gerri liraiñetik, gonauntzak estutzen ete dautsoen jakin naian lez.

IKASLEA.—Ori askoz be argiagoa idurizen yat; emen beintzat ikusten da nundik eta zelan jokatu.

MEFISTOFELE.—Ene adiskide on, teori oro dozu beregan igar;garra, bizitz-zugatza berde ta mardoa dozun lez.

IKASLEA.—Bene-benetan dirautzut: guzti au amesa dirudit. Ausartuko ete naz barriro be zuri gogarazoten zeure zientziaren ondarrera eldu nadin?

MEFISTOFELE.—Beti entzindu zeinke nigandik, nire bearrean zagozanetarako.

IKASLEA.—Ezin naiteke zugandik aldendu neure albuma zuri aurkeztu barik; lerro batzuk idatzi egidazuz, arren!

MEFISTOFELE.—Atsegin aundiz.

Idatzi ta atzera biurtzen dautso albuma

IKASLEA (*irakurten*).—*Eritis sicut Deus, scientes bonum et malum: Jainkoa beste izango zarie, onaren eta txarraren jakitun.*

(*Albuma itxi begirunez eta, agur esanik, ba-doa*).

MEFISTOFELE.—Neure lengusiña Sugearen esan zarra jarraitzea baiño ez zeunke bear, Jainkoarekiko antzak egunen baten oiñazetu zagizan.

Faust dator barrura

FAÚST.—Nora goaz orain?

MEFISTOFELE.—Nai dozun lekura. Mundu aundia ta txikia ikusi daikeguz. Zuk bai pozik eta onura aundiz jarraituko dozula aren ibilli bizia!

FAUST.—Bai; baiña, bizar luzea daroadan arren, gizarteko jardunbide onik ez dakidala, esan daiketzut, beraz jakin ez zelako ondorena izango dauan nire arazoak; iñoiz be ez dot neure burua ondo ikusi gizartean; neure burua ain bait dot txiki ikusten bes-teen begi aurrean, unetik unera aurkituko naiatzu urduri ta epel.

MEFISTOFELE.—Ene lagun on, errez atonduko dogu guzti au; zeure buruaz konfiantza izan ezkeru, jakingo dozu bizi izaten.

FAUST.—Zelan urtengo gara emendik? Nun daukazuz zaldiak, morroiak eta burdia?

MEFISTOFELE.—Soingaiñeko au edatu besterik ez, beronek eroango gaitu aidean zear; ez eroan, otoi, zama aundirik, gure igokundea naiko ausarta dozu'ta. Aireugarri pizkat gertatu bear dot, eta onek jasoko gaitu beingoan lurretik, eta ikusiko dozu, pisu larregi ez ba'daroiagu, zein ariña izango dan gure osterea. Zorionak zuri bizimodu barri augaitik!

AUERBACH EDARITEGIA, LEIPZIG'EN

Gazte talde alaia

FRoscx.—Iñok edan nai ete dau? Nok barre egin nai? Bai, egingo daustazu kiñu naiz imintzioren bat! Ona emen lasto bustia lez, zuok, geienetan sua bera zarienok!

BRANDER.—Eurea dok errua, ez bait daukak guri esateko, ez astakeri bat, ez likiskeri bat.

FROSCH (*edontzi ardaoz bete bat burura jaurtzen dautsola*). — Or daukazak biak batera.

BRANDER.—Urde bikia!

FRoscx.—Nai ukan ezkeru, naitaez izan bear!

SIEBEL.—Kanpora zalapatariak! Kanta zeuon biriki-indar guztiaz! Edan nai aiña, txillio, orro! A! E! Ola! O!

ALTAMAYER.—Ene bada! Galdua naz! Ekar eidazue algodoa, madari orrek belarriak urratzen daust eta.

SIEBEL.—Goiko gangak durundu dagianean bakar-bakarrik beekoaren oiartzunaz epaia egin daikegu.

FRoscx.—Egia da; kalera, ut kalera suak artu ta pirritzen asten dana. A! tara-lara-da!

AurMAYER.—A! , tara-lara-da!

FRosCH.—Gozo dagoz eztarriak.

(*Abeska*)

Zelan daiteke, baiña, oraindik
erromar Aginterria zutik?

BRANDER.—Ori abesti zozoa! Laga eik kantu politiku ori, eresi txaxtar ori. Emon eskerrak Jainkoari, erromar Aginterriaz zer-ikusiirik ez dozulako. Niri dagokidanez, on aunditzat daukat ez káisar ez kantziller ez izatea. Alan be, bear-bearrezkoa yaku buruzagi bat; izentatu daigun, ba, aita'santu bat! Ba-dakizue zelako garrantzia dauan autatzeak, eta onek noraiño jaso daroan gizona.

FRoscx.—(*Abesten*)

Oian-kantari, txindor kutuna,
zoaz, agurtu nire laztana!

SIEBEL.—Agurrik ez gure laztanai! Ez yoat olakorik entzun nai!

FRoscx.—Ene maíteari, agurrak eta mosuak! I ez az nor niri ori galazoteko. (*Abesten dau*)

Ken gau ixil onetan morroilloa.
Ken! , laztanena bait daukazu zain.
Itxi! , Eguna dator goiztarra.

SIEBEL.—Bai gora, ta kanta nai bestean aren liraintasunak; origaitik, baiña, arek atzipetuko zaitu. Ni itxi ninduan lez zu be izten zaitunean, naitaez nik barre zantzoak atera bearako. Emon begio iratxo bat maitaletzat, bide-kurutze baten limur-azi dagian; aker zaar batek, Bloksberg'etik itzultzean, arpegira emon dagiozan, lauoinka doala, gabonak. Azur ta aragizko gazte bat larregi da olako galduarentzat. Arentzako nire agurra, kristal guztiak apurtzea izango litzateke!

BRANDER (*mai gaiñean zartako bat emanik*).—*Ixi!* Ixillik! Entzun neuri, ta danok jakingo dozue, etsita geratzeraiño, nik ba-

dakidala bizi izaten eta mundua ezagutzen dodan gizona nazala. Ba-dira emen maitemindu batzuk, eta onei, erabagita dagoan ekan-duari jarraituz, gau onak lez jostatuko dituan zerbait emon bear dautset. Adi, beraz; or doatzue gaur geien kanta oi dan abesti au; auxe eskatzen dautzuet bakar-bakarrik kanta onen leloa zeuok be bir-esan edo errepikatu daizula zeuen birikien indar guztiaz.

(Abesten dau)

Arratoi bat bere leza-barruan
guriña ta gazta jaten egoan.
jan eta jan aziz yoakon sabela
Luter maixuari baizen zabala.
Pozoia jar eutson sukaldariak.
ta naas-maas ibili zan mundu zear
maitez errea lez, urduri, iltzear.

TALDEA (oiuka).—Maitez errea lez, urduri, iltzear.

BRANDER.-

Barne ta at jiraka, asperapen barik,
oiñaze-min latza ezin eroanez,
etxea osorik zearkatuz be,
aren amorruak ez dau atzenik;
axanpa biziak mende artua,
piztiak ezin dau, ez, gaztarik ar,
maitez errea lez, urduri, iltzear.

TALDEA.-

Maitez errea lez, urduri, iltzear.

BRANDER.-

Azkenez, gaixoa, egun argitan,
eskaratz erdian daukagu urtena,
ikotiz, goraka, ezin egona,
suak goritua, erio urrena;

irriz su-zaiñak onan dirautso:
«A! , negar, bai, azken zilloan zear,
maitez errea lez, urduri, iltzear».

TALDEA;-

Maitez errea lez, urduri, iltzear.

SIEBEL.—Gauza zirtzilak bai dituela jolasten ergel oneik!
Egintza bikaiña, itxura danez, arratoi gaixo bat pozoiz kutsutzea!

BRANDER.—Iri, orduan, estimagarri izan!

ALTMAYER.—EZ da arritzekoa; ez, ez da arrigarri onek bere
sabel-zorro itzal eta kaska-motz orrekin erruki izatea, arratoi azi-
aunditu atan argazki bere-berea ikusten yok-eta.

Faust eta Mefistofele barruratzen dira

MEFISTOFELE.—Lenengo ta bein, lagunarte alai batera eroan
bear zaitut, zein eroso emon daiteken bizitzea ikusi dagizun. Adi-
men urriz ta umore ugariz, bakotxa dabil emen bere obo medar
inguruan biraka, katu gazteen antzera euren buztanakaz olgetan.
Buruko miñik ez ba'dabe ta arrotzaren pentzutuan ba'dabiltz, alai
ta ezeren ardura barik bizi dira.

BRANDER.—Ona bidazti bi, euron itxureak argi diñoskunez;
edozer egingo neukek oneik ordu- bete ez dala lurreratuak dirala.

FRoscH. —Eritxi ortakoa nok. Gora gure Leipzig, bigarren Paris
yoagu-ta!

SIEBEL.—Nortzuk dozak, ire ustez, erbestetar oneik?

FRoscH. —Itxi egidak egiten, eta ikusiko dok, zelan lortzen
dodan topatze batez onein mozortoa agert-eraztea. Euron jas eta
antustetik atera geinkenez, jatorburu onekoak izan bear yoek.

BRANDER.—Ziur asko, berba-lapiko batzuk dozak; ez yoat uste
oker dagoanik.

ALTMAYER.—BaI, izan.daitekek.

FRoscH.—Oraintxe ikusiko dozue zelan txuliatzen ditudan.

MEFISTOFELE (*Faust'i*).—*Jente* gaixo orrek ez dau iñoiz be
deabruaz tukurik izan oi, euren gorputzean itsatsirik eukita be.

FAUST.—Egun on, jaunak!

SIEBEL.—Eskerrak zeuon adietasunagaitik. (*A bots naeez, Me-*

zearka begituz). Zer gura ete dau erren adiñon orrek?

MEFISTOFELE.—Mesedez, itxiko ete zeuon ondoan jarten? Ardao onik ez dogun ezkerro, dauka „un beiñik bein lagun arte eder bar.

AurmAYER,—Emoten dozuenez, uste bako okerren bat izan dozue.

FRoscii.—Oso berandu urten zarie Ripach'etik. Maixu Juan'en etxean apaldu dozue, bear bada?

MEFISTOFELE.—Aren etxe aurretik igaro gara, baiña bertan geratu barik. Azkenengoz arekin mintzatu giñanean, ez dakit nik zenbat gauza esan euskuzan bere lengusuetaz; milla ta milla gorantzi be emon euskuzan areitariko bakotxarentzat. (*Frosch'egana makurtzen da*).

ALTMAYER (*ixilka* Frosch'i).—Arrapa au! ez da meko, ez!

SIEBEL.—Ori ba luki!

FRoscII.—Ez yautsak; itxaron eta ikusiko dok nor dan geiago txopinka.

MEFisToFELE.—Oker ez ba'nago, emen sartzean abots ederreko talde bat egoan bertan kantari. Kantua, egin-egiñean be, oso ederki durundutuko da zeru-sapai onen azpian.

FRoscH.—Artista zara, bear bada?

MEFISTOFELE.—O, ez! ; ez dot zer aundirik, baiña zaletasuna, bai, aundia!

AurmAYER.—Abes eiguzu zerbait.

MEFISTOFELE.—Nai dozuen beste abestuko dautzuet.

SIEBEL.—Kanta bat bakarrik eskatzen dautzugu, baiña barria izan dedilla oso.

MEFisToFELE.—España'tik gatoz, ain zuzen be, ardao ta kanta bikaiñen eskualdetik. (*Abesten dau*).

Errege bat zan beiñola,
ardi andi bat eukana...

FRoscu.—Entzun, entzun! Entzun dozue ondo? Argi bat! Bai arrotz bitxia!

MEFtsroFELE.--(Abeska).

Errege bat zan beiñola,
ardi andi bat eukana;

bere semea bai'litzan
samurki maite ebana.
Joskillari dei egiñik,
esan eutson: «Soin-uts dago,
eta jar eiozuz kaltzak».

BRANDER.—Joskilleari esango, esango eutson batez be ar egio-
zala zeatz-zeatz neurriak, aren kaltzetan txímur bat be nabari izan
ez zedin!

MEFISTOFELE.-

Ule-guriz ta zirikoz
dogu orain dotore;
loturak daukaz jantziak,
inguruan dau gurutze,
ta otsein izan nai ola
izar andi bat ebalá.
Anai nausi zan kortean,
ango jaunen pare zala.

Jaun eta andera kortean,
danak ziran ozkatuak,
Erregiña naiz neskame
erabat zíran elduak,
Etzan iñortxo ausartzen,
ozka arren, a zapaltzen;
baiña gu gabiltz azkatzen,
baldin ba'gaitu ozkatzen.

TALDEA (*poz-oiuz*).-

Baiña gu gabiltz azkatzen,
baldin ba'gaitu ozkatzen.

FRoscx.—Ori! Ori! Ederki dago ori!

SIEBEL. Zori auxe beuko kukuso bako txak!

BRANDER.—Batu atzamarrak eta arrapo samurkiro!

ALTDtAYER.—Gora askatasuna! Gora ardoa!

MEFIS'roFELE.—Pozik edango neuke zurrutada bat askatasunaren omenez, zuen ardao ori ohea ba'litz.

SIEBEL.—EZ guri birritan entzun-azo!

MEFISTOFELE.—EZ nozu bildur, txiribogiña kexaz izan arren; atera nire arrotz kutunarentzat dauan ardaurik onena.

SIEBEL.—Ez izan orren ardurarik! Neure kontura!

FRoscu.—Atera eiguzu txolkada eder bat guk goratzea nai ba' dozu; ni beintzat ardukari ona naz, zurrutada galantak edatean!

ALTMAYER (*ixillean*).—*Rin* aldekoak dira; ziur nago.

MEFISTOFELE.—Emoidazu laratro bat!

BRANDER.—Zertarako bear ete dozu? Emen ez daukazu upelik zulatzeko.

ALTMAYER.—An itxi dau arrotzak lan-tresna otarre bat.

MEFISTOFELE (*Frosch'en eskutik taladrua* artuaz).—Esaidazu orain, zein nai dozun dastatu.

FRosdu.—Zer adierazo nai dozu? Aukera aundia daukazu, bear bada?

MEFISTOFELE.—Aukera bei bakotzak ederrena deritxona,

ALTMAYER (*Frosch'i*).—*A!*, dakustanez, asia zaitut ezpanak milikatzen.

FRoscu.—Eta, zergaitik ez? Aukeratzea emon yatan ezkerro, nik Rin'go ardaua eskatzen dot; aberriak emon oi dauskuz beti be doairik ederrenak.

MESFISTOFELE (*Frosch'en jarleku ondoko mai-egalean zulo bat* egiñaz).—Ekatzu laster argizari apur bat, zuloa sapoztu dagidan!

ALTMAYER.—*A!*, au esku-jokoa da!

MEFISTOFELE (*Brander'i*).—*Eta* zuk?

BRANDER.—Nik txan^Pain ardoa nai dot, eta apartsua izan daitela!

(*Mefistofele'k zulatzen diardu; batek, argizaizko sapotzak egin eta eurokaz zuloak estaltzen ditu*),

BRANDER.—Ezin geinkeo sarri arrotzari uko egin; eta ez da arritzekoa, ona gugandik beti be urrun samar dago-ta. Egiatzko doixtar batek ezin dauz prantsesak ikusi, ta alan be, atsegin aundiz edan daroa arein ardaoa.

SIEBEL (*Mefistofele urreratuz joakon bitartean*).—Nik dautort, ez yatala atsegin ardo elkorra; eidazu txol bete gozo.

MEFISTOFELE (*laratruz zulatzen*).—*Jalgi bei, ba, zuretzat Tokaia.*

ALTMAYER.—Ez, jaunak; begira niri aurre-aurre! Ondo dakust, gure lepotik irri dagizue zuok.

MEFISTOFELE.—Et! Et! Zuek lako gizasemeakaz, arriskitsua dala deritxot au. Tira! Esan argi ta garbi! Zein ardao dozue gurago?

ALTMAYER.—Edozein! Ez egizu geiago itandu!

MEFISTOFELE (*zulo guztiak egin eta sapoztu ondoren, kiñu bixiak osotuz*).—Mastoiak matsa dakar, akerrak adarrak; ardo iruntz gozoa da, mats-ondoa zurezkoa. Zergaitik, bada, mai onen zurak ezin daikegu emon? Zuzen begitu zorrotza Izadira! Or miraria, siñets orain! Sapotzak ken, eta edan!

DANAK (*sapotzak kendu ta ardao guratua artzen dabe euren ontzietan*).—*O dariozun iturri eder!*

MEFISTOFELE.—Baiña, kontuz! , ez beera bota gero tanta bat be! (*Edan dagie ostera ta barriz*).

DANAK (*abeska*).—

Edan daigun bat-batera,
bosteun urdek lez leiaka

MEFISTOFELE.—Ona emen nire zoroskoak, euren buru oso' osorik! Oneik bai pozik!

FAUST.—Emendik alde egin nai neunke.

MEFISTOFELE.—Itxaron pizkaten, eta aberekeria bere goi-maillaraiño elduta, ikusiko dozu.

SIEBEL (*bage ardura artu barik edaten daualako, ardaoa beean ixuri ta gar biurtzen yako*).—Soros, arren! Sua, soros! Inpernua sutan!

MEFISTOFELE (*garrera zuzendurik*).—*Bare adi, ene gai kutun! (Siebel'i)*. Oraingoz garbitegiko txingar bat ez da izan besterik.

SIEBEL.—Zer da au? Itxaron, artuko dituzu zeureak eta: ez zenkian bear bada nortzukin zenbiltzan?

FRosdH.—Egizu ori barriro be.

ALTMAYER.—Nire eritxiz, alan be, itxi dagiala trinketea buru-tara bear yako.

SIEBEL.—Zelan! Bere esku-jokua emen egiten azartu ondoren?

MEFISTOFELE.—IXillik, zaragi zaar!

SIEBEL.—Aupari agertuko ete yaku oindiño, itsuski kirten ori!

BRANDER.—Itxaron apur baten, egurrak euria lez gaiñera jaus-tea nai ba'dozue.

ALTMAYER (*sapoz bat erauzten dau maitik eta zulotik erneten dan gerrak oratzen dautso*).—Sutan nago!, sutan nago!

SIEBEL.—Sorginkeria...! Ekin orri! Giltzapera eroan bear da!
(*Aiztoak atera ta Mefistofele'ri erasoten dautsoe*).

MEFISTOFELE (*benetasun izukaitzez*).—Lillura ta zoro-amets, larri-erazo onein errazoia ta ikusmena, ara ta ona ibil-eragiñez.
(*Sor ta lor geratzen dira, alkarri begira*).

ALTMAYER.—NUN dago? Nire ikuspegi aurrean edatzen dan lurraldea bai dala bikaiñ!

FRoscx.—Mastiz jantzitako muna bat. Ez al dauste begiak ziririk sartzen?

SIEBEL.—Nik bai mats-morda ederrak eskuan!

BRANDER.—Zenbat mats-morda ta mats-ondo dagozan mats-aien artean!

(*Siebel'ri oratzen dautso sudurretik; besteak orobat dagio bat-tak bateari, aiztoak jasorik*).

MEFITOFELE (*leen baizen izukaitz*).—Beera beite zapia euren begietatik, ikus dagien Deabruak zelan dakian onelakoak agoa be-te agiñez izten.

(*Faust'ekin ostenduten da; eta bakotxak beingoz eskuan eukana jareiten*).

SIEBEL.—Zer da ori?

ALTMAYER.—Zer?

FRoscx.—Ire surra ete zoan, ba?

BRANDER (*Siebel'i*). *Neuk* be irea yaukat!

ALTMAYER.—Zer zartako izan dok ori? Soin-azur guztiak loka vaukazak; bizkor, jerleku bat, alditxarra egiten yatak eta.

FROSCH.—Ez izan bildurrik; auxe gura yoat bakar-bakarrik: esan eistak zer jazo dan.

SIEBEL.—Nun yagok barrabana? Iñoiz :oratu ba'dagiot, ez yok

bizirik urtengo nire esku artetik.

ALTMAYER.—Nik ardangela atetik urteten ikusi yoat upel baten gaiñean jarrita. Berun antzera yaukazak oiñak astun be astun. (*Mairantzza biurtuaz*). Edolan be ardoa jarioz ba'legok! Dana izan dok guzurra!

SIEBEL.—Dana izan dok ames zoro, lillura!

FRoscu.—Eta, alan be, nik zin-egingo ñeukek ardoa ona edaten nintzala.

BRANDER.—Eta, mats-monda areik, zer?

ALTMAYER.—GerO esango yoek ez dala siñistu bear mirari ta olakoetan!

SORGIÑAREN SUKALDEA

Su bea, ta suondoan galdara aundi bat irakiten; darion lurrunean ikusten dira irudi bere gisako batzuk, ega biraka. Matxango eme batek, galdara ondoan jarrita, bitsa kendu ta zaindu daroa gaiñezka egin ez dagian. Tximiño aita, kumetxoakaz, berotzen dago aren auzoan. Ormak eta zeru-sapaia, sorgin-aztiak erabilli oi dabezan tresna bitxiz beterik agiri dira.

Faust. Mefistofele

FAUsT.—Atzera eragiten daust uskerizko tresneri nazkagarri orrek, Itz-emon al zengist osatuko nezala onenbeste bitxikeriren artean? Zelako onuak emon al leiskidaz atso batek? Egon ete dai-teke emen naasturarik niri gorputz-gaiñetik ogetamar unte kendu leikidanik? Ai ene! , beste ezer emoteko gai ez ba'zaitut! Galduak dot onezkero itxapena osorik. Egia cte da, ez Izadik ez czpiritu bikik, ez dabela iñun miritza edo bustigarririk aurkitu?

MEFISTOFELE.—Ona emen, ene adiskide, leen lez filosofikerietan. Gaztetuteko ba-da, alan be, bide oso berezkoa; baiña beste liburu baten aurkitzen da, eta zati guztiz bakana osotzen dautzu.

FAUsT.—Bide ori zein dan jakin gura dot, iñundik iriora.

MEFISTOFELE.—EdertO; bide orrek ez dau eskatzen dirurik, ez osakairik cz lillurarik. Zoaz oraintxe bertron landara, ar egizu atxurra, jan atxurtzen, obira zaitex zeure pentsamentuz aro estu batean, naiko izan bekizuz jan-edate urriák, bizi zaitex abere lez

abere artean, eta ez arbuia lantzen dozuzan soloak zimaurtzea. Ona emen biderik ziurrena larogei urtera gazte eltzeko.

FAUST.—Ez nago orretara egiña ta, beraz, ezingo naz egundo be atxurra artzera jarri. Gaiñera, bizimodu apala ez dator ondo &re argindu ta izateaz.

MEFISTOFELE.—Auxegaitik, aztiak esku artu bear dau auzi onetan.

FAUST.—Baiña, zer dala-ta izan bear dau, nai ta ez, atso orrek? Zeuk ezin zeinke apika bedar-ura ori gertatu?

MEFISTOFELE.—Egia, tartegarri ta denpora-pasa atsegingarria izango litzakit! Milla zubi egin gurago neuke. Ertia ta jakintza, ez dira naiko; orrez gairi eroapena be nai ta nai ezko dozu; gogo barea ta urte asko bearko neukez ori egiteko; bear dauan indarrak denporaz bakar-bakarrik artu oi dau bere egoste meea, eta guztiz bakanak dira bear dituan gai osagarri guztiak. Orri erakutsi dautson Deabruak berak be orain ez leuke burutu al izango. (*Abere batzuk ikusiaz*). Begira, zelako sendi txiki atsegiña! Emen neska-mea, an morroia. (*Abereai*). Etxanderea ez al dago emen?

ABEREA.—

Orritsean da,
etxetik kanpo
ke-oditik urtenda!

MEFISTOFELE.—ESan ete daikedazu, sendi egaberan itxia, askotxo luzatuko dauanik itzultzea?

ABEREA.—Guk zangoak berotu orduko, emen da.

MEFISTOFELE.—Zer iruditzen yatzu abere eder orreitaz?

FAUST.—Nik egundo ikusi dodazanetatik iguingarrienak dirala.

MEFISTOFELE.—Niri, barriz, doi-doi atsegin yatala euron laguntaldea esan bear dautzut. (*Abereai*). Esaidazue, enda gaiztetsi, zer zagoze or iraultzen?

ABEREA.—Zukua gertetan gagoz beartsuentzat.

MEFISTOFELE.—Orreik asko dira, antza danez, ezta?

TXIMIÑOIA (*Mefistofele'gana urreratu ta laztanduz*).—

Gabiltzan alai,
aberats nadin

zure pentzura!
Its doa gauza;
no sosdun nintzake,
zentzuna ba'neuke.

MEFISTOFELE.—Loterira jokatzuz soilki, pozik legoke matxango ori!

Bitartean, jolaska dabiltz beste abereak, potor (bola) aundi bat itzul ipurdika erabilliaz.

TXIMIÑO A.-

Au da mundua:
gora ta beera
ta iraul tai gabe;
leiar lez soiñu,
—laster da apurtu!—
barne-uts beti.
Orain ñir bizi,
gero bizigo:
«Bizirik nok ni! »
Ene ume laztan,
kontuz ortatik!
II bearra dok:
soiñuz daukazu,
emon da zantzu.

MEFISTOFELE.—Zetarako da bae au?

TXIMIÑO A. (*bea arturik*).—*Ostu* dauana ezagutzeko, dana dalakoa olakoaren itxura ta maltzurkeria. (*Tximiño amagana doa ariñeketan, eta bae zulotik begira jarten dan*). Ortixek begiratzen dau lapurra nor dan jakiteko, ta alakoaren izena guri esaten saiatu oi da.

MEFISTOFELE (*su ondora urreratuaz*).—Ze egosari dogu au?

TxIMIÑO BIAK.—Papao aundiagorik! Egosaria zer danik ez daki, ezta galdarea zer danik be!

MEFISTOFELE.—PiZti moldegaitz!

TxIMIÑO A.—Ar egik isatsa, ta jar adi Tanke onetan!

(*Bertan jezarri azoten dau Mefistotele*).

FAUST (*ordurarte ispillu baten, aurrera ta atzera, bere arpegia ikuskatzen egon dana*).—Zer da nik dakustana? Zer zerutar irudi agertzen yat ispillu sorgindu onetan? Oi, maitasun! Eroan naizu zeure ego ariñetan bizi zarean eskualdera! Leku ontatik zirkiñik ba'dagit, bertara urreratuta be, odei-zear lez dakust. Emakume-irudirik osoena dozu! Euki ete leike emakumeak ainbat edertasun? Neure begi aurrean etzuniko gorputz ori zeruetako gauza arrigarritzko guztien bilduma ete? Ezer antzekorik egon ete leiteke lurrean?

MEFISTOFELE.—Argi dago, bai, Jainkoak sei egunez burutu ta gero ona zala ikusi eban lanetik, naitaez, eme bearra zan zerbait egi-egiaz miresgarria. Jarrai oraingoz zeure begiak asetzen, eta laga neure ardurapean orrelako altxorrari begia emon eta aztarnak artzea; zori onekoa bere etxera, emazte lez, eroan al dagikena. Ona ni emen errege bat bere jaur-aurkian bezela; ba-dot onezkero agintemakilla; koroia falta yat bakar-bakarrik.

Faust ispilluan begira dago oraindik; Mefistofele bere janlekuan luzatzen da berbaz eta isatsaz olgetan.

ABEREAK (*ordurarte milla zirkin bestelango egin ebezanak, zaratots naasian doaz Mefistofele'ri koroï bat eroaten*).—

Oi, ona zaitez,
odol-izerdiz
ber-ein koroia!

Eta koroï gainean salto dagie zatar zati-zati egiteraiño, ta gero eskintzen doazanaren binan dantzatzen dira eurokaz.

Egiña dago!
Guk ikus, mintza,
guk senti, kopl!

FAUST (*ispillurantzaz biurtuaz*).—Ai ene, bada! Zoratu bearrean nago!

MEFISTOFELE (*atzarnarrez Abereak izendaturik*).—Neuri be itzulika dabilkit burua.

ABEREA.-

Orain pozikan,
gero aulikan,
goaz gu olan!

FAUST (*leen bezela*).—Sutan daukat biotza! Goazan emendik, alik eta lasterren!

MEFISTOFELE (*egoera berean*).— Egiatzko olerkari dirala aurtortzea dagokigu beintzat.

Matxango amak bertanbera itxi dauan galdara gaiñezka asi da, eta bertatik sutzar aundia jagiz, tximinitik doa. Ordu berean sorgiña jasten da lerroan zear, garraxi izugarrian.

SORGIÑA.-

Au! Au! Au! Au!
Pizti zital, makera gaitz!
Mazkelu or, etxandre au!
Pizti moldekaitz!

(*Faust eta Me f isto f ele ikusiaz*).

Zer dot ikusten?
Zuok be emen?
Zer nai dozue?
Nok sar zaitue?
Azur ta guzti
suak kískali!

Galdaran iraztontzia sartuaz, Faust'i ta Me f isto f ele'ri txingarrak botaten asten da, abereak ikarapagarriri garraisi ta alaraka diarduen bitartean.

MEFISTOFELE (*eskuan daukan isatsa biurtu ta beronegaz leiarontzi ta pertzak joaz*).-

Ausi! , ausi!
Au xeau!
Au zatitu!
Au joko da,
piko, azti! ,
zure eresi!

Atzerantz, dagi sorgiñak arritua, suak joa

Ez al nozu ezagutzen? Izugarri ori! Ez ete dozu orain ezagun zeure jaun eta jabea? Ez dakit zelan etzaitudan zigortzen zati-zati egin arte, zeure ta zeure katuen ezpirituakin batera! Ez al dautsazu lotsarik onezkero gorantz goriari? Ez al dozu ezagutzen oillarraren egatsa? Gorde al dautzut iñoiz arpegi au? Beartua ete nago bear bada zeure izena zuri esaten?

SoRGIÑ'A.—Parka, o jauna, egin dautzudan arrera zakatza! Nik, alan be, ez dot zaldi-zangorik ikusten. Nun al dira, ba, zure pika biak?

MEFIsToFELE.—Oraingoagaitik parkatzen dautzut, naiz-ta aspaldi alkar ikusi ez dogulako izan. Mundu guztia bir-loratu oi dauan kultura deabruaganaiño luzatzen da. Gaur-egun ez dautsagu garrantzirik emoten Iparreko Sunbillari (deabruari); ezta ikusten iñun belatxingarik ez pikarik, ezta buztanik ez erparik. Neugandik jaurti ezin izan neban zaldi-zangoa, munduan oso kaltegarri litzakit; beraz, aspaldi ezkeroz, beste gazte askok lez, guzurrezko bernazakiak daroadaz.

SORGIÑA (*dantzatuz*).—*Pozari eutsi eziñik* nago, Satan prestua emen ikusiaz!

MEFIsToFELE.—Aurrerantzean, emakume, ez daustazu izen ori emongo!

SoRGIÑ'A.—Zergaitik? Zer egin dautzut?

MEEnsToFELE.—Aspaldidanik alegien zenbakian idatzirik da-goalako, eta gizonak origaitik obeagotu ez diralako; gatxetik ja-rein dira, baiña eurak gaitz egiten darraie. Dei egidazu jaun baroia, gauzea olan ondo doa-ta; ni zalduna nozu, beste guztiak lez. Zuk ez izan zalantzik nire odol argiaren'k; begira, auxe da nire armarri ta ikurdia, nire zuzengailu!

Onako kiñu zantar egiten dau

SORGIÑA (*nasai barrezka*).—*A! A!* Au da zure antzea? Zu betikoa zara, atarri puxiga bat!

MEFISTOFELE (*Fausei*).—*Ene adiskide, ikas ortik!* Orrela jokatatu bear da sorgiñakin.

SoRGIÑ'A.—*Esaidazue orain, jaunak, zer mirabe-lan egin neinkizu?*

MEFIsToFELE.—*Eiguzu txol bete edari zeuk dakizun onene-*

tik! Zarrena daskatzut gero, urteak indarra geitu daroe-ta.

SoRGIÑA.—Atsegin aundiz! Or daukat bonbiltxo bat, neuk noizk bein bertatik edan oi dodana, bape mingostasunik ez dauana; ortixek eskiñiko dautzuet poz k txol bana. (*Me!istofele'ri aopekaka*). Baiña gizon onek gertau barik edaten ba'dau, ezingo da bizi, zuk ondo dakizunez, ordu betean be.

MEFISTOFELE.—Adiskide ona dot, au osasungarri izango yako; zeure sukaldean daukazunik onena deskatzut berarentzat. Ia, egin zeure kurutzea, mintza zure itzak, eta emoiozu ontzi bete!

(*Sorgiñak obo bat dagi kiñu bitxiz, eta bertan ipinten ditu mila gauza bakan; edontziak eta galdarak bitartean alkar joka asten dira, musika arrotza aterarik. Azkenez, liburu aundi bat dakar, oboan jarten dauz abereak, liburuari eusteko ta argontziak euki dagiezan, eta Faust'i diñotsa urreratu daitela beragana.*)

FAUST (Mefistofele'ri). *Baiña*, esaidazu, noiz amaituko dau tríki-maillu ori. Egiteko zoro orreik, esku-ziñu suak artu orreik, zentzunbako iñeskak egite guzti ori, larregi be ezagunak ditut. Orixegaitik latz-ikara dakarste.

MEFISTOFELE.—GUZt' a dozu guzur-uts. Obeto, barre gurea ekarri bear leuskizu; tira, ez zaitez jarri ain astun. Osakai-arloan aitua da-ta, bere kiñu-ziñuak egin bear dauz lenengo, irazki edo zoro-edariak zukan bere egiña burutu dagian.

Faust be oboan sar-erazten. Sorgiñak liburuan irakurten dau-tso, zoli-zoli esanik:

SORGIÑA.—

Uler eidazu!
Ein batez amar,
ta bi kendurik,
iruz geiturik,
aberats zara.
Gero itxi laua,
ar bost eta sei
—diño sorgiñak—,
zazpi ta zortzi
olan egiñik.
Beratzi bat da

ta amar ezer ez;
au sorgiñaren
liburuan dago.

FAVST.—Atso au, zigur, burutik eginda daukagu.

MEFISTOFELE.—Eta oindiño aundiagoak ikusiko dituzu liburu tzan orretan dauzan bitxikeriak irakurri orduko. Ez dakizu zenbat denpora alperrik galdu eragin daustan; ukatze oso bat, bada, jakitunarentzat baizen ulert-eziña da ez-jakiñarentzat, beregan dagoanarentzat naiz zorionarentzat, bardin. Ene kutun, antzea zer ta barri dozu batera. Auxe izan zan beti, iru ta bat, eta bat eta iru, egiaren orde z okerra zabaltzeko tankera. Onda, aldia galdu oi da barriketa gatz-bakoetan, bape ardura barik guzurra ereinik. Nori dautso ezer zoro batzukaitik? Geienetan, itzak baiño entzun ezik, gizonak uste dau itzok naitaez zerbait adierazo bear dabela.

SORGIÑA. (*jarraituz*).—

Jakin-kemena
gorderik dago
lur osoari!
Baiña emona
izango yako
axol-ezari.

FAUST.—Ori bai ergelkeria! Ler-bearrean dot burua; eun mi-Ha zorori entzuten nagoala begitanduten yat.

MEFISTOFELE.—Naiko! , naiko! , azti akitu; emoiguzu zeure edaritik, eta txolak ertzetaraiño bete gero; ez izan nire adiskideari kalte egingo dautsazunaren bildurrik; edarira egiña dago, ta garaipen nabariak izan ditu orretan.

(*Sorgiñak zeremoni askoren artean bete daroa ontzia, ta Faust'ek bedar-edaria bere ezpanetara eroan-ala, gar ariña erneten da edontzitik*).

MEFISTOFELE.—Ea, biotz on, edaizu zurrutada baten, eta ikusiko dozu zelan pozten yatzun biotza. Daitekena ete da, zagozan lez Deabruarekin egonik, garrak zu ainbestean izutzea?

(*Sorgiñak oboa apurtu daroa, ta Faust andik urteten*).

Orain goazan bertatik; geldi egotea ez yatzu egoki.

SoRGIÑA.—On egin dazula zurrutatxoak!

MEFISTOFELE (*Sorgiñari*).—Nire bear-izanik ba'zendu, osa tea baiño ez daukazu Walpurgis gabean.

SORGIÑA.—Or doakizue kanta bat! Berori ortz-artean kantatuz, ondoren bakanak nabari izango dozuez.

MEFISTOFELE.—Zatoz laster, eta itxi zuzentzen: bearbearrezko dozu izerdia, indarra barru ta konpo sar daizun. Gero, nasai-egotearen gozotasuna gozo-azoko dautzut, eta laster jakingo dozu zeure izate osoaren xarmaduran zeintzuk diran Kupido'ren zoral-diak.

FAUST.—A! Itxi eidazu ispilluari azken-begitua egiten! Ain zan ederra emakume aren arpegia!

MEFISTOFELE.—Ez! , ez! Laster eukiko dozu zeure aurrean, biziz beterik, emakume guztien eredu dana. (*Ixilka*). Edari ori gorputzean dozula, Elena bat ikusiko dozu euretako baktotxean.

KALEA

Faust. Margarite (bidenabar).

FAUST.—Andereño eder, azartuko ete naz, zuri lagunduz neure besoa zuri eskeintzen?

MARGARITE.—Ni ez nozu andereño, ezta ederra be, eta ez dot bear iñoren laguntzarik neure etxera joateko.

FAUST.—Zeruak! Gazte eder bat dot; ez neban neure bizitzan gauza bardiñik ikusi; modu onekoa dozu ta eskertsu batera, ta liluratzen nauan zoramene ezin-esana dario. Ez dodaz iñoiz aztuko beronen matraillen leuna ta ezpanen goria! Begiak beerantza zuzentzen zitun nire biotzetik geiago kenduko ez dan moduan; eta bere nigandik alde-egite au, ain zakarra izan dala, bai yatala maitagarri! (*Mefistofele dator barrura*). Entzun, gazte ori irabazi bear daustazu.

MEFISTOFELE.—Zein?

FAUST.—Oraintxe berton emendik igaro dana.

MEFISTOFELE.—Arakoa? Ederto! Aren autorlea ikusten izan-

da nator: oben guztiak asketsi dautsoz. Bere atzean egokitu naz, eta errugabetasuna bera dala esan neikezu; autorrentzulearen oiñetara joan da, damu izateko ezer ez dukala; ez dot orregan aal-izaterik.

FAUST.—Eta, alan be, amalau urtetik gora daukaz.

MEFISTOFELE.—JOn lizunaren antzera mintzatzen zara; arek be, ba, beretzat opa ditu lorarik liraiñenak, eta uste dau ez da-goala ez osperik, ez aintzarik, eskura ezin daitekenik; baiña orre-la ez da jazo oi beti.

FAUST.—Aski, jauna, laga nagizu bakean eta egizu diñoketzu-danaren arabera; gaur gabeen neure beso artean ez ba'neuko gazte lilluragarri a, beti-betiko bananduko gara.

MEFISTOFELE.—Begira, batez be, ortarako aurretik egin bear dana; amabos, egun bear dodaz gitxienez, abagunearen zain.

FAUST.—Eta nik zazpi ordu bakar-bakarrik ba'neuz neure es-kuan, ez neuke zure laguntasunik bearco dalako gaztea irabazi ta neureganatzeko.

MEFISTOFELE.—Ia-ia frantses baten antzera mintzatzen zara; ez eizu, arren, zeure burua orrela oiñazetu. Zertarako atsegiña orrenbeste aurreratu? Aren lillura askoz urriagoa da, frantses ipuin batzuk diñoskuenez, aurretik, askotariko zorakeri ta nasketa leu-nez, zure andrakilla esitu ta makur-azten ezpada.

FAUST.—Zer daust niri guzti ori, olako sugarririk bat bera be bear ez ba'dot?

MEFISTOFELE.—Orain bada, bein betiko diñotzut ben-benik, ume eder aregaz ezin zaitekezala orren azkar ibilli; indarra aregaz alper-alperrikkoa litzateke; eskernio ta maltzurkeriz jokatu bear dogu.

FAUST.—Eidazu, otoi, aingeru onen ondasunetatik zerbait, be-rak bere bular artean eroandako zapi bat, adibidez; emoidazu, neure saperoa arintzeko, aren kaltzamar bat bederen.

MEFISTOFELE.—ZeUre oiñazea arindu nai dodan ala ez dodan jakin daizun, aldirik ez dogula galdu bear diñotzut; gaur berton eroan nai zaitut, ba, aren gelara.

FAUST.—Eta ikusi al izango ete dot? Neuretu?

MEFISTOFELE.—EZ! Auzoko baten etxean egongo da-ta. Alan be, askatsun osoz mozkortu al izango zara arek arnastu izan dauan

aizeaz eta urreko zorion aldi baten itxaropen zoragarritan kulunkatu.

FAUST.—Joan geintekoz?

MEFISTOFELE.—Goizegi da Oindii o.

FAUST.—Ia eskuratzen daustazun atsegin-sari bat beretzat. (*Ba-doa*).

MEFISTOFELE.—Emoitzak ain arin? Ederto! Nai dauana eukiko dau. Toki eder asko ezagutzen ditut, eta aspaldi dala obiratutako altxorrek ugari. Euroi ikusi bat egitera joango naitzazu.

GABA

Egonleku txiki garbia. Margarite'ren gela.

MARGARITE (*bere ule-adatsa apaindu ta txortatzen*).—*Edozer gauza emongo neunke, gaur go¹zeko zalduna nor izan dan jakitearren; aren arpegi ta ibilkerak argi be argi erakusten eben bere etorkiaren gurentasuna; zelan, orrela izan ezik, erakutsi eikean ainbesteko txairotasuna? Ba-doa.*

MEFISTOFELE.—Erdu barrura, baiña astiro; ia, zatoz!

FAUST (*geldiune baten ondoren*).—*Arren, laga nagizu bakarrik.*

MEFISTOFELE (*dana ikusi nairik*).—*Neskatxa guztiak ez daukie euren gelea ain garbi ta txukun. Ba-doa.*

FAUST (*ezker-eskumara begira*).—*Agur, goiznabar eder, santutegi ontara zatozana; zatoz neure biotzera, itxaro-iruntzez leunki janaritzen zarean maitasunezko zauri atsegiña! Emen dana dozu bake-arnasa, era ta poza! Zelako ugaritasuna txirotasun ontan, zenbat alaitasun morroiliope ontñ! (*Oe ondoko narruzko jarlekuan etzuten da*). Ar nagizu, zuk, samiñean naiz pozean, joan belaunaldiak artzeko besoak beti zabalik euki dozuzan orrek! Aurtxoak, zenbat bidar naas-maas eskegi izan diran asaben bakaulki onen ingurumari! Nire kutuna be, bear bada, Gabonetako poz-esker onez gaiñezka, bein baiño geiagotan markurtuko zan emen, bere ume-matrail guriakaz, bere aititaren esku tximurrez betea, onbera, mosukatzeke. Neure inguruan, o ume eder! , zabuka somatzen dot, ama samur batek lez, egunero eskolatzen zaitun ekonomi ta erazko ezpiritu ori; orretzek da-*

motzu burura zelan zabaldu bear dozun mai gaiñean zamaua, baita orretzek erakusten dautzu zelaian ondarra zelan barraia bear dan be. O esku laztan, jainkozko esku!, txabola au orrek bait dau atsedentoki biurtu, ta or..r (*Oge-zintzilikari bat jaso daroa*). Zorabioak nau artzen! Or emongo neuke nik betiraun osoa, aldiaren luzapenez oartu bage: ortxe izan zan, o Izadi! , bai ortxe zuk osotu zendun amets gozo artean, lurrean jaiotako aingeru a; ortxe, ume ak, bero ta biziz pilpilka, lo dagian leku orretan; ortxe, jainkoen irudia, egintza santu ta garbian zabal-erazi zan lekuan! Eta zu, nok zuzendu zaitu ona? Sakona bai nik oartzen dodan zirrara! Zeren billa zatoz ona? Zergaitik estutzen da onan nire bulana? Faust gaixo, etzaitut onezkero ezagutzen! Bear bada, aizeufada sorginduan nago biribildua? Atsegin-zale urten nintzan, eta orain ames maitekorretan galdua nabil! Putz dagian aize bako txaren jostaillu ete gara? Eta une onetan bera ona sar ba'ledi, zuk bai garesti ordainduko zeure ausardia! A!, Jon aundia, bai txiki litzatekela! Lotsaz ta kezka gorritua, aren oiñetan geratuko litzake.

MEFI STOFELE.—Bizkor! Or dator; ba-dakusat!

FAUST.—Goazan, goazan; ez naz geiago ona biurtuko.

MEFISTOFELE.—Ona emen kutxatila au, astun samarra, olako lekuan batu dodana; sar egizu bere jantzi-aran, eta onek, zin dagitzut, zoratu eragingo dautso. Uskeri batzuk ipiñi dodaz bertan, gauza bat-bera jaristeko; umea beti da ume, ta joko bat beti da joko.

FAUST.—Ez dakit egin bear...

MEFISTOFELE.—Zetarako orrenbeste ez bai? Altxor orraz geé ratu nai dozu, bear bada? Orduan, zure zekenkeriari diñotsot nik ez daidala aldi eder au galdu eragin. Uste dot ez zareala zikoitz izango. (*Kutxatilla jantzi-aran ipiñi ta izten dau*). Ni burua xorkatzen eta eskuak garbitzen (bizkor: goazan!), neskatilla samurra zeure biotzaren naierara jarri nairik, eta zu emen zagoz geldi, zeure ikasgaia emoteko gertutzen ba'zengoz lez, zeure aurrean azur ta aragi fisika ta metafisika ule-urdira ba'zeunkaz lez. Goazan.

Ba-doa.

MARGARITE (*kruseln bategaz*).—Aizea bai emen berotua! Eta

alan be, at ez dan bero aundirik egiten. Ene Jainko, ez dakit zer nabari dodan... Ama etxean balego beintzat. Nazan guztia dar-daraz dot... Ni bai zoro onela larritzeko!

Jantziak erantziten asten da, kantari

Errege bat zan Tule'n
obiraiño kirmen,
iltekoan maiteak
urre-txol emoten.

Zaldunak batu zitun
bakal-bazkarian
itxasora begira
zegon jantokian.

Ez eban iñoiz laga,
beti andik artzen,
ta edanez begiak
malkoz ari urtzen,

ZutI azken txurruta,
bizi-sua usturik,
txol gurena urrin doa
uretan galdurik

Il-ordura zanean,
uni naiz laterri
itxiz be, txolik ez eutson
laga iñortxori.

Ikusi eban jausten
ta uretan ondatzen;
begiak naas yakozan,
ez zun geigo edan.

Edegi arasa, bere jantziak bertan izteko, la kutxatila ikusten.

Zelan egon daike kutxatilla eder au emen? Nik ondo itxi dot arasa. Arrigarri da au, egi--egiaz! Zer ete dauko barman? Bear bada, norbaitek laga dau emen nire amak zorretan egindako bai-turen baten orde. Ona bere giltz txikia, galartzu batetik atxitua; eta zabalduko ba'neu! Zer da au? jainko ona! Ikus, nire begiak ez dabe onakorik iñoiz ikusi! Apaingailuak! Onegaz edozein an-dra aundiki joan leiteke jairik ederrenera. Zelan ete daukat nik bitxi-kate au? Norena ete daiteke ainbeste edertasun? (*13Itxiak aldean jarri ta ispillura urreratzen da*). Erestunok beintzat neu-reak balitzaz! Onda, beste bat nozu! Zertarako dituzu, gazta-ro! , edertasuna ta lillurak? Danak diñoie doai oneik bikaiñenak dirala; baiña gazte beartsuaz ez da iñor gogoratzen, iñoiz en u-kizko begituren bat **Dana doa urrearen billa, dana dago urreari itsatsirik. A! , zoritxarreko gu ezeukiok!**

TXANGO BAT

Faust ara ta ona oldozkor. Me f istof ele, onen gana doa.

MEFISTOFELE.—Gaitzesten dot maitasun zapuztua! Gaitzesten ditut su-lezako deabruak. Nik gura dot, nik gura neunke jakin beste zerbait okerragoa, madarikatzeko!

FAUST.—Zer daukazu? Zer da olan asaldatzen zaituna? Ez dot neure bizitzan olako arpegi zatarrrik ikusi!

MEFISIROFELE.—Neure burua pozik emongo neuskioe deabruai, deaburik geiago ez ikustearren!

FAUST.—Zek naastu dautzu olan burua? Ba'lekusazu, zein poliki asarre-erazten zarean!

MEFISTOFELE.—Oar soilki: ba al dakizu aurrarentzat eskurera-erazo neban apaingailua apez bategana joan danik? Amak, gauza a ikusi ebanean, izu ezkutu batek artzen ebala somatu eban; eta emakume arek, beti otoitz-liburu gaiñ makurtua, sudur onekoa izanik, gauzea ona ala txarra zan jakin nai; apaundurak ikusiaz, bada, laster igarri dau ez yakola areitatik bedeinkapenik etorriko. «Ene ume —ots egin dau—, bide txarretik eskuraturiko ondasunak arimea estutu oi dabe, ta odola irotu. Eskein daiogun au Jainkoaren Amari, zeru-onespenez poztu gagizan! » Margarite etzan eritxi bardiñekoa, eta «doai bat da —iñotsan—, eta bildur barik artu daikegu; au ona ekarri dauna, gaiñera, ez da ezelan be donge bat». Amak, baiña, apez bati dei egin eutson; onek, itz gozo areik entzunik, eta gauzea begi aurrean ebala, onan oiu: «Au bai zuzen jokatzea! Ukatzen dakIanak saria eskuratzen. Eleizak urdail ederra dau; lurralde osoak iruntsi ditu, baiña ez dau sekulan janondo gaiztorik izan; eleizeak bakar-bakarrik, ene andra mai-teok, eio daikez txarto eskuraturiko ondasunak».

FAUST.—Oitura orokorra dozu; naiz judegu naiz errege batek beste orrenbeste egin daikee.

MEFISTOFELE.—Orrelaxe, berak batu zituan orratz, kate ta erestun, zirtzileriak bai'litzazan, ta eskerrik be emon bage, intxaur-otzara bat iduri, ordaiñez zerutiko doe ta sari guztiak agindu ta andrazko biak oso erakutsi ona emonik joan zan.

FAUST.—Eta neskatxa?

MEFRS TOFELE.—Urduri dago orain, ez daki zer *nai* dauan, ez

zer egin; gau ta egun bitxiak dakaz gogora, ta batez be an nok itxi ete leikeozan.

FAUST.—Neure maitearen miñak osorik zauritzen nau. Jadets eidazu beste kutxatxo bat! Lenengoa ez yatan gero ain ederra iru' ditu!

MEFISTOFELE.—A, bai! Jaunarentzat dana da ume-joko!

FAVST.—Eta egIzu, bai, egizu neuk diñotzudana: bat zaite zeu-re auzokoagaz! Egizu egiazko deabru baten anttzera, eta ekardazu apaingailu barri bat!

MEFISTOFELE.—Bal, jaun eskertsu, poz-pozik egingo dot! (*Ba-doa Faust*). Zoro maite-mindu bat gauza izango litzateke eguzki, illargi ta izar guztiak, bere maitetxoa jostatzeagaitik, malmuzkerizko sutan ondatzeko.

ALBOKOAREN ETXEA

MARTE (*bakarrik*).—*Ene* senar maiteak, Jainkoak parka da-giola, ez eban nigaz ondo jokatu! Munduan zear joan zan bera, ta ni bakarrik itxi ninduan zoritxarraren mende. Nik alan be ez neban ezertan iraindu; maite neban, ondo daki Jainkoak, biotz-biotzez. (*Negar dagi*). Onezkero, bear bada, illa dot! Au naigabea! Bere il-agiria beiñik-bein ba'neuka!

Margarite dator barrura

MARGARITE.—Marte andera?

MARTE.—Zer nai don, maite orrek?

MARGARITE.—Ozt-oztan nago zutik! Kutxatill barri bat aurkitu dot neure arasan, ebanozko kutxatilla, lenengokoak baiño askoz bitxi aberats eta bikaiñagoak daukazana.

MARTE.—EZ egion oraingoan amari esan, lengoak 1ez bere *au-*torleari eurok emotea nai ezpadon.

MARGARITE.—A! , begira! A! , ederra benetan!

MARTE (*bitxiak ipiñirik*).—O zu, izaki zoriontsu!

MARGARITE.—Ondikoz! , oneik ez kalean ez eleizan erakutsi eziña!

MARTE.—Erdi sarri ni ikusten eta emen apainduko az ezkuan bitxiokaz! Baita ordutxo baten gozatu be ispillu aurrean, eta

onek poztasuna ekarriko dausku; eta gero. izango da abaguneren bat, jairen bat, eta orrela, apurka, agirian agertu al izango dozu. Kate txiki aziko zara, gero arrakada bat belarrian; zure ama ez da konturatuko, ta konturatuta be, beti izango dogu atxakiren bat.

MARGARITE.—Nok ekarri al izan ete dauz ona kutxatxo biok? Ez dira niretzat gauza zuzenak. (*Atean ots*). Ene Jainko! , neure ama ba'litz?

MARTE (*errezel artetik begira*).—*Gizon ezezagun bat da. Aurrera!*

Mefistofele dator aurrera

MEFISTOFELE.—Parkatuko daustazuen ustea dot, ene andrak, beste barik ona sartu nazalako. (*Margarite agurtzen dan adeitsu*). Marte Shwertlein andreak itz-egin nai neunke.

MARTE.—Neu nozu. Zer dakazu niri esateko?

MEFISTOFELE (*ixilpean*).—*Ba-dazaudaz* orain, eta naikoa dot. Ikustaldia dozu; parka, otoi, izan dodan ausardi geiegia; arrastian biurtuko naz.

MARTE (*abots zoli*).—Begira, ene alaba: jaun orrek andereño nagusi lez artzen zaitu.

MARGARITE.—Alan be, txiro utsa naz; zaldun orrek lar aintzakotzat artu oi nau; jakizu, apaindura oneik ez dirala nireak.

MEFISTOFELE.—EZ dago dana apainduretan; ba-dozu zuk beste zerbait be zeure izakera ta begirada orren sarkorretan; ez dot orren zalantzarik. Ni bai pozik emen egon eta zuokaz mintzoz jardutean!

MARTE.—Zer barri dakarstazu? Siñest, benetan opa dot...

MEFISTOFELE.—Izpar a tseingarriagoen ekarle izan nai neunke, baiña uste dot ez daustazula txarto artuko esango dautzudana. Zure senarra il da, ta agur bat bialtzen dautzu.

MARTE.—Il da! Ene Jainko! Nire senar gaixoa, illa da! A! Neu be illa naz!

MARGARITE.—Ene andra kutun, etzaitez orrela etsi izan.

MEFISTOFELE.—Entzun jazokun ituna.

MARGARITE.—Auxegaitik min aundia emongo leuskit bizitzan maite izateak; niretzako, bada, olako galmena zartako eriozkiña izango litzateke.

MEFISTOFELE.—Atsegiñak naitaez bere nekeak izan bear di-tu, eta atsekabeak bere atseginaldiak.

MARTE.—Esan eidazu aren azken negargarria.

MEFISTOFELE.—Padua'n datza, Andoni Deunaren ondoan; sagaratu da, beraz, ak bere eriotz-loa lo dagian lurra.

MARTE.—Bere aldetik, ez dakarstazu ezertxo be?

MEFISTOFELE.—Bai, orixe; eskari garrantzitsu ta astuna: be-re alde irureun meza esan-azo dagizuzala. Nire ziskuai dagokienez, ondo utsik dagozala.

MARTE.—Zelan! Ez domiña bat, ez beste zerbait be ez! Esku-langille batek ezeuki gorrian bizita be, aurreztu ta gomutaki bat lez arduratsu gorde oi dauan zerbait, eskean naiz gosakillik egon arren... olako ezer bez?

MEFISTOFELE.—Oindiño, andra, urraturik daukat biotza; etzan a ondatzaille, baiña zori txarrekoa izan da oso; alan eta guz-ti be, damututa il dalako pozik azkortu zaizala.

MARGARITE.—A! Gizonak bai dirala zori gaiztoko! Ez, ez naz aztuko: «requiem» bat baiño geiago esan-azoko ditut bere alde.

MEFISTOFELE.—Neskatx biotz-onbera ta zoragarria zara; eta, beraz, lastertxo ezkontzeko gai zareana.

MARGARITE.—Oraingoz beintzat, ez dot gura ezertara be.

MEFISTOFELE.—Senarra ez baldin ba'da, maitale bat beiñik-bein euki bear zeunke; ez bait dago gozoagorik, geuk maite dogu-naren auzoan emoten diran orduak aiñakorik.

MARGARITE.—Uri onetan ez dago olako oiturarik.

MEFISTOFELE.—Dala edo ez dala oitura, egin daikena dozu.

MARTE.—Eralgi eidazu, ba...

MEFISTOFELE.—Bere eriotz-oe ondoan nengoan; tantan bat zan au, bere lasta-marraga oso-osorik ustelduta egoan-eta; baiña kristiñau lez il zan guztiz, berak merezi eban baiño askoz obeto egoala esan eta esanaz. «A! —ots-egian—, ni bai nazala itxusgar-ri neure ogibidea ta emaztea bertanbera itxi dodazalako! A! Go-mutapen onek il naroa! Parkatuko ete daust?»

MARTE (*negarrez*).—*Ene* senar on gaixoa! Aspaldi dala par-katua zaitut!

MEFISTOFELE.—«Baiña —gaineratzen eban—, Jainkoak ba-daki, bera ni baiño errudunago zan-eta».

MARTE.—Orretan guzurra ifioan, illobi ertzean bere burua ikusita be.

MEFISTOFELE.—Ez da arrigarri, azkenean, txarto gogoratzen ez ba'dot, txotxaturik aurkitzen zan-eta. «Egundo be —iñoan—e-z neban bere ondoan bakerik izan; bear-bearreko izan yatan, ba, ez bakarrik ezkontza-zama eroan eta neure semea-alabak bear eben ogia irabaztea, ezin izan neban oindiño bakean artu ortik egokidan zati urria be.

MARTE.—Zelan! Daitekena ete da, nire ardurak eta nire leia samur iraukorra aztuteraíño eldu izatea?

MEFISTOFELE.—Bestera, bere arima muiñean ondo josita eukozala, uste dot. «Malta'tik alde egin nebanean —iñoan—, neure emazte ta seme-alaben alde gogoz otoitz egin neban, eta zerua onbera agertu yatala autortu bear dot, gure ontziak bada sultan'en altxorrez betetako marka bat atxillo artu eban. Adore-ausardiak sariztatua izan zan; eta niri, berezko zanez, zati eder bat jaurri ya tan».

MARTE.—Zelan? Nun izan zan ori? Lurperatua da, bear bada, aren altxorra?

MEFISTOFELE.—Nok daki nora eroan daben lau aizeak? Gazte eder bat maite-mindu zan aregaz Napoles uria ikusten ebillen bitartean, eta ain bizi maite izan bait eban, azken orduan be ezin izan eban aztu.

MARTE.—Galuts! Lapur seme-alabena! Orduan, ez zori txarrak ez mixeriak etziran naiko izan bere bizimodu galdu ta izen-ga itxi-azteko!

MERISTOFELE.—Ba-dakizu zelan ji dan. Nire eskuetan ba'lego, ekanduak atonduta daukan urte beteko illeta-soiñeko latza eroango neunke, ta gero beste senar bat billatu.

MARTE.—Ene Jainko! Nekez be nekez aurkituko neunke munduan lenengo arek lako gaitasundunik, zoro bat zala be, ba, biotz aundiko zoroa zan; akats oneik besterik ez eban: joan-etorriak, emakumak, ardao arrotza ta seiko joko madarikatu orri eutson zaltetan larregia.

MERISTOFELE.—Olan errezagó eroango zeunke, barriz olakorik jazoko ba'litzakizu. Baldintza onenpean, egi-egiaz diñotzut, gogo onez aldatuko neunke zugaz erestuna.

MARTE.—A! Zu bai txintxilla ta olgeta zale!

MEFISTOFELE (*banazean*).—*Ba-noa* emendik; emakumea da ta itzetik eldu leikeo deabruari. (*Margarite'ri*). Zelan daukazu biotza?

MARGARITE.—Zer igarri nai dozu orregaz?

MEFISTOFELE (*banazean*).—*Izaki* on ta biotz-zuri! (*Abots zoliz*). Andrea, agurtu nai zaituet.

MARGARITE.—AgUr.

MARTE.—Joan baiño len, esaidazu, arren, noiz eta nun gexotu zan nire senarra, noiz il zan eta lurra emon eutsoen, edozetan eta noiz-nai erea atsegin izan yat-eta. Nai neunke, gaiñera, aren eriotza agirian iragarria izan daitela.

MEFISTOFELE.—Errezago ezin, andrea; errialde guztietan naido da, ba, testigu biren autortza egia ziurtatzeko, ta neugaz dator gazte zerden bat, neure lagun kutuna; bera agert-azoko dot epaikariaren aurrean: beraren billa noa.

MARTE.—Millesker b'otz-biotzez!

MEFISTOFELE.—Gazte ori be bego ementxe, danon aurrean. Mutil sekulako bat da, asko ibilli ta ikusia, eta batez be atsegiña, ondo-azia ta labana neskatiillakaz.

MARGARITE.—Matraillak gorrituko yataz olako zaldunaren aurrean.

MEFISTOFELE.—EZta, lurreko edozein erregeren aurrean bez.

MARTE.—An, neure baratzean, zaldun orrein zain gaukazuz gaur gabeen.

KALE BAT

FAUST.—Zer barri?Zelan doa gauzea? Laster burutzeko?

MEFISTOFELE.—Ori, ori! Orrela nai zaitut, beti bizkor! Margarite laster dozu zeurea. Gaur illuntzean, Marte'ren etxean ikusiko dozu; bere auzokoa da au, emakume oso egokia bitarte ta lupemetzarako.

FAUST.—Guztiz ondo!

MEFISTOFELE.—Orrek, alan be, gauza bat eskatzen.

FAUST.—Mesede batek merezi dau beste bat.

MEFIsToFELE.—Epaikariaren aurrean autortu bear dogu, Mar-te'ren senarraren gorpua, lur santuan obiratuta, Padua'n datzala.

FAUsT.—Ederto baiño edertoago! Padua'ra joan bearra dogu, beraz?

MEFIsToFELE.—Sancta *simplicitas!* Ez dago olakorik! Ezer jakin ez arren, testigantza emon bear da bakar-bakarrik.

FAUsT.—Buruak beste gauza obarik ez ba'dakartzu, oindixek diñotzut asmo orrek azken gaiztorako bidea doala.

MEFISTOFELE.—0, gizon dontsu! Ortan gagoz? Zeure bizi-tzan lenengooz, bear bada, emoten ete guzurrezko testigantza? Ez zara azartu, arte ta gentza nasaian, Jainkoa, mundua, berton jazo oi dan guztia, eta gizonaren adimenak eta biotzak sortazi lei-keezan esmoak oro itzez mugatu ta erabagiten? Eta, alan be, zeu-re izate-barrenera jasten ba'zara, guzti orri buruz ez dakizula, au-tortuko daustazu, Schwertlein'en eriotzeari buruz orain dakizu-na baiño geiago.

FAUsT.—Beti zara ta izango zara guzurti ta sofista bat.

MEHsToRELE.—Izango naz, baiña bestetik izango dira ni bai-ño askoz geiago diranak. Zu be, deduzko gizona, etzara joango biar Margarite gaixoa zirikatu, irabazi ta zeuganatzera, arekiko maitasun garbi laiñoa zin-egiñik?

FAUsT.—Bai, beintzat; eta nire itzak, ez dira guzurrezkoak izango, biotz barru-barrutik urtenak baiño.

MEFIsToFELE.—Bapo! Eta gero mintzatuko zaiakoz iraupen betikoz, maitasun istu ta ezeztu eziñez, joera eutsi-ezin eta baka-rrari buruz; eta, itz guzti orreik be, bear bada, biotzaren azpi-azpitik urtengo yatzuz?

FAUsT.—Bali! Biotza ausirik ba'daukot, eta neure barne-zirrentzat eurok adierazoko ditun izen baten billa alperrik ba' nabil; neure zentzun guztikaz mundua barna galdu ta itzik bi-kaiñenak ezarri, irakiten naukan suari «azkenbako», «betiko» ta antzeko izenak emoteraiño, ain zuzen be... izan ete daiteke au deabruaren iruzur eta atzipe bat?

MEFIsToFELE.—Ba-dakutsu, beraz, izpidean nagoala.

FAUsr.—Entzun eidazu ondo, ta ez nagizu geiago nekerazi: errazoiaren jabe izen nai dauanak, berak bakarrik itz-egiterakoan, naitaez euki bear. Or, ba: itz eta itz, nekatuta nago; olan jarrai-

tzen ba'dozu, errazoia daukakezu, ta zuk nai dozuna nik egin bearko.

BARATZA

Margarite, Faust'en besotik; MARTE TA MEFISTOFELE ara ta ona dabiltz, egurasten.

MARGARITE.—Ba-dakust, jauna, nigaz oso biotz-samur zareana, ta ori ni lotsapetzeko dagizuna. Bidazti guztiak egin daroe orrelaxe. Baiña eziña da zu lako gizaseme ikasi bati nire autuak interesik emotea.

FAUST.—Zure begi-sista batek, zure itz batek, mundu onetako jakintza guztiak baiño geiago diñost niri! (*Eskuan mun-dagitso*).

MARGARITE.—Ez olako nekerik artu! Zelan mosukatu zeinke esku ain kakola? Nire ama guztiz zorrotza da-ta, etxeko zeregin guztiak betetako beartu oi nau. (*Igaroz doaz*).

MARTE.—Eta zuk, jaun orrek, itxura danez, osterak dagizuz eten barik?

MEFISTOFELE.—A! Zer nai dozu? Garatzak, bearkunak, edozek ortara bultz-daragiskue. Tokirik asko laga oi doguz ondo mindurik! Eta, alan be, ez gara azartzen orreitan jarraitzen.

MARTE.—Bat gaztea danean pozik ib?lli oi da, nik uste, munduan zear, alderrai ta nun zer barri; baiña laster eldu oi da aldi txarra, ta iñori be ez yako atsegin izan mutilzar eta bakarrik obirantza narras egitea.

MEFISTOFELE (banazean).—Latz-ikara sarten daust orrek, ond+kek.

MARTE.—Orixegaitik, jaun on, sasoiz atondu bear dozuz gauzak. (*Ibilliz dabiltz*).

MARGARITE.—Eta bein euretatik urrindu ezkerro, ez dituzu geiago gogoratuko. Bai, begietatik urrin, biotzetik be urrin! Jentetasuna etxeko yatzu; baiña neskatz adiskide asko daukazuz eta zalantzik bage ni baiño zakar-ezagoak.

FAUST.—Siñest eidazu, ene maite, guzti ori, munduak jentetasuna ta jakintza esaten dautson ori, uskeria ta asko-eritxia berterik ez da.

MARGARITE.—Zelan?

FAUST.—**A!** Bakuntasuna ta erru-bakotasunak, ez ete dabe iñoiz be alkar ezagutuko, ezta eurok daukien goitar kemena be? Zer dala-ta erabidca, apaltasuna, Izadiak eurrez banakatzen dauazan goitar doai orreik...?

MARGARITE.—Gogora naizu ni pizkaten; nik zu gogoratzcko izango dot astirik naiko.

FAUST.—Bakarrik egoten ete zara?

MARGARITE.—Baⁱ; gure etxeko gauzak ez dira asko. baiña eraz euki bearra daukagu. Gaiñera, ez dogu neskamerik, eta jatekoa atondu bear dot, kaltzerdiak egin, josi ta goiz ta arrasti urten; nire ama ain dozu maratza ta zeatza edozertan! Eta, egia esan, ez dau bere aurkikerak ortara beartzen; alderantziz, ori danoi itxi leikeana dau, nire aitag ba euki polita laga euskun, etxetxo bat eta uritik kanpo ortu bat. Orain, orraitño, egun nare baketsuak igaro oi doclaz; gudari dago nire nebea, nire aiztea ii zan, aur errukarriak niri ordu txarrak emonda. Oindiño be emon al ba' leustaz! Oso maite neban!

FAUST.—Aingeru bat noski, zure antzekoa ba'zan.

MARGARITE.—Ama ordeko nintzakion ni, ta berak samurkero maite ninduan; nire aita ilda gero jaio zan; nire ama barriz orduan guztiz txarto egoan, ta bildur nintzan galduko etc neban; baina azkenean be onera egin eban astiro ta neketsu. Egokera aretan, eziña yakon nire aizatxoa aztea, ta neuk alikatzen neban esnez ta urez; arrezkero azten eta irribarre egiten neure besoetan eta belaun gaiñean ikusirik.

FAUST.—Orduan, ziur nago, zorionik garbiena sumatuko zenuan.

MARGARITE.—Bai, olantxe da; baiña izan nituan ordu garraztak be. Aren kumatxoa gabaz neure oe-ondoan egon oi zan, eta neskatoak zirkin egin ordukoxe ni jagita nengoan; orduan naitaez edaten emon bear neutson eta neure alboan etzun-azo; ixiltzen ez ba'zan, goizaldera arte, otzak besoetan erabilli bear neban; eta, alan be, egun-sentian ikuz-lekura joan bear izaten neban, gauzak erosten, ta etxea atondu bear, egun baten bertan be arazo orretan utsik egin bagarik. Origaitik ba-dakizu, jauna, etzala gauzea guztiz alai egoteko lakoxea; orrela, alan be, janaria gozoago

iruditzen yatzu, ta atsegiñago gabeko loa. (*Ba-dabilz ibilli*).

MARTE.—Emakume gaixoak orretan galtzen dabe burua. Gaxta da, izan be, ezkongea bat onera ekarte!

MEFISTOFELE.—Zu lako bategaz bide-oneratuko nintzateke ni.

MARTE.—Mintza zakidaz, jauna, argi ta garbi; ez dozu oindiño ezer idoro? Ez dautzu ezek biotza urtu?

MEFISTOFELE.—Esaera zarrak diño: «Sukalde bat eta emakume on bat eukitea, urre ta txirlarriak baiño obe».

MARTE.—Esan nai neutzun iñoz begi onez ikusia izan ete zarea.

MEFISTOFELE.—Toki guztietan izan naz adeitsu artua.

MARTE.—Baiña, zure biotzak ez dau euki orain arte olako kuntxoren bat?

MEFISTOFELE.—Iñoiz ez da andrazkoakaz txantxetan ibilli bear.

MARTE.—A! Dakustanez ez nozu ulertzen.

MEFISTOFELE.—Mingari yat! Ulertzen dot bai... oso maitagarri zareana. (*Ba-dabilz*).

FAUST.—Zuk, beraz, ene aingeru! , ezagutu ninduzun baratzean sartuaz batera?

MARGARITE.—EZ zenduan ikusi zelan eratsi nebazan neure begiak?

FAUST.—Eta parkatzen al daustazu nire uste onik geiegia, lengoan zu eleizatik urtetean, nik izan nebana?

MARGARITE.—Senetik urtenda geratu nintzan, iñoiz ez yatan ba olakorik gertatu, ta uste neban ez nebala biderik emon nigaitik ezer txarrik esan egien. «A! —bururatu yatan—. Modu duin-ezak sumatu d'tu ain zuzen be zuregan, alan egiten azartu danean». Alan be, autortzen dautzut: zerbait nabari izan neban neure kautan, nik nai lez zu iguintzen itxi ez eustana. Ori zio, neure buruaz musturtu nintzan.

FAUST.—Ene maiteño atsegin!

MARGARITE.—Laga pizkaten. (*Margarita-lili bat artu ta orriultzen dau*).

FAUST.—Zer egiten diarduzu? Lora-txorta bat?

MARGARITE.—EZ, jolas utsa da.

FAUST.—Zelan?

MARcARITE.—Ez! Neure lepotik barre egingo zeunke. (*Orriultzen dau abarra ta mormoxean dago ixil-ixillik*).

FEUsT.—Zercn mormoxa ete?

MARGARITE (*agots erdiz*).—Maite nau... Ez nau maite...

FAUsT.—O, izaki goitar!

MARGARITE (*jarraituz*)r—Maite nau... Ez nau maite. (*Azken ostoa kendurik, pozarren*). Maite nau!

FAUST.—Bai, ene alaba; bedi zureztat lora baten abotsa jainkoen erantzuna, Maite zaitu! (*Esku bietatik oraturik*). Ulertzen dozu onek zer esan nai dauan? Maite zaitu...!

MARGARITE.—Ai! Dardaraz nago!

FAUST.—A! , ez ikaratu! Begitu onek eta esku-estutze onek esan bekizu adierazo ezin daitekena. Betidaiñokoa izan bear leuken lera-grañari emon, oso-osorik! Betikoa, bai, beronen amaia etsipena litzateke-ta. Ez bei, ba, amair'k izan! (*Margarite'k, eskua estutu, 'arein eta igesari emoten; Faust oldozkor geratzen da, ta gero aren atzetik doa iradu*).

MARTE (*urrenatuaz*).—Gain dogu gaba.

MEFISTOFELE.—Bai, baztertuz goaz.

MARTE.—Pozik erregutuko zindukedaz geurean geratu zaitetan; baiña emengo jentea gaiztoegia da. Iñok ez daukala, esan daiteke, erabagi bearreko beste auzirik, iñoz ek arela ezin dau aoz-ao erabiltetik iges egin! Eta gure bikote gaztea?

ME^PisT^OFELÉ.—Ibilbide orreitatik zear joan izango dita, pitxilote alaiak iduri.

MARTE.—Maite dauala esan daiteke.

MENsToFELÉ.—Eta neskatak bera. Orrela doa mundua!

BARATZEKO TXOSNA BAT

(*Margarite'k, zapant batez bertan sartu ta ate ostean ostendu ta, atzarnar bat ezpanetan dauala, ertxietik begiratzen dau*).

MARcARITE.—EMen dator!

FAUST (*eltzean*).—A, barrabantxo! Olan niri adarra joten? Atzi zaitut! (*Laztantzzen dau*).

MARGARITE (*ani oratu ta laztanduz*).—O zu, gizonik onena! B'otzez maite zaitut! (*ifefistofele ate-/oka*).

FAUST (*oiñez bea joten*).—Nor da?

MEFISTOFELE.—Adiskide on ba.

FAUST.—Pizti tzar!

MEFISTOFELE.—Ordua da ;adanik banantzeko.

MARTE (*elduaz*).—*Bai*, ene jaun, berandu da.

FAUST.—Itxiko daustazu laguntzen?

MARGARITE.—Nire amak... Agur!

FAUST.—Orduan banandu egin bear? Agur!

MARTE.—Gabon.

MARGARITE.—LaSter ikusi arte!

(*Faust eta Mefisto fele ba-doa*).

MARGARITE.—Jainko maite! Beste barik, zer uste izango ete dau gizon orrek? bere aurrean beti nago aalke ta lotsor, eta edo-zergaitik beti diñotsat baietz. Ume txiro, ez-jakiña baiño ez ba'naz, ez dakit nigan zer aurkitu daikean. (*Ba-doa*).

BASOA TA KOBÁ-ZULOA

FAUST (*bakarrik*).—Ezpiritu guren, eskari guztia emon daustazuna. Ez bera sumatu ta goratzeko. Ez daustazu gaiñera mireste otz ergel bat bakarrik eskuratu, baita emon daustazu, bere bular sakonean, ad'skide baten errai barruan lez, sartu ta arakatzea. Zeuk ipiñi daustazuz begi aurrean bizidun guztiak, baita erakutsi be neure anaiak ezagutzen baso ixillean, eguratsean eta urean; eta ekatxak oianean orro dagianean, eta lerrondo tantaiak totorretik-ataraz, urreko zugatzen adarrak zapaldu ta azpiratuz, muiñoak alako abarrotsez dardar dagianean, orduan egokitu oi daustazu aterpe segurua koba-zuloetan, eta antxe iragarten daustazuz neure izatearen arrigarritasun eta ezkutu sakonak oro. Eta gero, neure begipean, gora doa illargia, dana samurturik; eta orduan dakustaz arkaitzen erraitik eta sasi-muluetatik, ezorik, joanaren itzal zuriak txirrist egiten, ikustearen limurkeri laza, bigun egiñik. A! Ondo ulertu daroat orain, gizonarentzat ezin egon daitekela ezer osorik. Lagun bat emon zeustan poztasun ontarako, geiago ta geiago jainkoengana urreratzen nauana; au onezkero ezin neinke neugandik erauzi, naiz-ta onek, otz eta nabarmen, neure aurrean ni beeratu

ta apal-azi, ta zure doaiak aize-ufa batez ezerezean itzali. Nire biotza sustatuz poztu oi da, aingeru eder orren bitartez irrits zakarrean, ni ikustearren. Olan guraritik atsegiñera noa eriosuar eta odol-bero, eta atsegiñean gurariagaitik irrikatzen nago. (*Mefistofele dator aurrera*).

MEFISTOFELE. —Etzaitu oindiño bizimodu onek nekatzen? Azkenean be, ez al dozu itxiko? Ona da bein danetik txastatea; baiña gero biozkada barriak billa joan bear dau gizonak!

FAUST.—Nik gurago neunke, zuk zeure orduak, niri egun onak muskiltzen barik, beste zerbaiten jalgiko ba'zenduz!

MEFISTOFELE.—Ondo, ondo! , guztiz trankil itxiko zaitut; ziur asko, ez daustazu ori egitan esaten. Izatez ta egitez be, ez litzakit zori txar aundia izango zu lako lagun orren mingor, saputz zoro bategandik alde egitea. Egunero daukazuz eskuak doaiz beterik! Baiña nok igarri, bere betartez, jaunari eder yakona edo ezer ez yakona?

FAUST.—Orixe da, ain zuzen be, zure betiko leloa! Gogait eragiten daust, eta eskerrak emotea nai dau.

MEFISTOFELE.—ZUK ni barik zelan zuzenduko zeunke zeure bizibidea, lur-sume gaixo orrek? Neuk osatu zindudazan zati baterako zeure irudimen-zorakerietatik, eta uka eziña da, neu izan ezpa-nintz, urrin zengozan onezkero mundu onetatik. Zer darabil-tzu emen koba-zuloetan, gau-ontz baten antzera arkaitz-artetan gorderik? Zertarako, txantxikuaren taiuko, janari billa diarduzu oroldi ezean eta arri bustietan? A! , zelako asti-emokarri! Oraindik dakustanez, Irakaslea daroazu soiñean txit barne.

FAUST.—Ez zara oartzen, bakartade onetan ara-ona ibilteak bizitz-indar barria dakarstala? Baiña ez; ontaz oar ba'zendiz, nai-koa txerren izango ziñake daukadan zorionez ni gabetzeko!

MEFISTOFELE.—Atsegin goitar bat! Zelan ez' gabaz mendi bustian etzun, zerua ta lurra besarkatu zorabiatu; jainkotasun bat uste izateraiño arroldu; gogamenaren urduritasunez lurraren osiñeraiño barrendu; bularrean nabari izan sei eguneko lan osoa; kemen aunditan gozatu... ez dakit zer; ixuri maitekorrez guztiren billa oldartu; lur-semeari gero ta ondarrerago amiltzen itxi, ta azkenez dana amaitu (*kifitt bat egiñez*), ez naiatzu esaten azartzen, zorabio gain-gaiñekoan...

FAUST.—Zagoz ixillik.

MEFISTOFELE.—EZ yatzu au gogoko; eta eskubidea dozu ixillik egon nadilla esateko. Bat ez da azartzen biotz garbiak itzi ezin daben a belarri garbien aurrean oguzten. Itz baten, zeure buruari z'ria sartu daroazun poz orretan izten zaitut, atzipen ori ez dala luzarorako izango-ta. Ona zu barriro be artegarazia, ta ortan zer-bait luzatzekotan, laster zaitut zorabioz, latz-ikaraz ta neke-miñez gainezka. Tira, naikoa kokoloka-mokolokarik! Zure maitea an, urian dago; mingostasuna ta tristura da arentzat oro. Zure irudia ez yako egundo aurretik kentzen, biotz-indar guztiz maite zaitu. Zurekiko maitasunak, edur urtuak gainezka eragin dautson erre-kaztoaren antzera, biotza asetu dautso zearoan, eta zure erreka leortua gelditu da orain. Ez L'tzateke oba izango. emen oianetan bizi bearrean, nik uste, g'zaseme orrek neskatx estu gaixo orri sar dautsazun maitasunari erantzutea? Aldia izugarririo luze egiten yako; beti daukazu leiotik beg'ra, uriko arresi zarren gainez doazan odei-muluak ikuskatzen. «Txoria ba'nintz! » kantua da egunez ta gau-erdian beintzat aotan darabillena. Batzutan pozik dago; baiña itunik geienetan; orai malko-jario daukaz matraillak, gero itxuraz nare dago; alan be, orraitino, beti maitemindua.

FAUST.—Suge! Suge!

MEFISTOFELE. (*bere kolkorako*).—Niri zer, atzi ezkerok!

FAUST.—Zital! Zoaz ortik, eta ez egizu barriro oguzi izaki eder aren izena! Ez, arren, nire zentzunetara barriro ekar, aski galduak bait dagoz, lazo ezti aren irristsik!

MEFISTOFELE.—Zer jazoko, ba? Ak uste dau iges-egin dozula, ta ozt-oztan egiña dozu.

FAUST.—Ez, bere ondoan nago; eta urrin ba'nengoke be, ez neunke inoiz aztuko, ezta galdu be. Bai, Jaunaren gorputzaren inartsi nozu-ta, aren ezpanak ikutzen dabenean.

MEFISTOFELE.—Ederto, ene lagun! Neu be bekaizti izan naz sarri, alako bikoitz bikotea larrosa artean larratzen ikusita.

FAUST.—Bapo! Zuk irain ta nik barre! Jainkoak berak, alan be, gizona ta emakumea sortuz, legezko egin eban bidenabar abaguneak erreztea elburu dauan egiteko txit prestua be. Tira, jarrai naizu; ez da, egiaz, nire asmoa zu eriora eroatea, ta bai zeure maitaren etxera soil-soilki!

FAUST.—Zer da zeru-atsegiña aren besoetan? Susta nadilla aren altzoan! Ta ez nau biozkatuko aren zoritxarrak? Ez naz neu igeskaria, etxerik bakoa? Ez al naz neu mandotzar bat, jomuga ta bake barik, zokoz zoko beeko trokara amilduz doan ur-jauzi zakar baten antzekoa? A, ostera, neskatx eder ta ames garbiduna, zorionsu biziko zan bere txosna, Alpe'tan daukon bere baratz txikian, bere etxeko ardura ta eginbear guztiak ingurumari dauan mundu mugatuan bildua. Eta nik, Jainkoak gaiztetsi onek, ez dot naikoa izan arkaitzak irabazi ta eurok auts biurtuaz, a bera ta bere atsegin garbiak be obiratu bear izan dodaz. Leza baltz orrek, opari gaixo a bear zenduan! Txerren, abil bizkor, eta moztu egik nire atsekabearen epea! Jazo bearra jazo bei alik lasterren! Aren zoria betor neure gain eta amil daitela leza-barreanean!

MEFis-roFELE.—Or barriro irakiten, or barriro gori! Ator, zoro ori, ta poztu egik! Buru txiki orreitariko batek sendotasunik aurkitu ez ba'dagi, dana galdu dala uste daur Gora biotz-aundi-koa! Eta, alan be, beti ikusi txerrenezko adorez ornidua; eta niretzat ez dago munduan deabru etsia baiño txarragorik.

MARGARITE'REN BIZITZEA

MARGARITE (*Bakarrik, bere txirrikan iruten*).

Urtua yat bakea,
biotza dot minik;
ez dot pozik geiago,
ez dot izango nik.

A ez daukadanetik
or dakust obia;
ingurua osoz yat
mingotsez okia.

Zoro-aldi naspillak
jo eustan burua,
ta adimen gaixoa dot
anabasisua.

Urtua yat bakea,
biotza dot minik;
ez dot pozik geiago,
ez dot izango nik,

Leiotik begiraka
aren billa noa,
etxetik urtetean
ari nik gogoa.

Aren ibilli zarden,
aren azkai aitor,
aren par ta begi-so
gutziz yat zorakor!

Eta aren itz bitxiak,
—zoramen guria! —
ta aren esku-estutzea
ta, ai! , mosu ezta!

Urtua yat bakea,
botza dot miñik;
ez dot pozik geiago,
ez dot izango nik.

Aren gogornin aundiz
barnea dot itunki.
A!, bera bai atxiki,
eta beraxe euki!

Au zoria! , neuk nai lez
bera ezin laztan,
naiz-ta aren pa eztiak
eriozkor izan!

MARTE'REN BARATZA

Margarite. Faust.

MARGARITE.—Baietz eidazu, Enrike...

FAUST.—Al dodan guztia!

MARGARITE.—ESaidaZU: zer eretxi dozu erlejiñoz? Biotz one-ko gizona zara, baiña ez dot uste oso eleiztar zareanik.

FAUST.—Laga ori, ene aur! Ba-dakusazu ona nazala zuretzat; maite dodazanen alde neure gorputza ta odola emongo neukez: ez dausat iñori ostu gura ez sentimenturik, ez federik.

MARGARITE.—EZ da naiko. Naitaez sinistu bear da.

FAUST.—NitaeZ?

MARGARITE.—A! Nik ba'neunke itzalik, eskurik zure gaiñ!
Sakramentu deunak be dozuz gurtzen.

FAUST.—Bai, gurtzen dodaz.

MARGARITE.—Baiña, gogo aundi barik. Aspaldi danik ez zoaz autortzen, ezta mezatara be. Siñisten al dozu Tainkoagan?

FAUST.—Ene laztan, nor azartuko litzake «sinisten dot jainkoagan» esaten? Itandu apaiz eta jakintsuai, ta curen erantzuna ixeka itxura emongo dau itaundu dauanari berari zuzendua.

MARGARITE.—Orduan, zuk ez dozu siñesten?

FAUST.—Ez egizuz txarto ulertu nire itzak. ene aingeru. Nor azartu Jainkoaren izena aotan artzen? Nor azartuko litzateke, eza-guera osoz, «Siñisten dot Aregan» esaten? Eta nok esango leuke. bene-benetan, «Ez dot siñesten»? Danaren jabe danak, dana ar-

tzen dauanak, ez ete zaitu zu ta ní ta Bera be, eutsi, jaso ta zain-tzen? Ez dozu gora igoten, maitasunez ikuskaturik? Nire begiok ez dabez bear bada zureak ikusten, *eta* ez doa dana jarioka zure bur-mamiñera ta biotzera, ta ez ete daragi ikusi-eziñez ta ikuskoi zure 13ran, betidaniko ezkutu ixillean? Naiz-ta aundia izan, bete guzti ontaz zeure biotza; ta, onelako sentimentuz aserik, zoriontsu sentitzen zareanean, emon orcluan nai dozun izena; dei egiozu nai dozun lez, poz, biotz, maitasun, Jainko. Dana dala, nik neuk dakit zelan deitu bear yakon. Biotz-eragiña dozu guztia; gizona ez da besterik zerutar garra lausotzen dauskun kea baiño.

MARGARITE.—GUZ ti au ederra dozu, ta ona; apaizak be ia bar-clin diñosku, baiña beste itz batzukaz.

FAUST.—Nun-nai ta beti, bakotxak bete izkuntzan, gauza bar-diña errepikatzen dabe Uotzak; zergaitik nik he orixe ez esan neure mintzoeran?

MARGARITE.—Diraustazun guztia errazoizkoa iruditzen yatan arren, zuregan illun ikusten dot asko naigabetzen nauan zerbait, zu kristau etzara-ta.

FAUST.—Ene maite!

FAUST.—Eta zergaitik?

MARGARITE.—Betl zugaz dagoan gizon ori nazkagarri yat oso-osoan; nire bizian ez dau ezek zauritu nire biotza orren arpegi iguingarria ikusteak beste.

FAUST.—Ez izan bildurrik, ene ume!

MARGARITE.—Orren begierak, odola zarmindu daroast. Ez dau-tsat iñori gorrotorik munduan; baiña, zu unero ikustea nai zai-tadan lez eta zu ikusiaz alai nazan lez, beste orrek latz-ikara sar-tzen daust azurretara!ño. Auxegaitik, ori donga bat danaren sus-moa dot. Parka beist Jainkoak, zuzena ez ba'naz!

FAUST.—Munduan bearrezkoak dira olako eskillasoak be.

MARGARITE.—EZ neunke ezergaitik be olakoaz bizi nai! Ate-tik sartzen danean, beti begitu oi dau erdi-maltzur, erdi-asarre; ez dau galdu-irabazir¹, dana yako aierga; bekokian daroa idatzirik ezin leikela orrek iñortxo maite izan. Zure besoetan azke, guztiz-ko nare. gogoz menderatua nagoalarik, orren aurrean osterá leitu egin oi yat biotza,

FAUST.—Zu bai aingeru aurre-susmoz betea!

MARGARITEr—Onek, eg'n-egiñean be, biotz-ikara larritan jar-ten nau-ta, bera urreratzen yakunean, etzaitudala maite uste dot. Orobat, a gugaz dago, eziña yat otoitz egitea, ta onek puska-zen daust biotza; zuretzat be, Enrike, orrela izan bear leuke.

FAUsT.—Ezin-ikusien ondorena dozu ori!

MARRGARITL.—Joan bearra dot.

FAVST.—A! Egundo be ezin emona ordutxo bat zure galtza-reen, neure biotza zeuregaz batu ta geure arimak alkarregaz ur-turik!

MARGARITE.—Bakarrik ba'nengo beiñik-bein! Gaur gabean emon barik itxiko neukez ate-morroilloak; baiña lo gitxikoa da n re ama, ta ez-ustean gaiñera ba'letorkigu, bertatiko baten illa nintzake.

FAUsT.—Aingeru orrek, ez izan orren axolik. Ar pototxin au! Bertotik iru tanta edanaz soilki, aren izatea lo-zorrorik beteenean geratuko da gozo ta naretsu.

MARGARITE.—Nik zer ez egin zugaitik? Ez dautso kalterik egingo, nik uste!

FAVST.—Orrela ba'litz, ene maite, nik ez ete zuri esango?

MARGARITE,-ZU ikusiaz bakarrik, gizaseme on, ez dakit zek zeure naiara makurtu ta atxiki naroan; ainbeste egin dot zure alde jadanik, ia ezer ez yat egiteko geratzen. (*Ba-doa. Mefistofele da-tor aurrera*).

MEFISTOFELE.—Arditxo mana! , joana da ez?

FAUsT.—Zelatan euki ete zaitugu barriro be?

MEFISTOFELE,—Dana entzun dot urriñetik; ondo eskolatua izan zara, Irakasle jaun ori, ta uste dot baliatuko zareala ortaz. Neskatak arduraz jakin nai izaten dabe, bat antxiñako erara eliz-koi ta apala dan ala ez. Bete-betea siñistu oi dabe. ortan amore ba'dagi, beste edozertan be olan egingo dauala.

FAUsT.—Txatxu! , ez al dozu ikusten zenbat jasan daroan ari-ma zintzo ta egiti orrek, bere zorion-iturri diran siñiskeraz betea dabillen orrek, maite dauan gizona galdu leikenaren bildur-ikaraz?

MEFISTOFELE.—Maitale zoro, ta egiaz nabarmena! Neskaxa baten jostaillu egiña!

FAUsT.—Baseak eta suak sorturiko mamu zatar!

MEFISTOFELE.—Aurak, gaiñera, arpegikunean igarten daki

gutziz ondo: nire aurrean. ez daki zer jazoten yakon; nire mozo-
rroa ezkutuz betea iruditzen yako; zer gurena nazala uste dau,
edo-ta Deabrua beta. Baiña, gaur gabean?...

FAUsT.—Ortan be izango dot nik neure atsegiña!

ITURRIAN

MARGARITE *tu* LIESCHEN, *euren txanbillakin*.

LiEscHEN.—Ezer entzun al dozu Barbaretxu'ri buruz?

MARGARITE.—Ezer bez. Gitxi baiño ez naz urteten etxetik.

LIESCHEN.—Ba, gaur Sibile'k esan daustanez, a be jausi da
azkenean. Bere burua ontzat eukana!

MARGARITE.—Ete daiteke?

LIESCHEN.—Ats jariol! Orain, jan-edatean, bi alikatu bear.

MARGARITE.—A!

LiEscHEN.—Gero ta gero be, merezia dau. Ainbat aldi emon
dau mutil orren lepotik dindil! Egurastea, baserriratzean, dan-
tzan, edonon besteak baiño geiago izan bear eban beti; eta arek
beti aukeratu oi eutsozan gozo-opillak eta ardaoa; eta neskatxak
uste eban bere edertasunari zuzenduak zirala esku-erakutsiok; de-
do barik eta lotsa gitxⁱko, emoitzak artzen zituan agandik. Laztan
ta aragi, zimel geratu zan loratxoa!

MARGARITE.—Gaixoa!

LiEscHEN.—Eta zu oraindik aren errukiz! Ez al zara gogora-
tzen, gu irun eta irun gengoan bitartean, amak gabetan atea za-
baltzen be jasten izten ez euskulako, a gozaro egon oi zan bere
mutillaren alboan, orduak labor egiñik, bere ate ondoko jarlekuan
jazarrita edo igarobide illunean zutik. Orain bada bere burua apal-
du bearra dau, ta egin dagiala eleiz-penitentzia pekatari-jantzitxo-
tan!

MARGARITE.—Bc_ar bada, beragaz ezkonduko da.

LiEscHEN.—Zoroa litzake! A lako gazteak gorago be jo leike.
Gaiñera, barra barra dabillena da itxi dauala.

MARGARITE.—GUZiZ txarto eginda!

LiEscHEN.—Barriz lilluratuko ba'leu be, beretzat kaltegarri:
gazteak koroia moztuko leuskioe ta guk, lasto zeetua iraurriko
geunskio bere ate aurrean (*Ba-doa*).

MARGARITE (*etxeruntz doala*).—Zergaitik nik lenago ainbeste zarata arrotu oi neban ogen eta uts berberau jauki, zoritxarrez, oi eban neskatx gaixoaren aurka? Zer dala-ta, enparauen argalke-ragaitik agertzen nintzan ni orren biotz-gabe samurtu-eziña? Iñoiz etziran lar baltzak nik irudi oi nebazan akatsen koloreak, eta aitaren esan oi neban neure burua arrotu ta aundietsirik; eta orain, alan be, ona ni pekatu bardiñean jausita, O, ene Jainko! Arengana bultz-eragin eustan guztia, ain zan ona, ain zan zoragarria!

GOITEGIA

(*Orma-utsunean «Mater Dolorosa»-ren irudi bat, eta lora-ontzi batzuk*).

MARGARITE. (*lora-ontzietan lili-kirnu barriak ipinten*).—Otoi, Ama neketsua! , erruki zakidaz, larritzen nauan atsekabe ontaz! Zuk bai zenduan guzt¹z larritua ikusi, ezpataz biotza josita, zeure seme maitearen e riotza! Aitari zuk begiratzen, aren eta zeure samina adierazten daben intziri-zotiñak adiakaturik. Nor da gauza iñoiz niri biotza urratzen daustan lako oiñazea sentitzeko? Zuk bakar-bakarrik, ene Ama, jakin zeinke zelako ziñak eta miñak ikusten nagoan, zer nai dodan eta zeren bildur nazan! Noranai neure oiñak zuzendu, beti, beti neure eundiaren eztena daroat izate barruan! Baiña, ai!, bakarrik nagoala negar ta negar dagít, eta negar onek biotza urratzen daust. Negar malkoz busti dodaz neure leioko ontziak asetu dauanean, neure zoria negartzen aurkitu nau ogean jarrita. Lagun zakidaz! Atera nagizu irauñetik eta eriotzetik! A! , zuk, Ama naigabeu orrek, ar egizu errukiz nire oiñazea!

GABA

BALENDIN (*gudari, Margarite'ren neba*).—Nire lagunetatik nor bakotxak bere maitasunak edestu ta bere ederren onesan-goralpe-nak beraren ontzian itoten alegintzen zan jatordu areitara joan oi nintzanetan, nik bape axola barik entzun oi nebazan aren panpa-

roikeriak, eta irripartsu neure edontzia jaso neroan, onela ots-egiñik: «Ziur asko ez dago bat be orrein artean nire Margarite kutunak beste balio dauanik, ezta ari bere oskien ugelak lotzeko dun danik». Topa! Topa! Klink! Klink! Errondan edaten zan. Batzuk oiuegien: «Zuzen dabil, orren arreba bada egiaz da andrakumeen eredu», eta ao-zabalak ixilleratzen ziran. Orain, barriz... etsitzekoa da, ta burua zati-zati egitekoa. Edozein txartozik egin naike bere ixeka odoltsuen gai; eta ni emen egongo naz, itz bakotxaren aurrean izarditan gaizkiña bere aurkian jarrita lez, eta iraindu negikeen guztiak lau zati egitea jadetsiko ba'neu be, iñoiz be ezingo neuke guzurra esan dabenik autortu.

Nor da doana? Nor dabil einendik? Bi dira, oker ezpa-nago; bera ba'da, arenak egin dau, ta ez dau bizirik urtengo emendik.

FAUsT.—An beeko zuloan ikusten dan eliz-gelako leioan, betiereko argontziaren argiak, illunpe baltzez esituta aurkitzen dala, aldaroka, gero ta izpi motelagoak bialtzen dauazan lez, gaba da erabat nire arimearen nagusi.

MEFISTOFELE.—Ni, ostera, katutxo aulduaren antzera nago, mailladi-ertzean igurtzi ta ormak leun-leun ikutu oi dauazanaren antzera. Onegaz somatu dagit onoimen-arnasa antzeko zerbait, lapurraren irritsa lakoxea edo-ta arraren sua bai litzan; nik bada neure kautan somatzen dot Walpurgis gau ederra: etzi berriztatuko da, ta an beintzat batek badaki zergaitik zain cingoan,

FAUsT.—Asko luzatuko ete dau, lurpean dizdizka ikusi neban altxor arek egun agitara agertzen?

MEFISTOFELE.—Laster egingo zara, zeure poz aunditan, azken orduz begiz jo dodan eta leoi-irudizko ikurdi ederrak daukazan kutxatxoaren jabe.

FAUsT.—Eta ez dago bitxiren bat, erestun bat ere ez, neure maitea eder jazteko?

MEFISTOFELE.—Bai; an ikusi bide dot bitxizko lepoko baten *antzeko* zerbait.

FAUsT.—Ederto, samingarri izango litzakit ba egi-egiaz, bera ikusten joan eta emoitze edo esku-erakutsirik ez egitea.

MEFISTOFELE.—Alan be, ez litzakizu iguingarri izango marai bape kosta barik une eder bat bertan emotea. Ortzia bere izar

guztiakaz dizdizka dagoan une onetan, egi-egiaz eredu-lana danaren sail bat entzungo dozu: oiturazko kanta da, zure ederra lilluratuko dauana.

(*Abestu dagi kitaraz lagunduta*).

Zertan zagoz zu emen,
eguna urratzean,
Katalin txiki ori,
laztanan atean?
To, to zuk orrelaxe!
Berak be lagako,
neskatx barrura zana
neskatx ez urtengo.

Ar aintzat nire esana:
ezbear osoa
dozu gau ederrezko
ibilte gaixoa!
Ez ein maite-lapurra
biotzaren jabe,
ezkontza erestuna
atzean jar arte.

BALENDIN (*aurreratuaz*).—*Nori* kaparra sartzen zabiltz emen, astaputz ori! Arratoi-eiztari madarikatua! Deabru baltzarentzat lenen ire jogailua! Eta baita kantari a be ondoren!

MEFISTOFELE.—Zati-egiñik dago kitara! , eta ez da geiago a erabiltzerik!

BALENDIN.—Eta orain burua apurtuko dauat!

MEFISTOFELE (*Faust'i*).—*Maisu* jauna, aurrera beti! Suar! Urreratu zakidaz, ta neuk zuzenduko zaitut. Gora galtzairua, ta aurrera beti, kolpeak neuk geratuko ditut eta!

BALENDIN.—Gera egik au!

MEFISTOFELE.—Zergaitik ez?

BALENDIN.—Eta au!

MEFISTOFELE.—Bardin!

BALENDIN.—USte dot, deabruaz diardudala! Zer da au? Eskua geratzen yatala, dirudi.

MEFISTOFELE (*Faust'i*).—Aurrera!

BALENDIN (*lurrera jausiz*).—*Ai*, ene!

MEFISTOFELE.—Bakera da gure kaikua! Orain, bada, goazen arin! Bizkor gorde bearra daukagu, dagoneko «Iltzaille! » deadarrak entzuten dira-ta. Ertzaiñagaz polito atonduko naz ni, baiña ez odol-zuzen zaiñagaz.

MARTE (*leioan*).—*Ken* ortik! Ken ortik!

MARGARITE (*leioan*).—*Argi* bat ona!

MARTE (oiuka).—Kuter ta baiezta dabiltz; atzera ta aurrera, erasoka.

ERRIA.—Or datza ildako bat!

MARTE (urtenaz).—Iltzailleak, onezkero iges-egingo ete eben?

MARGARITE (urtenaz).—Nor datza emen?

ERRIA.—Zeure amaren semea.

MARGARITEr—jainko altsu! , au zoritxarra!

BALENDIN,—Ilten nago! Arin esana ta ariñago egiña. Zergaitk zagoze zuok, emakumeok, oiua ta garraxiz? Zatoze ona ta entzun niri!

(Danak inguratzen yakoz).

Ene Margarite, ondo dakusu! ; gazte zara oraindik, eta ez dakizu bear zeunkean beste, ez dakizu zeure arazoak ondo eroaten. Konfiantzaz auxe diñotzut orain: bardaska zarean czkero, izan zaitez bete-betean!

MARGARITE.—Erle neba! Jainko on! Zer diñostazu?

BALENDIN.—EZ sar, otoi, gure Jainko Jauna, izki-mizki oneitan! Egiña zoritxarrez egiña dago, eta jazotekoa jazoko da. *Bategaz* asi ziñan ezkutuka, beste batzuk etorriko yatzuz gero, ta dotzena batena izatera eltzen zarenca, uri osoarena izango.

Lotsea lenengoz jaioten danean, ezkutuka sartzen da munduan; bere gaiñ edarazten da gauaren zapia, oso-osorik estaltzen da bera; eta ia-ia bertan ito-azo nai litzake. Baiña azi egiten da gero, gogor ta sendo egiñik, eta ederrago izan ezta be, egun-argitan agertu oi da. Itsusiago bere betartea, biziago opa egunaren argia.

Nik oraindik dakust eguna, igandik, ema-galdu orrengandik! , j'ente zuzenak, usteltzen asitako illotz bategandik lez, iges egingo dabenckoa, ta arpegira bekoz-beko begiratzen dautzuenean, biotza zuk barruan urratzen somatuko dozuna! Orduan ez da geiago urrezko kateirik zuretzat egongo! Eleizan etzara geiago altara aurrean belaunikatuko! Etzara geiago zeure iduneko apaindura ederrez dantzara pozik joango; ez, eskeko ta zaurituakaz, zokondo illun arbuiagarri baten gordeko dozu zeure burua, ta, Jainkoak, bere erruki aundiz, parkatu arren, madarikatua izango zara lurgaiñean!

MARTE.--lixi Jainkoaren eskuetan zeure arnasa, zeure barrua birao-irainka orbandu daizun baiño leen!

BALENDIN.—Zeure gorputz igerraren gain ba'lerorke beintzat nire biraoa, bitarteko purtzil! ; orduan ziur parkatuak neukakez neure pekatu guztiak.

MARGARITE.—Ene neba! Au naigabea!

BALENDIN.—Neuk diñotzut, itxi alperreko negarrak! Zeure izen ona galdu zenduanean, biotz-zartakorik mingotsena emon zeustan. Eriotz-loan barrena Jainkoaganatz noa gudari kementsua legez.

(*Ilten da*).

ELEIZ NAGUSIA

Illetak, organu ta abestiz

(*Margarite jente artean. Ezpiritu txarra Margarite'ren atzean*)

Goco GAIZTOA.—Bestelakoa zara, Margarite, erru bage oraindik, zeure otoitz-liburu txiki erabilliaz altara ontara urreratu ta biotza ume-jolasez eta zeure Jainkoz erdizka arazoturik, zeure arren-eskariak egiten zenduzanetik ona! Margarite, nun zure errugabetasuna, nun zure burua? Ze kezka ta naigabe dozuz zeure biotzean? Otoitz dagizun, bear bada, oiñaze luze izugarriak igarota gero, zeure erruz il zan ama aren arimearen alde? Norena da zure ate aurrean isuritako odola? Eta ez dozu orain zeure barruan igarten kezka dagoan zerbait dardarka aunditzen eta zeu kezkatzen zaitula bere zori-zantzuz beteriko begieraz?

MARGARITE.—Ai! , ai ene! Gogapen oneik ez nabe aske itxi-ko, andik eta emendik eten gabe larrituko nabe-ta!

ABESBATZA.—

*Dies irae, dies illa,
solvat saeculum in favilla.*

(Egun gorri, egun ura,
auts biurtuko da lurra).

(*Organutzen*).

Goco GAIzToA.—Goi-asarrea zure gain! Turutak ots dagi! Illobiak edegiten! Eta zure botzak, auts-atsedenetik birbiztua, dardar dagi ta ikara suaren gar aurrean!

MARGARITE.—OI, etnetik urrin ba'nengo! Organu orren soi-
ñuak estutu ta ito bearrez jarten daust arimea, eta kantu orrek
barru-barruraino urra tzen daust biotza.

ABESBATZA.—

*Judex ergo c11771 sedebit,
quid quid latet apparebit,
nihil inultum remanebit.*
(Auzi-jaunak ba aulkian,
obenik ezkutuen
jarriko dau agirian).

MARGARITE.—Izularri nago! Mairu-txistuak estutzen nau;
buru gaiñeko gangak zapaltzen! Ez dot aizerik!

GoGo GAIZTOA.—Gorde zaitetz! Pekatua ta lotsca ez dira iñoiz
egongo gorderik! Aizea? Argia? Zure zoritxarra!

ABESBATZA.—

*Quid sum miser tunc dicturus?
Quem patronum rogaturus?,
cum vix justus sil securus?*
(Ni lakoxe gaizto danak
nor aurkitu bitarteko,
zintzoa bildur ba'dago?).

Goco GAtzTon.—Zoriontsuak zugandik begiak baztertzen da-
bez. Igaroz doazan garbiak ez dautzue cskurik luzatzen. Zure zo-
ritxarra!

ABESBATZA.—

*Quid sum miser tunc dicturus?
(Zer esan orduan ni lako gaiztoak?).*

MARGARITE.—Atizo! Eidazu zeure urrin-ontzia!

(Lurrera jausten da korde barik).

WALPURGIS-GAUA

*Harz mendia, Schierke ta Elend aurrez-aurre ditula.
Faust. Mefistofele.*

MEFISTOFELE.—Ez al dozu zuk irrikatzen iñarre-kirten bat?

Nik akerrik guriena euki gura neuke. Azkenetik urrin gagoz oindiño geure bidean.

FAUST.—Neure bernetan oindiño gordin somatzen nazan ezkerero, naiko dot oraingoz makil lakazdun au. Zetako bidea laburtzen ibilli? An zuzen be, orain ibar orrein usu-naasian barrendu ta gero gaiñetan ur-jauzi iskanbiltuz jori diran arkaitz orreitan gora igotea, laster-bideok egitea, ez al da egiazko poza? Udabarria dago-neko esnatuaz doa urkietan, eta lerrak eurak be somatzen dabe onezkerero. Zergaitik guk ez dogu sentitzen geure soñean?

MEFISTOFELE.—Egiaz, aurtortzen dot, nik ez dot olakorik sentitzen: negua daukat gorputzean, eta gurako neuke edurra ta leibaltza neure bⁱdean ba'neukaz. Illun bai doala igonez illargiaren larriña, bere dizdiz berandukorrean! Txarto argi dagisku, ta pittean potean mux dagigu zugatz baten aurka naiz arkaitz baten kontra! Itxi eistazu su zoro bati dei egiten! Begira, an beean dakust bat alai argi dagiana. Kaixo, adiskide! , azartuko ete naz geugaz zatozela eskatzen? Zetarako argi egin alperrik? Atsegin zakiguz, eta argi eiskuzu gorarte!

ARGI-TXAKURRA.—ZUOn begirunez, nik uste, neure izate ariñaz jabetzea lortuko dodala; gure zirkiña bada ba-dakizue geien baten zearkakoa dana.

MEFISTOFELE.—A! , a! Ona galdu au gizonarenak egin naian! Oa artez txerrenaren izenean! Bestela putz batez itzungiten yoat ire bizi aikola-maikolakoa.

ARGI-TXAKURRA.—Etxe onetako buru zareala dakustan lez, zeure agindupean jarten naz pozik, Baiña gogora ondo: mendia gaur sorgin-sundaz daukazue, ta argí-txakur batek bidea erakutsi bear dautzuen ezkerero, ez zakidaze lar zorrotzak izan.

FAUST, MEFISTOFELE, ARGI-TXAKUR, *txandaka abesten.*

Ames-lillura barnera
gata sartu, antza danez.
Zuzen gagizuz aurrera
ta lastertxe gara oiñez
toki idor nasaitan onez!

Zugatzak, zugatz tenteak
atzera doaz iraulka;
arkaitzak, arkaitz luzeak
alkarri dagoz agurka,
zurrunga dagoz, txistuka!

Arri-arteaz, zirrikituz,
bizkor dabiltz errekak.
Zer dantzut? Al dabiltz kantuz?
Ete ditut maite-kantak,
ala zero-egun otsak?
Guk maite naiz itxarona
bir-dirausku oiartzunak,
antxiña legez ipuiñak.

«Uuf Xuu! » ots, gero ta urrago;
ontz, kiña ta belatxingak
iratzaririk ete egongo?
Sasitzan dira ur-andrak?
Zango luze, sabel lodi,
ta sustraiak, suge irudi,
aitz eta aretik urtenda,
loki lazkorrak luzatzen
gu atzi ta izutu naita.
Zain bizi sendoetatik
edatzen dautsez guarrak
bidaztiari. Sasitzak,
milla margozko, or azkar
oroldi ta itsuski zear.
Ta saldo estuan doaz
ipurtargiak egazka
ozte naasia egiaz.

Baiña emen lotu, esan,
ala aurrera jo bear dan.
Oro dirudi biraka?
Aitz-zugatzak begi-kliska,
eta su zoroak aziz,
gero ta aundiago itzuliz.

MEFISTOFELE.—Ei ausarti neure mantu egala! Ona erdiko tontarra lakoxea, bertotik ikusten da arrimenez Mamon'ek zelan dirdai dagian mendian.

FAUsT.—Azpi-zear bai bakanki ñirñir dagiala goiz-aldearen argitasun ubelak! Eta amiltegiaren zintzur sakonetan barna sar•tuaz doa berez ta indartsu. An beetik gorantz dator ats-laiño lodia, arago txingar batek dizdiz dagi lurrin ta itzal artean; txingar au orain ari mee dozu, gero azpitik jalgitako iturri. Arago bide osoa besarkatzen dau eundaka zain-gorri aranean zear zabal-azirik, eta an zokonko medarrean kiribiltzen da beingoan. Su-txipristiñak sortzen dira gure biran, urrezko ondar gorri aizetu ta barraiatua iduri. Eta, begira: bere goitasun osoan ixiotzen da arkajtz-murrua!

MEFISTOFELE.—Mamon jaunak zelan argitu ez edu onetan bere jauregia jai aundirako? Pozgarri bekizu berau ikustea; nik somatzen dot onezkero bazkaldar talde izugarria.

FAUsT.—Aize-erauntsiak bai urruma eguratsa zear! Zelako zardaskaz joten nauan atzetik!

MEFISTOFELE.—ItSats zakiez arkaitzen ertz zarrai, bestela bazoiaz arroitx sakonaren ondarreraño. Odei batek geitzen dau gana•ren illuna. Entzun! , zelan krask dagien oianak! Gau-ontzak iges dagie, zukurrutza sarturik. Entzun! , zelan suntsitzen diran jauregi ontako zut-abe beti orlegiak. Kurrunkaz ta graskaz adakiak! Zugatz-ondoak bortizki astin-azoak! Irrintz'z ta arrausika dagoz susterrak! Blaustada naasi izugarrian danak alkarren gairi abarrikatzen dira, zurrunbilloak bitartean txistuz ta uluka diardu arkaitz-zirrikitu zar-itoetan zear. Ba al dantzuzuz abots-soiñuak goietan, orain urruti, gero bertonago? Bai, mendiaren luze-goi guztian ots dagi sorgin-kantu zakar batek.

SORGIN-TALDEA.-

Brocken 'era igoten sorgiñak,
galtzua ori, musker biia;
batuz doa talde guztia
Urian jarten dan tokian.
Arri ta andu-gaiñez ibilki,
sorgin-putz, aker putz ugari.

ABOTS BAT.—

Bakarrik dator Bauboz zaarra,
txarri-ama baten konkatxa.

SORGIN-TA LDEA.—

Dedu, bai, dagokionari!
Zu, Baubo andre, zu aurrean!
Urde ederra ta ama gaiñean,
eta atzetik sorgin-sail aundi.

ABOTS BAT.—Nungo bidetik zatoz?

BESTE BAT.—Ilstein'dikotik; mozolo bat aurkitu neban an
bere abian. Aren begi bien so larria!

BES TE BAT —O, oa inpernura! Zergaitik abil orren bizkor!

BESTE BAT.—Narua eratsi daust; ikus zauriak!

SORGIN-TA LADEA.—

Bide zabala, ta luzea.
Zer dogu ibil-bear zoro au?
Sardeak zizt, itsuskiak grau;
amak ler ta itoten umea.

SORGIN MA/SUA K (*abestalde erdia*).—

Barraskillak etxeaz lez
gabiltz, ta andrak aurrea artzen.
Gaiztoaren etxerakoan,
andrak milla urrats geigo joten.

BESTE ERDI BAT.—

Gu ez gaitu orrek kezkatzen:
andrak, bizkorrak izan arren,
milla oinkadetan egiña,
gizonak saltu batez citen.

ABOTS BAT

jalgi gorantza arri-arte ortatik!

ABOTSAK (*beean*).—*Pozjike* igon nai genduke gorantza. Ikuzke-
ta geuk dagigu, ta zuriak gara ta oso-osorik aratzak, baiña baita
beti-betiko antzuak be.

ABESBATZ BIAK.—

Aizea ixil, iges izarrak,
illargi larua gordear.
Txistu erne-azten aztruak
milla ta milla suzko lantar,

ABOTS BAT (*beetik*).—*Geldi!* Geldi!

ABOTS BAT (*goitik*).—*Nok* dei dagist aitzaren arrakalatik?

ABOTS BAT (*beetik*).—*Ar* naizue, otoi; ar naizue zeuekin!

Irureun urte daroadaz igon nairik, eta ez naz tontorrera eltzen.
Ni bai pozik nengokela neure kidekoakaz!

ABESBATZ BIAK. —

Ar bei bakotxak bere isatsa,
makilla, sarde naiz orkatsa;
beti-betikoz da galduna
gau ontan igon ezin dana.

ERDI-SORGIÑA (*beetik*).—Tapa-tapa nabil aspaldian, eta bes-
teak bai doazala urrin, dagoneko! Etxean ez daukat atsedene-
rik eta emen be ezin naz askorik aurreratu.

SORGIN-TALDEA.-

Gantzuak sorgiña dau indartzen;
edozein zapi oialtzako,
ontzizat edozein aska on:
gaur ezik, iñoiz ez egazko.

ABESBATZ BIAK. —

Guk gaiñak ikutzerakoan
barraia zaiteze lurrean,
t'estal luze-zabal sasitzak
zeuon sorgin-talde betean!

(*Beera datoz*).

MEFISTOFELE.—Begira, zelan alkarri sakaka naasten diran!
Zelako txilio ta erasoak! Arein txistu ta birak, arein joan-bear
eta autuak! Dana da ditzira, pindardura, sunda ta errea! Egiazko
sorgin-naspilla! Ora eistazu gogor, bestela laster gara sakabana-
tuak! Nun zara?

FAUST (*urrundik*).—Emen!

MEFISTOFELE.—Nola! , or beean zaitut dagoneko? Neure
etxe-jaun agintea erabilli bearko dot, beraz. Leku! Voland (dea-
bru) jauna or dator. Leku! , p'ztitzar talde, leku! Zatoz ona, Ira-
kasle, ta el eistazu! , eta ijuti *batez* urtengo gara jente-izkilimili on-
tatic; eroegia da au neure kidekoentzat be. Or urrean dirdai dagi
zerbaitek argitasun arrigarriz, zugatz-abetxu areikana begiak da-
roastazana. Zatoz, zatoz! , goazen bertara!

FAUs-r.—Gogo aurkalar! Jarrai aurrera, ni zuzentzea besterik ez daukazu ta. Ontaz, emengo egokitasuna dakart gogora: Brocken'era igon genduan Walpurgis-gauan, eta nai dogunean baztertu ua tekez emendik.

ME.Fis-roFELE.—Begira, zelako su-lama ezbaridiñak! Batzar-leku pozkario bat da. Dakusunez, iñun be ez gara bekarrik aurkitzen.

FAUs-r.—Nik, alan be, naiago neuke goian egon; oraindixek dakustaz su-garrak eta ke-moltzoak. Gaiztoaren biran metatzen da an jente-parrasta; an ezkutuki bat baiño geiago askatzen dira, nunbait.

MErts-roFELE.—Baita beste ainbat ezkuturen korapilloak egin be. Laga zuk, burrunba dagiala mundu aundiak, guk emen, nare, arnasa artzen dogun bitartean. Antxiña-antxiñatik jakiña da mundu aundian mundu txikiak osotzen dirala. Or dakustaz sorgin gazte batzuk billotsik, narru-gorrian; eta zaarrak, gorputzak estaldu daroetz, begirun osoz. Maitekor zaiteze, neugaitik beintzat: nekea txiki, josta barriz aundi. Jogailuen otsa, dantzudanez! Arran-ots madarikatu! Oitu egin bear ortara be. Erdu neugaz! Erdu! Ezin daiteke bestera izan, aurretik noakizu ta ara zuzendurik, bertan aurkezten zaitut gordina. Zer diñozu, lagun? Tokia ez da txikia be. So beerantza!, ta ozt-ozta ikusiko dozuz mugak. Eun bat sute dagoz ixiotuta, amaibako lerroan; dantzatzen da, mintzatzen, err-egosiak atontzen, edaten eta maitatzen; esaidazu, ba, nun gauza oberik idoro?

FAUsT.—An ni sartzeko, zelan jokatu nai dozu: azti lez ala deabru lez?

MEFISTOFELE.—Egia da, ezezagun bezela ibiltzen oitua naz, baiña gaur jai-egun aundia dan lez, bereiz-zantzu guztiak erakutsi bearko dira. Jarretera mailla falta yaten arren emen, ez daust ardurarik, emen auntz-zangoari begirune itzala dautsoe-ta. Ez dozu ikusten marraskillo orir geuganantz datorrena? Lurralde arakatzen dator; niregan dakus bear bada zerbait koko ta muxaranga guztiak ondatzeko lain litzakena. Jarrai zakidaz, ba; sutetik sutera joango gara; ni izango naz itatintza 'lle ta galai. (*Sute ondo batean jarrita egozanai*). Ene jaun onak, zer dagizue bazter orretan? Egiazki, ez nintzateke ainbeste arrituko zuok istillu ta zalapart ar-

tean, gaztedi gartsu aren artean aurkitzeaz. Etxean be geiegitan dago bat bakarrik.

KENERAL BAT. —Nok aberriengandik entzindu, euren alde lehenak eginda be? Erriak, baita andrazkoak be, gaztedia dau maitea.

ERKALTSEIN BAT. —Gaur ez da zuzenbiderik. Mintza zakidaz leengo aldietaz! Ez izan dudarik, guk agintzen genduenekoa izan egi-egiaz urrezko aro.

ANDINAI BAT. —Egia esan, gu ez gintzazan ergel, eta sarri egin oi genduan bear genduana; baiña gaur-egunean dana dabil naasmaas, eta ain zuzen be guk lagundu gura geuskion kinka onetan.

IDAZLE BAT. —Nok irakurri daike orain obari aundi bako idatzi bat? Gazteri maiteari dagokionez, galdurik daukagu: ez da iñoiz izan gaur baizen kaskarin ta zentzun gitxiko.

MEFISTOFELE (*bat-batean zar-zar eginda agerturik*). —Orain, azkenez Borcken'era igotean, erraren eldutasunean dakust gertu dagoala onezkero azken-epairako; nire upel txikiari ardaoa loi darrion ezker, mundua be beerantz asia dala esan nai dau.

SORGIN SALTZAILLEA. —Jaunak, ez joan ain bizkor! Begira abagune oni! Ederra eta askotakoak dira, izan be, eskintzen dautzuedazan gauzok! Ez uste izan, alan be, neure dendan daukadazala lurrean bardiñik ez daben gaiak; ez dago ezer bein edo bein gizonari ta munduari kalte gord'ñak egiteko izan ez danik. Emen ez dago sastakairik odola ixuri ez dauanik, ezta edontzirik gorputz osasuntsu ta sendoren bati, txarpil-txarpil eginda itxirik, pozoiz gartsua ixuri ez dautsonik; ezta pitxirik be, emakume onoi-mentsuren bat, lilluraturik, galdu ez dauanik; ezta ezpatarik be, ituna ausi ta arerioa sorbaldatik zauritu ez dauanik.

MEFISTOFELE. —Andra izeko, txarto ulertzen dozuz zuk garaiak. Joana, joana da! Olaxe, joana, joana! Erakus eiguzuz gauza barriak! Barri danak soil-soilki gar-erazten gu!

FAUST. —Burua azkortu ezpa-yat, azoka bat dozu au!

MEFISTOFELE. —Gorantza doa jentetza guztia; zuk uste dozu bultz-dagizula, ta bultzatua zara.

FAUST. —Nor da ori?

MEFISTOFELE. —Begira ondo: Lilith dozu.

FAUST. —Nor?

MEEns-roFELE.—Adan'en lenengo emaztea. Ez ikutu, arren, aren uledi ederra! , berak ain arro daroan apaindura. Gazte bat bertan naspil-azo dauanean, ez dau ain errez askatzen.

FAUsT.—An jarten dira bi, bata zarra ta bestea gaztea; gaur eurenak egn dabezala dirudi!

MEFIsTo^yELE,—Gaur ez dago emen atsedetik. Dantzaldi bari bat asten dan ezkerero, goazen gu be, areikaz dantzatzera.

FAUST (*gaz(eagaz dantziñz)*).—

*Bein, ames ezta izan neban:
sagar-zugatza apain nekuan,
sagar-ale bik dizdiz bertan;
zipla ninduen ta igon nintzan.*

EDERRA.-

*Sagarrak zaitue zorutzen,
Paradisutik bai da lerdin.
Pozez doakit barrena aziz,
baratzan ba-doclala ikusiz.*

MEFISTOFELE (*zaarragaz*).—

*Bein, ames gaiztoa izan neban:
zugatza nekusan maiztua,
itzal zan aren zirristua,
ta niri eder izan yatan.*

ZAARRA.—

*Zaldi-oindun zaldizkoari
agurra deskintsot onenik!
beuko bera noznai gertauta,
ez baldin ba'dau bildurrik.*

Uzici-^PUzmIÑA.—Ozte gaiztetsi, zer dagizue zuok? Aspaldi ez yatzue erakutsi izan, ezpiritu batek ez dauala iñoiz bere oin-gaiñ irozo bear? Zuok, barriz, gu gizonok lez dantzari zahiltze!

EDERRA (*dantzatuz*).—*Orri zer gure dantzan?*

FAUST (*dantzatuz*).—*Ba! Edonun eta edonoz dabil dantzaria azpiak jaten; urrats hakotxez bere eritxia emon ezin ba'leu, au ustel edo ez egiña dozu; geien txutxu daragiona gu aurrera egiten ikustea da. Oboan birunda bazengie, beti, berak bere antxiñako zurrunbilloan dagian lez, orduan bear bada argarri idoroko leuke, arrimena erakuts ezkerokoan batez be.*

UZKI-PUZMIÑA.—Emen zagoze oraindik? Au itzala! Zoaze beingo baten, dagoneko argia da-ta! Deabru-saldo zirtzillu orrek ez dau ñoiz neurririk ezagutzen! Gu jakituria bera izanik be, beti dagoz papao ta iratxuak Tegel'en. Antxiñatik kezkatzen nau gogai onek, eta ezin dot ñoiz be gardendu! Itzala da, izan be!

EDERRA.—Noizarte azak emote au?

UZKI-PUZMIÑA.—Gogoak, bein eta barriz diñotzuet arpegi aurrean: ezpirituren jauntxokeria bai yatala ezin-jasanezkoa! Neurea ezin dot erabil. (*Dantzari dabilta*). Argiro dakustanez, gaurko nire aolkuak alperreko dira; ez dot ezer jadetsiko. Alan be, aurrera jarraituko, eta nik uste dot, azken urratsa emon baiño len, deabru ta koplariak garaitzea lortuko dodala.

MEFISTOFTLE.—Oraintxe murgilduko da lokatz-artean, ortxe ezik ez bait dau atsedetik aurkitzen, eta usanak bere uzki-aldean ondo asetu diranean, orduantxe geratu oi da ezpirituetaz eta bere ezpiritutik osatuta. (*Dantzatzea itxi dauan Faust'i*). Zergaitik laga dautsazu joaten neskatz ederrari, danzarako maite-maitekiro abestu eutzunari?

FAUST.—Ai! , kantu bitartean arratoi gorri batek urten dautsolako aotik.

MEFISTOFELE.—Ori gauzea! Baiña ez dautsazu jaramon geiegi egin bear. Txarrago izango zan, baltz-zuria izan ba'litz arratoia! Nok olakoari garrantzirik emon maitasunaren orduan?

FAUST.—Gaiñera ikusi neban...

MEFISTOFELE.—Zer?

FAUST.—Ikusten dozu an, Mefisto, gazte eder, zurbil bat bakarrik eta urrin samar? Baztertuz doa bere lekutik, astiro, oiñak lotuta bai lebil lez. Naitaez autortu bear dot, nire ustez, Margarite onaren antza dauala.

MEFISTOFELE.—Ken ori burutik! Ez dausku ardura. Txakur-amesa dozu, bizigea, sunbilla. Ez litzakigu on izango orri jarraitzea: bere begitu zorrotzak odola izozten gizonai, ta ia-la arri be biurtuko leukez oneik; dagoneko entzuna dozu Medusa'ri buruzkoa.

FAUST.—Izan be, ildako batenak dira aren begiak, esku maitekor batek itxi ez dabezanak. Baiña axe da baita galtzarra, Margarite'k emon eustana, axe soin gozoa, niretzat atsegingarri.

MEEns-roFELL.—Azti-ondorena, kokolo. Guztiz errez biotzak zauzk eragiten dautzu. Ortan edozeiñek ikusiko leuke bere mai-tearen irudia.

FAIJST. AII poza! Au naigabea! Ezin naz aldendu aren adiketatik! Zelako apaingarri bitxia daroan bere sama-inguru ederrean! Zingilla gorri bakarra da, aizto-ertza baiño zabalago ez dana!

MEFISTOFELE.—Egia diñozu, neuk be ba-dakust eta. Besapean be barcUn eroan legike burua, Perseu'k ebagi bait dautso. Betí ames-zoro bardiñai emonda! Goazen muño ortara, Prater be-
ra baizen atsegiñera. A! , ziria sartzen ez ba'dauste, antzoki bat da egi-egiaz begi aurrean daukaguna. Zer emoten ete dabe?

ZERBITZARIA.—Laster asiko da barriro: antzerki barria da, cromen diran zazpietatik azkena; orrenbeste antzeztu oi dira beti be, ekandu danez. Ortan itsua dan batek idatzia da, eta berau antzeztutea be antzezlari gazte batzuk daukie. Parka, jaunak, banoa-ta; antzez-oiala jasotea da nire zaletasuna.

MEFISTOFELE. —Asko poztuten naz zu Blocksberg'en ikustez: dagokizun tokian aurkitzen zaitut!

WALPURGIS-GABEKO AMESA EDO OBERON ETA TITANIA'REN URREZKO EZTEGUAK

Bitartekoa.

ANTZEZ-ZUZENDARIA.—GaUr lan-arteak dagokigu guri. Mieding' eko seme bikaiñoi. Mendi zar bat eta ibar ezko bat: ona gure ikuskizun osoa!

OIULARIA.—Urrezkoak izan daitezcan ezteguak, berrogetamar urte igaro bear; sasoi orretan, ba, joanak dira eztabaidak, eta *urrea* orduan ederrago yaku.

OBERON.—Zuok, ezpirituok, ni nagon lekuan ba'zagoze, ager zaitezce oraintxe; errege ta erregiña barriro doaz alkartzera.

PUCK.—Ba-dator Puck, eta zearka biurtzen, oiña bait dakar dantzari; ondoren datoz beste eun, guztion alaitasuna aziagoturik.

ARIEL.—Ariel'ek bizkor-erazten dau kantua, zerutiko doiñu

aratzez; bere oiartzunik darakarz ainbat txingote, baita lillurazten ederrak be.

OBERON.—Alkar ondo artzea nai daben ezkonduak. ikas dagie-la gugandik! Bik alkar maite izateko. naiko dozu alkarregandik banantzea.

TINTANIA.—Senarrak marmar ba'dagi ta emazteak setak artu, bizkor ibillirik be?oa *no* eguerdi-aldera ta *to* ipar-aldeko azkenera.

ORKESTA (*oso* gogor).—Euliak muturrakaz eta eltxoak sudurrakaz, euren endakoakaz baturik, ugarazioak orbel artean eta kirkillak bedartzan: oneik dira musika jotzailleak!

BAKARRA.—IKUS, or dator gaitaduna! Xaboi-puspulo baizen laru. Entzun aren txistikun eta usin ikaragarriak, bere sur-zillo makurretatik zear.

GoGo ERATU-BARRIA.—Amarau-zango ta txantxiku-sabel, emon egotxoak gizontxo oni! Ez dau bear bada aberetxorik ekarriko, baiña bai poematxo bat ziur asko.

BIKOTE BAT.—Oinkada laburrak eta zapart aundiak ezti-orrazi ta usain-bafada artetik; egia esan, zoli dituzu ankak iñarros-ten, baiña ezin eguratsera egaztu.

BIDAZTI BEGILUZEIA.—MOZORR-taldeen iji-aja bat? Egia ete diñoste begiak? Oberon, jainko ederra, gaur ikusgarrí emen?

SIÑISTE ONEKOA.—EZ erparik, ez buztanik! Baiña ez, ez yat ezpairik geratzen deabrua bera da, Grezia zarreko jainko guztiak lez.

IPARTAR ERTILARIA.—Zirri-borroak dira, egiaz. nik gaurkoz sortzen dodazanak; baiña lendanetik gertatzen nago Itali'ra egin-go dodan txangorako.

GARBIZALEA.—Ai! , neure zoritxarrak ekarri nindun ona: emengo nastea! Sorgin-samalda guzti ontatik bi bakarrik dagoz erraustuta.

SORGIN GAZTEA.—Autsak, jantziak lez, andra zar maiztuentzat dira; orixegaitik jarten naz ni billotsik neure akerraren gaiñean, gorpuztxo lerdan bizkorra erakutsirik.

EMAGIN BAT.—Larregi bizi izan gara zuekaz emen eztabaidan asteko; baiña gazte ta gordin zariela be, nik oindiño ustel ta motz ikusiko zaituedaz.

ORKESTA ZUZENDARIA,—Euli ta eltxoak, ez eidazue ezkuta

billoistasun ederra! Ugarazioak orbeltzan eta kirkillak bedartzan, kanta oskidetsu!

AIZE-ORRATZA (*alde Gatera begira*).—Ona gizartea, opa izan geinken lakoxea: Neskatz egi-egiaz liraiñak! Lagun gazteak, andra ta gizon, jente itxaropenez betea!

AIZE-ORRATZA (*beste aldera begira*).—*Oneik* guztiok irunste-ko lurra edegiten ez ba'da, ez dot nik zalantzik izango ots-otsean inpernura zapart egiteko.

XENIAK'—Emen gu, mamorroak, ortz txiki zorrotzez orniduta, Satan, gure jaun eta jabea, merezi dauan lez omendu daigun.

HENNINGS.--Ikus, talde estuan, zelan alaitzen diran alkarrekin, laiño ta gaitz-gabe! Azken baten, biotz ona daukiela, autor-tu bearko.

MUsAGETA.—Atsegin yat sorgin-aldra onetan galtzea; ziur asko musak baiño geiago jakingo neuke oneik zuzentzen.

GARAICO JENIOA.—jente zintzoaz zerbaitera eltzen. Erdu, oratu nire jantzi-ertzari! Blocksberg'ek, doixtar Parnasoa'k lez, goialde guttiz zabala dauko.

B/DAZT/ BEGILUzEA.—Esafzu: zelan deritxo gizaseme luze-arte- orri? Ibilkera arroskoz doa, sumatu-al gutzia sumaka. «Jesuiten lorratzean, antza».

KURRILLoA.—Pozik arrantzu dagit naiz ur garbian naiz loian; ikusten dozuenez, bardin dabiltz emen nastauta gizaseme eleiztara ta deabrua.

MUNDUTARRA.—Bai, eleiztarrentzat, siñistu niri, on dozu edozein bide; emen Blocksberg ontan ainbat ixil-batzar dagiez.

DANTzARIA.—Abesbatz barriak ete dira or datozanak? Tun-tun-otsa dantzut urriñera... «Baiña ez! , egon trankil: txugarimak dira kañabera artean kantari».

DANTZA-mnisUn.—Bakotxak bai ederto anak jaso! Nor bere buruaren jabe da! Konkortuak ikoti dagi ta potoloak triska, ta iñori ez dautso ardura artu dagian itxuragaitik.

ARRABITARI TXARRA.—Birigarro-talde gaitz-eristen dautso alkarri, batak bestea iguintzeraiño; zarrabete (gaita)-soiñuak alkartu al ditu emen, Orfeu'ren lirak abereak lez.

DoGmALARrA.—Ni ez nau zurituko ez kritikak eta ez zalan-

tzak; zer-edo-zer izan bear dau deabruak. Zelan, bestela, ainbat txerren?

AMEsLARIA.—Irudimena da nire errazoiaren jaun eta jabe. Guztia ba'naz, egiazki, baita gaur-egun lulu ta burubako be.

EGIZALEA.—Min-oiñazez nauka izakiak, aldi gaiztora eragiñik; lenengoz aurkitzen naz kili-kolo neure oiñen gaiñean.

IzANAZ-GOIZALEA.—Bene-benetan pozik nago emen, guztien alaitasunean erdikide nazala; deabruetatik errez atera daikedaz gogaki onak.

SINEsKAITZA.—Suaren atzea jarraituz uste dabe altxorretik ur dagozala; deabru ta zalantza, batera datozenak dira: neure tokian nago, eta zuzen.

ORKESTA-ZUZENDARIA.—Ugarazioa orbeltzan eta kirkilli bedar-tzan, zaletu madarikatuok! Euliak muturrekaz eta eltxoak sudur-rekaz, danok zarie musikalari!

TREBEAK.—Kezka barik, onelaxe agertzen da izaki alaiaren taldea; oiñekaz ibilli ezin ba'gara, buru-gainka ibilliko.

TRAKETSAK.—Lenago ba-geunkan atsegiñik naiko; baiña orain, Jainkoa lagun! , gure oskiak dantza ta dantza makestu diralako, oiñutsik gabiltza.

SUAK. Zingiretatik gatoz gu, areitan jaiok gara-ta; emen ospatzen dan dantza onetan, orraitioño, geu gara galai diztitsu.

IZAR LoKA.—Goietatik erauzi nintzan ona, izar eta su-diztiraz. Nasai natza orain bedar gaiñean... Nok niri lagun egin oiñ-gaiñ jarten?

LODIAK.—Leku! Leku, ezker-eskuma! Bedartxoak beera doaz gure aurrean. Ezpirituak lagun dagiskue, ta ezpirituak be gorputz astunak daukiez.

PUCk.—Ez zaitetz aurrerago joan elefantearen astuntasun orrez; astunena bedi Puck bera egun onetan, eta indartsuena be bai!

ARIEL.—Izadi maitekorrak naiz ezpirituak egoz jantzi ba'zaituez, jarrai zuek nire oiñatz leunak larrosazko muiñoraiño!

ORKESKA (*leun be leun*).—Odei-zerrenak eta laiño-krespoiak alkar-argituz dagoz goian. Adar-ostoak dauz aideak iñarrosten eta aizeak, kañaberak; eta guztia da korde-galdu geratzen.

Faust, Mefistotele.

FAUST.—Bera, zoritxarrean! Etsipenez betea! Babes barik lurrean luzaro eta orain atxillo! Espetxe baten sartuta, gaizkille bat lez, neke-min izugarritan! Gaixoa! , milla bider gaixoa! Orraiño, orraiño eldu bear... Gogo zital, ezegarri ori! , eta gorde egiten zeustan guzti au! Zagoz or, zagoz! Erabil eure txerren-begiok suminkor burubiraka! Zagoz or eta jarki ni eure begitu jasan-eziñez! Atxillotua! Zoritxar ezin-bestekoan murga! Gogo gaizkiñen mende ta gizasemeen epai zail erruki-bakoari emona! Eta zuk bitartean jaialdi oazkagarrietara bultz-eragiten zeustan; aren oiñaze gero ta aziagoak gorde egiten zeustazan, eta ezeren laguntza barik galtzen izten zenduan!

MEFISTOFELE.—EZ da lenengoa!

FAUST.—Txakur! Mando-tzar arbuigarri! Biur zaitez, gogo mugage ori! , biur zaitez ostera be txakur-iduri, olan bai ziñan ibilli oi draka-draka neure begietan, gaur itzalpean, kalterik ez dagian erromesaren oiñetan apal, eta gero a lurrera jaustean, aren saman bilkin egiñik; biur zaitez barriro be aren itxura kutuna arturik, ondar-gaiñ neure begi aurrean sabela narrastu dagian eta neure oiñakaz apal-erazo ta zanpatu dagidan! Galdua! «Ez da lenengoa», diño... Izugarri! Izugari! Bururatu eziña dau, ba, edozein giza-arimak, izaki bat baiño geiago onako zoritxar-lezan murgil-azo ta lenengoak bere eriotz-kezka ta elorrioz eziñaren zorra ez ordaintzea, ots, beste guztien errua, beti-beti parkatzaille dan Aren begi aurrean! Bakar onen zorigaitzak urratzen daustaz muiñak eta bizia; eta zuk irri-barre dagizu, aierga, millaka olakoen alanbearraz!

MEFISTOFELE.—Ona barriro geure adimen-gurenean, or, zuok, gizonok, zentzuna galdu oi dozuen tokian! Zergaitik alkartzen za' rie gugaz, alkartze orren ondorenak eroateko gai izan ezik? Egaz egin nai dozu, ta ez daukazu segurantzarik aldigaiztoaren aurka! Guk dei egin dautzugu, ala zuk egin ete dauskuzu?

FAUST.—Ez eidazu olan karraska egin zeure egin ain ireslez! Ingira dakit! Ezpiritu aundi ta guren, adeitsu ager zintzakidazana, nire biotza ta barrua ezagun dozuzana, zergaitik alkartu ninduzun

lagun lotsagarri onegaz, ilketaz bazka ta galdumendiaz alaitzen dan onegaz?

MEFISTOFELE.—Amaitu dozu?

FAUST.—Gaizka egik; edo bestela, ai ire! Madarikapenik ikaragarriena ire gain, millaka urteetan!

MEFISTOFELE.—Nik ezin dodaz apenaren lokarriak ausi, ezta bere morroilloak edegi be. «Gaizka egik euk! » Nok bultz-eragin eutson ondamenera? Nik ala ik? (*Izukur begiraten dau Faust'ek ingurumari*). Esku-mende euki nai izan zenduan trumoia? Ederto; zorionez ez yatzuen ilkor auloi olakorik emon! Aurrean jarri yakon erru bakoa zapaltzea da, jauntxoak estualdietatik urteko erabilli oi daben bidea.

FAUSR.—Eroan naizu bera dagoan lekura; gaizkatu nai dot!

MEFISTOFELE.—Eta ortarako gainditu bear dozun arriskua? *Jakizu*: kea dariola dago oraindik, uri gainean, zuk zeure eskuz ixuritako odola! Illa jausi zan tokietan zabu-zabuka dabiltz oraindiño ezpiritu apentzailleak, iltzaillea noiz itzuliko dan zain ziur asko.

FAUST.—Oraindik ausartzen?... Betoz ire gairi, mamu orren galñ, munduko ilketa eta eriotza guztiak! Zuzen nagik araxe, neuk diñoat, eta gaizka dagigun!

MEFISTOFELE.—Eroango zaitut, eta, entzun, auxe dozu nik egin nengiken guztia! Al-izate osoa al dot nik zeruan eta lurrean? Espetxe-zaiñaren zentzunak lausotuko ditut; ar egizu zeuk giltza, ta zeuk atera egizu zeure gizon-eskuz kanpora! Ni zelatan egongo naz; gertu egongo dira zaldi sorginduak; neuk zuzenduko zaituet. Auxe nik egin daikedana.

FAUST.—Goazen, orduan!

GABA. ZELAI ZABALA

Faust eta Me fisto fele, lauoinka doaz zaldi baltz gainean.

FAUST.—Zertan diardue areik an belaeen arriaren inguruan.

MEFISTOFELE.—EZ dakit nik, zer egosten daben, ez zer gertatzen daben.

FAUsT.—Koloka dabiltz gorantza, heerantza; buru makurka dabiltz, zubitzen dira,

MEFIsToFELE.—Sorgin-akelarre bat dozu.

EAUsT.—Goazen., goazen aurrera!

ZIEGA

FAUsT (*giltz-pullo ta lanparargi bategaz, burdiñezko ate txiki baten aurrean*).—Dardar-ikara ez oitu batek joa nago osoan; neugan batzen da gizadiaren naigabea. Ementxe dago bera, orma ezkotu onen ostean; eta aren obena, ames eder bat besterik etzan izan! Ezbaian zagoz, beragana urreratzeko? Bildur ete zara, bera barriro ikusteko? Aurrera! , zure zalantzak aren eriotz-unea azkartzen,

(*Giltza artzen dau zahattzeko. Barruan kantatzen*),

Ene ugazama bardaskak
erio izan eustan
ene aita sarkil-zitalak
nindun oso-osoz irunsi.
Azurrak, nire arrebeak
toki ezoan gorde zitun;
ni oian-txori biur nintzan:
egaz urrun! ta, egaz urrun!

(*Atea zabalduaz*). Ez dau sumatzen maitea entzuten daukanik, kate-otsik artzen eta lastoaren urruetarik jasoten dauanik. (*Barrura sartzen da*).

MARGARITE (*bere etzalekuan gorde nairik*).—Ai ene! Ai ene! Ba-datoz! Erio mingotsa!

FAUsT (*aopean*).—*Ixi! Ixi!* Neu nozu zu askatzen natorrena.

MARGARITE (*arco ganan tz narrasturik*).—*Gizaseme* ba'zara, erruki zaitez gaixo onetaz!

FAUsT.—Lo dagozzan zaiñak itxartu bear dozuz zeure zaratakaz! (*Kateak artzen ditu, ari askatu dagiozan*).

MARGARITE (*betauniko*).—*Nok* emon dautzu zuri, urkatzaille, nirekiko aginpidea? Gau-erdia ozt-ozta da ta nire billa zatoz?

Erruki zaitetz, ta itxidazu biziten! Biar goizean ez al da ordurik naiko? (*Jagiten da*). Ain gazte naz oindiño, ain gazte! Eta onez gero il bear! Ederra izan nintzan, eta onexek galdu nindun! Ur egoan orduan laztana, orain urrin dana; koroía zatituta dago lorak iraurrita. Ez eidazu oratu orren zakar! Parka eidazu! Zer egin neutzun nik? Ez eizu nai izan nire alperreko negarrik; nik etzaitut egundo neure bizian ikusi!

FAUST.—Algo ete dot oiñaze au eroan?

MARGARITE.—Zeure aalmenpean osorik nagonez gero, itxi eidazu bein danik neure semeari bularra emon dagiodan. Gau osoan euki dot neure biotz-gaiñean estu! Neu oiñazetuteko kendu eustien, eta orain neuk il dodala diño. Ez naz geiago neure alaitasunaren jabe izango. Neuri buruzko kantak abesten dabez. Jentea bai dala gaizkille! Egia da, orrelaxe amaitzen da ipuin zaar bat; baiña nok dirautse nitaz abesteko?

FAUST (*arengana-narrasturik*): *Belauniko* gaitez, bai, santuai eskatzeko! Btgira! Mailla onein azpian, atari onen azpian irakin diraki infernuak! Txerrenak, amorru bizitan, zarata izugarria ateraten dau!

FAUST (*abots zoliz*).—*Margarite!* Margarite!

MARGARITE (*arretaz*).—Orixe zan nire adiskidearen abotsa! (*Jagiten da; beera joakoz kateak*). Nun ete dago? Dei egiten entzun dot! Aske nago! Ezingo nau ni iñok lotu! Egaz egin nai dot aren besoetara, ta aren bular gaiñean atsedena artu! Margarite! Berak dei egiten eustan, ataritik! Inpernukoen ulu ta arrabots artean, deabruen barre-algara latz-gorri artean aren abots ezti laztana ezagutu al izan dot!

FAUST.—Neu nozu!

MARGARITE.—ZeU zaitut? A! Esaizu barriro! (*Besarkartuaz*). Bera da! Bera da! Nun dira orain oiñazeak oro? Nun presondegiko larrialdiak? Nun kateenak? Zu zaitut! Gaizkatzera zatorkidaz? Gaizkatua naz! Ba-dakust ostera be lenengo aldiz ikusi zindudazan kalea; baita Marte ta biok zure zain egon gintzazan baratz alaia be!

FAUST (*beragana erakarriz*).—*Erdu*, erdu neugaz!

MARGARITE.—O, zagoz emen! Ain yat atsegingarri zure ondoan egotea!
(*Laztantzen dau*).

FAUsT.—Zabiltz bizkor! Bestelan, bada, gureak egin dau.

MARGARITE.—Z.darl? Ez dakizu mosu emoten? Daitekena da, ene lagun, ain labur nigandik urrin eta mosu emoten aztu yatzula? Zergaitik nago orren urduri zure beso artean, beste orduz zeure itcz, zeure begituz zero osoa ixurtzen ba'zeustan arima barrura, ta ito naian mosukatzen ba'ninduzun? Mosu nagizu! , bestelan neuk mosutuko zaitut. (*Estutzen dau*). Ai ene! Zure ezpanak otz dagoz, mutu. Nun geratu da zure maitasuna? Nok ostu daust? (*A.gandik urrintzen da*).

FAUsT.—Zatoz!, jarrai neuri! Biotz on, laztantxo! Maite zaitut gero ta biziago; orain jarrai neuri! Neuri jarraitzeko, eskatzen dautzut bakar-bakarrik!

MARGARITE (*atzera begira*).—*Baiña*, zeu zara orduan? Zeu zaitut, egi-egiaz?

FAUsT.—Neu naz, bai! Zatoz neugaz!

MARGARITE.—Kateiak askatzen daustazuz, barriro artu naroa zu zeure altzoan. Zelan etzara nire aurreran ikaratzen? Ba-dakizu, bear bada, ene lagun, nor askatzen dozun?

FAUsT.—Erdur! Erdur! Gau baltza urtuaz doa, oraingoz gro.

MARGARITE.—Neure ama il neban, eta neure semea ito! Zuri ta neuri emona etzan izan? Bai, zuri be bai! Zeu zara! Ezin dot ia süVstu! Ekatzu zeure eskua! Ez da amesa! Zure esku laztana! Ai, baiña ezkorik dago! Garbi egizu! Odoletan bustia dala, begitanduten yat. Ai, Jainko, zer egin dozu? Gorde egizu ezpata ori, egiz eskatzen dautzut!

FAUsT.—Joana, bego joanda! Ez aotan ar, il-erazten nozuta.

MARGARITE.—Ez, zu emen bear zaitut nik! Biartik arduraz zaindu bear dozuzan illobiak izentatu nai dautzudaz: bedi tokirik onena nire amarentzat, eta nire neba be onen ondoan jarriko dozu; ni ipiñiko nozu pizkat baztertua, bailía ez urrin be!, eta umea neure eskumako galtzarrean. Iñok be ez dau, jakiña, nire alboan ctzan gurako! Zure ondoan etzutea litzateke niretzat atsegiñik samur beteena! Baiña ori ezin neinke onezkero lortu; neure buruari indar egn bear dautsodala dirudi zuregana urreratu nadin, zuk zapuztuko ba'ninduzu lez! Zeu zara, alan be; eta ain gozo, ain zamur begiratzen nozu!

FAUST.—ZatOz, ba, nor nazan igarten ba'daustazu!

MARGARITE.—Kanpora?

FAUST.—Askatasunera !

MARGARITE.—Illobia dago kanpoan, eta zelatan daukodan erio! Zagoz emen! Emendik betiko atsedeen-ogeta: pausurik be ez geiago: Ba-zoaz? O. Enrike, zugaz joan al ba'nadi!

FAUST.—Al dozu! Nai izan bakar-bakarrik! Zabalik dago atea!

MARGARITE.—Ez daukat urteteko kemenik; ez bait dot ezezen itxarokizunik. Zetarako iges egin? Zelatan daukadaz oindiño, ta tristea da eske ibilli bearra, ta are geiago kontzientzi loiaz! Larria da oso, arat-onar arrotz ibiltea; eta azkenean be, barriro elduko leuskide!

FAUST.—Emen geratzen naz, zeugaz.

MARGARITE.—AgUdO! Agudo! Gaizka zeure seme gaixoa! Atera! ; jo egizu erreka ondotik doan bidezidor zear, zubitxo gaiñetik, oian barruan, ur-osiñaren ataska dagoan lekuan, ezkerretik. El egiozu bizkor! Ur-gaiñean agertzen da oindiño, ankatxoai era-giñez! Gaizka egizu!

FAUST.—Senera zaitez! Pausu *bat* bakarrik, eta aske zara!

MARGARITE.—Mendia zearkatu ba'gendu, antxe idoroko genduan nire ama arri baten gaiñean jarrita! Otz-dardarak joten nau! Antxe dago nire ama arri gaiñean jarririk, buruari eraginka; ez dau begiratzen, ez ditu begiak kl;xkatzen, burua astun dauta; aspaldiko loa egin bait dau, ez da geiago itxartzen. Loak artu eban, gu biziaz poz-artu geintekizan. Areik bai denpora zoriotsuak!

FAUST.—Nire eskari ta izak alperrⁱk diran ezkerro, indarrez ausartuko naz zu emendik ateraten.

MARGARITE.—Itxi nagizu! Ez, ez dot eroango iñundiko gogorkeririk! Ez eistazu el ornen latz! Beste orduz guztia egin neban nik, zuri neutzun maitasunarren.

FAUST.—Egunak zirgit dagi! Laztan! Laztantxo!

MARGARITE.—Eguna! Bai, ba-dator eguna! Azkenengo eguna urratzen! Neure eztegu-eguna izan bear leuke! Ez eiozu iñori esan Margarite'gaz egon zarianik! Ai, nire koroia, orobat maraztua! Alkar ikusiko dogu, baiña ez dantza-lekuan. Alkarri sakaka dabil laguntaldea, baiña ez vako entzuten; enparantzak, kaleak

ezin dabez artu. Kanpaiak ots dagi, miiña apurtzeraiño. Zelan oratu ta lotzen naben! Urkamendira naroié. Taupaka dago onezkero lepo baktxaren gaiñ nirea moztuko dauan sorbatz-agoa. Ixil dago mundua, obia iduri,

FAUST.—Ai, jaio ez ba'nintz!

MEFISTOFELE (*ate aurrean* agertuaz).—Kanpora! , bestelan galduak zarie. Zetarako tiara, zalantza ta solas alperrekoak? Urduri dagoz nire zaldia. Goiza agertuz doa.

MARGARITE.—Zer dator lurretik gorantz? Bera! Bera! Jaurti egizu emendik! Zeren billa dabil toki sagaratu ontan? Neure billa dator!

FAUST.—Bizi bearra dozu!

MARGARITE.—Jainko zuzen! , zeure eskuetan naukazu!

MEFISTOFELE (*Fausei*).—*Ator!* , ator! Edo-ta, beragaz, bertan izten aut.

MARGARITE.—Zeurea naz, *Aita!* Gaizka nagizu! Aingeruok, zerutar taldeok, jar zakidaze inguruan, ni babes nagizuen! Enrike, iguingarri zaiataz!

MEFISTOFELE.—EpaitUa dago!

ABOTSA (*goitik*).—Gaizkatua da!

MEFISTOFELE (*Faust'i*),—*Jarrai* zakit, emendik!
(*Biak ostenduten dira*),

ABOTSA (*beetik urtenaz, ta apurka itza/iaz*).—Enrike! Enrike!



BIGARREN ZATIA

Esan dogu, zati bi daukaz poema onek. Ez jarraian idatziak gero, tarte luzeka, ar ta itxi egiñak baiño. Leenengoa, an 1808'an lez asi ta geroago osotua; bigarrena, 1832'an, il aurretxoan amaitu eban. Egíari berea emoteko, onen asmoa bizitza guztian ekarri eban bere barruan dilindan, orain eldu ta gero itxi. Beraz, luzaroan ausnarturiko lana. «Faust» auxe bait da Goethe'ren sorpen-lanetatik bikaiñena.

Atal bitan bereizia; izen batez bateatua, baiña antzerki biri lez ura emona. Leenengoak ba-dau bere mamiña, antzez-mataza txairo ta sotil jantzitakoa, ikusle-entzuleak atsegiñez izteko lain dana. Askoren iritxiz —esan genduan— ez eban bear bigarren zatirik teatru-lan bete-betea izateko.

Goethe'k, baiña, aundia zan zerbait erabilten, luzaro ain zuzen, bere izate barruan. Goethe'rentzat gizadi osoa zan Faust. Eta leen-zatia onen atalño bat zan bakarrik, gizonaren eta emakumearen izan-puska bat ez euskun adierazten besterik: geiago bear zan, gizonak bere barruan daukazan ezkzrtu biurri, zapokeri, sinzarkuntza ta autortu eziñiko izurri likitsak agirian jartako. Ortarako bere aberriaren oiturak eta antxiña bateko gerkarren alegi pikorrez nastura bikaiña giar-izpiz txibisturik, ez euskun irakurgai ta antzez-gai makala ondu.

Ikus Faust eredu, gizaseme zakar, urduri, doakabe ta gogo-illuna, poemaren atarian; ikasi ta ikasi gela zurbillean, giza-biziteak eta izadiak berak gorderik ditun zador eta misteri illunak arakatu ta argitan ipiñi nairik. Eta ezin lortuz. Ori jadetsi guraz, ezpiritu gaiztoaz be odolezko egiunea burutu dau. Ezer lortuko ete? Zoipe dagoan mamorroak andik unten imita lerrenak dagizan lez, or Faust

he ar indarge, errukarri nanbait! Gizontxo! , zure iduria dozu. Zuk he, Faust'en antzera, ezpiritu kementsu baten jaube zara, baiña kirats loi artean sarturik zagoz aieneka. Zergaitik ez urten ortik? Zapart egizu aizetara, lagun-arte osasuntsura, zeure harru estu larri orretan negar egiteke.

Gaszte au, zein esku, 'eroango etc dau bere ontzi ariñean? Ari-ma kementsu guztiak norbait, edo-ta zerbait, jarri dame begi aurrean —eredu lez? — idazleak, erri-jaurleak, adur-zaleak, otoizlariak... Dante'k eta Goethe'k betiereko emakumea jarten dauskue eredu bezela, guretzat jarraigari. Fruíst izan be Margarite'ren gelan daukazu, emakume baten oiñetan, eta mundu barria agertzen otoz-otoan eta usterik bage; eta gizaseme zakar illun a lilluraturik geratzen jatzu aren hir)intasunaren aurrean. Ain xalo ikusten dan, ain zindo ta ain errurik eza!

Auzoan dauko euki tentatzaillea, deabrua --Alefistojele— bestera zurn-tur dagiona: ona ta txarra, ama i bako burrukan. Betiereko emakumea, txerrena... Nor garaille? Faust'ek zerbait geiago hear dau, hide oneratzeko ez jako naiko neskatil ederraren xalotasuna; barru ta kanpo, eder-arrobi dozu, baiña burgoi da gizona adimenez eta griña-zale. Faust'ek goragoko zerbait nai. Zer, baiña, harnerritsen osiña asebeteteko? Eta crema goragokoetara egaztu nairik, beeko lera iskitsu dabil murgildua, ugintzar artean amilka, bilinbolaunka larrian. Azkenez, izpirituzko porrokaldi negargarriak dakar bide onera.

Argi ta garbi esan eziñezko asele, alegi ta jpuhn zaarren bitartez kantatzen dauz Goethe'k biotz-nún, atsekabe ta goraberen kezka ta urduritasunak. Bigarren atal onetan, bost ekitaldiko trajedi onetan agertzen da Faust Jainkozko graziak ikuu ta mende artua. Egingo ditu oindiño bereak, giza-izate zaarra erantzi orduko; baiña, beti jazo oi dana, azkenez be Jainko garai gelditzen. Lurrean datza Faust urmen barik, arri ta zar, tximistak jotako zugatz dardaratua iduri. Goitar grazi-ekarle dan Ariel'ek damotsoz irakaspén osasungarriak. Olan itzultzen jaku, leengo fas, lera ta joera ezkutu ta dongak itxiz, astiro baiña erabagitsu, egiazko bidera, adimena goi-uste ederrez eta biotza goi-eskerraren eta graziaren gozotasun leunez apaindu ta jantzirik. Gogor eta aldatz-gora egin

jakon Faust'i Elena'ri agur egitea, baiña ortara jarri zan azkenik.

Gerkarren doe zan eder-eredua, begiz jo ta zoratzen eban ederrarena. Idazleak, orraitño, beste ideia bat be barrendu eban Faust'en izatean; kristiñau zan, gaur lez o; duan be, doixtar erresumarik geiena. Kristok, ostera, errukia —pekatuak parkatuz— eta maitasuna —lagunak aukeratuz— erein ebazan munduan. Kristau argiak emotsan Faust'i ain bizi opa eban ederraren, ez lillura baka-rrik, baita arnasa ta bizi-kemena be. Au erabat betiereko emakumearen zantzuz eta ikurrinpean' «Gizonak ba-dazau —idatzi eban— bere azkena; itz garbi batek egiterik ederrenak dakarskuz burura; gizonak ez dautso beti igarten falta jakonari». Izan be egintza da oro, aintza barriz ezerez uts.

Kristok irakatsiari esker, oldozkun barri bat sortzen jako barruan, onaren ideia; leen eder-diztirak ixetu eutson maitasuna, orain onak ixetzen. Aize-orratz dogu gizona, geienik beintzat, aizeak nundik putz arantz zuzendua dabillena. Baiña ba-daukaz gizonak —eta abereak— ixilka erakartzen daben zerak. Agustin deunak bere itzaldi baten (Jo. 26) au diño: «Ez iiste naikundez bakarrik erakarra zareanik, baita leraz, biotz-leraz be; ez bear-izanez, baita gozotasun eta gozartez be... Kristok ostera, Beraganatzen ga tu egiaz, zeru-atsegiñaz, zuzentasunez, betiko biziaz. Gorputz-zentzuna euren griñak daukez. Gogoak ez ete?»

Gizona maite-lerak darabil, eta Goethe'k maitasunagaz batera ederra ta ona ipiñi dauskuz Faust onera ekarteko. Bakotxa bere lerak bai dakar. Bikaiña bene-benetan idazlearen elburua: gizona erabat, gizarte-maitasun era bultzatu nai eban edertasunaren eta ontasunaren guri-goxotasuna aupatuz ta goretsiz. Egiñ-egiñean Faust, maitasunak obenera eroan ebana, maitasunak jarten dau egiazko maitasunaren erreiñurako bidean. Eta atzenik, Faust, goiko boro-billak zear zerurantz doala, Aur pozkorak arduratzen dira aren zati ez-ilkorakaz. Eta Margarite'k, pozik: «Oi Erregiñ, egun eder onetan, itzul eizu nigana zeure bekoki onbera! Biurtuz dago, mingostasun guztitik aske onezkero, nik lurrean maite izan nebana».

Eta Mariar Maisuak bere gela ixil garbian kantari: «Ikuspegi ederra emendik ikusten dana... Garra darion odeian ernakume done batzuk dakustaz, zerurantz doazalarik, egaz. Euren artean bat

(loa ditzikor, loratan dagozan izarren koroepan. jainkozko zaindaria da, Erregiña, dirdaizko zirt-zirt artean bikain be bikain agertzen dana. O munduko Erregiñ, Sortzez garbia! Eidazu zure jainkozko ezkutapena irakur daidan zeru edegian izar-oskolpean, irakur daidala, hai, o Jainkoaren Ama! , zerutar suaren argitara! »

Eta, azkenez, bekokia lurrean: «Billa egizuez bere begitu salbatzailleak, zeuon biotzak abeto gerta dagizuezan. Esker onez ardaigun ain aundia dan edertasunaren doaia, eta zentzunak oro zen
○ Birjiña! O Erregiña! O Ama! -Erruki za-
kiguz, o jainkosa, zeure ditzira amai bakoan!»

Alkar maitasunak eragindako eskari gartsua.

TRAIEDIA

BOST EKITALDITAN

LENENGO EKITALDIA

LEKU ATSEGIÑA

*Faust, bedartza loratuan etzunik, neka-neka egiña la urduri,
loak artu naian.*

Goiznabar.

Gogo-inguruketa, dardaraz, zabu-zabuka, taja txiki firaiñetan.

ARI EL (*Kantua, lagunduta*).—

Udabarriak lora usaiña
oroz gaiñetik ixurtzean,
uztaz soloak orituta
lurrak dirdira egitean,
nok gantza bear, ara datoz
Elfa pitiñak betean;
bai onak eta bai txarrak be,
dei dagitse zori txarrean.

Zuok, Elfok, zoribako buru inguruan bira dagizuen ezkerro,
crakuts ementxe zeuen trebetasun oparoa: ezti-azo biotz asaldatu
onen audiakak; urrin-azi beragandik txistu garratzarcn zizta erre-
korra; ikuz bere barrua giza-ikara zakar guztitik! Lau dira ga-
baren uneak, bete eurak ba bfzkor eta biozkiro! Aurrenik, etzun-
azo aren burua ozgirozko luniatxetan, eta gero ernon busti bat Le-
teu'ren uretan; aren soin-atal sukartuak arindu ta egunerantza
bultz-dagioenean, orduantxe burutu zeinkíe, Elfok, zeuen lan ede-
rra, ari barriro be argi osasuntsua biurtuaz!

ABESBATZA (*Ahots bat lenengo, gero bi ta azkenez asko, batera
naiz txandaka*).

Zelai orlegi naasi zear
aizea oartzean zerbel,
arnas gozo, laño estalkiz
argi-xinta ur agertuz ozpel;
murmur begi gentza leunak mee,
aur-etzaldiz klunka barneak;
aul onen begietatik, ba,
itxi egunaren atea.

Somatzen da jadanik gaua,
izarrak goi agertzen sailka,
argi aundi ta txingar txiki,
ur eta urrin, oro ñirñirka;
emen zingira-gaiñ, islatsu,
gaua da jarten guztiz argi,
ta atsedeen bete zoriz jantzian
illargia oroz da nausi.

Illez doaz ordu oneik be,
euren neke, poza ezez ez;
sor-nai oparo: jaiki zu be,
or tgun-barri argi betez!
Musker muiñoak, ugal ganak,
itzal-unak sendo errotzen
eta zidar-uin dantzaritan
uzta-ereintzak kulunkatzen.

Dana eder so nai ba'dozu,
begira an dirdai uts danera!
Ez or tinko lotu bakarrik,
loa egizu azalera!
Ez nagirik; biotz, adore! ,
naiz-ta be gizonak nagitzen;
oro egin al dau suarrak,
dana ulertzen, oro usu artzen.

(Arrigarritzko eztanda batek iragarten dau eguzkiaren urteera).

ARIEL.-

Entzun! Entzun ots-erasoa!
Goi-gogo burrunbatsuentzat
egun barria da jaioa.
Aitz-arte bizian axanpalaz,
euzki-gurpilla dabil narraz.
Argiak bai oskar txairoa!

Arratzak ots, tupiña otsik,
ñir begiak, belarriak sor,
ezin entzun ezin-entzunik;
lili-buruz labankaturik,
sakon, sakonago lokartu
aitz-arte ta adar-pe epelik!
Zuen lo-sista bai gozatsu!

FAUsT.—Bizitzaren zan aundiak bizi-bizi dagoz taupaka, barritzurik, egurats argi-astea leun-leun agurtzeko; zu be, lur, iraunkor agertu zara gau ontan, eta arnasa artu dagizu orain neure oiñetan; zeure atsegiñetan murgiltzen nozu dagoneko, ta dakustanez, nigan sortzen dozu gero ta indartsuago, beti goragoko bizitza batera joteko erabagi kementsua.

Goiznabar lurrunetan aizatzen da lurbira, pizkaka aienatzeko; oinak ots dagi millaka bizitz-soiñu ozenez; or laiño-zerrenda ibar-gaiñez luzatua, ta or baita goi-argitasuna sakonean murgilduz, eta ostoa ta adar, iruntzez aserik, leza laiñotsurantz makurtzen dira, lo-zorro billa. Koloreak argi tuz doaz azpitik askaturik, eta lore ta orriak pitxi dardaratiz jazten: inguru osoa emen Paradisu biurtuz doakit.

Gora orain burua ta begira! Mendi-kukutz jasoak iragarritz daukazuz ordu oi ez bezelako ta gurena; argi betikoaz gozatzea aurretiaz emon izan yake, guganaiño geroago elduten ba'da be. Argitasun barri batek, dizdizera barri batek uioltzen ditu Alpe'tako inguru berdeak, eta sartuz doa apurka oro argiz asetzera iño. Or eguzkia! Itsutua dagoneko, begiak baztertu bear dodaz zirt-zirtez minduta.

Bardin jazo oi da gure itxaropen bizia, iraun ta iraun, goi-goi-ko gurari bi, urtu ta betete-maillara eltzen ikusterakoan be; orduantxe dakusgu sakon orreitatik *zelan* erneaz doan su-itxaso bat, eta izuak artuta geratzen gara; bizi-zuzia ixotu nai genduan, eta ona, suzko Liio] batek gaitu nun-naitik. Eta zelako sua! Maitasuna ere da? Ezin-ikusia? Beronek biratzen gaitu bero, ta lotzen nek ko ta pozezko katez lotu be, bein banan, baita guk geure begitua, geure gaztetako xalotasuna gordetearren, lurrerantz ostera be era-txi ba' dagigu be.

Olan ba gelditu bei eguzkia neuri bizkarka! Orain dakust atsegin aunditan arkaitez-artean murmur dagian ur-jauzi bizia. Jauziz jauzi, lautuz, milla zatitan mirrintzen da, goian apar-laiño naasia jagi-azorik, Ots onen sabeletik bai erneten dala aundikiro, uz-tai eder aldakorretan makurtuz, orain garbi marraztua, gero airean urtua, bafada otz biran barraiatua! Ez ete da, bear bada, giza-ekintzaren irudi? Ausnar zuk pizkat, eta sakonago ulertuko dozu: margozko azao ori geure bizitza da!

KAISER'EN JAUREGIA

*Bakaulki aretoa,
Laterri-Batzarra, Kaiser'en zain.
Soirlu ak*

Era askotako errege-morroiak, kolore askoz jantzira, aurrera datoz, Kaiscrra aulkira doa, izarlarria aren alboan geratzen dala.

KAISER.—Agur zuoi, neure menpeko zintzuoi, urretik eta urrindik ona etorri zareanoi. Emen dakust jakituna neure ondoan; baiña nun da zoroa?

AUNDIKIA.—Zeure jantzi-mendelaren atzetik etorren ain zuzen be, zurubi-beera jausi zanean. Gero lagun-aldreak croan eban. Ilda ala edanik? Ez dakigu.

BIGARREN AUNDIKIA.—Baiña bertatik btste bat aurkeztu da aren ordezt, arin be arin. Soñeko aberatsa daroa, bitxia benetan, eta danak geratzen yatzuz arriturik ari begira. Atezaiñak oraintsu izkilluak erabilli izan dabez, sarrerea galazoaz... Baiña, alan be, emen daukazu zoro bildur-bakoa!

MEFISTOFELE (*aulki aurrean balaunikoturik*).—Nor da beti gaztetsia, ta beti ondo artua? Zer da su ta gar irrikatzen dana, ta beti atzeratzen dana? Zer da zuk deitu bear ez dozuna, ta alan be aren izena mundu guztiak atsegiñez entzun oi dauana? Nor urreratuko da zure bakaulkira? Nor baztertu da ortik bere gogoz?

KAISER.—Atertu, oraingoz beiñik-bein, zeure itz-zaparrada! Emen ez datoz ondo alegi ta ikusi-mikusi orreik, ori jaun onein arazoa da-ta. Baiña azal zaitez, pozik entzungo dautzut eta. Nire lengo zoroa, uste dot, txango luzean da; ar zuk aren lekua ta jar zaitez neure ondoan!

(*Me fisto fele, aulkiko maillak igonik, Kaise'en ezkerrean jar ten da*).

JENTEA MARMARKA. Zoro barri bat — Alamen barria — Nundik ete dator? — Zelan eldu ete da orraiño? — Lengoa, jausi ete da? — Oro nastu oi eban — Upel bat zan — Au, barriz, lasto-izpia.

KAISER.—Olan, ba, ondo etorriak, ene menpeko zintzuok, urrekoak eta urriñekoak! Onezko izarrak batu zarie emen: izarrak euki be zoriona ta osasuna eskinka daukaguz. Baiña, esaidazue, zergaitik ospatu bear dogu batzarra egunotan, ezeren ardurarik ez dogunotan, mozorro-jaiotan? Laket yakunari emonak, poza ta alaitasuna besterik gogotan ez dogun egunotan, zergaitik batzarrean alkartu? Alan be, zuok orrelaxe nai dozuen ezkerro, bedi olantxe; zeuoi egoki deritxazuenez, egingo da.

KANTZILLERRA.—On-indarrik gorengoenak, argi-koroi sagartuak lez, inguratzen dau Kaiser'en buru-bira; koroi ori berak bakarrik erabilli daike legez: Zuzentasuna! Gizaseme orok maite izan, eskatu ta irrikatzen daben eta iñoizka bakarrik eta nekez gabetzen dan doai goitar au, berak soil-soilki emon leikeo erriari. Baiña, a! , zetarako dira giza-gogoaren ulert-indarra, biotzaren ontasuna ta besoen indarra sukar errekorrak laterriaren oiñazpiak jaten ba'ditu, eta gaitzak gaitza sortzen ba'dau? Erpin-gaiñ oneitaitik erresuma zabala begiratzen dauan edonork usteko dau ames txar baten mende aurkitzen dala, matxarrak matxarra sortuz, zuzenbagekeria legezko izanik, iruzur ta makurkerien mundu naasi batean.

Onek artalde bat ostuten dau, arek emakume bat, arutzago-

koak kaliza, gurutze ta altarako zuziak, eta, urte luzeetan, azal osasuntsuz dabiltz gorpuz ez-idorrean. Eztabaida ta matraken zaratak auzi-aretoraiño eldu ta epaikaria arrosko bere jarleku jagira igoten danean, orduantxe da kulunkaz, moltzo zakarrean, gero ta aziagotuz doian naspil, zurrumuru ta triki-troko murgilla. Onek aiputu xarrera ta gogorkerira jotzen dautzu, beste arek gaitz-kideak ditu su-emoille, eta *errudun* itza erruge uts danari baiño ez dautse ezarriko. Orrelaxe mundu guztiak nai dau zatitu ta ezereztu berezko dana; eta onela dala, zelan ots-egin gu ontera garoiazan zentzun bakarrari? Azkenez, asmorik oneneko gizonak be burua makurazten dau palagu ta koipekeriaren aurrean; eta zigortu eziñik aurkitzen dan epaikari bat be errudunagaz alkartzen yatzu azkenik. Baltza benetan margoztu dodan laukia, baiña kolore illunagoak nai nebazan oindiño, berau obeto nabarmentzeko. (*Geldi-unea*). Asmo biurriak ezin daitekez osoan moztu; baiña gaitzakeri ta neke-miñezko giro onetan, Erregea bera be ausi-abartzara eroana izan daiteke.

GUDAROTZTEKO BURUZAGIA —Au zalaparta egun gozakaitz oneitan! Batak ii dagi, baita besteak be, ta danak diraeu gor agindua-
ren esanera. Jauntxo bere arresi ostean, zalduna bere aitz-abian setati, gure aurka alkar arturik dagozala dirudi, euren indar guztia eurentzat gorderik. Sari-gudariak, arteetan, egoarria galduta, bere saria eskatzen dau lazkiro; eta zerbait zorretan euki ez baleu, antxiña zan zelaitik alde egiña. Danak eskatzen dabena ukatzea, barriz, kurumiño-abi bati ziri eragitea litzateke; origaitik, eurak zaindu bear leukien erreñua, lurra jota ta txautua aurkitzen da; edozetariko triskantza ta galmenak egiten izten yake, ta abarrotsa ateraten zakar be zakar, eta orain orixe besterik ez dagi mundu erdiak; or bean geratzen dira orandik errege batzuk, baiña eurotatik batek be ez dau uste eraso orreik curen aurka doazanik.

DiRUzNiÑA.—Nok, beraz, uste onik izan itundu-lagunetan? Agindu euskuezan lagunpideak bear ditugu, odietako ura lez. Baiña, jauna! , noren eskuetara joan da zure Laterri zabaletako ondasun guztia? Noranai joan, bertan daukazu etxe barri bat, arrotzak dira, aske ta jarei bizi nai dabenak; eta guk eurak gura dabena egiten itxi bear: ainbat eskubideri amor-egin dautsegunez gero, ez yaku ezeren gaiñ eskubiderik geratzen. Aurrerantzean, gaiñera, alderdi

politikuetan be, zirala diranak, ezin daikegu uste onik ezarri: naiz dirala geutarrak naiz etsaiak, euren ondo-ikusia naiz gorrotoa guztiz ardura bako ta galdu-irabazi ezak ditugu. Batzuk eta bestetzuk, guelfarrak eta gibelindarrak, euren buruak gorde oi dabez, atsedena artzeko. Nok lagundu nai dautsa gaur bere auzokoari? Bakotxak beretzat egiñaz naiko dau. Urre-meatzak zur-esiz dagoz, bakotxak bere lurra lantzen dau, dirua aurreratzen eta metatzen, eta alan eta guzti be gure kutzak utsik.

MARISKALA.—A! , neu be zoritxarraren zamak abailtzen nau! Zerbait aurreratu nai dogu egunero, ta egunetik egunera geiago eralgi oi dogu. Jai ta aste kezka barritan gabiltz. Sukaldariak ez dau oraiñarte ezeren utsik: basurdak, oreiñak, erbiak, basauntzak, indi-oillarrak, antzarrak, aateak, oillaskoak, jaki neurtuak eta sartukizun betikoak, ez dira urritu; baiña ardaoa, dagoneko, azkenetan daukagu. Gure ardangeletan lenago upelak upel metatzen ziran, urterik urte ondutako ardaorik onenakaz, baiña gure jauntxo aundi-kien egarri ezin-aseak oso zurrupatu ditu, azken tantaraiño zurrupatu be. Udal-etxeak zabaldu bear izan dauz bere biltegiak, baiña ango lapiko ta topiñak, artzen dabez, eta pitxer eta murkoak, eta or maipean oturuntzaren amaia. Eta neuk ordaindu bear dana, mundu guztiari poz emonaz; judutarra ezin dot nik ikusi; era guztitako aurreratzeak asmatu oi dauskuz, etorkizun diran urteetakoa be aurretiaz jan-eragiten dauskularik. Txarriak gero ez dira loditzen; bai, zorretan daukagu ogeko bururdia be, eta maian jarten da aurretik jandako ogia.

KAISER (*gogo-ausnar pizkaten ostean. Me fisto fele'gana zuzendurik*).—*Eta* zuk, zoro orrek be, ez dozu ezagutzen bear-izanen bat?

MEFISTOFELE.—Nik? Zelan ezagutu bear-izanik, zuk eta zutarrak inguruan daukazuen aintza ikusiaz? Uste onak uts egingo ete, Erregeak esku altsuz agintzen dauan lekuan, eta indar zur batek beti ernai dagoan tokian? Nai ona, adimenez indartua, ta zernaitarako ekintza, eskuan ditunak, ba al dau utsik? Zelan alkartu txarrereko ta illunperako, olako izarrak dirdir dagian lekuan?

JENTEA MARMARKA.—TXOri galdu bat da — Ondo daki bere zeregiña — Guzurti bat da — Olan sartu da emen — Nik ba-dakit

onezkero — Guzzi au zetara doian — Zertarako jardun? — Xede bat dakar.

MEFISTOFELE.—NOri ez yako falta zer-edo-zer mundu onetan? Oni au, ari a; emen barriz dirua falta da. Egia esan, zelaia estaltzeko aiña ez dago, baña jakite ta trebetasunez beeko lezatic be atera daikegu. Mendi-zanetan eta arresi-azprietan urre utsa dago, ta diru biurtua; nok egun argitara ekarri dagiken, itandu ba'dagistazue, nik erantzungo: Izadiaren indarrak eta giza-buru argiaren adorea.

KANTIALLERRA.—Izadi ta arnas! Kristiñauen artean ez da olako izketarik. Au dala-ta Jainko-bagcak sutara bialduak dira, taiu ortako izkctak guztiz arriskutsuak diralako. Izadi pckatua da, Arnas deabrua; biok sortzen dabe zalantza, euron sasi-kume ma

ñako lurraldeetatik enda bi urten dira bakar-bakarrik, bakaulkiari duinkiro eusten dautsoenak, au da: santuak eta zaldunak. Eurak dira ekaitz bakotxean arriskuari bekokia omoten dautsoenak, eta sari lcz Eliza ta Latcrria erdi banatzen dabez. Naieza ta jarki-pena, erakutsi oi dabena, erritar buru-arin batzuen a baiño ez da: siñausle ta azti-maisuak, ain zuzen be! Onexek ondatzen dabez uriak eta baserriak. Eta zuk orain inguru leiñargi orretan sartu nai dozu zeure iskirio ta irri miñakaz; biotz ustelduak landu nai dozuz, zoroakaz kideko samar diralako.

MEFISTOFELE.—Onetantxe ezagutzen dot jaun eskolatua! Zeuk ikutzen ez dozuna, guztiz urrun dago zuretzat; zeuk ulertzen ez dozuna, ez da zuretzat; zeuk ainbatu ta antz-emeten ez dautsazuna, gururrezkoa da; zeuk pixatzen ez dozunak, zuretzat ez dau pixurik; zeuk diru biurtzen ez dozunak, arek ez dauka baliorik.

KAIER.—Diñozun ezerk be, baiña, gu gagozan estuasunetik ezin atera. Zer nai dozu orain zeure garizumako itzaldi orreikaz? Gogait eginda naukazu zeure betiko «bai» eta «baiña» orreikaz. Diruak uts dagisku; ederto! , saia gaitez an bera billatzen!

MEFISTOFELE.—Neuk billatuko dot zuk nai dozuna, ta geiago; au egiaz erreza da, baiña erreza beti izan oi da gatxa. Lurrean dana dago lo, ta ori jaritxi egin bear da: or jakituria, zelan esku-ratu lo dagoan ori? Oldoztu ba p:zkaten: triskantza egunetan,

giza-ibaiak uiol antzo dana ondatzen ebenean, onek geiago, arek gitxiago, bakotzak bere latz-ikara zoroan, emen eta an, lurpean gorde zituen euren ondasunik baliotsuenak. Orrelaxe jazo zan Erroma'ren garairik indartsuenean, eta orrelaxe jazo da olako larriuneetan atzo ta gaur arte guztian. Ondasun ugariak dagoz, ba, gure oinpean gordeta; eta zorua Kaiser'ena da; berenak beitez ondasunak be!

DIRUZAIÑA.—Zoroa izateko, ez da gero txarto mintzatzen; orrelakoa zan, izan be, antxiñako Kaiser'en eskubidea.

KANTZILLERRA.—Satan'ek jarri dautzu urrezko lakirioa: be-fletan bada emen argia ez dan zerbait.

MARISKALA.—Ondasun orren gogotsu opa izanak errege-jauregira biur-azo nai diran ezkeru, nik gogoz nai neunke olako errakuntza pizkat...

GUDAROTZTEKZ BURUZAGIA.—Zentzunduna da zoroa, orrela dirudi;- bakotxari gura dabena eskintzen dautso; gudariak ez dau itanduko gura dauana nundik datorkion!

MEFISTOFELE.—Eta nik buruz belarri jo eragiñik, kaparra sartzen dautzuedala uste ba'dozue, or daukazue gizon bat! or, galde izarlariari? Inguruz inguru daki orrek zoriaren ordu ta toki. Esaiguzu, bada: zer da zeruak iragarri daroaskuna?

JENTEA MAR,MARKA.—Galdu bi dira — Alkar itz-emonda dagoz — Zoroa ta ameslaria — Bakaulkitik ur-ur — Gogora dakargun — Esaera zaarra — Zoroak putz — Jakintsuak mintzo.

IZARLARIA (*izketan, Mefistofele'k putz egiñik*).—Eguzkia bera be urre soilla da, Merkuri mezulariak otseintzen dau diru-ordez; Venus amak lilluraturik zaukiez oso-osorik, gau ta egun kutunki zaitue begiz joten; Illazki aratzak bere kasketaldiak ditu; Marte'k, iñor jadetsi ezik, edonor zemaitzen; eta Jupiter dozu argia emoten danetatik bikaiñena; Saturno aundia da, baiña urria ta txikia gure beg'entzat. Metalki lez ez dau balio aundirik, balioz urri ta pixuz astun. Bai! Baiña eguzkia illargiaz eta zidarra ureaz ezkontzen diranean, orduan dizditsu da mundua; beste guztia errez lortzekoa dogu: jauregiak, baratzak, papartxoak, matrail gorriak; ori guzti ori eskuraten dausku gizaseme jakitunak, gutarik iñok ezin dauana, axe al dau-ta.

KAISER.—Zalantzazko itzak dituzu onek esan eta nik jaso di-

tudanak, eta bear bada orixegaitik ez nabe osoan zuritu.

JENTEA MARMARKA.—Eta guri zer? Trikimaillu utsa — Egute-gikeriak — Kimikeriak — Beti entzuten nago — Eta beti guzur-uts — Egia balitz be — Dana mozolo.

MEFISTOFELE.—Begira, orrelaxe dira; izu-larri ta lastura aundiak eta siñisten ez aurkitze oi ez-lakoetan; bata txotxatua dago urrilloekin, eta bestea txakur baltz bategaz. Eta zelan dabiltzan bata zorrozkerietan eta bestea aztruari deika, eurak be egunen baten azkura antzekoren bat oiñetan somatu edo-ta ibillera seguruz ez ba'dabiltz! Zuok guztiok igarten dozue beti eragille dan izadiaren irakin ezkutua; itzuli-mitzuli dabil bizia lurpeko leza sakonetik urten nairik; olan ba, zeuen soin-ataletan ezin-egonen bat oartzean, alboka egin bage, zutunik egon ezin zarienean, atxur-tu bete-betean, eragin urkuluari zisti-zasta: ortxe daukazue jokoma¹a, ortxe altxorra!

JENTEA mARmARKA.—Beruna dot oiñetan — Dardara besoe-tan — Esku-itoia — Nire erpurua kizkurtzen — Lepazur osoa dot ezereztua — Ezaugarri oneik difioenez, emen gure oinpean altxor aberatsak dagoz.

KAISER.—Lanera, bada! Zuk ez daukazu iges-biderik; ziur-petu eiguzuz bertatik zeure itz utsalak, meatz-toki jori orreik erakutsiaz! Nik neuretik izten dodaz neure ezpata ta zigor-makilla, ta neure errege-eskuekin asi nai dot lan ori, zuk guzurrik ez ba'di-ñozu, ta guzurra ba'diñozu, eurokaz b'alduko zaitut inpernura!

MEFis-roFELE.—Bidea, egia esan, nik neuk idoroko dot iñok erakutsi bear bage; baiña naitaez esan bear dautzuet nainun dagozala altxorak aurkitzaillearen zain. Lorrotzak edegiten dabezan lugiñak laster dau atxurraz urrezko lapikotxa bat; ak ez eutson lurrari gatzerra besterik eskatzen, baiña sor ta lor bere eskuetara yatorkoz itsumustuan urre-zati galantak, oparo. Zenbat ganga eratu bear ditun, zenbat leza edegi, zenbat arrobitan barrendu, lurpeeta-ko eremuetara eldu orduko, altxor-sumo ta zentzunaren jabe danak! Baiña ona, atxulo zar-zabaletan, ondo gordeta, nun ikusten ditun sail egokietan, urrezko ontzi, azpil, erratilluak; baita pitxi gorri edo erubiz jantzitako txolak be, ta eurok erabilli nai izan ezkeru, urrean aurkitzen dau antxiña bateko mama be. Zer egin orduan? Ikasi baten esanera jarri? Aspaldi dala dago usteldurik

pipolaren zura, ta ardaoak zakarra dagi upeletan. Antza danez, onako ardao ederren guna ez da urrez ta arri-pitxiz bakarrik esitzen, baita illuntasunez eta izu-ikaraz be. Jakintsuak begizatzen dau emen atertu barik; argi ikusi nai dau guztia, baiña ori zen tzunik ez eukitea da: illunpeak noski ezkutuen etxe.

KAISeR.—Eureztat guzti ori! Zertarako da illuntasuna? Ezer baliorik daukana, ager bedi argitan. Nok ezagutu al izango barraban bat gau illunean? Itzal-artean, bei guztiak dira baltzak, eta katu guztiak arreak. Ia, atxurtu ta atera lapiko orreik, urrezko diruz ornidutakuok: eragin zeure goldeari, ta eratuz jarri argitan eurak!

MEFISTOFELE.—An atxurra ta orpikoa, ta zerorrek sakondu. Aundi egingo zaitu nekazari-lanak. Urrezko biantxa talde ikusiko dozu lurraren sabeletik urteten. Eta orduan, bildur barik eta arri-men aundiz, zeuk zeure burua ta maitearena edertu al izango dozuz; margo ederdun arri distirantak, Edertasuna ta Aunditasuna bikaintzen.

KAISeR.—Oraintxe berton, goazen lanera! Zenbat luzatuko ete?

IZARLARIA (*beti lez, Mefistofele'k diñotsona, bir-esanaz*).—Lot pizkat zeure gurari biziok! Itxi aurrenik igaroten daukaguzan jai pozkor ñabarrak; ez, ez bedi eten jolasaldia, gureztat. Sar gaitez an lenengo eztitasunean, beekoa goikoaren bitartez merezi izanik. Ona nai dauanak, ona izatetik asi beite; alaitasuna opa dauanak, ibitu bei odola; ardaoa gura dauanak, zapal beiz lenengo maats-morda elduak; eta mirariak ikusi nai dauanak, indar bei bere fedea!

KAISeR.—Ederto!, bedi alda pozik emona! Eta guztiz nabaria izan bedi Auts-eguna. Ori itxaronik, ba, ospa dagigun txirriporro ta zalapart aundiz, alik eta pozkariotsuen, aratuste suarra. (*Turutak joten. Kanpora doaz*).

MEFISTOFELE.—Ergelak ez dabe egundo be ulertzen, onegiña ta poza zelan kateatzen diran alkarrekin; jakitunen arria ba'leukie be, jakitunak uts-egingo leuskio arriari!

ARETO LUZE-ZABALA

Ingurwnari beste gela batzuk. Dana gertu ta edertua, mozorro-iaia ospatzeko.

OTSEGILLEA.-EZ uste izan doixtar mugetan, deabru, zoro ta illen dantza lekuetan zagozenik! Ez, jai alai bat bakarrik dozue zeuen zai. Jaunak, Erroma'ra egindako joan-etorrian, bere onerako ta zuen atsegiñerako nunbait, Alpe garaiak gainditu ditu, ta olan beretzat irabazi erreñu alai bat. Kaiser'ak, berak, oski santuari mun egitean, aginpiderako eskubidea beragandu dau, ta koroï billa joaterakoan, zoro-mantua be ekarri dausku; eta ona guztiok orain bir-sortuak. Edozein nundu-gizonek errez egozten dau bere buru ta belarri gaiñez; eta olakoa zoroekin bardindu oi da,azpitik zur-jakitun izanik bere erara, al dauan lez. Danak dakustaz alkartzen, gero banatzen alda-maldoka, ta ostera be alkartzen nagi samar; abesbatzak abesbatzai itsasten arduraz, eta sartu-urten dabiltz alkarregaz, iñoiz be alkar itxi barik! Barreanean, orain be leen eta beti lez, mundua bere eun milla barregarrikeriz bat bera dozu, zara aundi bat.

BARATZ-ZAIÑAK (*kantari, mandolinez lagunduta*).—

Zuon txaloak geuretzeko
edertu gara gau ontako,
florentziar gazte argiak,
doixtar gomera urreraziak.

Ule kizkur gaiñ daroaguz
zenbait lore eder apaingarri;
zeta ariak, zeta matazak
leku dabe emen zoragarri.

Eta guzti au, gure gardiz,
txit dozue goralpen-zio:
gure lorak, antez dizdizka,
urte guztiz gara jario.

Ortz-kosketan ainbeste margo
ipiñi doguz neurritz neurri;
jorra zeinkiez orritz orri,
ta osoa laket izango.

Pozik gagoz zuok ikusiz,
baratz-zain ta maite-zaletsu;
ertia bait da, emakumeetan,
berezkoa aiña idekotsu.

OTSEGIL LEA.—Erakuts buruan daroiazuezan zarekito joriak,
eta zeuen besapean zulauntzen diran zimera askotakoak. Eta bako-
txak aukera dagiala atsegiñen yakona. Baiña bizkor, gero, orripe ta
zumardietan onezkero baratz bat zabaltzen da-ta. Saltzailleak eta
salgaiak, jentea erakarteko aiña dira.

BARATZ-ZAIÑAK.—Zatoze, erosleok; urrera zaitezte toki atse-
gingarri oneitara! Jakin begi bakotxak itz gatz-ozpindu batez zer
yakon atsegiñen.

IGALIDUN OLLS-ADARRA.—Ez naz lili-baratzaren bekaizti. Urrin
nigandik erre-min oro, nire izakera ez litzake ortara egingo ta.
Ez nabe bear bada baserrietan maiteena, eta baiben seguru lez,
bake-ikur zelai-landetan? Orrez gaiñ, nik gaur ditxarodana biar
bekoki eder bat apaintzera eltzea da.

URREZKO TXAPAR KOROIA.—Keres'en doaiak apain zagiezala,
opa dozuen neurrian! Eta lurreko ondasunetatik guragarriena,
ots, onurakoena, bedi zuon apaindurarik ederrena be!

APETA-KOROIA.—Ona lora politak, zigin (malba) antzekoak:
bedar-petik urteten lez, oin-zamu ikusgarria dagie; ez daukie zer-
ikusirik Izadiak, eta gaur arrakastak sortu oi ditu onakoak.

APETAZKO LORA-TXORTA.—TeofraSto 'k berak ez leuke nire ize-
na esaten jakingo. Eder izango nakiela uste dot, danai ezik be,
batzui beintzat; nekatxetatik batena izan nai neunke, ta txibista
nagiala bere ule-adatsean, edo-ta jar nagiala edergarrizat bere biotz
gaiñean.

KIÑADA.—Zabal bitez gaur-eguneko izkunez eder-apetarik ña-
barrenak, Izadiak ez dakizan gauza arrigarri bakanak. Kimu ber-

deak, urrezko mugitak: kulunka zaitetze zetazko ule-kizkurretan!
Baiña gu...

LARROS A-PINPORTAK.—Gorderik diraugu guk. Zorioneko gu geure ezotasunean aurkitzen gaituna! Udea eltzean, anpatu egin oi da larrosa-pinporta. Beste zein larrosak guri aurrera artu onetan? Landaredi erresuman, zantzu onak eta orren izanak agindu daroe; orobat begituak, biotzak eta zentzunak be,

(*Oslo musker gaiñean eratzzen dabe neskatxak poliki euren saltzekoa*).

LOREZAIÑA (*Kan tuz, arrabitz lagunduta*).—

Ikus lorak panpin zabalik,
zuen buruak xarmant edertzen;
igaliak, naizta linburtu,
txastatuaz gu poz-erazten.

Kerexa, prisko, aran aundi,
mosuak baltz dabez agiri.
Eros, ba! , ao-sapaiz begiak
ez dira berez epaikari.

Zatoze, txasta poz-bitsetan
igali eldu ederrenak!
Larrosatzaz kobla daikegu,
ortzez xea bear sagarrak.

Alkar gaitezan, otoi, gu be
zuon gazte-lora joriaz,
eta zeuon alboan jarri
geure salgai-meta ugariaz.

Ganga musker onen barruan,
oian loretsu ixillean,
pinport, orri, lore, igali,
danetik daukagu batean.

(*Guarra ta tiorhaz lagundutako kantu txandaka osotu onen bitartean, abesbatz edo kor'u biak mordo zutunetan pillotzen dabez euren salgaiak, andik igaroz doazanai edergarritzat eskiñiaz*).

AMA BAT ETA BERE ALABEA

AMA.—Ume, zu argitara etorri ziñanean, txano ederrez apaindu zindudazan. Ain polita ziñan arpegiz eta sotilla oso gorputzez! Ezkongai lez ames zindudazan; bai, gazte aberats bati itz-emon; aren emazte ziñan niretzat.

A! , baiña zenbat urte igaziak diran ezer be barik! Askotariko senargei taldea aldendu zan arin, tximistak egiñean; dantzatzen zenduan onegaz, eta zapaltzen; besteari, ukondoaz, kolpe adeitsuak emon oi zeuntsozan.

Jaialdi askotxo emon doguz, eta dana alperrik: bañtura-joko ta beste antzekoak, ondoren bage geratu dira. Gaur, ene alaba, ez dago zeregiñik zoroakaz; edegi pizkat zeure kota, bateren bati orrela eldu ete al ba'dagiozu.

(Neskatxa talde bat, gazte ta eder, alkartu ta, txortxor, barriketan asten dira. Ondoren, arrantzaleak eta txorizaleak datoz aurrera sare, lika ta beste tramankulu batzukaz, eta neskatx-taldeaz nasantuten dira. Onein eta arein artean joku au eratzten da bertatik: ora ta aska, alkarren atzetik arin dabiltzala, alkarren arteko izketaldi gozoak tarteturik).

EGURGIÑAK (*zakar eta basati aurreraturik*).—Leku guri, leku! Lekua bear dogu! Guk botaten doguz zugatzak, abarrotsez jausten diranak, eta egurra dakargunean, kontuz bat-bateko zartakoakaz. Ots-egin orrelaxe gure onerako, lurraldean ez ba'lego, ba, gu lako trauskillik, jente samurrak ez dakigu, illarraintzeko, zer egin bearko leuken. Jakizue, b3! Zuok o'z-ika az zagoze, guk izerdirik bota ezik.

JOSTARIA (*baldar eta ia gatz-bako*).—Zoro zarie zuok, gilbor ta guzti. Gu zurrak gara, iñoiz ezer ez daroagunak; gure kapa, jake ta mendelak, eroan-ariñak dira. Eta, beti zaldi urdin ta astiarte, oiñetako onakaz, pozik gabiltz erririk erri, azoka ta merkatu-zale; nun ze barri geratzen gara emen, eta an oillar antzeko kukurrukuak egozten; ondoren, bide medar ta jente artetik, aingira iduri, txirristaka laban dagigu andik: dantzari gara ta zoro, danok batera. Naiz zuek goraldu, naiz iraindu, bardin dausku guri.

EDEKANAK (*miin-laban trebeak*).—Zuok, egurgin erneok, eta zuok, euron lengusu, ikatz-erretzailleok, zuok zarie gure gizonak. Agur guztiok, maite-erakutsi guztiok, esaldi ozen eta estaliok,

zelan artzen doguzan, berogarri naiz ozgarri yakuz, Eta zetarako guzti au? Egurrik ez balego, eta ikatz-adarrik, suetea bete ta ixiozteko, zerutik jatxi bearko leuke suak, jausi-ala. Sua txinpart dariola dagonean, errea utultzen eta egosia irakiten! Egiazko ja-leak, zurbizkiak, olan txastatu leike aragi errea, arraiñari usain egin; baita ongillerean maian ots-aundiak atera be.

EDALEA (*konorte barik*).—E_z beist gaur iñok aurka egin! Argi ta garbi, asketzat joten dot neure burua; aize me ozkirria ta kantu alaiak, neuri dagokidaz gaur. Eta olan dedat! Edan, edan! Topa, zuok! Tin! Tin! Began zagozan ori, urrera zaitez! Topa neugaz, ta dana obeto olan.

Nire andratxoak, surnindua, urratu eustan jantzi kikirriki au, ta neu be oillartu nintzakion lez, txorimalo zaarra deitu daust. Edan daidan, ba! Edan, edan! Zuok, mozoluok! Tin! Tin! Topa, zuok, txorimaluok! Edontziak klink egitean, dana doa obeto.

Ez egizue *esan* zerbel nagoanik, ondo bait nago nagon lekuan! Osta taria niganik entzindu ezik, ostatari-andrea entzinduko, edo-ta neskamea bera azkenik. Ni, barriz, beti edaten! Edan, edan! Ona zuok, barriro! Tin! Tin! Topa bata besteari, topa atertu barik! Olan, nik uste, dana doake obeto.

Ez dautso zelan eta non jolasten nazan, jostarazi ezker; itxidazue orain emen etzuten, etzun nazan tokian, zutik ezin naz luzaroago egon eta.

ABESBATZA.—Edan, edan, anai guztiok! Topatze eder bat, tin! , tin! Iraun sendo, bakotxa bere aurki ta jarlekuan! Maipera doanak dana dauko egiña.

(*Otsegilleak era askotabo koplariak iragarten ditu: izadi-koplariak, jauregi-kantariak eta zaldun-abetesleak, samur-bera baizen gartsuak. Ari askotariko leikideen arteko naste-txulumulu aundiagai-batak besteari ez dautso ezer egiñen izten. Euretatik bakarrik nebarmentzen da, itz gitxi batzuk entzun-azorik*).

ISF,KARIA.—Ba-dakizue, olerkariok! , ni zerk poztu-azoko nin-dukun? Esan eta abestu, iñok be entzun naiko ez leukena.

(*Gauaren eta illobien koplariak euren buruak zuritzen dabez, muzin egiñik, eta eder asko agertu yaken sorgin-txori bategaz al-karrizketa oso garrantzitsua daukiela esanik; ain zuzen he, eurak diñoenez, autu orretatik etorri daiteke derkera barri bat. Otsegi-*

lleak naitaez aintzat artu bear ditu aiko-rnaiko orreik, eta bitartean gerkar Mitolojia dakar gogora, gaurko zomorro-garaian aren izaera, zorarmen eta sorgin-lillurak ederki bait datoz).

ESKERRAK

AcLATA.—Guk dakartsagu biziari jasa ta txairotasuna; saia gaitezcan eskerra ta adeia emoten!

EGEmoNE.—Jakizue adeitsu artzen! Eztia da, opa dana jaristea.

EUFROSiNE.—Adeitsu izan bedi, baita, zuen esker-erakutsia be, ta aundia, zeuen bizitz-egun baketsuetan zear!

ERIOAK

ATROPO.—Niri be gaur, gorularietatik zarren oni, dei egin daustie ta ona; oldozkun asko, gogapen asko datorkidaz burura bizitz-ari meea iruten diardudan bitartean. Zinbel ta leunena izan dakizuen, linorik ederenean aukeratu dot; zuentzat berau lakatz-bako, erre ta bardiñena egitea, ortantxe dira orain nire atzamar errimeak aleginduko. Poz-atsegin eta dantza artean zer zarien aaztu-zori iñoiz aurkitu ba'zadize, gogora egizue ari onen muga; zuur ibili! Eten leiteke.

KLOTO.—Jakizue: azken egun oneitan, neuri emon daustiez artaziak, gure lagun zarrak egindakotik gitxi geratzen da-ta. Irun luze ta alperrekoak osotzen zituan, gero argitara ta aizetara aterarik, orrela irabazi galanten itxaropena leza-barrenerantz narras eroanaz. Neu be, orraitino, amaika bider atzipera etorri oi nintzan gazte-jokoari buruz; eta gaur, neure su-lera ezi ta emetzearren, artazia sartu dot bere zisku-zorroan, Eta orain pozik nago lotua, adeitsu begituz toki oni; zuok, barriz, ordu askatuotan gero ta gogorrago zabilte barbulleni ta ordikerietan!

LATXE si.—Niri, errazoidun bakarra nazalako, egokitasunaren zuzendaritza emon yat; eta nire ardatza, beti lancan dagoala be, oza iñoiz be gainzkatu. Ariak datoz, ariak doaz, ta neuk adierazten dausot bakotxari bidea; ez dausot okertzen iñori izten: ar-

datz-oboaren biran jiratu bear! Lipar batez ardura au bazter itxi ba'nengi, munduaz kezkatuko nintzateke; orduak aurrera doaz, urteak be txirristaka, ta euleak matazak artzen ditu.

OTSEGILLEA.—Orain datozean ez zeunkiez ezagutuko, idazki zaarretan askozaz ikasiagoak ba'zintzaze be; gaitz aundia egin eben arren, ikustean, ondo etorriak esango dautsezue.

Asarreak diranik iñok ez dau siñistuko, ain lerden, ain ondo eratu, maitekor, urteetan gazte ikusirik; baiña sar eurakin ar-emonean, eta laster ikusiko dozue uso oneik zelan, suge antzera, alkarri oratzen dautsoen.

Egia esan, ixillak dira eurak; baiña gaur-egun, zoro bakotxa bere gabeziarrotu oi da-ta, eurak be, ain zuzen, ez dabe aingerruen antzeko aintzarik nai, uri ta baserrietako izurrite lez nainun aurkezturik.

ASARREAK

ALEKTO.—Zetarako guzti ori? Zuok be, ba, gure zainpean jarriko zarie, gu bai *gara* lirain, gazte ta katutxoak iduri txeragille; zuon artean iñok maitetxoren bat baldin ba'dauka, guk belarrian atz-egingo dautsagu luzaro, atsegin yakonak oni ta ari kiñuak egiten dautsozala, buru-ariña, konkorduna, errena dala, ta bere senargaia baldin ba'da, ez dauala ezer balio, ta olakoak begiz-begi esaten ausartu arte. Baita ba-dakigu emaztegaiari kezka sartzen be: maite dauanak, esango dautsagu, ez daroazala aste gitxi beragaitik txarto esaten! Naiz-ta gero bakezkoak egin bien artean, beti geratzen da zerbait.

MEGARA.—GUZti ori, alan be, jokua baiño ezta! Alkar artu ta ezkondu daitezala biak, neure gaiñ ondorengoa; ba-dakit nundik eldu, edozeiñi be jausi-eragiñik, zorientasunik beteena be, naikeri utsez, suster barik, garratz biurtuaz. Aldakor da gizona, aldakor dira orduak. Iñok be ez guraria beso artean estutzen, beste naikun biziago baten atzetik zoro lez ibilli barik, eta onek beretik daukan baiño zorion aundiagora bultz-eragingo dautsa; iges dagi eguzkitik, eta izotza berotu nai. Ba-dakit nik zelan jokatu bear dan guztiokaz, eta Asmodi, zintzoa, daroat esames gaiztoak gertu-gertuan ereiteko: biñaka suntsi oi dot orrela giza-erraza.

TISIPONE.—Mingain txarretara jo barik, pozoia ta sastakaia ditut nik izkillu eder azpi-suge ta saltzaillearentzat. Maita egizu kidekoa, ta leenago edo geroago, etsipena egingo da zure jaun ta jabe. Begi itxi-edegi bateko eztiak, beazun eta lerdamin biurtu bearra dau! Emen ez dago azokarik, emen ez dago eztabaidarik: egin dan lez ordaindu bear. Ez kanta parka-eskerik! Arkaitzai ots dagitset neure auzia, ta oiartzunak erantzun: Ordaiña! Alda-tzen dana, ezin da bizi.

OTSEGILLEA.—Gogoko bekizue, alde batera baztertzea, orain urbilduz datorrena ez bait da zuendarra. Ikus zelan datorren mendi bat, inguruak oial mee ñabarrez puzmin dingilizka, burua agin luze, suge-mutur ta misterioz betearekin; ezkutu onen giltza emongo dautzuet. Bere lepo-gaiñean jarrita emakume eder lirain bat daroa, makil txiki mee bategaz guztiz artez zuzentzen dauana. Beste emakume bat dago, dizditsu ta guren, itsutzen dauan argi-islaz koroiaturik. Aren alboetan doaz beste emakume bi; bata urduri doa, bestea pozik; bata naikunde ta usiz betea doa, bestea aske oartzen. Iragar bei bakotxak nor dan!

BILDURRA.—Tortxo keetsuak, lanparargi ta zuziak, dana dago zalantzan jai naasi onetan; eta ainbat irudi iruzurtiren erdian, kateak ni lotzen, ai! , estu be estu. Ken ortik zuok, barrelari barre-garriok! Zuen parista ta kiñuak susmoa nigan sortzen; gaur gabea, neure aurkako guztiak nabe estuaziko. Ona! , adiskide bat etsai egin yat, baiña ba-dazaut orren mozorroa! Beste orrek il egin nai izan ninduan; eta orain, agiriko, iges dagi nigandik. A! , ni bai pozik joango nintzakela edoze'n lekutara, munduan zear! An beean alan be, zemaika daukat ezereza, ta dilindan nago illunpe ta bildurraren artean.

ITXAROA.—Agur zuok, ene aizta kutunok! Ona atzo ta gaur mozorro artean pozik igarota; nik ba-dakit, alan be, ziur jakin be, biar zarien lez agertuko zariela. Eta argi-zuzien dizdizak arri-garri ez yakuzanean, egun argitara urtenik, eta geure naia egiñik naiz bakarrik, naiz lagunduta, larre-zelai bikaiñak zear ibilliko gara jarei ta pozik; ondo yatorkunez, opor dagigu edo-ta lanari ekin, ezeren ardura barik; ez yaku ezer paltako, zernai izango dogu. Nun-naiko arrotzak, ondo etorriak; sar gaitezan barrura uste onez: ziur asko, oberena aurkituko dogu nun-edo-nun.

ZUURTAUNA.—Gizasemearen etsairik aundienetariko bi, bildurra ta itxaroa, katez loturik eta gizataldetik baztertuta daukadaz; egin leku! , salbatuak zagoze-ta. Ikus zelan zuzentzen dodan tantaitzar bizia, ondo zanpatua; iguin ta narda barik doa, tapa-tapa, bidezidor zut-trokatsuetan zear. Baiña an goian, tontorrean, jainkosa dago, ego zabal arinduna, gertu beti edozein lekutara garaille eroateko; dizdiz ta aintzazko argi-lañoika baten batua doa, luze ta zabal oro dirdaituz, Garaitza deritxo, ekintza guztiaren jainkosa.

Zon.o-TERSÍTE.--U! U! Bai, tertzioz, bear orduan nator; neuk iraindu ta ondatuko zaituet danok! Baiña nik jomuga lez aukeratu dodana goian datza, Garaitza andrea. Bere ego zuri biakaz arranoa emon nai dau, ta, nun-nai bere egoak abendu, dana berea dauala, uste dau, erriak eta eskualdeak; niri, barriz, aintza billa dabillen oro iguingarri yat. Bee egon bear *dauana* goi ikustea, ta goi egon bear leukena bee; lerro zuzena makur eta makurra zuzen ikustea, or zer atsegin yatan, eta lur osoarentzat nai neukean.

OTSEGILLEA.—Ar egik, ba, zital orrek, neure aginte-makillaren zartako gurena! Makur adi ta iraul samiñezko soin-dardaraz! Ikus zein b'zkor kukultzen dan keto bikotxa oretza zikiñean! O, miragarri! Orea aunditu ta lertzen dan arrautza biurtzen da, bikoitz biri bide egiteko: larrangilla ta gau-txori. A, autsean narra asi da; beste au, gaua baizen baltz, sapairantza jasoten da, egazean. Kanpoan, barriz, Wak alkartzen; nik ez neunke euron artean irugarrena egin nai.

MARmARRAK.—Kontuz!, an beean dantzea asi da-ta. Nik naiago neunke urriñago ba' nengo! Oartzen, zelan inguratzen gaitun oraintxe be iretxoen endak? Neure uleak ikutzen dago jadanik; neure oiñetatik igaro da, ondo-ondotik, Guretatik iñor ez dago zaurituta, baiña guztiok gagoz izuak jota! Josteta da, piztiak ori nai izan dabe.

OTsEGILLEA.—Maskara-jaietan otsegille ardurea emon izan yatanetik, atena zaindari zeatz eta zintzo, zuontzat kaltegarri izan daiteken ezertxok be zuon olgetak kezkarazi ez dagizan emen; ni ez naz iñoren aurrean makurtzen, ez amore emoten, baiña bildur naiatzue leiocatik edo egurats-ezpirituak ez etc yakuzan sartuko; ez bait dakit ba zuok zelan gorde sorginkeri ta xora-lilluren aurka. Ketoak bildurtzen ba'zaitue, begira an beean talde aundia asa-

rre-sutan. Pozik azalduko neuskizuez itxura orrein izena ta izake-
ra, neure egitekoari dagokionez; baiña ez dot iñoiz be adierazten
jakingo berez adigarri ez dana. Zatoze, ba, danok ni laguntzera!
Ba-dakusue ori, jente artean zear txirrist dagian ori? Ez dozue
ikusten nainundik bIde-dagian lau zaldik daroan burdi pertxenta?
Ez dau, alan be, jenterik zapaltzen; ezta nik dakustanez iñortxo
be beragandik bazterten. Urrintzerakoan, margo guztietariko txin-
partak barraitzen ditu; millaka izar galduta geratzen dira, an ta
emen dardarti, sorgin-kruselua iduri. Eta, urreratzean, ekaitz-orro
antzeko murrua dagi. Lekua, otoi! Guztiz nau latz-ikarutzen!

UMEA (*burdia zuzentzen*).—*Geli*, zaldiok! Toles zeuon egoak;
egin, oi lez, galgak esana; ezi urratsa nik eztitzean, eta ibil txi-
mista lez nik bizkortzean. Omendu daiguzan toki oneik. Begira
zelan ugaritzen dan gure biran ikus-min diranen kopurua, zerren-
da estuetan ain zuzen. Arin be arin, otsegille! Ostendu baiño
leen, esaizu, azaldu gure izena, Alegiak gara-ta. Zuk, bear bada,
ondo ezagutzen gaituzu.

OTSEGILLEA.—Eziña litzakit izendatzea; baiña margoztuko
zindukedaz.

UME-ZUZENTZAIL LEA.—Saia zaitez.

OTSEGILLEA.—Aurto bear dot: aurrena, gazte ta eder zara.
Adin-erdiko mutilla; andrazkoak, alan be, gurago dabez giza-
seme adiñekoak, egiñak. Galai bat dirudizu eltzeke, baiña etxe-
endako lilluratzaillea.

UME-ZUZENTZAILLEA.—Ondago! jarrai; adieraz itz alai-
ren ezkutua!

OTSEGILLEA.—Zure begien dizdiz baltza, zure ulediaren gaba,
zerrenda (zinta) dirdaitsuz oso lerdetik! Eta sorbaldatik oiñeta-
raiño estaltzen zaituan mantu gorri zirzartek, girgilleriz josi ta
apainduaz, ia-ia neskato zarealakoan legokez! Nik uste dot, ba,
zu ba-zareala nor neskatilla guztien irabazteko be. Eskola onean
azia zaitugu.

UME-ZUZENTZAILLEA.—Eta beste au, gurentasunaren iduria
lez, burdi-aurkian jarrita, emen dirdir dagian au?

OTSEGILLEA.—Errege bat dirudi, aberats eta jaikia. Zorion-
tsu aren uste onez jabetu dana! Zer geiago naiko leuke? Aren

begitua hear-izanaren aurretik doa ta arengan emotearen
poza zabalagoa dozu, eukitea ta onek dakarren atsegiña baiño.

UME-ZUZENTZAILLEA.—EZ don] or gelditu bear; bear-bearrez-
ko dozu guzti ori zeatz emotea.

OTsEGILLEA.—Duintasuna ezin daikegu adierazo; baiña be-
tarte gordin bat, illargi betea baizen biribilla, buru-zapitean ede-
giten diran matrail loratu batzuk, eta jantzi baten tolosturen txai-
rotasuna, adierazgarri dita. Eta, zer esan aren ibilkera lerdenez?
Errege lez agertzen yat aurrean.

UME-ZUZENTZA ILLEA.—PIUtO da, aberastasunaren jainkoa; be-
re joritasun betean dator, Kaiser gurenak bizi-bizi opa dauana.

OTsEGILLEA.—Zuk be orain, esaiguzu nor zarean, zelakoa ta
noizkoa!

UmE-o-rsEGILLEn.---Ugaritasuna nozue ni. Olertia naz ni; ko-
planí naz, bere ona nainun ereiñaz ondatzen dana. Baiña orobat
guztiz abcratsa naz, eta Pluto'kin neure burua bat egiteko lain.
Aren dantza ta jaiak, gaiñera, neuk bizi-azo ta gozatzen ditut; fal-
ta yakona, axe eskuratzen dautsot.

OTsEGILLEA.—Ikusten dodanez, eder yatzu andikería; baiña
erakus eiguzu zeure jakituri pizkat!

UME-zUZENTz.AILLEA.—Begira: eskuko atzamarrakaz kirrizka
egiñaz soilsoilki, dana da argia ta clirdira burdiaren ingurumari.
Or dator gota arri-pitxizko idun-estun bat. (*Bere atzamarrakaz
ots-egiñike*). Zeuentzat dira urrezko krisketak, belarritakoak, sama-
estunak; zuentzat baita orraziak eta orban bako koroiak, eta eres-
tunetan ginkaturiko arri pitxiak. Orrez gaiñ, sugar ariñak bein-
tzat egotziko dautzuedaz, su-artzeko mugona besterik billatzen ez
dabenak.

OTsEGILLEA.—Jente-talcleak bai, urreratuz, oratu edozeri!
Emoilleak zakar erasoia dirudi. Amesetan lez datoz bitxi ta zidar-
lanak, eta bakotzak zerbait artu nai. Baiña bat-bateko jazokuneak
arritzen zerbaiten jabe egiten cliranak, laster dakuse zerbait
orrek iges egin dautsela eskuetatik. Ona, samako pitxiduna zati-
zati egiten irazeko eukilearen eskuetan, eta gaixoa, aren orde-
z, esku-bete kakarraloz aurkitzen; eta beragandik astindu-ala, bere
buru-inguruan jarten yakoz burrundaka. Beste batzuk, ondasun aun-
dien jabe egin zirala uste ebenak, mitxeleta utsalak baiño ez dabez

esku artean atxilotu. A! , birigarro! Asko eskiñi, ta semillurra besterik ez emoten!

UME-zUZENTZAILLEA.—Jakingo dozu zuk maskarak iragarten, baiña sorkarien barrena aztertzea, ez da jauregi otsegille baten zeregiña. Ortarako buru-argidungoak bear dira. Azi-orrazi ta eztabaidarik ez dot gura, orraitino, eta zeuri, jauna, zuzenduak dira nire itzak eta itaunak. (*Pluto'gana itzuliz, oni diñotsa*): Neure pentzura ez zenduan itxi, bear bada, lau zaldi suar oneik zuzentzea? Ez dozuz bideratu beti be adur onez, zeure naiak esana egiñik? Ez ete nago beti zeuk diñostazun lekuan? Ez ete dot jakin, ego bizkor oneikaz, zuretzat garai-abarrak irabazten? Eta zugaitik egiñiko gudu-eraso guztietan, ez ete nintzan beti garaille lotu? Ez ete zituen apika nire gogoak eta eskuak eio, zure bekokia ederzen daben erreñotz-abarrok?

PLUTO.—Ni orren lekukotzat nai ba'nozu, orrela dagit. Zu zara nire gogoaren gogo, eta beti dagizu neure naiaren arauera; nerau baiño be aberatsagoa zara, eta zure zerbitzuak omentzeko, adar orlegi au neure koroï guztiak baiño ederragotzat daukat. Ementxe, lagun-talde aurrean, aldarrikatzen dot, biotz-biotzez: ene aur maite-maitea, pozik nago zurekin.

UME-zUZENTZAILLEA (*lagun-taldeari*).---*Begira*, zelan ixuri do-dazan biran neure eskuko bezuza ta doerik aberatsenak. Emen ta an, buru gaiñetan dakust neuk sustatu neban sugar ariña. Buru batetik bestera jauzi dagi, onengandik igesi ta arengan geratzen dala; ozt-oztan dau aldi pizkat bere iraizeko islari dizdiz eragiteko; baiña orreitako buru askotan, eta nik uste baiño askoz lenago, itzaltzen da sugarra, trixteki akitua.

ANDRAK MARMARKA.—Ziur dakigu, bai, or burdi gaiñean da-goan ori, itz-ontzi bat dana. Zanpantzar (Hanswurts) gordeten da orren ostean, iñoiz ikusi ez genduan lez, goseak eta egarriak igar-tuta; zaztatu arren, somatzen ez.

IGARRA.—Utikan, barritsu aldra ori! Ba-dakit, orreintzat ni beti naz «eskubiderik bako». Emakumea sukaldeaz arduratzen danean, Zikoitza deriste; etxea ondo doianekoa da, asko sartu ta ia ezer be urteten ez danekoa. Neuk zaintzen dodaz kutxak eta arasak eta txopak; ori bear bada griña da. Baiña azken urte oneitan emakumea ekonomiz aztu zanean, eta, ordaintzaille txarrak lez,

eskutuak baiño gurari geiago izan ebanean, gizonak sufridu baiño ez eban egin, Nainora begiratu, zorrak eukazan bakar-bakarrik; gizonak irabazi ta irabazi ta emazteak irazi ta irazi bere gorputzaz eta maitaleaz; onek, bada, obeto jan eta edaten eban bere limurtzaillean aldreagaz. Ordutik gçitu zan nire urre-griña, ta orain giza-Zikoitza naz!

EMAKUMEA (*bakarrean*).—Ezkuta bedi erensugea erensugeagaz. Dana dala, ori ez da azalkeria ta guzurra baiño. Gizonak kiñatu ta ziri-eraztcn dator, lenik bera bagarik be naiko gogaitgarri ez ba litzazan!

EMAKUMEA (*taidean*).—Galtzuzkoa da gizon ori! Matraillako bat arpegian! Bidezko cte yako txoriburu orri gu orrela zemaitzca? Barrca jalgi-azten daukue bere ziñu ta imintzioak, Erensu-geak zur ta kartoizkoak dira bakar-bakarrik. Gogor, beraz, azurutS orri jazar kaltetan!

OTSEGILLEA---EZ asalda, arren; bego bakea! Baiña alperrik nire laguntza, ikus zelan mamuak, asarre bizitan, zabalazten dabezan euren ego bikotxak, utsunea beterik. Erensugeak, amorratuta, curen ezkatatz inguraturiko zintzurak dardarazten dabez, suturrustak erbesaka; igesi doa jentea izu-lauorian, tokia utsik geratuaz. (*Plato burditik jasten da*). Aurrera doa: orrek bai errege-jasa! Igargarri bat, eta erensuge guztiak dantzan dagie; bcin-goan erasten dabç burditik urrez betetako kutxatilla, ta zekenak or dauko bere oiñetan. Arrigarríro egiña izan da guztia.

PLUTO (*ume-zuzentzailleari*).—*Jarein* zara zama astunetik; orain, kontuz zeure jira-lerroaz! Naspillak eta baraillak erasotzen gaitue, eta sunbil zakarrak. Zoaz, zu garbia zara-ta, garbitasun aratza ikuskatu daikezun lekura; zeuri dagokizun tokira; zeure buruari siñistu daikeozun lekura; ara, bai, azkenik, Ederra ta Ona bizi diran tokira, ots bakartadera, Zoaz ta eraiki egizu zeure mundua.

UME-zUZENTzAILLEA.—Oncl zure bidali duintzat daukat neure burua, onela zeure senide urrekoentzat autortzen naz. Oparotasuna dago zu bizi zarean lekuan; eta ni nagoan tokian be altxorrik aberatsenak ugari aurkitzen dira, ta nai dabe orreitan erdikide izan. Gizona sarri ezbaian ibilli oi da bizitza ganorabako onetan; baiña azkenez zeugana edo neugana joten. Zutarrak, egia

esateko, egon daitekez alper-zuri; nire oiñatzetatik dabiltzanak beti daukie zeregiñen bat. Ez dagit ezer ixil-mxilka; ats artzen dot, eta salatzen, Agux, ba! Nire atsegiña eder dozun ezkeru, nire izena aopeka esatea naiko dozu, ni bertatik zeure ondoan euki nagizun. (*Ba-doa, etorri zan lez*).

PLUTO.—Ordua da ogasunen lokarriak etetako. Ona zelan zabaltzen diran zerrailuak otsegillearen zardaiz ikutuaz bakarrik. Ikus, borontzezko kutxatilletan, ara ta ona dabillen urrezko odola; lenengo, koroién, kateén eta erestunen aundi-maundikeria. Irakin dirakin oreak duna iruntsi nai dauala dirudi, urtuz doan bitartean.

JENTE AI-UIKA.—A! , begira, zelako aurketa zoragarria! Ertzetaraiño beterik dago kutxatilla; urrezko ontziak urtzen, eta diruloturak iraultzen, eta dukatak jauzi nunnaitik. Biotza dot pilpilka, ta or dakustaz zelaian aize-biurtzen nire gurari guztiak! A! , ar daigun beingo baten eskintzen yakunetik. Beera makurtu ta aberatsak gara! Bizkor, tximista antzean, geuretu daigun kutxa

OTSEGILLEA.—Zer da au, zoroak? Zer gura dozue? Mozorro-jai bat baiño ez da! Zer besterik euki daikegu gaur gabean? Baiña, uste dozue urrea ta balioak emongo dautzuezala? Ipingaiakaz naiko izan bearko dozue joku onetan. Ergelak! Zer dala-ta opa dozue txantxa bat egi biurtu, egi garratz, eta zetako nai zeunkie egi ori? Bete-beteán zoaze begitasun utsaren atzetik. Pluto mozo-rotu, maskara-aintzinlari; bota eidazu emendik jentetza guzti au!

PLUTO.—Arrigarri izan yat zure zotza; emoidazu apur bate-rako! Lenengo sugar urtuan bustiko dot berau bizkorki. Orain, maskarok, urrin emendik! Begira, dirdirak, karraskak, iñarren zartadetan! Zotza, onezkeru, sua bera da. Ondora doakena, kiskalia izango da erruki bage. Kontuz, ba, neure ingurua egiten noa-ta!

OIUAK ETA NASTEA.—Ai, ai! , geure aurka dator! **Emon** igesari, emon al dauanak! — Atzera, atzera, talde-buru ori! — Txingar-jario daukat arpegia! — Suzko zotzak ikutu nau! — Galduak gara osotoro! — Atzera, atzera, maskara-sailla! — Atzera, atzera, jentetza zoro! — O! , egoak ba'neukaz, egaz egiteko!

PLUTO.—Ingurua aunditu egin da, iñor erre barik, uste doda-

nez. Atzera dagi lagun-taldeak, izu-ikaraz. Orain, erabidearen ezau-
garri lez, inguru edo obo ezin-ikusi bat lerrokatuko dot.

OTsEGILLEA.—Lan eder-ederra burutu Zure aalmen zo-
rrotza bai dala eskergarri!

PLUTO.—Oraindik ez gara azkenera eldu, adiskide ospetsu.
Eroapenari oratu bear, Istillu ta zatraparra zemaika dabil oindi-
ñokarren.

ZEKENKERTA.—Ona zelan ikusi daikegun inguru au atsegiñez,
begiratzea naiz irain-egitea danean, bada, andrazkoak jarten dira
beti aurrenengo. Ni neu ez nago oraindik oso lizundua. Emaku-
me eder bat, beti da eder; eta gaur eurak ikustea errez yatan ez-
kero, poz au artzera egingo dot biotz oso-osoz, Baiña jentez kuin-
kuin dagoan toki baten itz guztiak entzun oi ez diran lez, zurta-
sunez, eta uste dot arrakastaz, argi ta garbi kiñuketaz neure barrua
adierazten; eta eskua, oiña ta ziñuak naiko ez ba'ditut, beste oke-
rri batzutara joko dot, egi-egiaz. Buztin ezea ba litzan baliatuko
naz urreaz, edozein gauzataratu oi dan metala dozu-ta.

OrsEGILLEA.—Zer diño astotzar iger orrek? Baiña goseak ilda-
ko olako bat arrotu ete daiteke buru argitsu agerturik? Urrea ore
biurtzen da, ta barriri bigun bere eskuetan. Zelan oratzen ete dau?
Zelan dau biribiltzen! Alan be, beti dauka itxura zakarra. Begira,
orain emakumeengana biurtzen da, baiña oneik garrazika artzen,
iges egin nai dabe, nazka-ziñuka. Txarto artu dabe barre-eragillea,
egiazki. Bildur erea galtzeraiño joko ez ete dauan; ori jazoko ba'
litz, ni ez nintzateke geldirik egongo. Ekarstazu neure azti-zotza,
jaurti dagidan.

PLUTO.—Ez dot uste guk susmo doguna egingo dauanik. Laga
eidazu bere zoro-jaia zuzentzen, eta ez da tokirik geratuko aten
zirto ta barregarrikerientzat. Altsu da legea, baiña altsuago bearra.

ZARATA TA KANTV.—Mendi-gaiñak eta oian-sakonak artuz doa
basa-taldea, Jarki-gaitz doa aurrera; bere jainko Pan-i jai egiten.
Ba-dakie eurak iñok ez dakiana, ta obo utsera dira amiltzen.

PLUTO.—Ezagutzen zaituet zuok eta zuen jainko Pan; gorputz
naasi indartsua osotu dozue! Nik ba-dakit munduan iñok ez dakia-
na, ta, beraz, zabalduko dautzuet, pozarren, obo estu Adur zo-
ritsuak lagun bekizue! Gauza arrigarri ta bakanak jazo daitekez,

baiña iñok be ez daki zer ikusten dauan, aurretiaz ez bait yaken ezertxo be esan.

BASA-KANTUA.—Erri zamatua, txilista pillo! Or datoz, trauskil eta mando, zapart aundika ta abiada beroan: or datoz sendo ta kementsu.

BASAJAUNAK.—Ona emen gu, basajaunok, lizun-dantzariok, aritezko koroia uledi kirimilduetan, ule-gaiñ agertzen dan belarri mee zorrotz bat, sudur motz leuna, betarte luzanga; guzti onek ez ditu andrak urretik be kezkarazten. Basajaunak zangoa luza eskero, ederrenak be ez daki dantza-bira bat ukatzen.

GIZAKERRA.—Gizakerrak besteen atzetik jauzi dagi, aker-oiña ta berna trebe dan Gizakerra; soin atal mee ta kiriotsuak bear ditu naitaez. Poz-artzen dau, gaiñetako basauntzak lez, ezker-eskuma begiraturz tai bage; eta olan, askatasun-aizez bizkortua, euren eritxiz, guztiaren jaun eta jabe diranen lepotik; bera da, garbi ta ezeren kezka barik, jaun eta jabe, gaiñetan mundu osoa berarena da-ta.

EPOTxAK.—Or dator baita, draka-draka txikian, Epotx-taldea, biñaka ibiltea eder dabena. Euren soiñeko zorrotzetan dardar dagie danak, eta baxotxa dator, kruselu txikiakaz, bere jomugaz jabetu nairik, ar diztikorrezko txiñurri pilloa bai litzan; alde batetik bestera zearka zirkin dagie, atertut barik.

Ondasunen adiskide miñak gara, aizpikor ebaketari lez eza-gutzen gaitue alde guztietan, eta mendi-tontor garaiak erasoten doguz bertako meatz-zan ugarien aberastasuna aterarik. Metalak metatzen doguz, nun-nai «ondo etorrika» artu garoez, eta gizonak gurekiko adiskidetasuna billatzen. Orain argitan urrea egiten dogu, urrea lapurrentzat eta estalgileentzat, erailtzak aundikiro asmatu oi dabezan gizon arroa, orregaitik, aiztuta itxi barik. Legeai menegitea gogoan ez daukanak, enparauak be ez ditu aintzat artzen, ezertan. Baiña guri ez dauku orrek kezkarik ekarten. Geuk lez, egonarrria izan bear dozue.

ERRALDOIAK.—Ona gizaseme basatien izena; Harz mendian ondo ezagunak dira. Alkartuak doaz, mordo neurtu-eziñetan, eta billotsik, euren antxiñako indar guztiaz. Izai enbor bat daroe eskuman, gorputz-biran gerriko zakarra ta, berna inguruan, ostoa ta

abarrezko mantarrak. Aita Santua bera ez dagoan lez jantziz orniduta doaz, gaiñera.

MAITAGARRIAK TALDEAN (*Pan jainkoaren inguruan agertzen dira*).—Bera be ba-dator! Mundu guztia dago itxuratuta Pan gurenagan. Ingura egizue, zuok, maitagarrienok, eta dantzatu bere bitan dantzarik jaikienak; naiz-ta, bada, men-zuur ta ona orobat izan, triska-pozaldia be atsegin yako. Eten barik dirau itxarrik zeru-gangapean; erreka-toak lillura daroe euren marmar ta gurgur gozoakaz, eta aize-ariñak kulunkatzen dabe abaro eztian; eta, eguerdirantza, nekatuta agertzen danean, ostoak ez dau geiago dardararik egiten adarrean, landara bizien usain gantzudunak bete oi dau egurats íxilla, ta orduantxe geratzen da maitagarria bere dantza-trisketan, loak artua aurkitu dan lekuan. Baiña itzetik ortzera trumoiaren eztanda naiz itxasoaren orroe antzeko ots-zaratak durundu egitean, zain egoan gudaroztea bertatik sakabanatzen da, ta gizurenak berak dardar dagi arramatzaeren erdian. Ornen, bada, omena zor yakonari! Gora gu ona ekarten gaituna!

EPOTXEN AUTAKETA (*Pan)ainkoari*).—*On* gurena, zerro bikaiña da aizpikor zanetan, eta orren misteri eskututsua ez da agertzen zotz igarlearen azti-indarrera ezik.

Guk, orixegaitik, arpe illunetan jasoten dogu geure lurpeko egoitza, ta zuk, o Pan jainko! , eguzki argi garbitan jarri oi dozuz esku-zabalez altxorrak.

Aurkitu-barri dogu; geugandik ur-ur, iturri bikain-bikaiña, agiri danez lan aundiz irabazi bear dana, indar barik eskintzen dauskuna.

Erabagi au geure egitea zeuri dagokizuna da; ar egizu, o jaina! , iturri ori zeure babespean. Altxor ori, zure eskuetan, munduaren atal egingo da.

Pum) (*otsegiteari*).—*Jakin* da'gun aunditasunez geure buruaren jabe izaten, eta laga dagiogun eratuz doanari gertatzen. Ez euzun iñoiz utsik egin adoreak. Susmotan sartu nazanez, zerbait izugarria jazoko da laster; izugarria, bai, munduak eta gerokoak siñistu ezingo daben aiñakoa. Idatz egizu, ba, zeatz-zeatz zeure oaridatzian.

OTSEGILLEA (*Pluto'k eskuan daukan zotza arturik*).—Epotxak suzko iturrira daroe ezti-ezti Pan jainkoa. Azpi-zakonetatik jalgi-

ten da au urduri ta geldigaitz, durrunda dagi gero mendiarte ta arruetan, eta itzalpe biurtzen da zntzur edatua; aren irakiña, bar-bulla ta ke-jarioan agertzen. Pozkarioz ikuskatzen dau Pan jainkoak, dakusan arrigarria goretsiaz. Arri-pitxizko apar zuria emarazten da nun-naitik. Zelan uste ona izan olako izakietan? Jainkoa makur-makur egiten da ikusteko, ta barrura doa aren bizarra. Nor izango ete okozpe soildun ori? Bere eskuak estaltzen dau gure begietatik. Ezbearra yatorku gaiñ: suak artu dautso bizarra, emendik buru-gaiñera ta paparrera igarorik; eta lengo poza, lamin biur-tu yaku. Sugarrak itzaltzera doaz guztiak bizkor, baiña zenbat eta geiago irunsi bear leukezan uretan busti ta ezotu, sugarra bi-ziago egiten eta zabalazten. Kokomarroen talde osoa kiñuka ta garrasika dago, su goseberak inguratua. Baiña, zer dantzut? Zer izpar dabil belarriz belarri ta aoz ao? Gau deitoragarri, ezbear aundiak bai zuk ekarriak! Biar, iñok ez ebalá entzun nai izan, alderrikatuko da; baiña nik andik eta emendik, oiuka dantzut, Kaiser'a dala o_ñaze orreik jasaten dauzana. Oi, ezpei egia izan! Kaiser'a beretarrakaz erre! Madarikatuak erretxiñezko zuzi ar-tera eroan ebenak, eta ona, guztion ondamendirako, zarata-otsari indar emotera etorri ziranak. O gaztedi, gaztedi! Ez dozula iñoiz jakin bear zeure poz-alaitasunari galga jarten! O aunditasun, aunditan! Ez dozula iñoiz jakin bear errazoia ta agintza zeure egiteetan alkar erakarri ta irabazten!

Basarte osoa garretan dago, zorrotz garaitzen dabe dana, ta laster doaz sapaian erlatz eta ozkadurak miazkatzen; era bateko sueteak zirt-zart dagi, zemaika. Sakail ta triskatzaren neurria be-tea da onezkero, eta ez da errez iñor salbatuko dan ala ez, esatea. Gau bateko auts-meta azpian biar ikusiko da erregeren bikaintasun joria datzala.

PLUTO.—Izurik asko! Oraindik lagun egin gengikeo. Erakus emen zeure indarra, sorgin-zotz: zeure zartako bat, eta dardara bedi azpian lurra, latz-ikara aunditan. Eta zu, egurats-lau muga-bage, bete zaitez lurrun epelez. Iraul ortik zear, laiñoak; kulunka zaitez meta zaratatsu orren gaiñean, eta zoaz. Txirrist-egin zuok be, odei txikerrok: txistu egin, aunditu ta puzgetu zaiteze. Saia zaiteze guztiok sugarrak itzaltzeko; ekaitz biurto egizuez zeuen ezotasun baketzaillez! Ezpirituak gu suntsitu nairik dabilzanean, azti-jokora jo bear da.

JOLAS-BARATZA

Goiz eguzkitsua,

(*Kaiser eta bere jauregikoak, Faust, Ale/ésto/ele, arazeria bari-rik lantzita, orduko egunetan /z. Biak belauniko).*

FAUST.—Parkatzen daukuzu, jauna, aratuste-sutzarra?

KAISER (*kiFlu batez jagiteko esanaz*).—Olako jokuak ez eus-tien egundo be txutxu eragin. Unetxo baten uste neban inguru baten erdian aurkitzen nintzala, ta Pluto bera nintzala. Leza bat zan a ikatz eta illunpez egiña, gar-suak ixiotua oso-osorik. Millaka ta millaka jagiten ziran oneik nainundik, goi-goian zeru-koroa egiteraiño eldurik; sapai-ganga ikusgarria eratzen eben olantxe, beti zutik eta jausi-agiñik beti. Zutoi ixiotuen zurrunbilo artetik zer ikusi neban zelan igitzen zan urruti errien erreskada luzea; azkenez obo edatuan murgildu ziran, beti egin oi dauen lez, olaxe ni omendurik. Bertan ezagutu nitun neure jauregiko bat eta bi baiño geiago; Ur-andren errege nintzala, nik uste.

MEFISTOFELE.—Eta zara, jauna, sorkari guztiak ezagutzen da-be-ta zure aunditasun gurena. Aurrean makur-azo yatzun su-garra, erakutsi dozunez, eta ziur lllago, itxasoaren tokirik zakarreneba ba' zoaz be, olatuak asarrean orroe dagien tokira, zure oiñak arri-pitxiz ereindako zorua ikutzea naiko izango da, bertatik eratu daiten zure biran puspulo geleli-narezko inguru zabala. Orduan ikusiko dozu, bat-batetan, uin orlegiak zirkinkor eta bitsez koroituak, zelan edegiten diran goitik beera ta arrotuz zuri eskintzen dautzuen olaxe egoitza eder-ederra. Gero, zu ibiltean, jauregi ori atzetik doakizu, ta ikusiko dozu bere ormak zelan daukien bizitz-doea, eta zelan doazan eta datozen eta zelan gezia baizen zaillu, bizkor igitu ta iraultzen diran. Itxas-bidutziak datoz beingoan ikuskari barri ori, zurturik, ikuskatzeko. Ijutika dakustaz dragoiak, ñabartu ta urrezko ezkatatz jantziak. Marrazoak zaunkaka emoten, eta zu aren autzetan barreka. Zure jauregiak zeure aurrean edarazten dauan ikuskaria bitxia izanik be, egundo ez zenduan olako zorakeririk begipean euki izango. Ezta ez dozuz uts-emoten irudi atsegin-garriak. Nereutar pertxentak jauregi zabalera urreratzen dira, be-tiereko ezotasun eder baten altzoan; bildurti ta lizunkoi, gaztee-

nak, arraiñak bai litzan, eta zuurrak besteak. Oraingokoz- Teti eskolatua dago ta bere eskua ta ezpanak eskintzen dautzuz, Olinpo'n ondoren jarlekua emoten dautzula.

KAISER.—Egura ts-uneen eskerra deskatzut; olan lan gitxiago izango dot bakaulkiko maillak igoteko.

MEFISTOFELE.—Lurra zeurea dozu onezkero, jabe goitar.

KAISER.—Zein zori onek ekarri zaitu ona, *Amaika Gabetako Ipuñak* egunetatik aldaketa barik? Ugaritasunean Scheherezade' gaz bardintzen baldin ba'zara, laguntza ta babesperik gorengoenak agintzen dautzudaz. Saia zaitetz ni eder-erazteko, mundu trakets au eroan-eziña gertatu balekit, bein edo bein jazo oi yatanetz.

MARI SKALA (*arin-aringa datorrela*).—O bakaldun biotz-zabal! Ez neban iñoiz be uste izan pozez gaiñezka zure aurrera nakarren lako jazokun zoritsuaren albiste-ekarle izango naiatzunik: kítutua da gure zorra, diru-kontu guztiak ordaindurik, eta lukurreru guztien atz-azkalak ebagi doguz; emen naukazu orain oiñaze zakargordíña yakun orretatik aske. Zeruan bertan be ezin daikegu idoro poztasun ain betea.

GUDAROTZTEKO BURUZAGI NAUSIA (*bardin aurkeztuaz*).—Soldata guztia ordaindu da zeatz-zeatz; barrero damo izena gudarozte osoak, lur-mutilla gertu dago edozetarako; arrotzak eta neskatxak oso pozik aurkitzen dira.

KAISER.—Biotza bai zabaltzen yatzula! Arpegia tximurgetzen yatzu, ta jabalduraz ornitzen! Baiña zek azal daikegu laster-etorte au?

DIRU-ZAIÑA (*aurreratu dana, au be*).—Itaun, otoi, egitekoa aurrera eroan ebenai.

FAUST.—Kantzillerrak adierazo bear dau auzi au.

KANTZILLERRA (*astirotxo aurreratuz*).—*Niretzat* bai zoriona neure azken egunotan! Orain joan naiteke bakean! Entzun, eta ikus gaitz osoa on biurtu daben adur omgilleen orria. (*Irakurten dau*). «Nai dauanak jakin begi, paper onek milla koroí balio dituna. Baiben lez, kaiser-eremuaren azpian eortzitako altxorren zenbaki azkenge bat emoten da. Bear diran neurriak artuta dagoz altxor aberats onek, lortutakoan, ordainketak egiteko balio dagian».

KAISeR.—Susmotan nagonez, emen oker bat dago, iruzur ika-
ragarri bat. Nok antzekotu dau erregeren idazkera? Eta zelan ge-
ratu da zigor barik olako gaiztakeria?

DIRU-zAIÑA.—Gogora zaitez, jauna. Zerorrek izenpetu zen-
duan, eta Kantzillerrak eta guk itz-egin geuntzun, onela: «Onets
egizu jai onetako poza, eta onets erabat erriaren salbamena, zeure
idazkortzaren zirriborro batzukaz». Eta zuk argiro idatzi zenduan.
Beingo baten millaka ertilarik ber-idatzi eben zuk idatzia, millaka
bider. Eta obari ori alik ariñen danona izan zedin, askotako gaiak
ikurrizi genduzan, amar, ogetamar, berrogetamar eta euneko bali-
oetan. Ezingo dozu ulertu zein ondo etorri dan au erriarentzat.
Or zeure uria, leen erdi naspildua erio-besartean, eta orain biztuaz
doa, atsegin-leraz dardarazirik. Zure izenak urte askotan munduko
zoriona adierazo ba'leu be, iñoiz be etzan izango gaur besteko
maitasunez aotan erabilia. Aurrerantzean alperrekoa da alfabetua;
izenpe onek berez balio dau guzti-guztiak zorionsu egiteko.

KA₁SeR.—Ba-dazaue, beraz, onetan nire menpekuak urre utsa-
ren balioa? Gertu dagoz orduan jauregia ta gudaroztea era ortan
ordaindu-azteko? Ortarakoan, eta nire arrimena aundia dala be,
gauzak dabiltzala euren bidez egingo dot.

MARISKALA.—Eziña litzateke onezkero papera bere egazean
geldi-aztea, tximista baizen arin zabalduaz doa-ta. Diru-aldatzai-
lleen dendak zabal-zabalik dagoz, eta salgai baxotxa urrez ta zi-
darrez ordeazten da, murrizte pixkategaz, lege danez. Andik da-
nak doaz arakiñaren etxera, okiñarenera ta ostalariarenera. Mundu
erdiak ez dau jaiak baño beste amesik, beste erdia bere soiñeko
barritan dabillen bitartean. Bitxi-saltzailleak ebagiten eta jostunak
josten. Tartean, zapan dagi ardaoak «Gora Kaiser! » deadarka,
eltze ta lapikoak lurrunetan dagoz, burduntziak jiraka ta azpillak
zarataz.

MEFISTOFELE.—Egu teretan bakarrik egurats artzen dabillenenak
guri-guri apaindutako emakume ederrak aurkituko ditu; ikusiko
dau zelan gorde daroezan euren begiak lumazko aizeki ostean, eta
zelako era gozo maitagarrian irri-barre egin daroen. Orain leen
baño ariñago eskuraten dira babespe ta eder maitasunezkoak,
leen ezpirituz ta itz-ederrez lortzen ziranak nunbait. Gaur-gero
ez dogu zisku ta zakuak zamatatu bearrik; orri soil bat errez eroa-

ten da papar gaiñean; eta, nok jakin, maitasunezko diru-txartelaz bikotzen da, bear bada. Apaizak ba-daroa, eraspenez, bere otoitz-liburuan, eta gudariak gerrikoan, bere zirkiñ tan jareiago egon dedin. Zeure anditasunak parkatu beist nire itzak bear bada txikitu ba'dagie egintza au, beronen obaririk txikienak berton edere-
restean.

FAUST.—Zure Laterrian oinpean lo-zorro datzan altxor-oso-tasunak, ez dautsa iñori be onurarik ekarten. Oldozkunik zabalnak be ez leuke jakingo olako aberastasuna bere baitaratzen; ezta irudimenak be, bere egazkada gurenean goiak-goi edatu arren, ez litzateke bera neurtu al izateko beste izango. Sakona ikuskatzeko duin diran ezpirituak, alan be, mugagearentzat daukie konfiantza mugagea.

MEFISTOFELE.—Onako papera, izan be, urrea ta arri-pitxiak baiño askozaz erosoagoa yaku! Bertatik dakigu zer daukagun; ez da pixatu bear, ez aldatu, ta edozeiñek poza artu daike ardaoaz eta neskatakaz. Meatza gura dala? Ba-da aldatzaillerik esku-mendean; meatza falta ba'da, azpia atxurtzen da, atera dana saldu nokgeiago-emon agirian eta papera ordaintzen da, gure leptok barre egin eben arpegi-aundiak lotsaz gorri lagarik. Bat oitutzen danean, ezta geiago nai izaten. Aurrerantzean izango doguz, bai, urrea, arri pitxiak eta papera, edozeiñen eskueran izan be, Kaiser'aren Laterri guztietan.

KAISER.—Gure erriaren sarigarri izan zarie; zeuen zerbitzuari dagokiona bedi, aal dala, ordain-saria be. Zeuen pentzutan izten dogu geure Laterrien barne-leza, zeuek bait zarie, egi-egiaz, altxor orrein zaindaririk duiñenak, Zuok ezagun dozuen ezkeror altxor orren toki sakon, ondo gordea, zeuen aginduz bakarrik egingo dira be arrezko litzakezan zulatzeak. Alkar zaitese orain, ene ondasunen jabeok, eta bete alkarren leian zeuen zerbitzu-bearkunak, eta egizue alkar daitezala batasun zoritsuan goiko ta beeko munduak.

DIRU-ZAIÑA.—Ez bedi izan gure artean baieztza izpirik be. Poztuten naz zorarazlea daukadalako laguntzat.

(*Ba-doa Faust'egaz*).

KAISER.—Neure jauregiko bakotxa bezuzaz asetzen ba'dot, auctor daidala, nai dot, zertan erabilli bear dabezan eurok,

MORROI BAT (*bezuzak arturik*).—Ni beti pozik, alai ta umore oneko biziko naiatzu,

BESTE BAT (*bardin*).—Nik beingoan erestunak eta urrezko ka-teiak erosiko dodaz neure maitearentzat.

GELARIA (*doaiak ziskuraturik*).—Nik, oraindik, ardaoa bi-rritan geiago ta ohea edango dot.

BESTE BAT (*bardin*).—Jauzika dakustaz dagoneko joku-seikoak neure sakelean!

GUDARI-TALDE BURU BAT (*ernai ta zuur*).— Neure gaztelu ta landak daukien baitura kitutuko dot.

BESTE BAT (*bardin*).—Altxorra! Beste altxor batzuen alboan eortziko!

KAISER.—Nik zuengandik egintza barrietarako gogoa ta sua itxaroten nebazan; baiña ezagutzen zaituenak, errez igarten. On-dasunen dirdiz ta erlantz artean, danok izango zarie oraiñarte izan zarien lez, bardintsu leen naiz gero.

ZOROA (agertuaz).—Eskerrak banantzen baldin ba'dozuz, egin naizu ni be erdikide.

KAISER.—Zelan? Bizirik oindiño? Zoaz bertatik edatera.

ZORoA.—Zeure azti-txartelak? Doi-doi dot ulertzen.

KARsER.—Siñisten dot, txarto erabilli oi dozuz eta.

ZOROA.—Ona nun jausten diran beste batzuk. Ez dakit zer egin.

KAISER.—Auxe da zure txorta: ar egizu.

(*Ba-doa*).

ZORoA.—Bost milla koroi neure eskuetan!

MEFISTOFELE.—Oin biren ga'ñ zakustaz onezkero!

ZORoA.—Sarri gertatu ori, baiña orain baizen ondo aurkitu bage.

MEFISTOFELE.—POZak izerditan jarri zaitu.

ZORoA.—Baiña, esaidazu, egia da onek urre ordezko balioa dauala?

MEFISTORrELE.—Azken batean, eukiko dozu zeure iztarriak eta sabelak orren biziro opa dabena.

ZORoA.—Eta erosi ete neinkez onekin landak, etxe bat eta abere batzuk?

MEFISTOFELE.—Bai orixe! Eskatzea baiño ez daukazu, nai dozuna eukiteko.

ZOROA.—Eta gaztelu bat, oian bat, eiza ta muntegiak?

MEFISTOFELE.—Gaur gabetik neure jabetzaren jaun egiten naZ (*Ba-doa*).

MEFISTOFELE (*baka s k*).—*Nor* oraindik exmezean gure zoroaren eskerrari buruz?

SOLLAIRU ILLUNA

Faust. Mefistofele

MEFISTOFELE.—Zergaitik nakarzu barnebide goibel ontara? Ez al da an beean poztasunik, eta jauregiko jente-aldra naasi ta ñabar orrek ez ete dau emoten jolas eta guzur-atziperako abagunerik?

FAUST.—Ez zakidaz orrela mintzo. Neronek be geiegi erabillia dot izkera ori. Eta etenbako joan-etorri au itaunai erantzunetik iges-egitearren baiño ez da. Guztiak erabilli nai nabe lasterka; Mariskal eta Txanbelan'ak ez dauste arnasa artzen be izten. Kaiser'ak bere begi aurrean ikusi gogo dauz Elena ta Paris, eta atsegin emon bear yako; gizasemeen eredu-lanen itxura ikukorrak bere begiz ikuskatu nai ditu. Ortara, beraz! Nik ezin dot luzarago mutu iraun.

MEFISTOFELE.—Zorakeria izan da gauza bat ain errez agintzea.

FAUST.—Zu ez zara oartu, adiskide on, nora garoiezen zure aterabideak. Lenengo aberats egin genduan Kaiser'a, ta jolasa gura dau orain.

MEFISTOFELE.—Zuk bear bada, uste dozu, aisa egitekoa dala ori. Erromara geiago zeartu bear da, ta astunagoak oso. Altxor aundi bat emoten yatzunean gastetako, guztiz zentzun bakoa zarata, zor barriak egin oi dozuz azkenerako. Elena'ri oles eitea, uste dozu, paper-diru onein irudiak lez, gauza erreza dala? Ondo dagoz aztruak, iratxoak, sunbillak, papar uletsuzko epotxak, eta neure jente-ozte osoagaz zu otseintzeko, gertu naukazu; baiña deabruaren lupemeak ezin, ospe ona galdu bage, eme-guren biurtu.

FAUST.—Ezagun dot, leendik be, zure eresi zaarra. Zuk beti

dar&azu bada-ezpadako kolokara. Eragozpen guztien aíta zaitut, eta zio-bide baktxagaitik sari barri bat bear dozu. Gurgur dagizu, baíña ba-dakit egingo daustazuna. Biurtzeko unetxoa, ta egiñik daukazu alatza.

MEFISTOFELE.—Jentil-erriak begiratu be ez daust egiten, bere suleza berezia daukalako... Bide bat, alan be, nik ikusten.

FAUST.—Mintzo! Mintzo! Adi naukazu.

MEFISTOFELE.—Naizta bete-betean, ezkutu guren bat iragarri bear dautzut. Ba-dagoz jainkosa itzaltsuak, bakartadean erregiña diranak; euren biran ez dago utsunerik, ta are gitxiago aldirik. Naas-maas aurkitzen da bat areitaz itz egitean. Amak dira.

FAUST (*ikaraz*).—*Amak!*

MENSTOFELE.—Darda gaiñean, ausaz?

FAUST.—Amak! Ama! Guzti au, aundia da izan be!

MEFISTOFELE.—Eta da, egiazki. Guk, ílkorrok, ezagutzen ez doguzan jainkosak, eta ingira pizkat barik guk iñoiz be aotan artzen ez doguzanak. Arein bizitokia leza-barneetan billatu bearko dozu; arein bear-izana ba'dogu, zeugaitik da bakar- bakarrik.

FAUST.—Eta bidea?

NIEFISTOPELE.—EZ dago biderik; egundo zapaldu bakoak eta iñoiz be zapalduko ez diran bide-zidorrak, bakar-bakarrik; bide bakarra da, eldu-eziña ta sartu-eziña. Gerturik zagoz? Ez dago indarka zabaldu bear dan zerrailurik, ezta ara-ona erabilli bear dan morroilorik be; bakartadeak eurak bultz-eragingo dautzue, Ba al dakizu bakartadea ta utsunea zer diran?

FAUST.—Aurreratu zeinkezala, uste dot, orrelako jardunak; guzti ori sorgin-itoi bati dagokiona dozu, eta aspaldi joandako aldietakoa. Ez ete yat ezetarako izango munduaz ar-emona euki, bizitzen erakutsi ta neure inguruko besteak eskolatu izana? Errazoiz itz ba'dagit, neure aburuz, ezezpena bi aldiz gorago agertzen da; gorputz iguingarri orrein aurka bakartadean eta lekaroan billatu bear izan neban igeslekua, eta, oso-osorik aitzua ta bakarrik ez bizi izatearren, azkenez deabruari emon bear izan dautsat neure buruar

MENSTOFELE.—Emon zakioz Okean'i, gal zaitez mugagearen ikustean; an ikusiko dozu uiña zelan yatortzun beste uin baten gaiñean, eta ikareak zelan artzen zaitun bat-batez, leza edegiaren

urrean. Geiago oraind'ño ikusiko dozu: itxaso jabalaren sakon orlegietan dirakien izurdak; arat-onat dabiltzan odei-moltzoak; eguzkia, illargia ta izarrak. Baiña gero, osertz uts osoan, ez dozu onezkero ezer ikusiko, ezta zaratarik be zeure urratsena ezik entzungo, ezta ez dozu gauza sendorik be idoroko atsedena ar daizun.

FAUsT.—Urtzi-jarraigo bateko apaiz batek lez mintzo dagizu, asibarri zintzo bat iruzurtu ez, baiña bai bestera egin dauanaren antzera, ain zuzen be. Usgunera bialtzen nozu, nire kemena ta ertia geiagotu daitezcan. Katu bat lez artzen nozu, gaztaiñak sutatik atera dagitzudazan. Baiña ez dautso: sakonagotu daigun auzi au. Nik uste dot dana aurkituko dodala zeure ezerezean.

MEFISTOFELE.—Laga eidazu zorionak emoten, alkarregandik banandu baiño leen. Oraintxe oar naitzu: zuk ezagun dozu dea-brua. Ar egizu giltz au.

MEFISTOFELE.—BeraU artuaz asi zaitte, ta ez zaitte gero beronen indarrez ez-jakiñean egon.

FAUsT.—O, miresgarri! Aundituaz doia neure eskuetan, eta galdatuz, zirt-zirt egiñaz!

MEFISTOFELE.—Asi ete zara burutan artzen zeren jabe zearan berorregaz? Giltz onek erakutsiko dautzu bidea; zoakioz atzetik, eta Amen bizitokira eroango zaitu.

FAUST (*dardarti*).—*Amak!* Itz au oiñaztarria baizen sendo barentzen yat. Zer itz dogu berau, nik ulertazi eziña?

MEFISTOFELE.—Orren adimen-kamuts ete zaitut, itz barri batek kezkarazteko? Leen ulertu zenduna barriz ulertu bear ete dozu? Itz baten soiñua bitxia izanik be, gauza arrigarri geiegi ikusita zagoz onezkero, orain latz-ikaratzeko.

FAUsT.—Ez dot ez-axolean billatzen neure salbamena; gizona latz-ikaraz jarten dauana bere zatirik onena da. Ludiak gizonari bere sentimena garesti ordainduazo arren, onek beti jarraituko latz-ikaratuz eta neurri-bagetasuna barren-barrendik sentiduz.

MEFISTOFELE.—Jatzi zaitetz, ba. Bardin esan neikizu «igon», emen dana bait da bat eta bardintsu. Aska zaitetz danetik. Egotz zaitetz irudizko utsguneetara. Zoaz aspaldi danik izatea itxi eban ikuskarian poz-artzen. Odeiak lez iraulkatzen aizebiurra. Marros aidaan zeure giltza, ta iraun-azo zeugandik urrin-samar.

FAUsT (*birloratu*).—*Ondo* dago. Berau estutu-ala, neugan er-

nez doan indar barriaz oartzen naz, eta zabaldu egiten yat bularra *egintza* aundi bat egiterakoan legez.

MEFISTOFELE.—Trebera gori batek ezagun-eragingo dautzu, azkenez, eldu zareala sakonen sakonera. Orduan, eta aren argitan, begiztauko dozuz Amak. Batzuk jarrita dagoz, eta beste batzuk zutik eta ibiltzen; danak iraungo dabe, zuk aurkiu bezela. Itxura, itxura-aldatze, zentzun betierekoaren izketa hetikoa! Ez zaitue ikusiko, izakí guztizko irudiz inguratua bai zagokez, eta areik ez dabe ikusten gogaiak besterik. Baiña izan zaitez kementsu. Aundia izango da, orduan, zure arriskua. Treherara joango zara zuzen-zuzenik, eta giltzaz ikutuko dozu.

(*Faust'ek giltza jasoten dau, pozik eta erabagitsu*).

FAUST.—Eta bitartean? Zure izakiak, bitartean, lurpeko itura jo hear! Jatxí oinkada sendoz, eta oinkada sendoz igongo. (*Orrela dagi Faust'ek eta ostenduten da*). Guzti au gero, giltzak garaipena eskuratu ba^gekio. Leiaz nago, ia biurtzen clanentz ikusteko.

ARETO NARORO ARGITUAK

Kaiser eta errege-gaiak. fauregia, biotzean ikutua

TXANBELAN (*Mefistokle'ri*).—Zor dauskuzue oindiño ikus-lillura. Lanera bizkor! Urdurítuz doa jauna.

NIARRsxm.A.—Gure errege eskertsuak beingoan opa dau, Berau geiago belutzea, hada, oker bat da bere Aunditasunaren aurrean,

MEFISTOFELE.—Auzi au clala-ta urrindu da nire laguna, ta arek daki zer egin hear dauan. Orixegaitik soilki ari da lanean ixil-mixilka. Eta adore bereziaz egin hear dau; altxor bat aurkitu gura dauanak, hada, laguntzeko dei egin hear dautso ertietatik gurenenari, au da, jakitunen aztiketari.

MARISKALIA.—EZ dautso zer antze clarabiltzun ortarako; Kaiser'ek nai dauana da, arik eta ariñen miraria ikusi.

GORRaxA BAT (*Mefistokle'ri*).—Itz^{xi} bi, jauna. Oso zuri claukat hetartea, dakusunez, eta orrelaxe iraun-azo nai neunke uda gogai-karria clatorrean be. Eun orban gorri txoldor datorkidaz narru-azalaren argitasuna murgildu ta loitzera, ta izugarria cia ori. Ba al dakizu orren aurkako osabiderik?

MEFISTOFELE.—Tamala, egi-egiaz! Ondasun ain ederra maia-tzean loituta, leoi-nabarraren narrua lez! Ar egizuz ugarazioaren arrautzak eta zapoaren miñak, eta irazi dana gogor eta arduraz, illargi betea danean; gitxitzen asten danean, ezar soiñari taiuz egositakoa, ta udabarria eldukeran, ikusiko dozue zelan ez diran agertzen arako orbanak.

BALTZERAN BAT.—Nainundi datorkizue jentea; parka, ba, ni aurretiaz ba'natorkizue, argi-billa. Oin bat daukat izoztua, ez ibilten, ez dantzatzen izten ez daustana; beraz, baldan nabil makurtuz agur egiteko be.

MEFISTOFELE.—Lula oin bat, eta nik jarriko dot neurea zure gaixoaren gaiñean.

BALTZERANA.—Opa dozunez bedi, naizta ori maite-minduen artean bakarrik egiña izan.

MEFISTOFELE.—Nire oin-zapaldu ariñak, ene alaba, beste zer batzuk daukaz gaiñera. Antzekoak antzekoz osatzen; auxe gaitz guztien osakai arrunt: oiñak oiña osaten, eta orrelaxe beste soinatetan be. Urbil! Kontuz! Ez dozu baztertu bear!

BALTZERANA (*oiuka*).—*Ai! Ai!* Zelako zapaltzea! Sua dirudi. Zaldi-beatzak lez.

MEFISTOFELE.—Bai, baiña osatuta zagoz. Dantzatu zeinkez orain nai bestean, eta zeure oiñez ikutu, mai azpitik, maitearen oiña.

ANDRA BAT (*lagun artean gurutzatuz*).—*Itxi* eidazue, mesedez, arengana eltzen. Ozt-oztan nago zurunik; irakiten soma daroat gatxa neure biotz barrenean. Arek atzo oraindik bizi-zoriona bi-llatzen eban neure begien soan, ta gaur, ona, sorbaldea emoten daust bertatiko baten.

MEFISTOFELE.—*A!* Astuna da ori, egi-egitan! Baiña, entzuidazu: urrera zaitez arengana beatz-muturretan, ar egizu ikatz au, aren mauketan, aren kapusaian eta aren sorbaldetan marra egizu lerro bat, eta zintzo-ezak sentituko dau, zeuk gura dozunez, zerbaitek biotza kezkarazten dautsola. Zuk, ostera, ikatza iruntsi bear-ko dozu beingo-beingoan, ez ur-tantaz ez ardao-txiztillez zeure ezpanak busti barikr Bete nik esanak, eta gaur gabean bertan eukiko dozu zeure ate aurrean intzirkiez.

ANDREA.—Ikatza ez ete dot pozol?

MEFISTOFELE (*asarre bizitan*).—*Erakus* egiozu lotsa, merezi dauanari! Urrin joan bearra izango dozu onelako ikatza aurkitzeko. Guk leenago, arduraz, ixiotu genduan txondor batetik datorrena dozu.

MORROI BAT.—Maite-mindurik nago, ene jaun, ta ume lez narabille.

MEFISTOFELE (*beratara*).—*Ez* dakit onezkero nori lagun egin. (*Morroiar*). Ez egizu iñoiz be gazteengana jo, andrandiak obeto aintxakotzat artuko zaitue. (*Beste batzuk agertzen dira aren ingurumari*). Barriak oindiño? Au zeregin astun! Egira jo bearko dot; etsi-ets'.a dozu bidea, baiña arriskua aziagotuz doa. O, Amak, Faust itxi onezkero aske! (*Begiak bere ingurura zorrotzurik*). Gizategian dagoneko larutzen asita dagoz argiontziak, Jauregi osoa dardaraz bat-batera. Erreskadan joaten dakustaz, zumardi luzeetan zear, urrutiko igarobideak zear. Orain, zaldunen aretoko usgune zabalean alkartzen dira, tokiak ia-ia artzen ez dauzala. Oial ederrez estálduak dagoz orma edatuak, eta zokoak eta konkak izkillu-sail cFzditsuz beterik. Leku egokia, iruditzen yatanez, azti-oleserako. Ezpirituak eurenz ara joko dabe dei-otsera,

ZALDUNEN ARETOA

Argi gitxi

Kaiser'ek eta jauregikoak jarten dira

OTSEGILLEA.—Ezpirituen nausigo ezkutua nire antxiñako zeregiñaren aurka doa, ots, ikuskarien iragarle izatearen aurka. Alperrik gabiltz naste au errazoizko tankeraz azaldu naita. Jarleku ta bes-aulkiak gertu dagoz eta erregeari orma aurrean jarri-azoten. Bere gogara ikuskatu daikez tapiz-oialetan joan mendeetako gudu ta alkar-erasoak. Or onezkero baxotxa bere lekuan, Kaiser'a ta Jauregikoak euren goi-aulkietan. Barrenean agiri dira andrazko gurenak, eta ames-ordu ezkutuz beteetan, maite-minduak artu al izan dau txit maiteki bere maiteagandik ur-ur bere tokia. Ona gu danontzat egiñik, guztiok bait daukaguz dagokiguzan lekuak. Ager beitez onezkero mamu ta iratxoak! (*Musikea*).

IZARLARIA.—Alperreko aldi-galpen barik, asi dedilla antzerkizuna agindu dau jaunak: edegi zaiteze, ormak! Onezkero ez dautzue ori iñok galazoten, azti-ordua eldu da-ta. Erreteak tximurtuta lez dabiltz oialak kulunkaz; ormea zartatu ta suntsitzen da, eta antzez-toki izugarria agertzen dala dirudi, ezkutuzko argitasunak dirdaitzen gaituala, ta ni aurrenengo egonlekura igoten naz.

MEFISTOFELE (*itz-emoillearen zulotik burua aterarik*).—*Emen-dixek* uste dot irabaziko dodazala guztien biotzak; deabruaren mintzo ederra da esondatzea. (*Izarlariari*). Zuk ba-dakizu izarrak zein urratsetara egokitzen diran, eta ulertuko dozuz, maisu ona zareanez, nik eurrez esaten dautzudazan itzak.

IZARLARIA.—Ona emen zelan jagiten dan geure begien aurrean, arrigarriri ta ederki eraturia, aspaldiko jauretxe bat. Zutoin-kopuru eder bat agertzen da bere inguruan; leenago zerua lepo-gaiñ eroian Atlante'ren antzeko zutoiñak ain zuzen be. Eurak daukie gaiñean, gurenki, arri-meta eskerga, lepo-gaiñ daroie-ta oroigailu ikaragarria.

ETxEGILLEA.—Antxiñakoa deritxatu orri? Nik ezin dagiket orrenbeste esan. Egi-egiaz astuna ta abailgarria esan bear geunskio. Sarri argia deitzen yako arrunta baiño ez danari eta, txit aundia okertua baiño ez danari. Eder yat niri zutoin lerdena, goizalea, azken bakoa; mako zorrotzeko gingak gora jaso oi dau gure ezpiritua. Guk beste tankera naiko ezbardañean jasoko genduan olako etxea.

IZARLARIA.—Agur egiozu begirunez izarrak agertzen yatzuzan orduari; men begio errazoiak azti-itzari, eta, ordaiñez, ar begi ostera bere egazkadea irudimen urduri ta arroak. So adi-adi gogoz opa izan dozuena; eziña da, ta, beraz, siñisgarri.

(*Faust proskeioaren bestekaldean agertzen da*).

IZARLARIA.—Aurrean daukazue, bere apaiz-jantziakaz eta bekokia burestunez, gizaseme arrigarri bat, beronek kementsu arturiko egitekoa burutu ondoren datorkiguna. Trebera bat jagiten da beronegaz lezaren biotzetik. Usnatzen dira dagoneko airean ontzi batek ixuritako intzentsuaren ke-bafadak. Oraintxe doa onestera egintza aundia; guzti ortatik ezin etorri, zer zoritsurik ezik.

FAUST (aundikiro).—Otoika deskatzuet zuoi, azken bagean erregiña zarien Ama orrei, beti ta beti bakarrik eta, alan be, lagunarteko; Ama maratzak, bizi-zantzuz daroazuez buruak, baiña ez

daukazue bizirik! Leen izan zana, itxuran eta dirdaian egokitzen an, beti-betiko zai nau ta. Eta zuok, alizate garaiok! , guzti ori banantzen dakizue egunaren dendetan eta ganaren zeru-sapaietan. Batzuk bizitz errezak daroaz bere ibillian, eta beste batzuk, azti ausartak oratu ta, uste onez beterik, bere oparotasun jorian, baktzak ikusi nau dauzan misterioak ikus-erazten dautsez,

IZARLARTA. — Giltz goriak treberako azpilla ikutuz batera, gandu naasi bat edatzen da bertatik, usgunean; igarri barik sartzen da nun-nai ta odeiak lez kulunka dagi; nasaitzen da, arizai ta lissetan batzen, txirbiztu, sakabanatu ta barrito gogortu ta urtarazten. Eta orain, adi Ezpirituen erdiari! Egintza eredu doazue. Aurrerantz datozela, musika leunak inguratzen ditu, ta eurotariko egurats-doiñu batek ezkutuzko zerbait dixuri; soiñu oneik gero, lerroan dabiltz ibilli eres-doiñu eder biurtuta. Zutoin-saillak durundu dagi, baita iru-aldaskak be; jauretze osoa kantari dagoala esan daiteke. Gandua gero beeratzen da, eta lurrunaren barretetik argi gazte bat jagiten, aurrerantz doana taka-taka. Emen amaitzen da nire eginkizuna. Aitatu bear ete aren izena? Nok ez dau eza gutzen ortan Paris eskertsua?

LENENGO ANDRA. — O! , gazte ta bizi, ori bai lora dirdaitsu!

BIGARREN ANDRA. — Mertzika dirudi: gordin eta gunez gainezka!

IRUGARREN ANDRA. — Bai leunak orren ezpanak! Eta gurikeri gozoz zimurtzen!

LAUGARREN ANDRA. — Znk gogoz edango zeunke olako edontzian!

BOSKARREN ANDRA. — ZOragattia, egi-egiaz! Baiña ba-ditu bere utsak.

SEIGARREN ANDRA. — Ibilkeran nasaitasun geiago ez leuskio txarto emongo.

ZALDUN BAT. — Naibeste begiratu arren, ez dot orregan artzainña besterik aurkitzen; ez daukazue or ezer errege-gaia gogorazten dauskunik, ezta jauregi bateko biziera eta jokabide presturik be.

BESTE BAT. — Orrela erdi-bilosik, gizakume ederra da, ezin daⁱ teke uka; baiña osoz jantzita ikusi bear genduke.

ANDRA BAT. — Aul eta kankin jarten da, ardura bako.

ZALDUN BAT. — Pozik jarriko zintzakeze aren belaunetan?

BESTE ANDRA BAT.—Bai zorakor daroala beso liraiña burura!

TXANBELAN.—Balдар bat: orixe iruditen jat; azken itza trakets-arloan.

ANDREA.—ZUOk, gizonok, beti maixeo lanean.

TXANBELAN.—Kaiser'aren aurrean olan etzunda! Erregarri yat ori.

ANDREA.—Bere jarkera da. Eta bakarrik dagoala, uste dau.

TXANBELAN.—Eta zer? Emen antzerki-lekuak berak be era onak gorde bear ditu.

ANDREA.—Oraintxe berton, lo gozoak lotarazo dau.

TXANBELAN.—Ederto! Eta zurrunga asiko yaku oindiño! Berrezko! Txit ondo!

ANDEREÑO BAT (*sorgortasun osoan*).—Zer usain da ori, larrosa ta intzentsu naste, olan daroana bere guritasuna nire arimearen barren-barreneraiño?

ANDRA ZAARRAGO BAT.—Egitan, ezkutuzko ats-aldi batek lurruntzen dauskuz biotzak; eta agandik datorrena da.

ZAAR BAT.—Aztearen lora da, usain gogozko lora, bere galzarpe gaztean ernetan dana, ta inguruko egurats osoa lurrunkatzen dauana.

Elena dator aurrera.

MEFISTOFELE.—Bera da! Ene gardiz, onen aurrean be, ez dot, neure gozo ta onari buruz, zertan kezkarazo. Polita da, baiña ez nire barrua naasi ta kezkarazteko lain.

IZARLARIA.—Nik, dagokidanez, ez daukat oraingoz zer-egiñik; eta, deduzko gizona bait naz, orrelaxe autortzen dot, eta iragarten. Aurrerantz dator jainkosa, ta ni suzko mingaiñetan egoterakoan... Noiznai goretsia izan da edertasuna; onek agerpena egiten dautsona, berezkoa da, bere senetik urtenda ibiltea; eta olakoaren jaube egin dana, berezkoa da, guztiz zoriontsu izatea.

FAUST.—Ez ete dauste begiak ziria sartzen? Ez da au, apika, edertasun garbi-garbiaren sorburua, neure izatearen barrenean ibai-ka jariora? O sari zoriontsua, neure lan-arlo izugarriari eskeiña? Ez diñost ezer mundu osoak, ikuskari onen aurrean! Zelan aldatu nauan bete-barri dodan apaiz-egitekoak! Gaur lenengo aldiz, gura-garri, trinko ta iraunkor begitanduten yat mundua. Itzal bite niregan bizitz-arnasa, urrin joan bearra ba'dot zugandik! Leen sus-

tatu ninduan iduri samur-goza, dirdai sorgiñcz lillurutzen ninduna, egia esateko, edertasunaren geriza pizkat baiño etzan. Zeuri damotzut neure edore gutzia, neure zurekiko griña betea autortuz; zuretzat dira nire begi on, maitasun, gurtza ta zoramena.

MEFISTOFELE (*bere zuloaren barrutik*).—*Eutsi* zeure lerari; ez urten, otoi, zeure paperetik.

ADIÑEKO ANDRA BAT.—Itxura oneko neskatilla; burua dau, bakar-bakarrik, apur bat

ANDRA GAZTEAGO BAT.—Baiña, begira orren oiña. Zelan eutsiko ete dautso gorputzaren pixuari?

DIPLOMATIKU BAT.—Erregiña-gai asko ikusiak ditut, orren antzekoak. Niretzat, ederra da burutik oiñetara,

JAUREGITAR BAT.—Begira; ba-doa, maltzur eta ezti batean, lo dagoan gaztea-ganantz.

ANDREA.—Orain bai benetan motza, itsusia, gazte-irudi aratz betearen alboan!

OLERKARI BAT.—Dirdaiz dago bere edertasnean.

ANDREA.—Egin-egiñean. Beerantza makurtzen da jainkosa, agiri danez, aren ondoan, aren ao-arnasa edatearren. O une zoragarria...! Mosu bat! Neurria kuin-kuin.

UGAZABANDRE BAT.—Mundu guztiaren aurrean! Ez, ez dozue ergelkeria besterik.

FAUST.—Mutillarentzat, bai, atsegin betea!

MEFISTOFELE.—Ixilik...! Bake...! Itxi, arren; begi sunbillak nai dauana.

JAUBEGITABBA.—Jainkosa orain urinduz doa, beatz-puntetan; eta gaztea itxartzen.

ANDREA.—Jainkosak bere ingurua so egiten; ba-nenkian nik.

JAUREGITABRA.—Gaztea zurturik; miresgarria da jazo yakona.

ANDREA.—Neuk diñotzuet, a ez daula ezerk arritzen.

JAUREGITARRA.—Orain gazteari doakio barriz, tankera txeratsuz.

ANDREA.—Bere ikasgaia bir-esango dautsola, diñotzuet. Gizasemeak, orrelakoetan, buru-loka batzuk (Era. Gazte orrek, olako uneetan beste danak lez, lenengoa dala uste dau.

ZALDUN BAT —A, mesedez! ederretsí daidala! Ori aunditasun! Ori liraintasun!

ANDREA.—A, barranaba! Egokitasun guztien gainez dabilkigu.

MORROI BAT.—Gaztearen lekuan egotea, eder litzakit.

JAUREGITARRA.—Nork ez itxi bere burua olako sareetan batzen?

ANDREA.—Arri-pitxi ori ainbaten eskutik ibillia da-ta, urrea pitin bat andegatu egin da,

BESTE ANDRA BAT —Amar urtez gero, ez dau ezertxo be babo izan.

ZALDUN BAT.—Bakotxak onena uste dauana, axe goretsi oi dau; nik naiko izango neunke ondakin ain ederrakaz,

SASI-JAKINTSU BAT.—Argi ta garbi dakust neure begien aurrean; alan eta guzti be, orren jatortasuna ezpaian jarten ausartzen naz. Ni, lenengo ta bein, idatziari nagokio, eta orrek, irakurri dodanez, Troia'ko bizar urdin guztiak artegarazi oi ebazan. Ondo gogoetatu ezkeru, ori orduko zertzeladai egokiena dala dirudi. Ni ez naz gazte, eta, alan be, gogoko yat.

IZAREARIA.—Urten alakoa! Gizurenak besarkatzen, eta jainé koak doi-doi bere burua aldeztan. Bere bezo indartsuan dauka. Gora jasotera doa...

FAUST.—Ergel ausarta! Ez egik olako azartasunik izan! Ez daustak entzuten onezkeru. Ago geld! Geiegi dok!

MEFISTOFELE.—ZeU zara orain begi-lillura akulatzen dozuna.

IZARLARIA.—Itz bat bakarrik, Gertatu zanari begiratu, *Elena' ren Lapurketa* deritxot lipar oneri.

FAUST.—Ze lapurreta da ori? Ni ez nago emen, bear bada? Ez daukat, ausaz, eskuan giltz au, latz-ikara, bakartade ta usgune zear, azpi tinkoa zapaldurik, zuzendu ninduana? Emen jarri dot oiña, ta ementxe dagoz egitasunak, eta Ezpiritua Ezpirituen aurka burrukatzeko, eta orrela, gertatzeko, erresuma bikotxaz jaubetzeko. No zelan etorri eikean, ezpabere, ain urrin egonda? Neuk gaizkatuko dot. Neure da bi aldiz. Biotz on, ba, o Amak! Amak, lagun zakidaze! Bera ezagutzen dauanik ezin daiteke a barik bizi izan!

IZARLARIA.—Faust, zetan zagoz? Estu-estu besarkatzen dau. Itzaliz doa ikuskaria. Mutillagana zuzentzen da bere giltzaz, eta ikutzen dau. Gaitzetsak gara...! Gaitzetsiak! A! A!

(Dunbatekoa. Faust lurrean luze. Ezpirituak lurrun biurtzen).

MEFISTOFELE (*Faust bere sorbaldan arturik*).--Au datorkit orain, zoro bat artu dodalako neure ardurapean. Txarto ba'zengoz, oiu egin deabruari.

(Illunpeak eta zalaparta).



BIGARREN EKITALDIA

GODO-EGIKERAKO GELA BAT SAPAI-JAGI TA MEDARRA

Faust'ena da ostera be, leen eukana

MEFISTOFELE (*errezel baten ostetik agertzen da. Berau jaso ta biurtzen danean, Faust ikusten dau aintxiña bateko ogetzar baten etzunda*).—Atsedon or, doakabe! , maitasun-lokarri aska-eziñetan biribildua! Elena'rren errazoaia galdua ez da ain errez senera biur-tzen. (*Inguruan begira*). Gora ta ezker-eskuma begiratuagaitik, ez dakust ezeren aldakuntzarik, ez goraberarik; margo askotariko beriñak, bear bada, illunago dagoz, lausotuago, eta amaraun-sareak ugaritu dira, tinteaz legortu da, ta papera laruagotu; baiña beste guztia bardin-bardin dago. Emen datza oraindik Faust'ek deabruagaz egindako ituna izenpetu eban lumea; ortxe, beronen orratz sakonenean ikusi daiteke oindiño nik atera neutson odol-tanta-txoa! Gauzaki bitxi bakarra dan ezker, antxiña-zalaren baten eskuetara joango dala, nik uste. Bere txamar zaarra kako zaarretik dingilizka dago oindiñokarren; beste orduko gertakari pozgarri bat dakart onek gogora, ots, gazteari emon bear izan neutsozan irakaspak, eta gaur, gizon adiniko, arein zamapean akitua bizi da bear bada. Zugaz, egiaz esan, jantzi zaar, bero ta lakatz, alkartu nai neunke, eta, neure burua irakasle oarturik barrero, arropuztu neure uts-eziñaren gogoeta barnean. Jakintsuak dakie bakarrik olako jarkera baten irauten; deabruak berak, aldiaren igaziz, oitorea galdu daroa.

(*Txamarra astintzen dau; mota guztitariko matxin-gorringo, kakarraldo ta zoko-zorriak zapart dagie bertatik*).

KOKO-TALDEA.—OSaSun, osasun, jaube zaar! Ondo ezagutzen zaitugu geure ego-eragite ta firfiran. Banaka erein ginduzuzan ixillean, eta emen gatorkizuz orain, o aita! , millaka ta millaka, zeure biran dantzatzeko. Fede gaizto ta iruzurra tinko bait da gordeten biotzean, eta bera aurkitzea gatxago da txamar tzar onetan zorriak idorotea baiño.

MEFis rOFELE.—Endaki barri au bekita atsegin! Erein eta garaiz uzta batuko. Ondo egin dot jantzi zaar au astinduaz; bat-edo-batek beti iges egin oi dozue. Egaz, kutunok! Zoaze arin, eun milla zokotan abi egitera. Banandu kutxa zaarretan, eta idaz-narru baltzitueta, eta bote zaar ondakin autsez jantzietan, eta ildakoen buru-azur utsitueta. Orbelmeta ta zorna usteletan daukazue, marmoruok, bizilekua luzaroen luzaro. (*Txamarra jazten dau*). Erdu, soiñeko zaar; estal eistazuz sorbaldak oraingoan be! Irakasle izatera biurtzen naz gaur, eta dana dagokit olan deitzearren. Nun ete dira ezagutu neinkeenak?

(*Kanpaia ateraten dau. Dardar daga aidean oiartzun zoli durandutsuak. Orma-murruak ikaratzen dira, ta zakar zabaltzen ateak*).

MORROIA (*igaro-bide sakon agertzen da, erdi-koloka*).—Zelako zaratea! Au ikara! Aldarka dabil mailladia ta ormak dardaraz; leioko milla koloreen dardara artetik be ekaitzaren argidizdizak iñarka dakustaz. Azpiak jauzi daga; goitik txarrastaka jausten dira karea ta zabor-zatiak, eta atea, morroilloz itxita dagoalarik, goi-indar baten eragiñez edegiten da. O, au latz-ikara! Erraldoi bat jantzi da, eta barregarrian, Faust'eren soiñeko zarratz! Belaunak makur-azten yataz aren itxura ta begitu aurrean! Zer egin bear dot? Iges ete? Ala bertan geratu?

MEFISTOFELE (*kiñuka ari dei egiñik*),—Atoz ona, adiskide; urrera akit! Nikodemu deritxazu?

MORROm.—Ori da nire izena, jaun duin eta guren. *Oremus!* (Egin dagigun otoi).

MEFISTOFELE.—Itxi daigun ori!

MORROIA.—Poz-pozik naukazu, ezagun nozulako!

MEFISTOFELE.—EZ zaitut, ba, ezagutuko, zaar eta ikasle oin-diño, maisu tentel ori? jakituna beti dago ikasten, beste ezer egiteko nor ez dalako. Orrela jasoten ditu, onerako ta txarrerako, kartoizko etxeak. Zure rmaisua, egiaz, gizaseme arrigarri bat da. Nork ez dau ezagun Wagner irakasle prestua, gaur-egunean jakintsuen artean lanena dana? Berak bakarrik azaldu oi dau dana, ta egiztatu, ta orrela geitu daroaz egunetik egunera geiago jakituriaren altxorrak. Enparauak, jakin-miñez, aren inguruan batu besterik ez dabe egiten. Argitasunean bera da dizditsuen, Kepa Deunaren giltzak daukazana, eta eurokaz edegi oi dau naiz beeko mundua

naiz goikoa. Aren dizdizak eta zir-zartadak egiaz itsukorrak dira-ta, ez dago osperik ez aintzarik aregaz leiakatu leikeanik; arenaren aurrean, Faust'eren ízena bera be lausoturik geratzen da. Berak bakarrik aurkitu eban.

MORROIA.—Asketsi, jaun prestu orrek, zuri buruz jarduten ausartzen baldin ba'naz; baiña ez dago beste urtenbiderik: modu ona bein baiño geiagotan aolkulari txarra izan oi yatzu. Ezin dai-teke siñistu gizon ain ospetsua itzalia danik, ezta ez dabe danak aren itzulitik bakarrik gaizkapena ta poza itxaroten. Gela au be bere aintxiñako jaubearen zain daukagu, Faust irakaslearen egune-tan egoan lez, arek alde egin ebanetik emen ez bait da ezertxo be aldatu. Eta orain ozt-oztan ausartzen naz itaun au gatzatzen: zer egon daiteke ordu onen izartzan? Oar nazanez, ormak dardar dagie, atek kirrizkatzen eta morroilloak zertatzen; au barik, ezin zeintekezen emen sartu.

MEFISTOFELE.—Nun, bada, sartu da zuen gizona? Naroazue arengana, edo bestelan ekardazue bera ona.

MORROIA.—Oi Aren babesu txit bakana da-ta, saioa egiten be ez dakit azartuko nazan. Illabete osoak bizi izan da ixillean eta bakartaderik beteanean, bere lan aundiari lotua. Une onetan, jakitun guztietatik adeitsu ta jasekoena, ikazgintzat joko zeunkie ziur asko; baltz-baltz agiri da surretik belarrietara, ta gorrituta daukaz begiak be krisailluen keaz; jakituriarentzat bakarrik bizi da, ta berari besarkatua beti ta beti, orriken zart-otsa beste musikarik entzun bage.

MEFISTOFELE.—EZ nau artu gurako orduan? Zori ona ekarri neinkeon gizakumea naz.

(Ba-doa morroia. Me f isto f ele jarten da eratasun aundiz).

Neure lekuan egokitu baiño geiago, atzetik agertzen yat eza-gun dodan norbait; baiña auxe da zurtasuník aundienen garaia, ta oraintxe ikusiko dogu ausarkeririk itzalena.

BATXILLERRA *(ariñeketan dator igaro-bidean zear)*.—Zabalik aurkitu dodaz ataria ta atea. Onek esan nai dau, biziak ez dauala ildako baten antzera autsean egotzita egon nai, gaur arte egin dauan lez, bere burua aitu, erdoitu ta bizitzaren beteanean il-azoaz.

Eta begira orma oneik, gero ta ikaragarriago makurtuz doaz, eta kontuz ibilli ezik, azpian artuko gaitue amiltzerakoan. Bular-tsu naz beste iñor ez bestean baiña ez naz azartzen orain oinkada bat aurrerantza emoten.

Zer ikasi neinke gaur, ain zuzen be? Ez nintzan etorri leku ontara, urteak eta urteak, bildurti ta arnas-estuka, mutiko gixajo eskola-bakoa, zaar bizartsu onen ikasgaiak uste onez entzutera, ta eurakaz txepelkerizko mundu oso bat eregitera?

Ikasgai areik ez eben besterik egin bere liburukote zaarren jakituriaz sal-erosketan naierez jardun baiño, gure bizitza, ta berea, alperrik galduaz. Bailía zer da au? Or, barrenean, ain zuzen be, jarleku ortatik uxubiloa, zumurra jagiten!

Zurtasunak oratzen, urrago ta geiago: bera da-ta, bere txamar illunean batuta, nik laga neban lez, beti txamarrote baldresaz. Egia esateko, leenago, niretzat oindiño ulergatxa zanean baiño, sendoa-goia iruditzen yat. Gaur ez nau arrapauko. Kontuz, ba! Kontuz, eta albora gakiozan!

Aspaldiko jaun, Leteu'ko ur loiak zure buru soil astuna oin-dirio murgilazi ez ba'dabe osorik, begitu ta ezagutu eizu nigan beste orduko ikaslea, akademi-ikaskizunen adiñetik dagoneko igarroa dan au. Nik azkenengoz ikusi zindudanean lez aurkitzen zaitut; baiña, ni neu oso aldatua naukazu: beste bat nozu gaur.

MEFISTOFELE.—Poz-eztitan dakust neure txillinteriak ekarri zaitula ona. Olan iragarri neutzun beste orduz. Oraingoz txamoak eta mamurrak mitxeleta dizditsu bat erdi-erakusten dauskue. Etzan, ba, ume-aintza bat jalgiteko zure ule kizkurretatik eta zeure idun ertzatutik? Ez dozu oñoiz buztanik eroan, oker ez ba'nago? Gaur sueziar xanoaz ikusten zaitut, eta itxura erabagitsu ta galanta daukazu; ez dot ezbairik, onera zuzendua zaukadaz naitaez.

BATxILLERRA.—Egin-egiñean be, toki berberetan bizi gara, jaun zaarra; baiña ausnar, otoi, aldi barrien ibil-bideaz, eta ez eidazu erabilli, mesedez, zentzun biko itzik: oraingoz, ain zuzen be, orduan ez lako izakeraren jaube gara. Eder yatzu barre ta trufa egitea jente gazte, on eta zintzoaren lepotik, baiña orduan irabazpide etzana orain be ez nintzateke egiten azartuko.

MERTSOTFELE.—Jendeki gazteari egi utsa esaten yakonean, ez da lortzen txano sueziarren arrikada ta biotz-miña besterik; eta

gero, urteak joan urteak etorri, eurak eurenez naiko zakar ikusi dabenean, eurak aurkitu dabela iruditzen yake, ta euren maisua arlote bat zala, iragarri oi dabe.

BATXILLERRA.—Sarkil bat, izan daiteke; nun, izan be, idoro maisu bat egia argi ta garbi esango dauskuna? Bakotxak geitu edo gitxitu oi dau, bere naierara egiñik astun naiz ezti ikasle gazte egi-zaleentzat.

MEFISTOFELE.—Ikasteko, egiaz, epe bat baiño ez dago, eta nik uste dot zu erakusteko sasoian zagozala. Illargi asko ta eguzki batzuk igaro bear izan dabe zuri oar-ikasiaren osotasuna ar-azteko.

BATXILLERRA.—Experientzi-lana! Ke ta bits! Buru argi ta jei-ñua, ez al datorkigu sortzetik? Autor egizu: egundo jakin ez dnak, ez dau merezi ikastea.

MEFISTOFELE (*unetxo batez oldozkor egon ondoren*).—Orixe da. nire eritxipena be aspaldi danik. Zoro bat nintzan ni, ta orain neure buruari siñistu eragin dausat ezjakin eta arlote bat besterik ez nazala.

BATXILLERRA.—Atsegin yat ori. Azken batean be errazoiaren itzak dantzudaz. Zeu zara nik eretxi ta zentzu arruntez aurkitzen dodan lenengo agurea.

MEFISTOFELE.—Urre-pilla gorde bat billatu dot, eta ikatz-pikor zirtzilla baiño ez dot aurkitu.

BATXILLERRA.—AutOr egizu, zure buru soillak ez dauala balio, or aurrean daukazuzan buru-azur utsok baiño geiago.

MEFISTOFELE (*izkera biozkorrez*).—Beta zakar orrekin ez zara, ziurki, nire adiskide.

BATXILLERRA.—Doitxeraz bardin adeitsu naiz guzurti izatea.

MEFISTOFELE (*bere txirringadun jarlekuari proskenioraiño bultz-eragin eta lorategira zuzenduaz*).—Emen aizea ta argia falta yataz. Obeto biziko naz zuen artean, ezta olan?

BATXILLERRA.—Buru-eretxi ta oillarkeri aunditzat daukat garairik kaskarrenean, au da, zartzaroan, ezer izan ez dan garaian zerbait izan gura izatea. Giza-bizia, odolean datza; eta gaztaroan baiño obeto, noiz dabil odola? Garai ortan agertzen da bizi-bizirik odola, indartsu ta oparo, biziaren beraren bizi barri bat uste iza-teraiño ain. zuzen be. Orduantxe bakarrik zerbait egin daiteke. Auleria eltzean, indarra antzutzen. Zer egiten dozue zuok, guk

mundu erdia irabazten dogun bitartean? Ames egin, ausnartu, aztatu: egin-asmoak eta beti egin-asmoak! Beroen otz bat dozu ziur asko zaartzaroa, bear-izan luzatu baten sorgortasunean. Oge-tamar urteak igaro ezker, iltea oba litzakio gizonari; onena litzateke ilgo ba'zinduez bear orduan.

MEFIS^TOR^ELE.—Deabruak ez dauka oni buruz zer esanik.

BANALLERRA.—Neuk aintzat artu daroadana ezik, ez dago beste deabururik.

MEFISTOFELE (aopean).—Zabiltz kontuz, deabruak trikimailurik ipiñi ez dagizun.

BATXILLERRA.—Gaztearoko dei guren! Onek sortu arte, ez egoan mundurik. Neuk atera neban eguzkia odeien magaletik, eta neugaz asi ziran lurraren biraketak bere ibillian. Egun-senti egin zan lenengoz nire bide gaiñean, eta, ni mundura eltzean, lurra orlegi gertatu zan lenengo aldiz, eta loraz estaldua. Leen-gabea, neure zantzuz izar dirdaitsutan dardarazi zan zerua. Nok, bada, neuk ezik askatuko zaitu jauntxoan aurre-erexi aintzatsuotaz? Nerekiko, aske bait naz, eta neure gogoari dagokionez, neure barne-argiaren atzetik nabil alaitsu, ta neure aitzīñean dakust neure gaiñezkaldiaren diz-diz bizia. Eta zer? Oar nazanez, neutaz bestea illunpe dirala oso. (*Ba-doa*).

MEFISTOFELE.—Jator zara zeure aundi-ustean. Baiña galanta litzateke zure kezka ta oker-bearra, zeure buruari itaun bakar au egiteko gai ba'ziña: Nor da gauza gogapen bat eukiteko, tentel naiz zuur, joana aurrean izan bage? Guzti onek, baiña, ez gaitu larregi kezkatu bear; urte gitxiren buruan aldatuko dira gauzak; mustioak izan daikezan erarik bakanenak izanda be, a azkenez ardao biurtzen da beti.

(*Lortegiko jente gazteari, txalorik joten ez deutoelako*).

Zagoze, bai, gazteok, otz nire itzen aurrean; nik parkatzen dautzuet, Baiña oldoz: zaarra da deabrua, ta bera legetxe, zaar biurtu bearko gauzak ulertzeko!

LANTEGIA

Aro-Erdiko egituraz, askotariko tresnak, naasi ta itxurage, saio asmatuetarako.

WAGNER (*labatxoan*).—*Kanpaiak* durundu, ta bere oiartzun miragarriz dar-dar dagie kedarrak baltzitutako ormak; ezin daiteke geiago luzatu itxarote ain gurenaren zalantza. Illunpeak urratzen dira, eta, anpulu-barrenean, zerbait dago dirdirka ikatz bizia iduri; obeto esatearren, illunetan milla su-txingar jaurtzen ditun pitxi-gorri (errubi) dirdiratsu lez. Or agertzen da, ikus, argi soil zuria. Orain ez, ez daust iges egingo! A! , Jainko on, zer zarata orain atean?

MEFISTOFELE (*sartuaz*).—*Kaiso!* Adiskide lez naiatortzu.

WAGNER (*zoranez*).—Ondo etorria, gaurko izar ori! (*Ixillik*). Gorde egizuz beintzat aoan zeure itzak eta zeure arnasa: egintza aundi bat daukat burutu-agiñik.

MEFISTOFELE (*ixillago*).—*Zer* da jazoten?

WAGNER (*oraindik ixillago*).—Gizakume bat dago egiten.

MEFISTOFELE.—Gizakume bat? Zein bikote maitati daukazu, ba, ke-zuloan itxita?

WAGNER.—Lagun bekit Jainkoa! Lenagoko sort-era, olgeta lez daukagu gaur, egiazki. Biziak zapart dagian une samurrak, barrutik lurrun-giro datorren indar eztiak, artu ta emoten danak, lenengo urreko mamiñez eta gero urriñekoz janariturik, bere-berea dauan kemenaz eratu ta itxuratzen danak, orrek, guzti orrek gaur galdua dau bere duintasuna. Abereak, bai, jarrai daiala ortaz atsegintzen; baiña gizonak, goragoko gaitasunakaz orniduta daukagun ezkerro, etorki garbi ta goragokoa euki bear dau. (*Sutondorantz biurtzen da*). Begira, zelan dizdiz dagian orrek! Egi-egitan, eta gaur-gero, itxaron daikegu: eun gaikiz eta nastez —nasteak esan nai dau dana— giza-gaia beregain tankeratzera eltzen ba'gara, bonbil baten barruan atxⁱllotu ta bear dan bestean iraztea lortu ba' dagigu, egintza aundia osotuta geratuko da ezeren zarata barik. (*Barrero doa sutegirantz*). Ori jadetsiko da! Gero ta argitsuago binbilikatzen da orea, unetik unera sendoagotuz nire ustea. Zentzunezko saioak egiten gabiltz Izadiko misterioak deituen artean, eta onek osoz mamindua eskintzen dauskuna, guk orixe berori leiartzea jadetsiko dogu.

MEFISTOFELE.—Adiñak dakar oar-ikasia; luzaro bizi izan da narentzat, ez dago onezkero ezer barririk lur gaiñean. Nirekiko,

neure joan-etorrietan, gogoratzen naz, zelan idoro ditudan jente leiartuak.

WAGNER (*begiak, txeratsu, anpulura zorrozturik*).—*Au gorantz*a dator, onek dizdiz dagi, onek irakin diraki! Unetxo bat geiago, ta egintza burututa. Ona emen, egin-asmu bat lenengotan zentzumbakoa dirudiana; baiña aurrerantzean ezetsi geinke alanbearra, eta etorkizunean pentsalari on bat euki nai dogunean, buru eder bat sortuko dogu. (*Zorabiatuta lez honbilla begira*). Ikus zelan margoztuten dan leiarra ta dardarazten, eta indar bestelako batek zelan iraulzen dauan; au lausotu egiten eta *beste au* argitu; orrela gerta bear be. Gizontxo bat dakust bere itxura ederrean kiñuka, istak egiten. Zer geiago nai dogu? Zer geiago opa izan daike munduak? Ona emen, argitara agertzen dan misterio aundia, Adi zagoze! , tintin-ots ori, abotsa da; giza-iduria mintzoz!

GIZONTXOA (*anpuluaren barrenetik, Wagner'i*).—*Egun on, aita-txo!* Ikusten? Ez izan bildurrik! Estutu naizu zeure bular-gaiñean, maitekor! Baiña ez gogorregi, lejana ausi ez daiten. Auxe dozu gauzen izatea; berezkoentzat, doi-doi dozu naiko izadia, ta antzez egindakoentzat, ostera, utsarte mugatuaz naikoa dago. (*Mefistofele'ri*). Zu emen, zital! Jaun eta lengusu, mugonean gagoz, ta eskerrak damotzudaz; zori onak zakarz gugana. Munduan nago-ta, bolbol egin nai dot, eta ziburu zaburuka ibilli, eta bertatik lanean asi; zu naiko trebea zara bideak laburtzeko.

WAGNER.-hZ bat oraindik. Orainarte naste samar ikusi dot neure burua sarri, gazteak eta zaarrak euten korapillo ta goraberrakaz erasotzen ninduenean. Iñok be, adibidez, ezin izan dau ulertu, zelan gorputza ta arneak, ain ederki alkar artu ta doitzen diranak, alkarren artean t'nko, banandu eziñak esateraiño, irauten dabena, zelan alkarri eraso oi dautsoen aterbage, bizia pozoitzeraíño, ta gero...

MEFISTOFELE.—Geldi, arren! Aurretiaz itandu bear litzateke, zergaitik eraratzen diran ain txarto gizona ta emakumea; arlo au, maite, ausnargarri dozu. Emen, ba, zerbait egin bear; eta orixe da, ain zuzen be, txikiak nai dauana.

GIZONTXOA.—Zer da egin bear dana?

MEFISTOFELE (*alboko atea erakutsiz*).—*Erokus* emen artze ona.

WAGNER (*anpuluk begiak kendu barik*).—Egia esan, maltzur txiki atsegingarri bat zaitut.

(*Alboko atea edegiten; bertatik ikusten da Faust oian etzunda*).

GIzONTxOA (*arrituta*).—Bai ederra! (*Anpulua, Wagner'en eskutik iges eginda, Faust'eren gainez doa, au argituz oso*). Alkarte zoritsu: ur gardenak, sasitza naasiak, billosten diran emakumak, sorkari gurgarriak! Eurotatik batek, berariz, bere etorki gurena, doi-doi jainkozkoa, salatzen dau. Izpillu zidarrean jarten dau oiña, ta onen gorputz leiñargia berotu daroan sugar ezta ugiñaren leiar meean girotzen ditu. Baiña, bertatiko egozaplada astoratuak, zelako mormox eta kuxumuxuak, ixurki-galgapean zelako plisti-plasti indartsua! Neskatxak igesi doaz ikaratuta; erregiña bakarrrik gelditzen da orain, eta, begietan poza dauala, poztasun arro ta emakumezko bat; begira, zelan urbiltzen dan aren belaunetara kisneen errege-gaia, bildurti ta ausart batera. Ederto be ederto! Oituz doala dirudi. Baiña ona, odei batek, gora jagirik, zapi naasiz estaltzen dau ikuskizunik maitekorrena.

MEFISTOFELE.—Zer ez dozu zuk edestuko? Txikia zareala be, ameslari aundia zaitut. Ez dot nik ezer ikusten.

GIzONTxOA.—Siñisten dot. Iparrekoa zara zu; illunpeen, zal-dunerian eta lekaidegoaren garaian azi ziñan; zure begiak emen zelan ízan daitekez aske? Illunpeetan daukazu zeure lekua (*Bere ingurura begiak zorrozutz*). Arrizko ore baltz, geundu, iguingarri, zorrotz, uztaitu ta eratxia... Itxartzen ba'da, naigabe barriz oiñazetzeko izango; gere lekuan ilda geratzeko lain da. Oianen, kisneen, edertasun billosen barruan iturri biziak dagoz: susmoz beteriko amesa! Zelan oituko litzateke emen bat? Nik neuk, izakietan errezen onek, ozt-oztan daroat. Goazen! Burrukara beragaz!

MEFISTOFELE.—Irri-barreka daukat ibilketa.

GIzONTxOA.—Eroan gudari erasora ta neskatxa dantzara; ta guztia geratuko da txit erara. Oraintxe dator, egin-egiñean be, Walpurgis'ko gau jatorra, au da, bere giroa eroateko aurkitu leikenik biderik onena.

MEFISTOFELE.—Olakoz ez dot iñoiz ezer entzun.

GIzONTxOA.—Zelan elduko zan, ba, zure belarrietara? Zuek ez dozuez ezagutzen erromantikuen beste mundukoak ezik; egiazko sunbilla be izan daiteke jator, klasiku.

IVIEFIs-roFELE.—Zein alderditik cdatzen da bidea? Nazkagarri yataz bene-benetan neure antxiñako ikaskideak.

GlzOwrx0A.—Zuk kutunen dozun eskualdea, Satan, ipar-ekaldean dago; baiña, oraingoz, ego-ekera egaz dagigu. Ibai nasai bat dabil aske ta jori lautada zabalaren gaindi, zugatzak eta laarretak zaindari ditula, izpazter ezo ta ixiltsuetan; eta lautada ori mendien etenduretara luzatzen da, guztien gainean antxiñako ta gaurko Farsalia zabalduaz.

NIEFIsTOFELE.—Uf! Atzera! Ez cío niri olako auzirik, nauskert ta jopukeri artekoak; onek zanpatu ta nekarazten nau, barrero ez bait dira asten, eta iñor be ez da konturatzen aurrean daukala Asmodeu'ren opagaia. Askatasunaren alde burruka dagiela esan oi dabe, ta, ondo gogartuz gero, ez dabez eratzen jopuak jopuen aurkako crosoak baiño.

GdzONTx0A.—Laga gizonai euren berezko matxin-griña, bearezko bait da bakotxak al dauan lez norbere burua aldezte: umea azkenez gizon biurtuko da. Orain jakin bear dana, auxe da: zelan osa daiteken berau. Ba ete dozu osabiderik? Egin, ba, emen saioa; eta zuk ezin ba'dozu, itxi ori neure ardurara.

MEFISTOFELE.—Emen egin bearko litzakez saio txikiak, baiña jentil-aroa morroillopean dago. Gerkar errian ezta egundo be gauza aundirik izan; zentzun-jolasen askatasunez lilluratu oi zaitue bakar-bakarrik, eta pekatu alaictarako irabazi oi dau gizonen biotza; gure obenak, barriz, beti dira baltz-illunak. Eta orain, zer dagikegu?

GizoN-rx0A.—Zu ez zara izaten orren xaloa, ta Tesali'ko aztiz mintzo nakizunean, zerbait diñotzudala, nik uste.

MEFISTOFELE (*zain da* muin),—Tesali'ko aztiak! Ederto! Orreitzaz antxiña dala itunduta nago. Ez dot burura ekarri nai jente orreikaz gabak eta gabak emotea egoki ete litzakidanik; baiño areik ikusi nai ikusi ez, bardin daust niri.

GlzOwrx0A.—Emen daukazu soin-gaiñekoa; eda egizu zaldu-naren ingurumari. Berak zuzenduko zaitu batagz besteagana, oraiñarte egin dauan lez, eta neu noake aurretik, argi egiñaz.

WAGNER (*intzirika*)r—*Eta ni?*

GizOwrx0n.—A! , zu etxean geldituko zara, beste egiteko bat, garrantzitsua bera, burutu dagizun. Begira idaz-larrutxa zaarrak;

alkar egizuz, legeen araura, bizi-ekaiak, eta sailkatu eurak arretaz; oraindik geiago ausnar bear da zergaitia, baita ortarako bideak obeto ikasi be. Munduaren zati txiki bat zearkatzen dodan bitartean, onurakor yatana gisaz aurkitzen aleginduko naz; errazoi aundi bat dago jadetsi bearrekoa. Dana emon bear da olako sariagaitik: urre, dedu, ospe, osasun... eta bear bada aintza ta onoinena be bai. Agur!

WAGNER (*naigabetua*).—*Biotza* urratzen daust agur onek. Dardar-ikaraz jarten nau zu ez zaitudala geiago ikusiko gogo-emoteak bakarrik.

MEFIŠTOFELE.—Orain, ibai zabaleko laurantz. Lengusu au ez da nardagarri. (*Ikusleai*). Azkenean be, beti, egin ditugun sorkarien mende gagoz.

WALPURGIS-GAU JATORRA

Farsaliar Zelaiak
Illunpetan

ERnetu.—Ni, Erixto sotilla, olerkari errukarriak euren irudimen mardaillarian egin nauen baiño izugarri ezago, alan be, aurre-ra natorkizue, eta ez lenengo aldiz be, gualdi bildurgarri ontako jolasjaira... Ez dira iñoiz agortu, ezta agortu be, olerkari orrein unai-kantak, ezta euren kritikak be... Zurituaz doala dirudi dagoneko, an urrutira, denda urdin-arreen betetasunez, aran osoa, gau urduri ta izukor baten isla ta dirdira. Makiña bat bider barriztu da liskar au, eta zenbat aldiz oraindiño barriztuko dan, betiraun osoan...! Iñok ez dautso iñori itxi nai bere aginterria; indarrez beregandu ta indarrez daukanak, ez dautso iñori lagatzen, nor bakotxak ezin bait dau berenez bere burua jaurri ta zuzendu, ta bere auzokoaren naia zuzendu irritsak jaten dautso barrena, bere lera burgoiaren lege-arauera zuzendu be... Etzan ikasbide txarra emon erasoaldian, indarra indar gogorragoaren aurka, zelan apurtzen zan askatsunaren milla lorezko koroï ederra, ta ereiñotz idorra zelan tolosten dan irabazlearen g'ltzetan, ikusiaz. Ames dagi emen Aundiak aunditasunezko egun loratuakaz, eta an itxarrik dago Kaiser, aztaillu segura-ezari adi-adi, zelataka.

Suziriak dizdiz dagie gabaz, txinpart gorriak jaurtika; odol jarioaren diztira urrupatzen dau beeak, eta elendar ekanduzko taldeak alkartzen dita, gau-dirdira arrotz miresgarriak erakarrita. Su guztien bitan, ontzidi utsal bat iduri, aspaldiko egunen irudi itzalezkoa abailtzen *da* bere gogora... Gorantz dator illargia, ez bete oraindik, baiña dizditsu dagoneko, argitasun leuna nun-nai zabaldurik; denden lillura urtzen da, ta suak urdintzen.

Neure buru gaiñetik igaroten da argi-goiar uste-gabekoa; giza-boronbil bat zirt-zartu ta argitzen. Bizia darabilt sumoan; ez yat egoki biziengana urreratzea, neure susmoa daroatset eta; ortatik ez dot ateraten onura bageko izen txarra besterik. Beerantz dator boronbilla. Zuurki baztertzen naz. (*Urrintzen da*).

Egierats-bidaztiak goian

GOizoN-rxoA.—Txinpart eta izugarritzko sutegi onen gaiñ kulunkatuko gara barriro be; irel-suzko ta amukoak baiño ez dira ikusten ibar sakon guztian.

MEFisToFELE.—Ikaraparrizko mamuak dakustaz, leio zaar hatetik begiratuta lez, iparraldeko ondakin eta zikin artean; emen an lez, neure eskumenean aurkitzen naz beti.

GrzONTxon.—Ikus aundi ori, urrats-luze, geure aurretik doana.

MEFISTOFELE.—Ez yako atsegin, antza, gu egurats-zear ikustea.

GizONTxOA.—Laga egiozu joaten, jarein zaitez zeure zaldunagandik, eta bat-batean biurtuko yako bizia, amesezko erreñuan bilatzen dau-ta.

MEFISTOFELE (*beea ikutuz*).—*Nun* ete dago?

GizowrxOn.—Ez neunke esango; baiña ziur askorik emen emongo dautzue orren barri. Zabiltz arin, eguna argitu baiño leen; zoaz surik su aren lorratz billa; Ameenganaiño eldu daikenarentzat ez dago ezer be ezin danik.

/VIEFrSTEFELE.—Neuk be ba-dot neure eretxia; orain bioi one-na litzakigula deritxat, bakotxak bere pentzura suen gañdi ausartu dedilla. Eta gero alkar aurkitu daikegun, naikoa izango da, txiki, zeure argi-ontziaren dizdiz durundutsuari airean riirñir eragitea.

GizoNTxOn.—Begira, zelan ñirñir dagian, eta durundu. (*Argitasuna ta zurmurra dator leiarretik*). Orain, gertu! Betoz mirari barriak!

FAUST (*bakarrik*).—*Nun* dago no? Onezkero ez dot itaunduko... Beca ikutzen ez dauanean, kulunka bat dau jarraika, ta airea da aren izkeraz mintzaten. Alazkiro ikutu izan dot nik beea, Grezi'ko eskualde onetan. Ezpiritu batek amesetan besarka ba'na'gi, Anteu nazala uste dot indarrez; eta, emen batzarrak miresgarriena idoro bear dodan ezkerero, urrats gurenez arakutzen dot sugarrezko leza naasi au. (*Ba-doa urrinduz*).

MEFISTOFELE (*ara ta ona ibiliz*).—*Su* pitin oneitan zear alderrai nabillelarik, gero ta tokiz aldatuago somatzen naz. Nainun ez dago narru-gorria besterik or emen atorraren bat soilki ikusten dala. Andere-leoiak aalke bage, ega-leoiak lotsa barik eta beste izaki asko ez ego ez sapa agiri yataz aintzin-gibel. Gu egiaz loiak gara biotz-muiñean, baiña biziagi begitantzen yat antxiñakoa; gaurko gozagarriaren mende ipiñi bear litzake, ta bestelako erara, gaurko itxuraz jantzi-azo... Lekuz aldaturiko erri bat da, izan be; baiña ori ez da eragozpen, eldu-barri bat izanik, dagokion tankeraz agur egiteko... Egun on, emakuma ederrak eta grisondar zuurrak!

EGA-LEOIAK (*karraska*).—*Ez* gara grisoiak, ega-leoiak baiño. Iñori be ez yako eder grisoi deitzea; eta itzak, egin-egiñean, euren jatorrizko esan-naia dabe: grisa, grisoi ta kurrinkari, itxorkunkidegoak, guretzat kirrimarra aundi barik.

MEFISTOFELE.—Gaia agortzeko, dasagun orain erpa itza esanaiez ez dala askorik urrintzen ega-leoi izengoiti deduzkotik.

EGA-LEOIA (*gorago jagirik eta egoera ortan jarraiturik*).—*Erreza* dozu oso; itz bi onein kidegoa leendik be neurtua izan da; sarri, egia esan, iñaka egiña, baiña geiagotan goraldia. Neskatzak, koroik eta urrea atxikitzean, Zoriak irri-barre dagitsola atxikitzaileari, esan oi da.

INURRIA (*mota txit aundikoa*).—*Urreaz* mintzaten ete? Guk pillo aundiak metatuak genduzan, arkaitz-arte ta lezetan gorderik; baiña Arimaspotarren endak aurkitu euskun. Ikus an beean, ostu euskuelako barre-algaraz.

EGA-LEOIAK.—Autortzera beartu bear dira.

ARIMASPOTARRAK.—Orrela bedi, baiña gau-jai bete-betean. Emendik biar goizera dana jarriko da ardura aundipean; oraingoan ondo urtengo dausku gauzeak.

MEFISTOFELE (Awlere-leo *en artean jarririk*).—Beingoan eta errez egiten naz toki oneitara, nor nor dan bait dakit.

ANDERE-LEOI BAT. —Ezpiritu-otsak oiukatzen doguz guk, eta zuok, bertatic, gorputza emoten orrei. Izenta nagizu zuk orain, geiegi be ezagutzen zaitugu -ta.

MEFISTOFELE.—Entzutea danez, izen-kopuru aundiaz izentatzen nabe. Ba al da emen ingelesik? Geien baten, an-emenka dabiltz gudu-zelaiak, ur-jauziak, arresi arrakalduak, eta antxiñako edozer gauza bitxi ikuskatu ta aztarrenak artzeko. Zeregin duiña euren-dako. Antzokietako jolasaldí zaarretan be, Old Iniquity (Gaitz Zaarrean) bertan ikusi nebala ziñegin legikee.

ANDERE-LEOM.—Zelan joan ziran araiño?

MEFISTAFELE.—NerOnek be ez dakit.

ANDERE-LEMA.—Izan ete daiteke Ori? Baiña, ia, esaidazu: ezagutzen dozuz izarrak? Zer diñozu oraingo orduari buruz?

MEFISTOFELE (*begiak* jasoaz).—Izarrak egaz dagi izarraren ondoditik; illargi saiestuak garbi egiten dausku dizdiz; eta ni ondo nago emen, zure leoi-narruan berotzen nazalako. Gogaikarri da, itxura danez, goi-goi egazka galtzea. Laga egizuz ikusi-mikusiak, eta naiko bekizu igarkizunak egiñaz.

ANDERE-LEOIA.—Zeuk jarri egizu bat, eta ikusi mikusi bat izango yatzu ori. Azal egizuz bein beintzat ezkutuok: «Onurakor onari zein gaiztoari; onentzat bular-oskol da, erasoaldietarako; arentzat, zorakarietarako lagun; eta osoa Jainkotasunaren poza dozu».

LENENGO EGA-LEOIA (*graiietan*).—Ez yat ori atsegin.

BIGARREN EGA-LEOIA (*grauctan, gogorrago*).—Eta gurí_zer?

BIAK.—Emen ez dauka zeregiñik mamutzar traketsak.

MEFISTOFELE (*zabar be* zakar).—Maikidearen atzazkalak, uste dok, bear bada, zureak lez ez dabela txarrapata egiten? Ikus egik.

ANDERE-LEOIAK (*gozo-gozo*).—Lotu zaitkez; baiña, bear bada, gure obotik urten gurako dozu. Zeure lurraldean ondo aurkitzen zintzazan, eta, oker ez ba'nago, ez zagoz emen aren gozatsu.

MEFISTOFELE.—Goitik ikusita, jan-na zukoa da zure betartea; baiña, beetik begiratu ezkerro, izu-ikara sartzen daustazu.

ANDERE-LEOIA.—Azaluts! , dainu-latzez zatoz ona; gure zan-

goak osasuntsu daukazuz, ha, ta oin zaldi-kizkortuarenak ez dauka lekurik gure talde barruan.

(*Lamiñak kantatzen dabe goian*).

MEFISTOFEL.E.—Zer txori dira orrék, ibaiko eltxun-adarretan zabutzen diranok?

ANDERE-LEOIA.—Gorde. zaitez eurretaz. Orrein kantak sendoenak be azpiratzen ekien.

LAMIÑAK.—

Zetarako bizi zarie
izu-erreinu baltz ontan?
Entzun, bai, ona gu biran
Lamiñak deitzen garanok
abots-kanta gurenetan.

ANDERE-LEOIA (*isekaz, doiñu bardiñean kantari*):

Jatxi bearra dozue!
Erpa zaillak daukazuez
adar artean gorderik,
zuen kanta-entzuleai
ziria bapo sarturik,

LAMIÑAK.—

Ken begiko! , ken bekaitza!
alkar gaitezan poz betez
zerupetik leun egazka!
Naiz ur naiz lur bizia izan,
bedi jai, zalapart naiko,
bedi poz-irri gaiñezka.

METISTOFELE.—Ona emen asmakizun barri polit batzuk; ez-tarri edo ari-soiñua beste soiñu bategaz matazatzen dana. Txioketa orrek ba-dau nigan bere eragin etenbagea; baña entzumena oldez zaramazkatzen daustan arren, ez yat bera biotzeraiño sartzen.

ANDERE-LEOIA.—EZ eizu aitatu biotza: alperrik da. Zure bertartean obeto egokituko litzateke narru kizkartuzko zaku bat.

FAUST (*aurreratuz*),—Oi, gauza arrigarri! Ikuskaria bat dator nire gogapenakaz; bere lerro aundi ta sakonen iguingarrian ha-dagoneko aldezko alanbear baten susmoa. Nora narokia begitu guren orrek? (*Andere-leoia oar-erazoz*). Onein aurrean Edipo jagiko da egunen baten (*Lamiñakana zuzendurik*); beste onein aurrean Odise

bere kalamuzko lotura barruan biur-azo zan; areik (*Iñiirriak*) altxorrik bakanena pillatzen jakⁱn eben; eta beste areik (*Ega-leoiak*), altxor ori zintzo ta jausi-aldi barik, zaintzen jakin eben. Adore suarrak joa nago. Irudi aundiak eta oroipen aundiak!

MERdsToFELE.—Beste garai batean ez zendun biraorik naiko izango onako erraza batentzat; baiña orain obeto zagoz. Aitzekoa da: maite dogunaren billa gabiltzanean, mamuak eurak be ondotorriak **izan** oi dita.

FAUST (*Andere-leoiari*).—Esaidazue, andere-irucliok: zuotariko iñork ikusi ete dau Elena?

ANDERE-LEOtA.—Aren garairx:ño ez gana eltzen, Erkul'ek il-azo bait eban guretariko azkenak. Kiron'i itaundu zeinkeo, amesezko gau onetan erronda dagianari; zeugaitik Jotzen baldin ba'da, zure auzia bide onean sartuko da.

LAAHÑAK.—Ez zaite origaitik bildur izan. Odis gugaz lotu zanean, gauzarik asko edestu euskuzan; geuk be axe bera edestuko dautzugu, itxasoko zabal-une orlegietan gal ba'zadiz.

ANDERE-LEOIA.—Gizaki pres u, urrin zaitez zoratzalleengandik, Gure aolku ona bekizu Odis lotu eben lokarria. Kiron garaia idoro al ba'dozu, jakingo dozu zer agindu dautzudan.

(*Ba-doa*)

MEFISTOFE LE (*aldarte onaz*).—Nortzuk dagie kro-kro, ego-zar-taka? Bizkor be bizkor doaz, aizea bera be konturatzen ez dala; eta beti doaz erreskadan, bata aurretik eta bestea atzetik. Azke-nez be, nekaraziko dabe eiztaria.

ANDERE-LEotA.—Ozt-oztan eltzen dira eurakana Alkide'ren ge-ziak, neguko ekaitzak lez diranak: Estinfalitar usuak dituzu. Zantzu ona da orrein agerpena. S'aiaren mokoaz eta antzar-zangoaz, geure tarteko dirala erakutsi nai dabe, aurki, ta geure taldeko egin.

MEFISTOFELF. (*erdi-bildurrez*).—Zer dago or barruan txistuka, orri azpian?

ANDERE-LEOIA.—EZ izan bildurrik: Lerna'ren suge-buruak, çi-ra; enborretik bananduta egonda be, oraindik zerbait iruditzen dabela-ta dagoz. Baiña, esaidazue, zer egiten zoaze? Zetarako ainbeste kezka-erakutsi? Ezin daiket jakin norantz zoazen? Zoaze enez_kero. Bai, ulertzen dot, begi-aurre daukazun erestalde orrek dar-clarazten zaitula; baiño ez dozu ori dala-ta astoratu bearrik, ain-

bat betarte xarmanti agur egitera leiatu baiño. Lamiña eder-galan-tak dozuz, ezpanak irribarrez ta bekokiak alai, Giz-akerrak eder dabezan legez. Aker-zango bat gertu egon bear dau edozetarako.

MEFISTOFELE.—Emen geratzen zarie, beraz, bitartean? Itzul-zean, ementxe aurkitu nai zaituet.

ANDERE-LEOIA.—GUra dozun lez. Itsatsi zaite erle-mulko al-derrai dabillen oni. Gu, Egipto'tik etorrita, oiturik gagoz antxiña-antxiñatik bakotxa mende ta mendetan erregiña izaten; begirunez ikusia izan da beti gure ogea, eta olaxe atondu oi dogu illargiaren eta eguzkiaren ibilaldien gurgilla; Piramide aurrean gagoz jeza-rrita, erriak, uiolak, guduak eta bakea ikustatuz, gure betartea beti be igige ta tenk dagoala.

PENEIOS

Urez eta maitederrez inguratuta

PENEITARRAK.—Kulunka zuok, ur-erregiñok! Ar arnasa, zuok larrosoondo leunok; zuok, sarats adar malgudunok, egin intziri samur; zuok, zumar dardaratiok, abots ezti gozatu nire lo etena! Bat-bateko ikarak, bada, neure atsedeen-aldi gozotik itxartu nau.

FAUST (*ibai-ertzez ibilki*).—*Txarto* entzun ez ba'dot, giza-abo-tsa jalgi da orri-adarrezko mataza naasi orren ostetik. Ezkutuz be-teriko itzak gurgurtzen ditula emen dirudi ibaiak, eta aize meak txistu segailak.

MAITIGARRIAK (Faust' i).—

Zatoz ur-zelaira,
ozkirri ta bare,
zatoz gure uñiera;
ementxe zagoz nare,
emen poz osoa;
guk soiñu, guk ixur,
guk solas gozoa.

FAUST.—Orain, bai, itxartzen naz! Zabuka, itxura bardin-ba-geok, nire begiok an eta emen gozo bait dabiltz. Zelan zorabioa somatzen dodan neure arimearen ondarrean! Baiña, amesak ala go-mutapenak ete dira? Beiñola orditu nindun antzeko aragi-irritsak.

Urak laban dagie adar trinkoen ezotasunaren zear, leunki erabilliak diranetan zear noski. Ez yake entzuten, ezta murmurrik be. Andik eta emendik iturriak alkartzera datoz, usgune garden batean, bus-tialdira dei dagiskula. O, gazte-itxura ta emakume-eskerrak, leiar ezeak bikoizturik eskintzen dauzanak, begi-betegarri! Or askotari-ko baiñulari lizunkoiak, batzuk ausart igerika, ta beste batzuk lotsor eta bildurti; zelako garraziak! , zelako erasoak triskalarien artean! Ikuskari onek naikotu bear leuskit ikus-irrika, ta nire ikusmenak ez leuke geiago eskatu bear; baiña nire ezpirituak urriñago jo bear dau oindiño, eta nire begitu zorrotzak abar-arte aretan kokatu bear dau, no gurena ezkututzen dauan ostotza muskerrean. O, gauza miresgarri! Emen datoz uger, oian sakonetatik igeska, kisne pertxentak, eragin leun gozoan dakaz; baiña arroak dira, ta bularrak aintzaz beterik erakusten dabez, buru ta mokoai ara ta ona erag'ñik. Euretatik batek, bularra besteak baiño geiago aterarik, aurrea artzen dautse enparauai; onen lumadia puztuten da arro, eta, olatuak olatu gainditurik, jauretzerantza zuzentzen da. Gaiñerakoak bare ta dizditsu dabiltz ur-gaiñez; baiña, itzetik ortzera, or nekatx gaixo bildurtuen aurka doaz, craso aintzatsuan; oneik oro aztuten dira orduan seaska sagaratuaren ingurumari dauken egitekoaz, eta euren butua gaizkatzea besterik ez dabe gogoan.

MAITEDERRAK.-

Adi, otoi, adi, aitzok,
ur-ertz orlegi ortatik!
Ba-dantzut, ondo datorkit
zaldi-apatx otsa lako.
Geznari ba'da, zer izpar
gaur gabean ekarriko?

FAUsT.—Lurrak, izan be, intziri dagiala dirudi zaldi arin baten urrats durundupean. Artez daukadaz begiak. Neure aldeko zuria ez lortu bai lortu ete nago? O, alatz bardiñik bako! Or dator lauoiñean zaldizko bat, zarden galanta, zaldi zuri dizditsu baten gaiñean... Ez dagit utsik, ez; ezagutzen dot; Filira'ren seme aspe-tsua da! Geldi emen, Kiron! Itz-egin bear dautzut.

KtRON.—Zer dogu?

FAUsT—Emon neurriz zeure oinkadak.

KugoN.—Ez daukat egoterik.

FAUST, __Eroan naizu, orduan, zeugaz; arren, eskatzen dautzut.

KtRoN.—Igon, bada, garzelaira. Nora joan nai dozu? Ibaiaren ertzean gagoz orain. Nai badozu, bestekaldera igaroko zaitut.

FAUST (*Kiron giza-zaidira igonaz*).—*Nai* dozun lekura, eroan naizu. Ilana dala, beti-betiko esker ona erakutsiko dautzut, une ontatik erakutsi be. O, gizaseme argi, ezitzaille ospetsu, zeure aintzarako gizaki aundien erri osoa ezi ta azi zenduan, baita Argonauten saldo bikaiña be, ta olertiaren erresuma zabaleko sortzaille guztiak!

KTRoN.—Ori laga daigun orain. Pala'k berak ez zituan dedo orreik lortu Mentor'en gezipean. Ikasleak azkenez eurak nai dabena egitera eltzen iñok ezer erakutsi ez ba'leutse lez.

FAUST.—Zugan besarkatzen dot, gogo ta soiñeko indar guztiz, landaren izenak dakizan sendagillea, bakan eta apalenetatik ezkututsuenetaraiñoko guztiak ezagutzen dabezana, gaixoari osaduna ta zaurituari bakea biurtzen dautsozana!

KIRON.—Nik beti eskiñi neutson onua ta laguntza neure ondoan jausi zan gizurenari; baiña azkenean atsoai ta apaizai laga dautset neure egitekoa, neure antzea.

FAUST.—Egi-egiaz zara goralpen-billa ez zabiltzan gizona, erabidez gauzak beti dagizuzana, eta egiten danari gorarik emoteke jokatzen dozuna, munduan zeure antzeko asko dagozala, uste dozulako.

KiRoN.—Azaluts trebe baten itxura dozu, erregegaiak eta erria igurtzi ta eskamak egiten batez be.

FaUsr—Autortuko daustazu, alan be, zeure garaiko gizasemerik argienak ezagutu zenduzala, zeure egintzetan beti be aldiririk onena billatu zendula, eta erdi-jainko bati dagokiozan egiteko aundiak burutu zenduzala, Olan dalarik, esaidazu; giza-eredu guz zein ete da zuretzat kementsuena? |

KtRoN.—Argonauten saldo gurenean, zangar zan bakotxa bere neurrira, eta barne-oldarrak bizkortu-arauz, enparauak menperatzen ziran lekuan bakotxa be antxe irauteko lain izan oi zan. Dioskuroak izan ziran beti gaztetasunaren eta edertasunaren oberenak. Boreatarren gaitasun autak izan ziran erabagia ta besteai laguntza eskintzeko bizkortasuna, Andrazkoentzat ain atsegingarri zan Jason

jaun eta jaube izan zan begiratua ta onu-artzen erreza, zuurtasunez beteaz izan zalako batez be. Orfeu, osteraz, zentzunduna ta samurra zan, eta ez eban parekorik lira-joten. Linkeu motsuak be ez eban kidekorik ontzi sagaratua, gau ta egun, uarriartetik zear eroaten. Arriskua olan guztien artean jasan oi da; batek, lan dagi ta besteak txalotu.

FAUST.—EZ diñozu ezer Erkul'i buruz?

KIRON.—A, doakabea! Zergaitik zoldu-azten nire samina?... Ez neban oraindik Poibu ezagutzen, ezta Ares, ez Hermes be, guztien ezagunak izan arren, eta neure begien aurrean euki bear izan neban gizakume guztiak jainkotzat daukiena. Mutil **egiaz**—ki, begi-betegarria, bere anai zaarragoen mendeko, eta esaneko baita bere emazte maitegarriari. Gea'k ezin leikean beste antzeko bat erdi-egin, ezta Ebe'k eingo eban inoiz Olinpu'ra eroan. Ereserkiak alperrik oiñazetzen dira, eta arria be alperrik alatu-azten.

FAUST.—Tailugilleak ondo dagie a txurdiña pairatuaz, bestela ez leukie egundo be betarte aintzagarririk eskiñiko. Baiña gizakumerik ederrenaz mintzatu zaiatazan ezkerok, mintza zakidaz orain emakumerik ederrenaz.

KIRON.—Nor da? Emakumeen edertasunaren orrek ez dau ezer adierazo nai; sarri iduri otza besterik ez da. Nik ez dot izakirik ikusten, bizia pilpilka erakutsi oi dauanagan izan ezik. Ederra, bada, bere kautan ezik, ez da bizi; eskerra da jarki-gaitz egin oi dana, Elena lez, nik eroan nebanean.

FAUST.—Eroan zendula, diñostazu?

KIRON.—Neure garzelaian, zeu orain lez.

FAUST.—Au zirrara gozo! Au poza! Leku berean jarririk!

KIRON.—A be neure zaldiari oratuta joian, zuek orain dagizun lez.

FAUST.—Oi, zoramena! Biraka dabilkit burua. Esaidazu, edes niri. Axe da nire gogomin bakarra. Nun artu zenduan? Eta nora eroan? Mintzo!

KIRON.—Zuk itaunduak izango dabe erantzuna, baiña ez naigabe barik. Garai aretan, Dioskuroak askatua eben umea arrapatzaileen eskuetatik; baña oneik, inoren mende egoten oitu baakoak ziralako, arein atzetik jo eben sumindurik. Eleusi-zingiran geratu ziran nebak euren abiada bizkorrean, eratsiak izan ziran

guztiak istinga-lokatzean. Nik jgen igaro neban alderdi a, ta Elena'k saltu egin eban nire gainera, nik ezko neukazan grinak txeraz ikutu ta ponpox eskerrak emana. Xarmanta egoan. Lora gozagarria zan zaar batentzat.

FAUST.—Zazpi urte doi-doi!

KILTON,—Orduantxe ezagutu nitun izkuntzalariak, ernaitara okerra daroenak, eta okerrean bizi diran eurak be. Emakume mitologikua beste zerbait da. Olerkariak tankeratzen dau, bere kas-ketaldiaren neurrira; ez da inoiz eltzen aundi izatera, ez da egundo zaartzen, eta gazte agur esan oi vako. Olerkariak, itz batez, aldia ez dau ezertarako be aintzat artzen.

FAUST,—A! , no ez dago egon be aldiaren arau barruan! Akil' ek idoro ebanean, alditik kanpo egoan izatez ta egitez. Zorion aundi, maitasun ulert-ezin, a alanberraren aurka! Ezingo neunkc nik, neure gurariaren indarketa soilez, itxura bakan orri bizia emon? Zuk ikusi zenduan beste orduz izaki betikor ori, erregeen endako, aundi baizen samur, guren baizen guztientzat maitagarri; nik gaur ikusi dot, gaur berton, eder baizen ernagarri ta ernagarri baizen gogarazle, Nire zentzunak oro, nire izan osoa, geroztik atxillo artuak dagoz; ezingo naz gaur-gero bizi, a neuganatzera eltzen ez ba 'naz.

KIRON.—Zuk, arrotz, gizaki zara-ta, samiñaldi lez artzen dozuna, ezpirituentzako atseginaldi betea da. Ez ikara; dana eratu daikegu zeure zorionaren asebetera. Urtero emon oi ditut une batzuk Manto'ren etxean, Eskulapio'ren alabearenean; an, aopeka, alabeak aitari otoitz egin daúso, arren, sendagilleen ezpiritua argitu dagian eta azartasun eraletik askatu. Sibilatarren artean orixe da nik laztanen dodana, zan-biurketa zororik egiteke, zuurra ta ezitia dalako; eta orretzek; eta ez bestek, osatuko zaitu, ortara jarten ba'zara, bedarren adorez.

FAUST.—Baiña, zertatik osatu? Sendo dago nire ezpiritua! Abereu egingo nintzateke, besteak lez.

KIRON.—Ez egizu ezetsi sorburu ain gurenaren salbamena. Eta, orain, jatsi zaitez: eldu gara.

FAUST.—Nora ekarri nozu, gau illunean, ondartza bustiak zear katurik? Esan nai daustazu zein ur-ertz dan au?

KnzoN.—Emen burukatu ziran izkilluz Grezia ta Erroma, Pe-

nei eskuman eta Olinpu ezkerrean izanik, ondartzetan galtzen dan erreñu zabala eurengandu nairik. Erregearen igesak uritarraren garaikuntza adierazo nai dau. Begira or, ez urrin be, illargitara, jauretxe betikoa, jazokun ori adierazteko eraikia.

MANTO (*bere kautan ameska*).—Bebarru donea... zaldun baten zango-otsez... beteten da... Erdi-jainkoak aurrerantz datoz...

KIRON.—Ederto! Begiak zabaldu bakar-bakarrik.

MANTO (*esnaturik*).—*Ondo* etorria. Ez daustazu uts-egin, dakustanez.

KIRON.—Zutik dago zure jauretxea?

MANTO.—Zelaiak zear zabiltz zu aspertu barik?

KIRON.—Zu ixillaren eta atsedenaren magalean bizi zarean bitartean, laket izango yat niri munduan zear ibiltea.

MANTO.—Ni beti nago zain; aldiak biratzen nau. Eta lagun dakarzun ori? Nor dogu?

KIRON.—Gau madarikatuak ekarri dau alderdi ontara, bere aize-zirimolean. Elena'ren billa dabil, burutik egiña; beretzat nai dau, baiña ez daki zelan ez nundik asi; osabidea bear dau, Eskulapio'k emon daikenik onena.

MANTO.—Eder yat eziñaz ames dagiana. (*Kiron onezkero asko be asko urrindu da*). Zoaz arin, ausart ori; poztu zaitez; zumardi illun orrek Persefone'gana daroa, Olinpu'ko lurpe sakonetan osasuna zaindu ta babesten dauanarengana. Beste bein be Orfeu ara zuzendu neban; zuk ak baiño protxu geiago atera zeinke, Erne, ta adore!

(*Ba-doa*z jatsirik).

PENEIOS GAIÑEAN

LAMIÑAK,—Zatoze Peneios uretara; pilisti-palasta ibilli bear da eurotan, eta kantak, kantak oikatu batera, enda zorigaiztokoari poza emoteko. Ur bage ez dago osasunik... Eta goazen orain aldra ditzitsuan Egeu itxasorantza, an bait ditugu zain atsegina-mota guztiak.

(*Lur-ikara*).

LAMIÑAx.—Olatuak baztertuz doa, bits-aparrez koroiuak,

euren uaskaz ibilteke; intziri *dagi* lurrak; ura irakiten; odeiak daragoio, ta ur-egala ketan. Alde daigun emendik! Erdue danok. Gauza miragarritzko au ez da iñorentzat be onuragarri.

Erne, adiskide prestu ta alaiak! Begira itxasoaren jaialdi jaba-ur-ertza bustitzera doazan uñak, gozo-gozo anpatuak, dizdiz dagie dardari. An beean bizkor ta aske bizi bear da; emen goian ez dago lur-ikara izugarria besterik. Zuur diranak oro gertu beitez joateko! Toki oneitan latz-ikara da bakar-bakarrik jaun eta jaube.

LUR-IKARA (*kurrinkari ta barnean ekaitzak tximistaka*).—*Astiñaldi* bat, bultzada sendo barri bat, eta goiak jadetsiko doguz, orok bidea edegi bear dauskun gaiñak, jadetsi be.

ANDERE-LE0tAK.—Izu-ikara lazkor! Ekaitz bildurgarri! Zelako astiñaldia ta zelako dardara! Oro dago ikaraz, jausi-zorian. Eutsi-eziña da egoera au, baiña guk, infernu osoa geure aurka asaldatu arren, zutik, geurean iraungo dogu.

Ona beingoan, eta miragarriro, uztai-kasko bat gorantza doa; zaar baten egitez da, buru-zuri dagoneko, Delo'ko ugarteia jaso ta uretatik urten-azo ebana bera, alper baten maitasunarren unten-azo be. Gogor dago oraindik, arnas-estuka, egin-indarrez auldua, besoak tinko ta makur sorbaldea, Atlante baten ítxuraz, gure itxas-egaletako zorua, bedarra, lurra, gibel-arriak, ondarra ta azpi guztia jasorik. Beragaz daroa abe-gizantz eskerga ta mandoa, bere lanean bakarrik begiak tenk, arri-mukuru ikaragarria, bularreraño estaltzen dauana; ez da, alan be, urrin joango, aren tokia Andere-leoiak artu dabe-ta.

LUR-IKARA.—Neu naz, neu naz, dan-dan ori egin dauana; baiña azkenez egokiro aurkituko da, nire orroe ta astiñaldi bage, ba, zelan mundua eder izan? Zelan jagiko litzakezan orain zuen mendikateak eguratseko urdin garden aratzean, neuk neure oldez jaso ezpa-nitun, ikuskizun garbal zoragarria lortzeko, geure aurretiko zaarreenen aurrena, ots, Naspil eta Gauaren aurrean, Titan'ekin batean, Pelion eta Artza'gaz, pelotari jokatzuz, bulartsu ta eragikor agertu nintzanean? Baiña ez gintzazan ortan gelditu; are geiago, ero lez urtu genduan geure gazte-adorea, Parnaso gaiñean mendi bi orreik, txano bikoitz antzera, jarri genduan arte. Apol'ek orrela egin al izan eban euren gaiñ egonleku alaitsua, Musa ezti taldeaz inguraturik... Neuk jasoia da Jupiter bera be, bere aulkian, bere

txitnstakin; eta orain barritu barrí ditut neure indarrak, lezaren ondotik neure burua altxa-azoaz, eta abots zoli dei dagitset ango ta emengo biztanle alai, bizi barria ber-asi dagien.

ANDERE-LEOtaX.—Arrotz au urriñetik datorrela esan leikean, geuk ikusi ez ba'gendu ementxe bertan azpitik urteten. Basarte trinko bat edatzen da ur-ertzetan zear, eta arkaizetak metatzen; baiña guretzat, Andere-leoiontzat, alperrik da aldakuntza ori, gu ez bait gata joango; gu ez gaitu inok ez ezek geure gelditasun sagaratutik aterako.

EGA-LEmaX.—Urrea dakust dardarka, orri ta galtzuetan, zirrkutu ta arrakaletatik barrena. Ez itxi olako altxorra inok eroaten. Ernai danok! Lanera bizkor!

IÑURRI-TALDEA.—Arin, giñerantza, erraldioen oiñatzai jarraituz! Trebe zaitetze, lanaz egundo aspertu barik! Arrakaletan ez dago zokorik, eukitea merezi ez dauanik, ezta gauza nardagarririk be, naiz-ta pitiña izan. Zaitetze beti leber ta eginkor, inurri-gudarozteok! Itxi daiguzan onezkero mendiak; guretzat urrea!

ementxe! Upelka dago emen urrea; sar daiguzan bertan geure erpak, eta jar daioguzan berari morroillorik ondoen urtuak. Olan bapo gordea izango da altxor bere bizikoa.

EPOTXAK.—Guk lekua artu dogu, Zelan? Ez dakigu. Ez daigula inok itandu nundik gatozan, leendik be inoiz emen egonak gara-ta. Edozein lurralde on izan daiteke bertan alai bizi izateko. Kanean edegitako zirritua txiki izando be, bide izten dautso epotxari. Epotx-arra ta epotx-emea bertatik lanean asten dira, ta bikote bakotxa arrez gero bestelakoa dozu. Ez dakit nik atsegintegian gauzak orrela jazoten diranik. Baiña emen atsegin yaku olan jazotea, ta esker onez onesten geure izarra, lur-amak, bada, sor-kalde ta sarkalde, ORO ekarri oi dau bere oldez ta naitara.

ATZ-JA socOmc—Gau bat bakarrean sof ba'zitian izaki txikiak, orrelaxe erne-azoko ditu pitiñenak be, kidekoak emonaz buztartu daitezana.

EPOTXIK ZAARRENA.—Agudo! Gertu zeuen lekuak artzeko! Lanera bizkor! Trebeki erabil bear dozue indarra. Bakea da oin-diño nagusi, baiña etzaitetze nagi ibilli indar gertetan, ernai gudarozte bat eratzeko, ezpataz ta ezkutuz. Eskura eiguzu zuk, inurri-tegi langille, bear dogun burdiña; eta zuok, Atz-jasekuok —ize-

nik bako izaki nimiño—, araka basoak, naasi sugar ezkututsuak, eta egiguzue ikatza.

BURUZAGIA.—Urten bIzkor landara, uztai ta geziz; il eidazuez istinga onetan, garait-uste ta puzgoz gaiñezka, millaka dabiltzan koartzak! Guztiok ager gaitezala gudari bat bera, buru-galdor ta oskolez.

INURRIAK ETA ATZ-JASEKOAK.—NOK gaizkatuko gaitu? Guk burdiñea gaitzen dogu ta eurak dagiez kateiak. Baiña gu gaitezan beti zintzo, guri ez yaku ba oindiño geure buruaren jaube izateko ordua eldu.

KURRILLOAK.—Ilte-garrasiak eta erio-negarrak! Ego-dardara erdiragarriak! Intziri ta negar-zotiñak: or zer yatorkun gaiñalde onetaraiño. Illak izan dira sorkariak oro, ta odolez gorri daukagu istinga. Asarre gaitzak erauzi dautso g'zurenari bere lumadi sotilla, ta orain zabu-zabuka dabil zital sabel-zuri ta ankoker onein buru gaiñetan... Apen artzera dei dagitzugu zuoi, itxasoko gizuren bidaztioi, geure gudarozteko zaituegula; auzi au zuoi be urretik dagokizuena da. Ez dagiala iñortxok be ez bere indarra eta ez bere odola urrituz emon. Betiren betiko gerra enda orri!

(*Aidean zear barraiatzen dira, karraska*).

MEFISTOFELE (lauan).—Ondo jakin dot Iparreko aztiak esan egin dagiedana egiten, baña ez yat egin-egiñean orobat jazo beste Ezpirituakaz. Bliakberg toki oso egokia da, nainun aurkituta be. Beti daukagu zain *Ilze* andrea bere arrian; eta *Henri* be beti dago pozik bere gaiñaldean; beste aldetik, *Zurrungalariak* Lazeriari, gurgur pizkat dagitsen arren, millaka urtetan orrela diardue. Nok daki emen nun dagoan ala norantz ete doan? Nok ziurpetu daikegu azpia ez yatala puztuten asiko itzetik ortzera? Iñoizkorik nareen zelai ezne ixillean zear noala, mendi bat jagiten da supituan, nire itzetik; egi osoa esateko, ez da bene-benetako mendi bat, baiña ni Andere-leoietatik banantzeko beste goibe dauko. An beean, aranean, su bat baiño geiago dagoz txinpartaka, ketan; eta neure biran dantzari daukat abestalde sotilla, ni lilluratuz eta nigandik urrinduz gero kiñu lotsagaldukoakaz. Biotz on, bada! Nun: nai izan, aokada onen atzetik ibilten oituta gagozanok, billa dagigun emen be zerbait.

LAMIÑAK (*Mefistofele, eurakana eroanik*).—*Agudo!* Azkar!

Goazen emendik urrin be urrin...! Eder da, arrantzale zaarra, bere autuan oraindik atzeratua, jarraika dogula jakitea...! Urratsor dator, plisti-plasta, negar-bidera lez; eta nartas dakar berna bat, gure igesari jarrai.

MEFISTOFELE (geldituz).—Alanbear zital! Gizakume azpiz egiñak! Betiko ezpaiak, Adan'engandik! Zaar biurtzen oro, baiña nor egiten ete jakintsu? Zu ez ete ziñan naiko sorgindua izan? jakin dakigunez, funtsean, ez dau ezer balio soin erkin ta arpegi apaingarriz beteriko enda onek; ezin daiketzuee eme orreik ezer en-ion, eta euren azbegirik ikutu ba'dagizue, usteldurik aurkituko dozuez. jakiña da guzti ori, ikusten dana, ta oartzen; eta, alan be, galdu alenak! , txistua jo ezkeru, euren atzetik doaz.

LAMIÑAK (gelditurik).—Geldi; gogo-emoten dago, ezmezean, tenk geratzen da. Biur zaitzeze arengana, jarrai datorrigun eta itzuri ez dakigun.

MEFISTOFELE (bere bidez doata).—Aurrera! Ez gaizan ezpaiak azpiratu; azken batean be, aztirik ez ba'lego, zein deabru etorriko deabru izaten?

LAMIÑAK (abots samur laztankorrez).—Irre dagigun gizuren onen biran; onek, duda-muda bagarik, guretatik batenganako maitasuna sort-aziko dau aren biotzean.

MERsToPELE.—Egi-egiaz, une onen zalantzazko argitasunera, emakume ederrak iruditzen zaiataze, ta ez daukot zuok zertan gaizki arturik.

ENPOUSA (tartaraturik).—Ezta nik be. Itxi, otoi, zuokanatu nadin, sendi bardiñekoak gara-ta.

LAMIÑAK.—Geure obo barruan dago berau he, ta geure jokua ondatu besterik ez dausku egiten.

ENPOUSA (Alefistofele'ri).—Ar egizu Enpousa'ren agurra, lengusiña, astoankadun andrakidea. Zaldi-zango bat baiño ez daukazun arren, osasun! , jaube ta lengusu.

MEFISTOFELE.—EMen, uste neban, ez nebala idoroko jente ez-ezaguna besterik, eta dakustana, ai! , aide urkoak dira. Idazti zaar bat da au, orriak aldatzeko. Marz'tik Hellas'era, beti lengusuak.

EN^PoUsA.—Gertu nago lanerako, ta eun itxura artu dagikedaz, baiña zure omenez, asta-buru txiki au artu dotr

MEFISTOFELE.—Oar nazanez, jente onek aunditzat dauko aideasuna; baiña nik, alan be, bear balitz, uko egingo dautsot astaburuari.

LAMIÑAK.—Laga sorkari bildurgarri ori; uxatu egingo dau zuri eder eta maitagarri deritxazun guztia; buru ori urreratzean, ederra ta liraintasuna bertatik urtzen.

MEFISTOFELE.—Lengusiñatxoak oso zorakor lardenak izanik be, guztiai buruz zanak jo oi nau; euren matrail-larrosapean aldatetaren bat ez ete dan izango bildur naz beti.

LAMIÑAK.—Azter gagizuz; asko gara, dakusunez; atsegin ba' dozu jokua, ar egizu onena naiz onenak gure artetik. Zetarako inkesa ta asgora aulok? Etzara limurtzaille gaixo bat besterik; errazoi barik oillartu ta tartainduten zara... Eta gure alderdira zatorkiguz. Ken egizuz katamalo orreik banan-banan, ta ager zaitez zareanez.

MEFISTOFELE.—Begiz joa dot onezkero liraiñena... (*Mosukatuz*). O, ni bai doakabe! Isats lakar bat da! (*Bardin, beste bat*). Eta au be bai! au betarte ikaragarri!

LAMIÑAK.—Zuk, orraitino, merezi ete dozu besterik? Guk ezetz uste.

MEFISTOFELE.—Txikiena arrapatu gura dot, eta musker bat da bere besoa, eskuetatik labantzen yatana; ondoren baita iges dagist euretatik aren kopeta ziriko-antzekoak be, sugea bai litzan... Ordaintzeko, zaarrarengana jo dot, eta onek moskol bat dauka buruztat. Zer diraust guzti onek? Bat geratzen da oindiño, naiko lodia, neure poza izan daitekena, ta azkenengoz atomau ta arriskatzen naz... Zingilla da, belaska; sorkaldekoak salneurri onean erosi oi dabez onako altxorrak; nireztat, ostera, ler egindako ardontzia lakoxea da.

LAMIÑAK.—Laga lerroak; itzuli ta zabilte zabu-zabuka; inguratu zeuen talde illunez aztien seme nardagarria! Men, obo koloka ta izugarri orrek! Men, zuok be, ego ixildun saguzarrok...! Ez yako oni emendik onez urteten itxi bear.

MEFISTOFELE (*indarka botaz*).—Ez dot jakituri aundiagorik neuretu, itxura danez; emen, Iparraldean lez, suster-bakoa da igaroz doana; emen, an beean lez, sunbillak izugarri dituzu, eta erria ta olerkariak, gatz-bakoak. Oro da asto-joko bat: zentzunen ake-

larre, edozein tokitan lez. Ustekabez luzatu ditut neure eskuak kukumarro artetik, eta ez dabe oratu izua sortu izan dausten izakiak baiño. Eta oraindik neure gurariz ziria sartuko dausat neure buruari, au geiegi luzatzen dalakoaren bildurrez. (*Arkaitz artean galtzen da*). Nun dago, baiña? Norantz zuzentzen ete naz? Leen bide-zidorra egoan lekuan, orain naspilla agertzen; ona eltzeko, bide badaezpadako batetik etorri nintzan, eta ondar-zakarrez betetako tokian galdurik aurkitzen naz orain. Alperrik da gorantza igon, naiz beerantza jatxi. Nun ikusiko ete ditut barriro neure Andere-leoiak? Ez neban egundo uste izango onako miraririk. Zelan uste izan onako mendi bat gauean? Guzti au sorgiñen zaldu-neri pozkorra begitanduten yat, bakotxak bere Blockberg aldean daroalarik.

OREA (*izaki-atxa*).—Zatoz ona. Zaarra da nire mendi-katea, ta bere asierako itxura daroa orindik. Ornen egizuz pikor-arrizko zidor latzok, Pindo'ren azken maillak. Ni emen nengoan tinko, Ponpei igeska neure bizkar gain ibilli zanean. Eta neure urrean, lilluraren egiña oillarraren kukurrukuan lezaratzen. Maiz ikusi oi ditu, zelan eme oi diran olako ipuin urdiñak, eta zelan beingoan irangi ta itsutu oi diran.

MEFIstOFELE.—Dedua zuri, atea koroitzen daben buru agur-garri orri! Zure illunpetan ezin daiteke barrendu illargiaren argirik soillena, baiña zure laardi naasietan zear, txingar bete dardar dagian argiak zulatzen dau sasitzea. Au bai aurkitze zoriontsu! Ez nago oker, ez: Gizontxo da. Zer dagizu emen, ene adiskide txiki orrek?

GizoNTx0A.—Klunka ta klunka noa aidean zear, ara ta ona, ta ez naz oartzen bizi-bearraz, ikusi daikezunez, zentzun beteago batean. Ontzi au apurtzeagaitik ez dot kezkarazi nai, oraiñarte ikusi dodanak, ba, ez nau bultz-erazten, ezta pitin bat be, adurbilla are geiago jotera. Uste osoz zuri itz egiteko, jakin-zaleen atzetik nabillela, autortu bear dautzut. Au esaten dantzutset: Izadi!, Izadi!, ta onezkero ez naz eurakandik aldunduten. Ondo dazae, antza danez, lunar izakia, ta euren ondoan jakingo dot azkenez norantza daragstan jakituriak.

MEFIstOFELE.—Atsegin yat zure pentsabidea; sunbillen erreinuan, jakinzalea da gorarik aundikoena. Ak orixegaitik dozenaka

asmatu oi dauz, bere antzea ta mesedeak atsegingarri izan daitezcan. Galtzen baldin ba'zara, ez dozu inoiz aurkituko errazoia. Izan nai ba'dozu, izan zaitez zeure kemen-adorez.

GIZONIXON.—Aolku on bat ez da egundo be erdeiña bear.

MEFISTOFELE.—Agur, bada, betiko.

(*Banantzen çira*).

ANAXAGORA (*Tale'ri*).—Ez dau gura, bada, makur-azo zure ez-
piritu zital orrek? Oraindik geiago bear ete da zuri begiak gar-
bitzeko?

TALE.—Olatua edozein aizetara makurtzen da, berariko, baiña
arkaitz amil aldapetatik urrinduta egon oi dar

ANAXACORA.—Arkaitz orreik, dagoan lekuan dagoz, suaren ja-
rioari esker.

TALE.—Baiña biziak ezotasunean dauka bere sorrera.

GIZONTXOA (*bien artean*).—*Itxi* eidazue, otoi, bien ondoan jar-
ten; nik be irrikaz nai dot bizi izatea.

ANAXACORA.—Lupetzetik atera al izan zenduan, o Tale! , gau
batean, au lako mendi bat?

TALE.—Izadiak eta beronen bizi-tiraiñak gau ta egun, ordu
guztietan, lanean diardue. Izadiak egoki ta atsegiñez sortu oi dau
era bakotxa, eta, orixegaitik, bere gertakaririk aundienetan be,
gogorkeriak ez dau ezer esan nai.

ANAXAGORA.—Alan eta guzti be, emen ezin leiteke autortu bes-
tera gertatu danik. Plutondar SU ikaragarriak eta eoldar lurrenen
eztanda izukorrak ler-azo eben azpiko azal zaarra, bat-bateko so-
rrera emonaz olan mendi barri bateri.

TALE.—Eta, azken baten, zer adierazoten dau orrek? Or dago
mendia, ta besterik ez. Gisa ontako autuakaz, astia alperrik galdu
ez da besterik egiten; erri onari ziria sartzea da, lortzen dan guztiaz

ANAXACORA.—Begira, mendia dagoneko leza ta arpeetan biz-
tera datozan Mirmidondar, Pigneutar eta beste izaki txiki, guztiz
eraginkorrez, gañezka aurkitzen da. (*Gizonhcoari*). Zuk ez zen-
duan inoiz be aundi-nairik erakutsi, guda-mutilla bere gelan ertsia
lez beti bizi izanik; beraz, aginpidera egingo zareala uste ba'dozu,
errege koroituz-azoko zaitut.

GIZONTXOA.—Zer aolkatzen daust Tale'k?

TALE.—Ez neuke jakingo zuri anua emoten; gauza txikietan,

egite txikiak bakar-bakarrik; aundietan, txikia bera be aundi egi-ten. Begira, or goian, kurrillo odei ori; erria zemaitzen dau bere karraskadaz, eta erregea be bardin zemituko leuke. Kurrilo orreik sorkari txikien gaiñera jausten dira, ta curen erpe zorrotz eta moko latzakaz zati-zati egiten dabez. Or ekaitz zakarra, senetik ur-tena; biurkeri batek bizia kentzen dautse zingira nare loak artuaren inguru etzanik aurkitzen diran gizurenai. Oraingo euri izugarri onek, gezi gizerailen euri onek, odolezko apentza baten ordaiña dakar, euren endakoan artean Pigneutarren odol dongearen egarria biztuazorik. Zetarako dira onezkeru ezkuta, buru-oskola ta lantzea? Eta zetarako dabe epotxak gizurenen egitada arrigarria? Bai bizkor gaizkatzen dirala Daktile ta Inse! Ezbai dago gudarozte osoa, ta ezmezean, eta azkenik, kemena galdu ta igesi doa.

ANAXAGORA (*aundikiro, geldiunetxo ostein*).—*Oiñarte* lurpeko indarrak aintzat artu ba'ditut be, goi-eskualdeetara biurtzen naz gaurtik. O zu, goitik ostots dagizun ori, azkenik ez dauan gazta-roan, iru izen eta iru arpegidun jainkosa! Nik dei dagitzut, neure erriaren naigabe ontan, o Diana! , o Illargi! , o Ekate! Zuk bularra nasaitzen dozun orrek, zuk ames zoro ta kasketaldia ondar-ondarreraiño suntsitzen dozuzan orrek, argia nasai daukazun orrek, barrengaitz eta aaltsu zarean orrek, edegi eizu zeure itzal-osin ikaragarria, ta antxiñako indarra ager dedilla aztikeriaren bitartekotasun barik (*Geldi-une*). Txarto artua izango ete? Gora bialdu don eskariak bear bada, Izadiaren egokitasuna nastu ete dau?

Aiko, aurrerantz dator, beti aundi ta gero baiño gero aundiago, jainkosaren birako erregiñ-aulkia —eskergea, izugarria begiratur bakarrik! — eta bere sua illun biurtzen da, gorriegia dalako. Geldi zaitez, obo mugabage ta zemaikor ori! Bestelan danok ondatuko gaituzu, ur ta lurraz...! Baiña izan ete daiteke? Tesali'ko emakumak, sorginkeri donga ortara emonak, zelan aldatu al izan dabe zure bidea euren zoradurakaz, zuk zeunkazan ixillik onez eta kaltegiñenak orobat zuri kendurik? Ezkuta argitsua illuntzen da, eta urratzen, bertatik, txingar eta sugarrez betetik. Zelako zarata! Txistuketa zorrotz! Lagun ditu aize-erauntsi ta zurrunbilloa, trumoia-z. Parka eidazu au guzti au eskatzen dautzudalako, zure jaur-aulki aurrean auspez.

(*Arpegia makur-azten dau lurrean*).

TALE.—Zenbat gauza itxi dabezan gizon onek ikusi ta entzun bagarik! Nik, alan be, ez dot ulertzen orren zergaitia, ezta ez ditut aitzen izan dabezan biotz-ikutuak be. Autor daigun, alabaiño, ordu nabarmena dala au, baiña Illargia'goian dabil, bere gurpilletik urten bage, oraiñarte lez gozo ta leunki.

GIZONTxOA.—Ikus Pigneutarrak biziten jarri ziran lekua; mendi-gaillurra leen biribilla zan, eta orain zorrotza. Astiñaldi gogor bat sumatu dot; ain gogorra gero, illargiko arkaitza jausi zan, eta, aurretik iñok ez ekialako, oro zapaldu ta il egin eban, adiskide ta etsai. Alan eta guzti be, miretsi bear dot, gau batean, eta bere sortzaille kemenez, beetik gora batera, mendi eskerga au jaso al izan dauanaren adimen zoli-asmotsua.

TALE.—Ez zaitetz estutu, ori bada neure oldozkunean baiño ez da bizi. Jaso daiala alorra enda izugarri orrek. Pozik egon zeinke euren errege ez zarealako... Eta, orain, itxasoko jai aundira! An itxaron eta omendu egin oi dira arrotz arrigarriak.

(*Ba-doaz asagotuz*).

MEFI STOFELE (*bestelkaidetik saltoka*).—Narras ibilli bear izan dot, arri-mokor itzalak eratzen dabezan malda ta amiltegietan zear, arte zarrak suster sendoekin egiñiko une medarretan barrena. Harz'ko lurrinak iu-antzeko zerbait daukie, niri atsegin yatana ta, kemen emonez, kirats-arria gogoratzen daustana. Baiña emen, gerkarren artean, ez dago orren susmo-izpirik be. Jakin gura neunke nik zegaz biztu ta entxit egin oi dituen inpernuko su-metak.

DRIADA BAT.—Zeure jaioterrian bear bada izango dozu jakituri apur bat, baiña lur arrotz onetan ez zara burutsu agertzen. Gogoaz egizu orrenbeste zeure aberira begira jarri, eta emen pensau egizu batez be arte sagaratuaren aunditasuna zelan omendu.

MEFISTOFELE.—**Itxi** zana dakargu beti be gogora, eta ni zeru baten bizi izaten oitua naukazu. Baiña, esaidazu: zer itxura irukoitz kukultzen ete da or beeko artzulo ortan, argi ezbaiko baten dirdira motelean?

DRIADA.—Forkiadak dira. Urrera zaitetz eurak dagozan tokiraiño; itz egiozue, izuak artuta ez ba'zagoz gero.

MEFISTOFELE. Zergaitik ez? Arritzen nauan zerbait dakust. Naiz-ta arroa izan, autortu bearrean nago ez nebala onakorik iñoiz ikusi izan. Urrilloak baiño be dongeagoak dira. Baiña pekatuan

¡doro ete leiteke zatarkeri pitiñenik he, mando-tzar irukoitz ori ikusita gero? Guk ez genduke jasango geure infernurik gorrieneko atarian bertan be. Eta orrek nun eta ementxe bota dauz bere sus-traiak, edertasunaren lurrean, ospaz antxiñakoa deitzen yakon lurrean, ain zuzen be...! Orain igika daukaguz; nire etorrera asmatu dabela dirudi. Orra, txintaka asi dira, txistu bildurgarriakaz, saguzar odol-xurgariak bai litzan.

FORKIADAK.—Begia eidazue, aitzak, ezagutu dagidan gure jau-retxera orrenbeste urreratzen dan ausarta.

MEFISTOFELE.—Ene agurgarriok, itxi zuengana urreratzen, onespén irukotxa eskatu gura dautzuet-eta. Ez-ezagun bat lez nator zuekana, egia da; baiña baita, oker ez ba'nago, urriñeko aide zurrian be. Ikusiak ditut dagoneko aspaldi bateko jainkotasun gurrenak; Ops eta Rea'ren aurrean auzpez jarri naz; atzo, edo araiñegun, Parkak eurak ikusi nitun, Naspila'ren aitzak eta zuenak; baiña ez dot iñoiz *ezer* idoro zuek lakorik. Eta orain ixillik nago-ke; korde barik eta birloratua naukazue.

FORKIADAK.—Gogo au, zentzun onekoa dala dirudi.

MEFISTOFELE.—Arritzekoa da, olerkari batek be zuok goratu ez izatea. Esaidazue, zelan da ori; zelan izan zeitekean. Zuen irudirik be ez dot iñoiz ikusi, ene agurgarriok, Edo-ta pintzelari ez al yako eder JUNO, Pala, Venu ta beste antzeko batzuk itxuratztea?

FORKIADAK.—Bakartadean eta illunpetako ixillean obiratuak bait gagoz, gu irurotatik iñok ez dau olakorik iñoiz gogoan erabilli.

MEFISTOFELE.—Zelan izan daiteke ori, zuok, mundutik olan urrinduta egotea, iñok be ez ikusi ez begiz joteko moduan bizi izatea? Andi-mandikeriak eta ertiak neurri bardiñean dizdiz dagien lekuetan ipiñi bear zeunkiez zeuen bizitegiak, atxurdirin mukurua *egunero*, gizuren baten itxurapean, bizitzan sartzen dan lekuan, eta...

FORKRIADAK.—Itxi aoa, ta ez eizu guban irristsik esna. Zertarako geunke geiago jakitea an goian, gautarrak baldin ba'gara, illunpeen ide, dan-danentzat, ia-ia geurontzat be, ez-ezagun baldin ba'gana?

MEFISTOFELE.—Orduan, ez dago zer esanik; baiña norbera be beste egin daike aldatuz. Naiko yatzue iruroi begi bategaz eta

agin bategaz; baiña oraindik mitokoiago litzateke iruron izatea baten batuko ba'zendue, ta irugarrenaren itxura neuri emongo ba' zeunste zati baterako.

FORKIADA BAT.—Zer deritxazue? Al daitena ete da ori?

BESTE FORKIADAK.—Egin dagigun, baiña begi ta agin barik.

MEFISTOFELE.—Ondo. Onenagaz geratzen Zar, egin-egiiñean, Antza, zelan izango zan olan zeatza?

FORKIADA BAT.—Itxi begi bat, ez da gatxa ta; erakus gero zeure letagiña, ta orduan, zearka, geure antz-antzekoa izango zara, edozeiñek neba-arrebatzat artzeko modukoa.

MEFISTOFELE.—Ederto baiño edertoago! Orrelaxe bedi!

FORKIADAK.—Izan bai!

MEFISTOFELE (*Forkiada baten ertzaz*).--*Goazen!* Naspilla'ren seme laztan biurtu naz.

FORKIADAK.—Gu gaituzu, iñundik be, Naspilla'ren alabak.

MEFISTOFELE.—Ar-emetzat joko nabe, lotsagarriro.

FORKIADAK.—Edertasuna bai irukoitz aizta talde onetan! Ona, orain begi bi ta agin bi daukaguz bakotxak!

MEFISTOFELE.—Ostendu egin bearako dot neure burua jentteengandik, beste deabruai bildur emoten inpernuko-barrenetara joateko.

(*Ba-doa*).

EGEU ITXAS-ONDOKO ARKAITZETAN

Illargia, gaiñ-gaiñean geldi

MAITEDERRAK (*an-emen atxetan kokaturik, zibuka ta kantarri*).—Beste orduz, eta gau izugarrian, Tesali'ko sorgiñak zu lurre-rantz erakarriaz donaustea egin eben. Egotz orain begitu atseg, in-korra, zeure gauaren ganga-goi ortatik, olatu dardartien moltzo eztiki argituaren gaiñean, eta argitu orrela euretatik jagiten dan zalaparta. O Illargi, jainkosa eder! , izan zakiguz onbera; orrela daskatzue zure mirabe leialak.

NEREUTARRAK ETA TRITONAK (*itxas-manmen itxurapean*).—Ots dagiala ozen itxaso zabalak gure abots indartsuaren oiartzunekin! Dei egin zeuen ingurura leza-barreneko erri osoari! Ekatzaren errai

izugarriak edegiten ikusi genduzanean, barrendegirik ixillenean babestu gintzazan; baiña zuen abesti gozoak azaleratu gaitue orain.

Ikus, urrezko katez sotil apaínduta, koroiak eta arri-pitxiak daroaguz, eta gerriko txito baliotsuak! Guzti au, bada, zeuen lana da, ontziak tirabira egiterakoan urpean murgil-aziak dira-ta. Orixe-gaitik, gakarz zuon abotsaren lillurak, geure izpazterreko dea-bruok!

MAITEDERRAK.—Ba-dakigu, bai, arraiñak gozatsu ta kezka bari bizi dirala itxasour epelean; baiña guk gaur jakin gura doguna da, zuek, itxasoko zalduneri alaiok, arrain baiño geiago ete zarien.

NEREUTARRAK ETA TRITONAK.—Orren susmoa genduan ona igon aurretik be; kontuz, beraz, neba-arrebok! Ez dogu uste bide-arlo luzea egin bearra dogunik, arraiñak soil-soil gareala argi be argi erakusteko,

(*Ba-doaz*).

MAITEDERRAK.—Begi itxi-edegi baten ostendu dira, Samotrazi' rantza, belaizeak lagunduta, Zer egin usteko dabe Kabira aaltsuen erreiñuan? Orreik bai jainko berezi ta arrotzak! Euren buruak sortazi oi dabez sekula ta beti, ta ez dakie egundo be nortzuk diran. Gera zaitez zeure goitasunean, Illargi ezti, ta ixuri zeure doaiak gure gain! Luza beite gaba, ta ez bei eguna etorri gu sa kabanatzen!

TALE (*ur-er(zean, Gizontxo'ri)*).--*Pozik* eroango zindukedaz Nerea zaarragana, aren arpea, egia esan, urruti be ez dago-ta; baiña burua dauka OSO gogorra pentsalari gozagatxak. Gizadi osoak ez dau egiten kurrinkari arloteak onartua baiño, Orain geroa irakurteko doaiá dau, ta orixe dala-ta, mundu guztiak dedua ta lotsea erakusten dautsoz. Argi dago batek baiño geiagok bere ona zor dautsona.

GIZONTXOA.—Daigun saioa, ta dei egin daigun! Ez yaku ezer kostatzen.

NEREU.—Giza-abotsak durundu dagist belarrietan. Orain ulertzen dot zergaitik jauzi egin daustan bat-batean aserreak biotzaren barren-barrenean. Irudiak dira bear bada, jainkoen goi-mailla jadetsi nairik etenbako alegiñak egiñez dabilztanenak, eta, alan be, curen irudia besterik lortu eziñik euren buruak oiñazetan ikusten dabezanak. Antxiñako aldiak igarotakoan, nik atsedena ar nein-

kean jainkoen altzoan; baiña senak onai laguntza emotera eroan nindun, eta gero buruturiko egintzetan ausnartzen asi nintzanean, dana igaro zala ikusi neban nik ortako ezertan be eskurik artu ez ba'neu lez.

TALE.—Alabaiña, o itxastar agure! , zeure zainpean jarten yatzuz guztiak; ez gagituz bota leku ontatik; gu be zeure jakituri-pean jarten gara. Begira sugar oni, gizonen antzakoa dan oni: zure onura jarten da emen oso-osoan.

NEREU.—Zer diñozu onuetaz? Euki ete eben onuak iñoiz baliarik gizonentzat? Itz zuur oro kamustu egin oi da euren belarri latzetan; eta egintzak eurak gogor be gogor salatu ta ezetsi arren, endak ez dau egundo be bere buru-gogortasuna izten. Zenbat aita-aolku ez ebezan artu Paris'ek, bere leia-irrik emakume arrotz bati itsatsi aurretik? Gerkar ur-ertzean egoan, galant eta arro, eta neu alderatu nakion neure barruan nekusana ari iragartera: lurrun lodiz beteriko aizeak, purpur-uñez artuta; suari emoniko etxeak; sarraskiari ta eriotzari eskiñitako biziak; edu orretan sagaraturiko Troia'ko azken eguna, eta millaka urteetan ospetsu izen izugarri au. Joko utsa iruditu yakon gaiztoari zaarraren itza, eta jausi zan uria. Illotz erraldoia, tinko iskanbil eta zalaparta uxu anker ostein! Pindo'ko arranoentzat oturuntza galanta...! Eta Odis'i berari be ez neutson, bear bada, oar-azi, Kirke'ren antzelariak baiño leen, Kíklopetarren ankerkerietaz, bere sorgortasunaz, beretarren gogo ariñaz? Ez ete neutson esan nekian guztia? Zer balio izan eutson aolku onek, milla gorabera izenbakoren ondoren, uñen urgazpenak ur-egal txeratsura eroan ebanean?

TALE.—Oartzen naz, olako jokabide batek atsekabetu bear dau gizaseme jakintsua; gizakume ona, baiña, ez da kikilduten, eta lenera doa. Esker-erakutsi pitⁱn batek poztu-azoten dau, eta onek esker txarreko eun librak baiño astun geiago izan daroa aztailuan... Guk eskatzen doguna ez da, egiaz, muskil bat: ikusten dozun ume au da, bizi-nai sendoak indartua.

NEREU.—Ez egizue loitu nai izan bizi nazan garbitasun bitxia. Beste zerbaitek dauka gaur nire biotza: ona dei egin dautset neure alaba guztiai, itxasoko Eskerrai, Doritarrai. Ez zuen lurraldean, ez Olinpu'n, ez dago irudi aⁱn ederrik, olako txairotasunez igitzen danik. Agurgarriak dira ibilkeran, eta uretako dagroiai eraso da-

gitse Neptun'en zaldi bizkor gaiñean; eta urai samur-asmur lotu oi bait yakez, bits-aparrez egiñak dirudie. Galate da danetatik ederrena, Venus'en maskor nakarzatuan beti; eta orixegaitik dauko, antxiña-antxiñatik eta oiñordeko lez, uria bere jauretxeaz eta jaur-aulkia dan burdiaz.

Atzera, ba! Au lako orduan, aita-pozezkoan nunbait, ez yat egoki iraiñak ezpanetan ez aserrerik biotzean. Zoaz Proteu'gana, eta azti onek esan daizula zelan bizi bear dan eta zelan egin oi dan itxura-aldatze oro.

(*Ba-doa itxas-aldetik*).

TALE—EZ dogu ezer irabazi oinkada onegaz. Proteu'gana ba' goaz, au be urtuko yaku ziur askorik; eta, azken batean, artzen ba'zaitu, gauza arrigarrik jalgiko dautzuz, arriturik eta nastuta itxi-ko zaituenak. Alan eta guzti, bearrekoa dozu aren aolkua, Goazen, ba, arengana, geure bidean jarraituz.

(*Ba-doaz biak*).

MAI TEDERRAK (*goian, arkaitz gaiñean*).—Zer dakusgu an, urrin, ur-erreinvan zear txirristaka? Itxasoko andra argitsuak dira, benebenetan lilluragarri, oial zuriak bai litzan, aizeak saka eginda. Jatsi gaitezcan beera. Ez dozue entzuten arein barbaroa?

NEREUTARRAK ETA TRITONDARR AK.—Eskuetan dakartzueguna eder izango yatzue, ezpai barik. Keloni'ren maskor aundiak irudi zakar bat dizditzen: onetxek dira dakartzueguzan jainkoak. Asi zaiteze ereserkika ozen bai ozen!

MAITEDERRAK.—Oi zuek, jainkuok, aspaldiko antxiñetatik gurtu izanok, uretan galduak gaizkatzen dozuezanok, soñiez txiki, baiña indarretan aundi!

NEREUTARRAK ETA TRITONDARRAK.—Kabirak dakartzueguz, jaia atsegiñago egitearren, eurok jaun eta jabe diran lekuetan, Neptun jainkoa onbera agertu oi da-ta beti.

MAITEDERRAK.—Ba, ez dautzuegu biderik etnoten. Itxas-ontziren bat apurtzen danean, zuok babestu egiten, zeuen indar guztiz babestu be.

NEREUTARRAK ETA TRITONDARRAK.—IrU dakartzueguz, laugarrenak ezin etorria izan dau-ta; ona dala uste dau ak, au da, danak gogotan ditu.

MAITEDERRAK.—Irri egin dagike jainko batek besteren lepotik.

Egin ornen Eskerrai, eta eurontzat asarregarri litzaken orenen bildur izan zaitez.

NEREUTARRAK ETA TRITONDARRAK.—Zazpi egon bide dira.

MAITEDERRAK.—Nun dira beste irurak?

NEREUTARRAK ETA TRITONDARRA.—Ez dakigu; Olinpu'ra jo bear barri billa. An be ba-dago zortzigarren bat, oraiñarte iñok be gogoia emon bakoa. Eta zain daukaguz oso txeratsu; baiña ez gagoz oindiñokarren gertu—. Izaki bardínik bako oneik, beti urrutirago jo gura dabe; gizagaixo batzuk dira, ulert-eziñaren egarritz.

MAITEDERRAK.—Otoitz egiteko oitura dogu, jainkozkoa aurkitzen dan lekuan illargiari ta eguzkiari. Oso egoki dozue ori.

NEREUTARRAK ETA TRITONDARRAK.—Diztira guren gure entzutearentzat jai onetan esku artzea!

MAITEDERRAK.—Onako aintza ta ospea, antxiñako gizurenak eurak be, diran baizen aintzatsuak dirala, uts emon oi dabe. Areik urrezko Toisoia eskuratu ba'eben be, zuok Kabirak eskurutzen. (*Errepikan, kantua bai litzan*): Areik urrezko Toisoia eskuratu ba'eben be, zuek eta guk Kabirak eskuratu doguz.

(*Nereutarrak eta Tritondarrak beste aldera igaroten dira*).

GIZONTxOA.—Bidutzi itxurabageak lupetzezko topin zaarrak iruditzen yataz; areikan topo dagie jakintsuak eta buru gogorrek apurtzen.

TALE.—Ortxe gara, ba, egin-egiñesn be: ugerra da txanponari balioa emoten dautsona,

PROTEU (*iñok ikusi bage*).—Atsegin yat gaia, ta ori agure txotxolo besterik ez nazala. Arrigarriago ta begirune geiago.

TALE.—Nun zaitut, Proteu?

PROTEU (*sabel-abotsez, orain ur, gero urrin*).—Emen eta emen.

TALE.—Agure-txantxa ori onartzen dautzut; baiña, adiskide lez, ez daigun, arren, alperrikako itzik ebagi. Ondo dakit nik, zuk ez dozula itz-egiten aurkitzen zareala diñostazun toki ortatik.

PROTEU (*urriñago ba'loia lez*).—Agur!

TALE (*Gizontxoar'i ixilpeka*).—Ur dago orain. Begira, zelan dizdiz dagian; bitxia da arrain bat aiña, eta dagoala dagoan lekuan, itxura aldatua, sugarrak onantza erakarriko dau.

GIZONTxOA.—Laster ixuri bear dodaz agizko olatu ta olatuak;

alan be beti zuurtasunaz, nire edontzia lert-azi ez dakidan.

PROTEU (*turtu eskerga baten itxurapean*).—Zer da ori, ainbeste argi dagian ori?

TALE (*Gizontxoa ostendurik*).—Jakin nai ba'dozu, urrera zaitetz. Ar nai izan egizu txikar ori, ta ager zaitetz giza-oin gainean. Egin bei geure eskerrez eta geure ba' menagaz, guk ostenduten doguna ikusi gura dauanak.

PROTEU (*itxura ederretan* orain).—Gogoratzen zara oindiño munduko maltzurkeri ta maiñaz?

TALE. —Zuk oraindik jarraitzen ete zeure itxura-aldatzetan? (*Gizontxoa ikusten dau*).

PROTEU (*sor la lor*).—Epotx argitsu bat! Ez neban iñoiz ikusi olako gauzarik,

TALE. —Epotx au aolku-billa dabil, bizi gogo dau-ta. Berberak edestu daustanez, arrigarriri etorri zan mundura, ta erdizka baka-rrik. Ez yako falta, ez, adimenik, baiña ez dauka gogorrik, ez dauka ikugarririk. Pisutan ez dauka edontziarena besterik, eta atsegin izango leuke gaikizko gorputza artzea beingoan.

PROTEU.—Neskutsaren egiazko seme, dakustanez izaten asi baiño leen zara zu.

TALE (*aopean*).—Uste dot ba-dala onengan beste gatx-une bat be: ar-eme dala, nik uste.

PROIEU.—Laster beteko da zure guraria; eta oro atonduko da aregan. Baiña orain gabiltz erabagi billa... Nire eretxiz, itxasoan artu bear zeunke jatorria. Itxasoan asten da txiki oso izaten eta irunsten oindiño txikiago diranak; gero apurka apurka azten da, elbururik garaienak atzemonik azkenerako,

GIZONTXOA. —Aize mee gozoa dabil emen, inguruak orlegitzen dira ta eder yat bertoko atsona.

PROTEU.—Uste dot, ume agurgarri, beeko sakona ederrago izango yatzula oraindik; bertan aurkitzen da itxasbazter zorrotz estua, ta bertako egurats-atsegiñak aderazo-eziñak dira egi-egiazki; eta gainera, ta ingurumari beti zabuka dabillen taldea ikusiko dogu bertatik. Zatoz, jarrai nakizu.

TALE.—Atzetik nozu.

GizONTxoA.----Naiko ezpiritu irutan arrigarririk!

(*Rodas'ko Telkinoak, itxas-zaldi ta dragoiak, Neptun'en iru-ortzekoa eskuan daroiela*).

ABES-TALDEA.—Geuk moldatzen dogu Neptun'en iru-ortza, ta onekin ibitzen ditu berak itxasoko ekatzak. Trumioen jaunak goian odeiak iragoten dabezanean, Neptun'ek erantzun daroa bere aal-izatez abarrots ez-samurrari; eta tximist-sugetxoak goian kiribillika dabiltzala, itxasoan metatzen dira olatu apartsu irakiñak, gaiñ daroen oro klunkatu ta alda-maldaka erabilli ta azkenik oro oxin azter-eziñak iruntsirik. Gaur bere aginte makilla emon dausku, ta orixegaitik gabiltz ur-gaiñean, bizkor baizen nare.

MAITEDERRAK.—Beite zuokaz egunaren argia, Eguzki'ren morroi doneok! Agur guztioi, illargiaren jaia sagaritzen dauan ordu naasi onetan!

TELKINOAK.—O jainkosa, guztien artean maitagarri! Zuk entzun oi dozu zeure aulki garaitik zure neba jasoaz dagien goratzarre sutsua, eta Rodas zorionekoaren ardura dozu; arentzat jasoazoten da an, beti, betieren betiereko ereserkia. Asi naiz amaitu bere ibil-txangoa, beti begiratu oi gaitu suak gorituriko begi batekin. Uñak eta ur-ertzak, uriak eta mendiak, laket yakoz olan Jainkoari. Laiño bat be ez da geratzen gure gaiñean, eta iñoizkoren baten olako kerizperik agertu ba'dadi, argi-izpi bat naiz aizebolada bat naikoa dira ugartea garbitzeko. Illezkorra an eun irudí.tan ikusten da, euretatik dan-danak gaztetasunez eta aunditasunez beterik; geu izan gintzazan jainkoen aal-izatea lenengoz aurkeztu gendunak, giza-txura duiñaren azpian!

PROTEU.—Itxi egiezu abesten, eta arrokeriz puztuten. Egingtza illak ixeka bat baiño ez dira eguzki jainkozkoaren bizi-argitasunaren aurrean; auxe da metala urtu ta eratu daroana, eta areik borontzea asmatu ebenean, oitu-bageko mirariari gaillurra emon eutsoela uste izan eben. Baiña zer jazoi yakon jente arro oneri? Jainkoen irudiak onik eta sendo irauten eben bitartean, lurikara batek eratxi ebazan, eta gero barriro urtu bearra egon zan. Dala dalakoa lurreko egintza, zirtzilla baiño ez da izan. Ura da bizirako egokiena, ta orixe dala-ta eroango zaitu orain Proteu-Izurdeak ur betikoen kolkora. (*Antz-aldatzen da*). Egiña dago aldaketa. Zain daukagu an izangorik ederrena. Neure bizkarrera jasoko zaitut, bada, ta Okean'egaz ezkonduko.

TALE. —Ar cgizu sorpcna asieratik asteko gurari osasungarri ori, ta gertau zaitez lanerako. An igituko zara, eta betikorren eraueran, milla ta milla tankera bestelakoen bitartez! ta orrela be, oindiño, naikoa epe geldituko yatzu gizon izatera eltzeko.

(*Gizontxo, Proteu-lzurde gaiñeraten da*).

PROTEU.—Erdi neugaz, egalari ori, ezotasun edatura; biziaren betea izango dozu bertan, baita zeure ariora ibilli be; baiña ez egizu nai izan goi-maillakoetara ariñegi igoterik; iñoiz gizon biur-tzen ba' zara, neuri zor izango daustazu.

TALE.—Gaitzik ba al dago gizon izatean? Ba-dau garrantzia gero, bere aldiko gizon duiña izateak.

PROTEU (*Tale'ri*).—Zure arikoa izatekotan, bai. Bakar-bakarrik, zu lako izan ezkeru, aldiari jarki egiten; gizaldi askuak daroadaz, egin-egiñean, zu Ezpirituen eskualde goibeletan ikusten.

MAITEDERRAK (*arkaitzean*).—Zer dira odei txiki orreik, illar-giaren inguru obo ain bikaña dagienak? Kemenez ixioturiko usoak dira, argia lez zuri diran egoakaz. Pafos da maite-txiro aldra ori bialtzen dauana; osoa olan gure jaialdia, ta bete zabala une onetako atsegin-jario gozoa.

NEREU (*Tale'gana zuzentzen dala*).—Gabaz dabillenak goi-ikus-karia deituko leuskio illargiaren jarraigo orri; baiña gu, Ezpiri-tuok, beste eretxi batekoak gara, ta zuzenean gagoz. Neure ala-bearen bide-zidor nakaraztuak jagoten dabezan usoak dira, egaz-kada miresgarri ta bakaneko usoak, txito antxiñatik zeru-zear da-biltzanak.

TALE.—Zaar prestuak maite dauana, niretzat be maite-gai da: abi epel ixilla, bizi sagaratu iraun-azo ta luzatzen dana.

PSILOAK ETA MARSAK (*zezenak, beiak eta itxas-aariak*).—Kio-riz'en burdia jagoten dogu guk, leza basati sakonetan, itxasoetako jainkoak dakazan bildur barik eta Lur-ikarak emon oi dabezan as-tirialdien ardura bage, betiereko aizeen txera ta lausengu artean, eta, antxiña batean lez, atsegin zorakorraren betean murgildurik; eta geu gara, gaiñera, gauaren marmar-otsean eta olatuen zelai pertxenta gain, iñok ikusi bage, neskatilla polit txairo bat enda barriari daroatsogunak.

Bizkorrak gara-ta, ez dautsogu ezeri be bildurrik, ez arranoari, ega-leoiari, ez gurutzeari, ez illargiari, ezta goian bizi ta ots da-

gian ezeri, ezta uts-gunetan igitu ta balantza dagian ezeri, ez eizatu ta ondatzen dan ezeri, ez laboreak eta uriak desegin eta erraus-tu oi dauan ezeri. Itz baten, emen dakargu erregiñetatik eder zo-ragarriena.

MAITEDERRAK.—Urrera zaiteze, Nereutar azkarrak, emakume sendo ta ederren ederrez basotarrak; urrera zaiteze, zuok, obo ba-ten eta obi bitan, burla esitzen dozuenok sugeak antzo, txibis-tatu ta txibistak ausiz. Ekar egizue, Doritar samurrok, Galate, bere amaren antza bera; ekar egizue, zuok, benak bai jainko illez-korrek baizen, baiña, alan be samurrak gizasemeen emakumeak lez, eta onein antzera ontasun erakarkorrez jantziak.

DORITARRAK (*abeska, Nereu'ren aurretik igaroz, izurde gaiñe-tan* danak).—Eiguzuz, o illargi! , zeure argia ta itzala. Bedi diz-tira osorik gaztetasunaren lora eder orrentzat, senar maite gisan eskintzen gakioz, ba, dei dagiogun geure aitari. (*Nereu'ri*). Emen daukazuz ume bi, suaren iruntsi-bearretik geuk gaizkatuak, iizi artean eta bedar gaiñean etzunik, eguzki-erraiñupean kiskalduak, eta orain mosu gartsuz euren esker ona erakusten dauskuenak. Ikusi begi onez gazte bi oneik.

NEREU.—Ona, onura bikotxa, on-eretzia merezi dauana; erru-kior izan etao, aldi barean, ortaz atsegiña artu.

DORITARRAK.—Ezer onik merezi baldin ba'dogu zugandik, go-goz ar ba-dagizu gure naia ta berau jaristea guri laga, eiguzu, illez-kor, betiko gaztetasuna izan daigula.

NEREU.—Arrotu zeinkeze egindako arrapakin eder ortaz eta gizona bere gaztaroan ikusiaz; baiña nik ez neunke jakingo Ju-piter'ek berak bakarrik emon daikena, emoten, kulunkaz ta balan-tzaz zakarrezan olatuak ez dautso maitasunari tinkotasunik emo-ten, eta zeuen xedeak atzipetuak izan ba-zarie, itxi eme-eme zeuen zama or ur-ertzean.

DORITARRAK.—Oi ume ederrok, zuok bai maitagarri zaiakuze-la! Baiña, ai! , naitaez banandu bearra daukagu! Betidaiñoko irautea gurako geunkean, baiña jainkoak ez euskuen entzun nai izan.

GAZTEAK.—Jarrai gu azkortzen gisa orretan, uretako seme azarriok; gu ezingo ginan eguno be ain zorionekoak izan, eta

aurrerantzean izango be.

(*Aurrera doa Galate, nakarrezko burdi baten*).

NEURE.—Zu zaitut, ene alaba maite?

GA LATE bai zorionsu, ene aita! Geldi zaiteze, izurdak!
Onako gelditze batek ni lotu egiten.

NEREU.—Igaro ziran. Ur-zurrunbilloan dakustaz joaten. Zer da eurentzat biotz-ikara sakon ori? Zergaitik ez ninduen eroan eurekin? Baiña, zorionez, begitu bakarrak urte osoa beteten atsegin zoragarritz.

TALE.—Aintza ta aintza beti! Zorionak txorabiatzen nau, egiz ta onez aserik nago-ta. Uretatik urten da guztia; ura da guztia iraun-azoten dauana. Eiguzu, Okean zabal, zeure egintza betikorra! Zer litzatekez mendiak zuk odeiak jarion, eta errekazto irri-partzuak eratu ezik? Zer izango litzatekeez zu barik lautadak eta mundu osoa? Zeu zara bizia bere eskura ta ugaritasunean iraun-azten dauana.

OIARTZUNA (*abestaldea, inguru durundutsuak egiña*) —Zeugandik, zeugandik jalgitzen da bizi barriaren ezitia.

NEREU.—Barriro datoz onantza, olatuen kulunka gaiñez. Gure begituak ez dabe onezkero alkar aurkitzen, jaiak eskatzen ditun lora-txorta ta uztai ugari-ugariak estaltzen dauskue areina ta. Nik oindiño, alan be, ba'dakust Galate'ren aulki nakaraztua; izar baten pareko dirdir dagi, lagun-aldra artean, Dizdiz dagi, bai, jentetza batuaren artetik maitagarri yatanak. Urrinx egon arren, beti dago argitan aren burdia, ur ta egiazko nun-nai ta beti.

GizONTx0A.—Ederra da, ta zorerazle, ezotasun jabal onetan dakustan guztia.

PRoTEU.—Zer ezkutu barri iragarriko ete gure begi-aurrean, lagun-taldean artean? Zer da or maskor nakaraztu bitan argi dagian ori, Galate'ren oiñetan bertan? Orain argi dagi kementsu, ta gero maitez edo-ta samur. Maitasunaren zanak direala esan daiteke, pílpilka.

TALE.—Gizontxoa da, Proteu'k arrapata... Begira, ezaugarriak: astiñaldi oiñazetsua iragarten dauste naigabe oiur orreik. Aulki dizditsuaren aurka lertzera doa. Berak be orain dirdir dagi, gar jarioka: alkar galdatu diranaren zantzua, beraz.

MAITEDERRAK.—Ze mirari gorbiztuk argitzen ditu bata bestea-
ren aurka, txinpart uts, eusten diran olatuak? Ikara dozu nainun
nabaitzen, eta argitasun nasaia zabalazten ezne ta gozo. Soiñak alkar
besarkatzen dabe gau-zidorrean, eta ingurumari suak esituta dago
osorik. Orrelaxe errege da Eros, gauza guztien buruzagi.

Agur, kresal! , agur, urdin! ,
sugar eta argiz jantzia!
Ur, gora zu! , su, gora zu!
Gora, arrats-gori bitxia!

TO TA ÑO GUZTIAK. —

Gora beratz, aize gozo!
Gora, leza ezkututsu!
Zuok lau gaiok, txit eder,
zaitetze beti ospetsu!



IRUGARREN EKITALDIA

ESPARTA'N, MENELAU'REN JAUREGI AURREAN

Elena aurrera datar, eta Abesbatza troiar atxilotuekin. Pantalís, Abesbatz-aintzandari,

ELENA.—Emen daukazue Elena miretsia ta gaitz-etsia, guk geure oiña jarri genduan lekutik datorrena, olatuen zabu-eragiñez txorabil oraindik; oneik, olatuok ekarri ginduezan euren bizkar kiskur eta gurenetan; Poseidon'en eskerrez eta Euros'en indarrez, frigitarren zelaietatik aberriaren kolkoraiño. Menelau erregea pozik dago onezkero itzuli diralako, bere gudalari kementsuenen artean, Ar nagizu, beraz, arrotz ots aundiko lez, Tindar neure aitak Pala'ren muiño egaletan jaso eban egoitza bikaiñean; Esparta'ko beste etxeak baiño arduratsu ta edertsuago jantzi nai izan eban, ni neba-jokuetan nenbillela, lenengo Klitemnestra'gaz eta gero Kastor eta Polux'ekin... Agur zuok, borontzezko ate-orriok; zuok izan zintzazen, ba, arrozkor zabaltzean, niri Menelau, nire biotzaren aukeratua, ain eder ta ospetsu agerterazi eustazuenak. Zabal zaitezze barriro be nire aurrean, nik, emazteari dagokionez, bete al izan dagidan zintzo-zintzo erregearen mezu bat. Bide egidazue! , eta gel bedi dana nire atzetik, gaur gero, gaizto zantzuz etorri izan leikedan guztia batez be; neure egiteko donea zanez, bada, Kitere'ren jauretzea ikustearren leku oneik itxi nebazanean, eta ebaslectatik batek, Frigitarrak, bere eskua nigan ipiñi ebanetik, gauza asko gertatu dira, gizasemeak pozarren barraiatu dabezanak, pero edestiak artez jaso ez ebazalako, ipuin baten gai-tnataza azkenik biurtu ziranak.

ABESBATZA.-E2 eizu ezetsi, o emakume aundizki! , onik garaienaren jabe egitea! Zuri bakarrik emona izan yatzun atsegin aundia, au da, edertasunaren aintza, aintza guztien gaiñez jasoa. Gizurena aurrera dator ibilkera burgoiz, bere izenak berak durundu dagitsola aurrean begitantzen yako-ta; baiña setatsu ta arropuztena be, unekada baten, edozer ezteko lain dan edertasunaren eragiñak oartzten eldu oi da.

ELENA.—Neure senarraz, ba, nator ona ta, bere aginduz, aurretik noakio urira sartzean. Zer sentipenak bizkortzen ete? Ezin

dagiket igarri. Emazte lez nator ona?, ala erregiña lez?, ala erregeiaren oiñaze garratzagaitik eta gerkarren naigabe aldi zitalagaitik oparitako autatua lez? Indarrez irabazia izan ete naz ala atxilo artua? Ez dakit, illezkorrak bada ospe ta alanbear estali ta alalokoa gerorakotu eusten; edertasunaren aldetiar makurrak oneik, kezka baten itzalak lez atarte ontaraiño, bertoraiño lagun egin daustenak. Ontziaren barnean bertan ez eustan begiratu senarrak banaka batzutan baiño, eta aren agotik etzan urten itz txeratsu bat bera be. Neure aurrean bekoz beko jarrita egon zan beti, gogo-ausnar sakonean murgildua, bere zoritxarra irauli ta irauli bear bada; eta Eurota'ko izpazter sakonera eldu gintzazanean, lenengo ontzien aurreak ur-ertzean agurtuaz bat, jainkotasunak kemenazita lez, oiü egin eban: «Ementxe jatsiko dira polito polito nire guda-riak, eta nik begiztatuko ditut ur-egian; zu, barriz, aldendu zaitetz; zoaz Eurota sagaratuko igaliz betetako itxaso bazterrean zear, zaldi ariñak zelai ezoaren dizdizera eroanik, mendi-arte latzen bira estuak inguratutako landa zabal jori len izan zan tokian Lakedomonia jaso izan zan lautada aberatsera eldu arte. Sar zaitetz bertatik errege-egoitz arresituan eta begiztatu egizu nik an itxi neban mirabe-morroitza, baita etxeko arduradun andra zartxo zurra be ikusi egizu zetan dan. Onek erakus daizula zure aitag eta neronek guduan eta bakean pilloturiko altxor meta aberatsa, gero be atertu barik eta gogo beroz geitutakoa noski. Dana aurkitu bearko dozu bere lekuan, erregegaien eskubide bakar dozu, ba, dana eratsu aurkitzea etxeratzean, au da, gauza bakotxa berak joatean itxi eban lekuan aurkitzea; eta otsein batek be ez dauka eskubiderik ezertxo be bere kabuz aldatzeko».

ABESBATZA.—Atsedean begie, ba, zure begiak eta zure biotzak altxor arrigarri ortan, beti geituaz doanean. Kateien apaindura ta koroiaren ederra antxe dagoz aundi-min ixillean, eta zerbait dirala uste dabe; sar zaitetz, ba, ta eragiezu, bertatik jarriko yatzuz-eta izkilluak artuta. Eder litzakit edertasuna urreez, eltistekaz eta arri pitxiakaz burrukan ikustea.

ELENA.—Olantxe darrai nire jaun eta jabearen izketa garaiak: «Dana saillean ikusi ta aztertu ondoren, artu egizuz zeure eritxiz bearko zendukezan krispiñak eta opari-egilleak olako jaikun sagaratuak egiteko eskuan bear izaten ditun askotariko ontziak; bai-

ta galdarak, edontzak eta subilla be. Gorde bei iturri doneetako urik gardenena txanbil jagietan, eta euki begie orrelaxe alik eta oian igarretatik urren, sugar kaltegarriak uxatzeko. Azkenez, ez hei peitu aizto ondo zorrotz bat be. Enparauak zeure ardurara izten ditut». Au esanaz, banan gengizala alkarregandik eskatu eustan; baiña bere aginduan ez eustan ezertxo be adierazo Olinpu'ko jainkoen omenez eskintzeko asmotan erabillen arnasa biziari buruz. Au ausnartzekoa da; baiña ez nau ezek kezkatzen eta jainkoen eskuetan izten dot dana, oneik beti bete OI dabe-ta eurai egoki yakena. Gizonak ondo naiz txarto ori artu, guri ilkorroi etsitzea bakarrik dagokigu. Bein baiño geiagotan jazo zan, sagarakoan, opari-egilleak aizkora astuna abere lurrera makurtuaren garondo gaiñera jaso ta egintza burutzea, urreko etsai batek edo-ta jainkotasunak berak galazo ebalako.

ABESBATZA—EZin dagikezu asma zer gertatzeko dan. Bioaz, bada, o erregiñ! , betiko kemenez zure urratsak. Ona naiz txarra gitxien uste danez eltzen yake gizonai, eta aurretiaz iragarrita be ez dautsegu iñoiz siñisten. Sutan emona izan da Traía; geure begi aurrean ikusi dogu eriotza, eriotz iguingarria. Baiña, alan eta guzti be, ez gata emen zure lagunak, zu otseintzeko pozetan? Ez ete zaitugu begiz joten, ongille lez, zeruan argi dagian eguzkia eta lur gainean dagon ederrik ederrena, au da, zerori?

ELENA.—Bedi izatekoa dana! Zain daukadan edozein adugaitik, geiago luzatu barik igon bear dot errege-bizitegira, aintxiña itxira, ain irrakatua ta ia galdura, orain nik zelan ez dakidala aurrean jagiten yatanera. Betor, ba, kemena nire oiñetara, mailla oneik, neskato nintzala areñ bizi .igon oi nebazanak, igon daidazan.

ABESBATZA.—Aizeatu samintasan guztiak, o ene aitzak, atxilotu tristeak! , eta ar eskua erregiñaren poztasunean, Elena-ren zorronean, orain aberri-sukaldera biurturik, bere oiñak berandu samar ona eldu arren ardurarik ez dautsola, biotz-kemen barriz oinkada errimetan aurrera doanaren poz-oin ta zoramenean.

Goretsazue jainko santuak, jainko ordain-emoilleak, itzulia babesten daben jainkoak. Aske bizi danak egaz dagiala dirudi ton-torrik garaienen gainez; giltzape dagoanak, barriz, bere gurarien eztenpean, alperrik edatzen ditu bere besoak, eta aituz doa bere espetxeko orma artean.

Jainko batek gerizatu dau gure erregiña, Troia'ko ausiabartzatik bere gurasoen antxiñako etxera, berrero be ederki apaindua, ainbat eta o'ñaze ta poztasun konta-eziñen ostean, bertan izan dagian bere gaztaroko len-aldien gomutagarri betea.

PANTALIS (*abesbatz-buru lez*).—Itxi oraingoz kantuaeren pozezko bidetxiorrak eta biur zeure begi-ikustea Idearen orrietara! Zer ikusten nago, dztak! Ez ete dator erregiña geugana, oin-arin eta biotz-dardar? Zer gertatzen da, erregiñ aundi? Zer-edo-zer izugarri aurkitu ete dozu zeure cgoitzeko areto zabaletan, zeuretarren agur orde? Ezin zeinkean gorde, ez, asarrea dakust ba, zurtasunaz naste, zure bekokian irarrita.

ELENA (*geldi-geldi, ate-orriak zabalik itxita*).--*Jupiter'en* alaba bati ez dagokio bildur arrunta, eta doi-doi ikutu daust leun eskua izuaren ariñak; baiña gau oroigarriaren altzoan bere jatorria dauan izua baiño ezta, alan be aunitz tankera berezitan agertzen da, mendiko su-zilokaen kizkur berarizkoetan jalgi oi diran odeiak lez; gizurenaren beraren bularra be azkenik dardaratu leiken izua da. Estigi'ko alizate nazkagarriak itxi daustiez gaur neure etxeko gelak, etxetik egozten dan arrotza lez, ainbat aldiz ibillitako eta gogoratuz ainbat intziri ta oiu eskiñi neutsozan etarte ontatik urrindu nadin. Baiña, ez! Ni argian aterpetzen naz, eta zuok, indar gaizkiñok! , ezingo nozue bertotik bota; ez, zarienak zariela, ez nozue botako. Opakuntza bat eratu nai dot; sukaldeko suak, bada, garbiketa ostean, erabat agurtu daroa emaztea naiz senar gurena.

ABEsBATZA—Emakume prestu, adieraz zeure zerbitzariari, onen begirune aundiz otseintzen zaituen ezker, jazo izan yatzuna.

ELENA.—Zeuok zeuon begiokaz ikusiko dozue nik ikusi nebana, gau illezkorrak bere lana obiratzen ez baldin ba-dau, gauza miragarriak jalgi oi diran bere sakontasunen magalean. Baiña, dana dala, esatera noakizue. Jakin eizue, errege-egoitzeko atari zuurra ibilli gurenez zearkatu dodanean, neure bearkun barriak buruan iraulcaz, onik onenean somatu neban bezitegi utsetako ixiltasun bakana. Etzan nire belarrietara joan eta etorri dabillen jentearen surmur doiñutsurik, ezta begi aurrean be nekusan gela-neskamerik, arrotzai ondo etorria beti egin oi dautseenatarikorik noski. Gero, sukaldera urbil nintzanean, errauts akitu eskukada epe

laren ondoan, eta zelaian jezarrita, ez dakit ze emakume idoro neban, zapi batez inguratua ta lotan baiño geiago gogorketan ba' lego lez. Nire erregin-abotsak lanera eragin eutson, lenengotan ba otseintzat artu neban, neure senarraren ardureak an ipiñitakotzat, ain zuzen be; baiña arek berean jarraitu eban, bere atorrearen tolesturari zirkniik be eragiteke. Andik zati batera jagi zan nire zema■pean, baiña beso zakarraz, aretotik eta atartetik jaurti nai izango ba'nindu lez. Itzul nintzan, suak artua, eta igon nintzan oge apaindua dagoen gizategirako mailladian gora, altxor-aretotik ur-ur. Ikuskizuna be orduan jagi zan eta, ziñu zorrotzez bidea galazorik, blastadakoan agertu yatan aurrean bere gara osoan, mear, aitu, begi azpi-janakaz, samur eta intzirika, ikusmena ta arnasa dar-daratzen zituan mamua bai-litzan... Alperrik da, baiña, diñoke-dan guztia, ez bait dago itzik asko danik nik ikusia margotzeko. Ikus zeuok: emakume ori argitara urteten be azartzen yaku! Gagozan berton alkarregaz gure jaun eta erregea etorri arte. O Fe:1-bu, edertasunaren lagun mm! ezi egizuz gauezko iratxo izugarriak edo-ta urrin egizuz illunpeekin naasian.

(Forkia, atartean agertzen da, alearen abe artean).

ABESBATZA.—Luzez bizi izan naz ni, nire uleak bada dantzan dagie onezkero giltz-biran ia zuri! Jazokun bildurgarriak ikusi ditut, guda-izurriak ugari ta Dios (Troia) jausi zaneko gau gogoan-garria.

Oiu izugarritz jainkoei dei egiten entzun neban, burrukalariak estaltzen zituan auts-laiño erditik; baita entzun neban durunduka Liskarraren borontzea lauan zcar, arresien aldetik.

Oindiño bada, ail , zutik egozan Ilion'go arresiak; baiña orduko dana eukon artuta sugarren irakidurak, emen eta an zabala-zirik, ekaitz eta aize zirimolak azkortuak, eta pizkaka pizkaka uri osoaz jabetu zan.

Ikusi neban, bai, zelan iges egien jainko suminduak txingar eta keemoltzo tarteaz, milla miiñetan zatituriko sugar-erauntsi artean; baita ikusi nebazan itxura ezezagun eta erraldoi antzekoak argitasunak nun-naitik ditziratzen ebazan ats-bafada naasien arte-tik ibilten.

Ezingo neuke esan naspil bizi au egiaz ikusi neban ala neure barru atsekabetua izan zan gauzok sortu ebazana; baiña zalantza

barik autortit neikena auxe **da**, mamutzar ori neure begiakaz **da** kustala orain. Neure eskuaz ikutzeraino elduko nintzake, galzoria-ren bildurak emetuko ez ba'nindu.

Forkia'ren alabetatik, zein zara zu? Ez naukazu oker, ba, zu enda ortakoa eristeaz. Zu zaitut bear bada erkin jaio ziran eskerre. tatik bat, eta irurentzat begi.

Eta oraindik be edertasunari berari ager-min zaitut eta Foibu'ren aurrean, ahi ondo ezagun zaitunaren begietan? Baiña ez dau-tsa; zoaz aurrerantza; Foibu'k ez dau egundo itsusitasuna begi-ratzen, aren begi sagaratuak inoiz ez dabe itzalik ikusi-ta.

Bai, al! , gu ilkorrekan alanbear zurbillak beartzen dau gure ikusmena itsusiak eta duin-ezak eder-zaleegan dakarrezan atseka-be ezin esanetara. Entzun, ba, zuk, orren ausarki erronka dagis-kuzun orrek, jainkoak eraturiko doatasun betearen etsai-aotiko birao, zemai ta ez-esatekoak.

FORmA.—Egi aundia da, zentzunez betea beti, Lotsea ta Eder-tasuna ez doazala be alkarrekin, eskutik oratuta, lurreko bidezid-or ezeetan zear. Gorroto aspaldikoa da bien artean, susterrak sakon eginda, eta, dana dalakoa dala alkar idoro daroen tokia, bata besteari bizkarra emon oi dautso, eta biak bestelako bideari loturik doaz, Lotsea atsekabez eta arro ta andigoiti Edertasuna Orko'ko gau makurrak barnean artu arte, adinak lendik ezi ez badaroz. Zuekiko, arpegi-andiok, arrotzaren ausarkeri osoz jant-zita zabiltzenok, odei luze goi-zear ibilki beera euren karraskad-ak bialtzen dabezan kurrilo moltzo zaratatsu lez ikusten zaituet, bidazti bakartiari burua jaso eragiten dautsenen antzera noski. Kurrilloak euren bidetik darraie, baita bidaztiak beretik; bardin-tsu jazoko da zuekaz be,

Nortzuk zarie, ba, zuok, Menada suminduen gisakuok, emakume ordituak iduri, erregearen jauregi garaira be iskilmiño ta zalaparta urreratzen ausartzen zarienok? Nortzuk zarie zuok, txakur-pilloak itargiari lez etxeko mirabeari zaunkaz diarduzuenok? Zuen enda ez dodala ezagutzen uste dozue ala, enda gazte gudue-tan sortua ta burrukaldietan ezia, enda **aldi berean iru-**zurti ta iruzurtua, gudalari ta uritar indarrez batera jantzia? Orre-la taldetan ikusiaz, uzta samurretara jatsitako matxin-saltari mol-tzoa emoten dozue. Jaletzar, inoren lan-ondatzaille, sorbarri dan

ugaritasunaren salgai alperrik galdua: etzarie besterik.

ELENA.—Etxeko eskubideak ostutea da etxekoandrearen aurrean zerbitzariari agiraka egitea; ari dagokio bakar-bakarrik goralpenak eta zigorrak banatzea. Eta ni pozik nago jente onek Ilion eraso, jausi ta ondatu zanean egin eustezan zerbitzuakaitik; baita alderrai ibifli g, iñaneko bizi-goraberetan, bakotxa bere buruaz bakarrik arazotu oi danekoetan nunbait, egin eustezanakaitik be. Une onetan, gaiñera, danak daukadaz neure mende. Ugazabak ez eban nai izan jopu izan eitezenik, otseintzen daben lez otseindu egiela baiño; ixiltzeko agintzen dautzut, beraz, eta ez daizula iraunik geiago emon jente onen kaltetan. Ondo gorde zenduan errege-etxea zure erregiña kanpotik zalarik? Orrela egin baldin ba'dozu, sarigarri zara nire aldetik; baiña kontuan eukizu erregiña itzuli dala orain eta bidea itxi bear dautsozula, sari orde zíggorra artu nai ez ba'dozu.

FoRxIA.—Beti izan da errege-gai maitearen emazte prestuaren eskubide jatorra bere egoitzeko biztanleai akar egitea, eta zuk jaurlaritzaz zuurrean urte luzeak egin ondoren irabazi 'zenduan eskubide ori. Ba-dakit barrito zeure antxiñako mailla, ots, etxekoandre ta erregiñarena, ostera be artu ta aspaldiko aldietako zuzendaritaz jabetzera zatozana; jaurri, ba, ta ar dagokizun altxor eta gure jabetza. Baiña, batez he, babes naizu ni, danetan zaarrena nozu-ta, mirabe-saldo orren aurka, antzar lumaztatu ta itz-ontzi lez bait dira zure edertasunaren kisne gurenaren ondoan.

ABESBATZ-AINTZINDARIA,—Ederraren alboan bego beti motz itsusia!

(Une onetatik Korulariak errepika dagie lerroetatik urtenaz).

FoRKIA.—Ergellceria bego beti ergel errazoiaren alboan!

Va) KORULARIA.—Mintza zakiguz Erebo zeure aitaz eta Gau zeure arnaz.

FORKIA.—Eta mintza zakiguz zu Eskila zeure lengusu anaiaz.

2' GARREN KORULARIA.—Mamuzturik daukazu zeure jatorri-zugatza.

FORKIA.—Zoaz Orko'ra, zeure senitarte guztia daukazun tokira.

3' GARREN KORULARIA.—An bizi diran guztiak, gazteegiak dira zuretzako.

FORKIA.—Zoaz Tiresia zaarragaz labangille egitera.

4'GARREN KORULARIA.—Orion 'en iñudea loba dozu.

FORKIA.—Harpiak uste dot izan zirala zu pekatuan azi zinduezanak.

5'GARREN KORULARIA.—Zegaz janaritzen dozu ain ondo zaindutako meetasun ori?

FORKIA.—Odol-xurgariaren ortzak dizdiz dagie zure izugarrizko eztarri zuloetan.

AINTZINDARI-EMEA.—NeUk itxiko ditut zureak, nor zarean ba' diñot.

FORKIA.—Esaizu lenen zeure izena, ta olan ez dagoke ezkuterik.

ELENA.—Zeuen artetik igaroko naz asarre barik, baiña atsekabez, eta ez dautzuet lagatzen, ez, olako autu zakarrrik. Ez dago jaunarentzat bere mirabe zintzoak, ixillean alikatuta, alkarri dautsen ezin ikusia baiña gauza txarragorik; aginduen oiartzuna orduan zintzo ta ozenki egintza biurtu oi dana, eta abots asaldatuen zalaparta jagiten da aren biran, ozt-oztan ixil-azo al dauana noski. Baiña ba-da oraindik zerbait geiago: zeuen asarre-aldi neurribakoan ingurumari ditudan irudi goibelak ekarri dozuez gogora, eta ori bide dalarik, neure aberriko zelai orlegietara barik, Orko' raiño ekarria izan nazala iruditzen yat. Oroi bat ete da? Ames bat, bear bada? Ori guztioi izan naz ni, ala egunen baten ori izan bear ko ete, uri-ondatzailleen mamu ta ames? Ondo dago mirabe gazteen bildur-ikarea, baiña itz egizu zuk, zaarren orrek, odol otzak egundo be itxi ez zinduzan orrek; mintza ta erantzun zuk, eta zure itzak labur-argiak izan daitezela.

FORKIA.—Urte luzeetan aldizka bakarrik goza zituan zorionaldiak gogora dakartsanarentzat, ames bat iruditzen yako azkenez jainkoen mesedea; baiña zuk neurri ta azken barik goza zenduan mesede ori, eta zeure bizitz-aldian gizaseme maiteminduak baiña ez zenduzan idoro, aragi-lerak gauzarik arriskutsuenak egitera eroan zitunak. Teseu bera be irrirts izan yatzun, Erkul baizen aaltsu, gazte ta entzuna bera.

ELENA.—Arek azi ninduan ni amar urteko neskato luzebegi baiña ez nintzanean; eta Afidne auzuneak atotsi nindun, Atika zarrean.

FORKIA.—Gero, Kastor eta Polux'ek jarei zinduezanean, gizaseme guren mordoia ibilli yatzun atzetik.

ELENA.—Baiña nire ixilleko doaia guztien artean oldez dautort — Patrokol, Peleu'ren antz-antzekoak, irabazi al izan eban.

FORICIA.—Zure aitaren naiak, alan be, Menelau'gaz alkartu zinduzan, aldi berean itxastar ausart eta etxeko sukaldearen jagole arduratsu zanagaz.

ELENA.—Aren zainpean jarri eban bere alabea, orrez gaiñ bere erreñuaren gorabera guztia be arexeri emonik; Hermione izan zan alkartze onen ondorena,

FORXIA.—Baiña ona, Kreta urriñekoa eskuratzerazuzentzen zalarik zure senarra, arrotz bat agertu zan zure bakartadean, arrotz lerdentasun eta jas geiegiko bat ain zuzen be.

ELENA.—Zergaitik gogorazten daustazu neure erdi-alarguntzako sasoi a, ondoren ziñez kaltekorrak ekarri eustazana?

FORKIA.—Baita Kreta'n jaio nintzan onentzat be; zure senarraren egitekoa, zori txarrez, buztarpea ta urte luzeetako mirabetza izan zan niretzat.

ELENA.—Arek, alan be, emen ipiñi zinduzan bertoko gauza guztien ugazabandre egiñik; euzunea ta aren zangarki eskuratutako altxorra be zeuri emon eutzun.

FORKIA.—Zuk bazter itxi zenduna ain zuzen be, Troia'ko arriesetara ta maitezko poztasun ezin-itzalieta biurtuz...

ELENA.—EZ eidazuz gomut-arazo poztasun orreik: neure bularra ta bekokia orain naigabe izugarri baten neurri-ebak blai-blai daukaz.

FORKIA.—Esan zanez, mamu bikoitz uez agertu ziñan batera Ilion'en eta Egioto'n.

ELENA.—EZ eizu geitu nire sentipen ondauen zaparrasta; oraintxe berton be ez dakit nor nazan.

FORKIAR.—Gero esan zan, Akil alkartu zala zugaz leiatsu be leiatsu, itzalen aginterritik iges egin ondoren; zeugaz alkartzera, bai, ain bizi maite izan zinduzan orrekin, alanbearrak agindutakoaren aurka.

ELENA.—Eta, ni, mamu au, erakin batu nintzan, beste mamu bat zanarekin; guztia zan ames bat, gure itzak eurak be ames

ziran lez; eta itsutu nintzancan, neu be mamu biurturik geratu nintzan.

(Abesbatzaren besoetan jausten da).

ABESBATZA.—Bake! Bakea! Itxi agoa, ortz bat bakarrecko orrek, txarto-esale tukutsu! Zer urtengo zilo izugarri ortatik?

Ona dirudian gaiztoak eta bildots ulez jantzitako otsoaren erretasunak ez dakarre iru buruko txakurrak aiña izu-larri. Lur jota gagoz izuaren izuz, eta olako gaizkin zitala noiz, zelan eta nundik etorri yakun alkarri itaunka.

Ona, bada, gu poztu ta eztizko itz gozo baten Leteu gure gaiñ uinka ixuri bearrean, joana urkultzen diarduzu, onaren gaiñ txarra pillatzen eta oraiñaren argitasuna illuntzen, geroaren itxaropen-argi leuna aldi berean loitzen dozularik.

Ixil, ixil zaitez, bada! jagi bedi barriro be erregiñaren arima; geldi daitela geure artean, eguzkiak ifioiz argitu ez dauan giza-itxurarik eder-bikaiñean.

(Konortera dator Elena, eta Abesbatzaren erdian itxartzen).

FORKIA.—Urten lurrin arin artetik, o eguzki dizditsu! , gaur gu zurtasunez beterik, dirdai bizitan aintzatsu agertzen yakuna! Begira bare ta naro, mundu osoa zeure oiñetan zelan zabal-azten dan! Ondo dagie danak ni Ezaintasuna bera nazala esatean, orrela ezagutu bait daiket ondo Edertasuna.

ELENA.—Alboruzka urteten naz zorabioan inguratu nauan utsetik, eta atsedena gura neuke orain, nire soin-atalak oro nekaturik dagoz-eta; baiña eregiñak eta gizaseme danak sendotu bearra dabe ta adorea izan aurkitu leitekezan edozein ezbear eta gaitzalditan.

FORKIA.—Aunditasuna ta edertasuna beti dituzu guretzako, eta naiko dozu acure begi-ziztaz agintzea. Zer agintzen dauskuzu, ba? Mintza,

ELENA.—Alperreko istillu oneitan galdutako aldiaren ordaiña jasoa izan dedilla, eta baita beingoan bete be erregeak erabagitako oparia.

FORKIA.—Guztia dago gertu: txola, trebera,, aizkora zorroztua, ur ikuzlea, intzentsua... Oparia falta da bakarrik. Izenta egizu.

ELENA.—Erregeak ez dau aitatu.

FORMA.—Erregeak ez dau olakorik adierazo? Benetan zorítzar itzala!

ELENA.—Ze larrialdik artzen zaitu?

FoRKIA.—Orduan zeu zara, ba, erregiñ!

ELENA,—Ní ete?

FoRKIA.—Zeu, eta beste guztiok.

ABESBATZA.—ZOri gaiztoa ta etsipena!

FoRKIA.—Zeu zara aizkorapean jausiko zareana.

ELENA.—Ikaragarria, benetan! Baiña, ai ene! , ba-neban lendik be orren susmoa.

FoRKIA.—Oparia, ezin-itxia da.

ABESBATZA.—GU bai zori gaiztoko! Zelako geroak gaukaz?

FoRKIA.—Erio prestuz ilgo da bera, baia zuok, sapaia eusten dagozan aga garaietatik erreskadan esegiak izango zarie, eiztariak artean atzitako txoriak lez.

(Elena'k eta Abesbatzak talde ozena dagie, izu-ikararen dardarapean).

FoRKIA.—Oi mamu! , geldi dagozan ekantzak dirudizue, onez-kero zeuena ez dan eguna laga bearrak izututa or zagoze, bai! Gizonak ez dabez, ez, gogoz izten eguzki-argi gureneta ain antzeko yatzuezan irelu-orraziak; bailía iñok ez dau orain euren arteko egin nai, eta ez dago indarrrik orreik onik atera leikezanik euren patu lazgarririk. Eurotatik danak dakie ori, eta orixegaitik egiñik doaz apurka apurka. Galduak zarie, ba, eta egintzara jo bear da len-bait-len. *(Txalo dagi eskuekaz, eta bertatik datoz epotxo zomorrotu batzuk, artutako aginduak beteten alegintzen diranak).* Emen zu, aireko mamu baltz! Kemen! Lot txarrari! Leku urrezko adarren ondira! Bego aizkora dizditsua zidarrezko egal gaiñean; bote urez suillak, gero odol baltzaren lorratz laidotsua xautzeko; zabal atas gaiñean oin-zapi bikaiña, bertan belaunika dedin oparigaia igurtzi gurenez, eta gero eortzia dadiñean —buru bage, berezko danez—, dana dala izan dedilla duinkiro.

AINTZINDARI-EMEA.—Oldozkor dago erregiña eta mirabeak buru-makur, ebaitako bedarra iduri. Une ontako nire zeregin garaia, guztion artean nagusi nazan ezkerro, zugaz, aintxiñako buruzagi orregaz, itz-aldatzea da. Oar-ikasia dozu zuk eta jakituria, eta ez dozu egi-egiaz gordeten gurekiko ardura, lenengotan txarto epaitu ba' zaitu be zoro-talde onek. Esaidazu, ba, ezer ete daukagun geure buruak gaizkatzeko,

FORKIA.—Ba-dago, bai, bide guztiz erreza. Erregiñaren esku dago bere eta zuen guztion salbaziñoa; baiña jatraian, erabagitekoa da.

ABESBATZA-Oi, Balbeak lotsarik geien izana! Oi Sibilata-
rren artean jakintsuena! Zabalik daukazuz urrezko guraizeak. Leia
zaitez guri argia ta gaizkapena iragarten, gure soin-atal guriak ba-
da lau aizetara edatuak nabaitzen doguz onezkero; izan be, atse-
giñago litzak'oe dantzari jostatzea, olan maitearen **atse-**
dena ar dagien gozaro.

ELENA.—Itxi egiezue dardaraztu daitezcan. Ni bai naigabez
nago, baiña ez larri ikaraz; orixegaitik, nare-nare diñotzut, zuk
gu onik aterateko dakizun edozein bide, esker onez artua izango
dala. Eziña batzuetan eginkizun agertzen yako arima jakintsu ta
zintzoari. Mintza, ba.

ABESBATZA.—Mintza, bai. Esaiguzu bizkor zelan iges egin
gengiken arri-pitxirik baltzenak lez geure samearen biran korapi-
llotzen diran lokailu oneitatik. Itoten gagozala dirudi, gu gaixuok;
gogo ta arnasa bage gaukazuz zu erruki ezik gutaz, guren-guren
ori! , jainko guztien ama garai!

FORMA.—Izango al dozue artea, itzaldi-talde bat igaroten ixi-
lik ikusteko?

ABESBATZA.—Izango dogu, bai. Entzutean, bizi gara.

FORKIA.—Bizitz-egun luzeetan dana doake ondo, etxean gera-
tu ta altxor prestua zaindu ta, bere orma jagiak zurkaiztaturik, be-
re sapaia ekaitzaren aurka gorde daroanarentzat; baiña egoitzeko
atari sagaratua errez¹ garo ezker oin igeskorrez, olakoak itzul
tzean **itxi** eban tokian eurkituko dau etxea, baiña bertan dana ez
baldin ba'dago **be** suntsitua, dana guztiz aldatua bai beiñik-bein.

ELENA.—Norantza zuzenduak doaz esakun ain ezagunok? Itz-
egingo dozula egindu dauskuzu, baiña ez eizu iratzar gomuta atse-
gaitzik.

FORMA.—Au ez da irain egiterik, edesti pizkat osotzea bai-
ño. Menelau itxaslapur lez ibilli zan izkolkorik izkolko; etzan ge-
ratu ak inguratu bako ugarterik ez izpazterrik, eta txango guztie-
tatik arrapakiñez beterik etorten zan, gero guztiak jauregi onetan
joranez metaturik. Ondoren amar urtez egon izan da Troia au-
rrean, eta nik ez dakit zergaitik itzuliz datorren orain. Baiña, zer

jazo zan tartean Pindaro'ren jauregi garaian? Zer gertatu da aren erresumaz?

ELENA.—Arima barru-barruan bait daroazu iraua, zauritu beraz, ezin dituzu zeure ezpanak askatu-azo.

FoRKIA.—Beste ainbeste urtetan lotu zan bertanbera Esparta iparraldera, Taigeto'k babestua, zabaltzen dan ibarra; antxe, Eurota kañaberaz esitua pozik eta jauzika gure kisneak janaritzera datorren lekuan. Mendi garai arteko ibar orretan, ba, Krimeri pres-tutik jalgi erraza ibiltari bat kokatu yaku, ta auzune arresitu bat jagi da bertan, igon-eziña, eta bertako biztanleak euren ariora bizi dira bertantxe.

ELENA.—Zelan egin al izan da ori? Siniskaitza dirudi oso.

FoRKIA.—Astia izan dabe aurki, ia ogei urte izan dabez aurretik eta.

ELENA.—Eta bururik ba-dauke? Asko dira arrapatzailleok? Bat-eginda bizi dira?

FoLucIA.—Euretan bat da danen buruzagia, baiña ez, dira arrapatzailleak. Eta ez da zuzenekoa enda origaitik txarto esatea; inguru guztiaz jabetu al izanda be, bada, zerga izena be emoten ez dautsen bezua aren batzuekaz naikoa daukie-ta.

ELENA.—Zelako buruzagia da bera?

FoRKIA.—Ez dau jokabide txarra, nire eretziz, beintzat. Gizaseme argi ta ausarta dozu; zuurra ta jakintsua, gerkarren artean gaur iñor ez dagoan lakoa. Erri oneri basati deritxe, baiña nik uste dot, aren basakeria aundia izanik be, ez da iñoiz Troia'ko arresien aintzinean gizajale lez... agertu zan gizuren bat baiño geiagoren maillara elduko. Buruzagi orren uste ona dot, eta beregan ditxarot. Ba, eta aren gaztelua? Ikusgarria, ziñez. Ez dira aren ormak, egiz astunak, zuen gurasoak, al eben lez, egiazko kiko-
klopeak bai litzan, arri landu-bagea arri landugabe gaiñ ezarririk, jaso ebezanen antzekoak, Gaztelu orretan dana da ertia ta neurria. Urrundik ikusten da zut eta sendo zerurantz igonaz, guzti a borontzekoa ba'litza lez, Bera igotea gogoratzeak bakarrik zora-bioa dakarsku. Barnean larrain zabalak dagoz, eun motatako egikeraz landuak, ainbat eta ainbat zerbitzutarako. Zutoiñak dagoz eta zutointxoak, uztai eta mako zorrotzak, balkoi ta egurastokiak,

oneitatik barne ta kanpo jazoten dana erabat ikusirik; baita bada-
dagoz mazmarro ta ikurdiak be.

ELENA.—Zer ikurdi dira orreik?

FORKIA.—Aiax'enak, zeuk be ikusi zenduan lez, suge batzuk
erakusten zituan erredola gaiñean alkartuta. Zazpirak, Tebas'en
aurrean, bakotzak berean alegizko irudi aberatsak eroiezan. Eu-
retan ikusi zeikezan illargia ta izarrak gauezko ortzi gaiñean, eta
baita jainkoak, gizurenak, zurubiak, aiztoak, zuziak eta uri batek
zemaika euki leiken edozer. Gure gizurenak be, aspaldidanik, da-
roieiz gudu-jantzieta antzeko irudiak: leoi ta arranoak, zerra ta
pikotzak, egoak eta idi-adarrak, larrosak eta indi-oillo buztanak,
baita txingolak be urrean eta zidarrean, baltzean, gorrian eta ur-
diñean. Irudi guzti orreik, bada, mundua baizen aundi erakusten
d'ra lerroan ipiñita gaztelu onetako areto nasaietan. Zuok bai eder-
to dantzatuko zeunkiela an!

ABESBATZA.—Esaiguzu, dantzaririk ba ete dago jauregi orre-
tan?

FORKIA.—Zoragarriak dagoz. Orrelako taldeak, urrezko ule-
adatez eta gaztekemenez jori. Paris'ek berak ez dauko olako gaz-
tetasun-usaiñik, erregiñaren ondoan bere burua erakutsi oi daua-
nean ezik,

ELENA.—Aritik urtenda zabiltz; esa dazu azken itza.

FORXIA.—Zeu zara esan bear dozuna; esaizu bai bat aundikiro,
argi be argi entzuteko eran, eta nik egingo dot gaztelu orrek
zu esitu zagizan.

ELENA.—Zelan, bada? Itxi ete neinke Menelau erregea nigaz
agertu dedin ni oiñazetzeko lain saierre?

FORKIA.—EZ dakizu zelan motzitu eban Deifobo, Paris'en
anai, burrukaldian ji zana? Deifobo'k irabazi zinduzan eta euki,
alegin neketsu ostean, eta berak ebagi eutsozan surra ta belarriak,
mozketa geiago be eülik. Itxurabakoa izan zan a.

ELENA.—Baltza aren zoria, neugaitik.

FORKIA.—Baita zugana urreratzen dan beste edozeiñena be,
iñok galazo barik baldin ba'da, Zatitu-eziña da ederra, eta bera
daukanak naiago dau osorik suntsitu, aretan erdikide izatea dan
guztia madarikaturik,

(Musikea urrin-samar. Dardaraz Abesbatza).

Bekaitz-garra kakotxen da gizonaren bularrean, belarriak eta erriak eratzi oi dauazan soñu zorrotzak lez bera urratu ta austen dautsola; eta tukutsuak, leia biziz irrikatua euki ondoren, ez dan iñoiz aztuten galdu ebana.

ABESBATZA.—Itxoiri: ez ete dozu entzuten turuten dardara? Ez dakusazu izkilluen diztira?

FORKIA.—Ondo etorria bedi, jaun eta errege; gertu nago egiñaren kontua zuri emoteko.

ABESBATZA.—Baita gu bere!

FORKIA.—Ba-dakizue ondo be; begi aurrean dakusazue aren eriotza, eta aregan iruditzen dozue zeuon eriotza. Onezkero ez dago zuontzat gaizkapenik.

(*Aldarte*).

ELENA.—Iraulja dot barruan zer egin bearra dan. Ziur nago, zu txerren bat zaitut, eta bildur naz zuk txarra on biurtuko ete daustazun. Oroz-gain, gaztelura jarraitu nai dautzut; enparaua nik bakarrik be ba-dakit, eta erregiñak bere barruan euki leikezan ez-kutuak barrendu-gaitzak izan daitezala danontzat. Goazen, ba, atso!

ABESBATZA.—Oin-bizkor abiatzen gara eriotza lepo-gaiñ dogula eta geure begipean izanik gaztelu garai orma ezin-igonezkoz esitua; beronek babes gaizala maltzurkeriz bakarrik jausi zan Troia'ko gotor-lekua lez.

(*Barnea osorik estal-azi ta proskeni-mugaz ,abetzen diran odei batzuk agertzen*

Baiña, zelan? Begira ingurumari, aiztak. Zergaitik jarri da illun eguna? IKUS zelan pillotzen diran laiñoak, Eurota'ko ur doneetatik urtenak. Ezeztatuz doaz nire ikuspegitik larrosaz beteriko bidezidorrak; ez dot onezkero kisnerik ikusten, lerdan, arro eta eskertsu, talde bigun txeratsuetan laban dagienak beti ispillu urtsuan zear.

Urriñean dantzudaz grakada zakar batzuk, eriotza iragarritz; orixe da aurretiaz dirioena, kisneen aizta zuriei eskjñi yaken gaizkapenaren orde, edur-diztira dauan gure samearen zuritasunagaitik aiztak noski. Zori gaiztokoak gu! Errukarri aundiak!

Usgune osoaz jabetu dira illunpeak, dagoneko. Ozt-oztan alkar ikusten dogu: Baiña geldi gagoz ala ibilli gabiltz? Nagia ala biz-

korra da gure urratsa? Ba-dakusazue ezer oiñen azpian? Hermes daroagu aurretik aurrelari? Ez dozue ikusten aren urre-makilla Hade'ren altzoan sartzeko agintzen dauskularik? Egoitza its eta goibela au, beti uts eta beti gonburu, mamu jadetsi-eziñez beteriko egoitza.

Itzetik ortzera illun jarri da eguratsa, eta lurrun lodi arrea argitasunari tokirik egin bage urtzen da, begi-sista askeak arr -meta zutakaz oztopo dagian bitartean. Larrain bat ete da ori? Luban sakona ete? Ez dakust neure inguruan izu-gaia besterik. Ai, aitzak! Katigu gagoz, iñoiz baiño katíguago!

(*Gazteluaren barne-larriña, Erdi,Aro egikerako etxe aberats ederrez inguratuta*).

AINTZINDART-EME.-01 txunditu ta zoro, benetako emakumak! Zori onaren eta txarraren jostaillu zarie, batari naiz besteari gogogiro bardiñez begiratzen iñoiz igarteko gauza ez zarienok. Bion artean, bada, naitaez egon bear dau tarte zabala, eta orixegaitik pozak eta atsekabcak bardintsu biarrean ikutu bear gaitue, doiñu bat-berean negar naiz barre egiñik. Baiña ixillik orain, eta itxaron daigun esaneko erregiña biotz aundiak beretzat eta guretzat erabagiten dauana.

ELENA.—Nun zagoz, azti? Dana dala zure izena, atera zaitzez zeure egoitz baltzaren erraietatik. Eskualde oneitako jaun zador-tsua iragartera zatorkidaz, eta nire arrera atontzera bear bada? Eskerrik beroenak damotzudaz, ba, eta eroan naizula arengana eskatzen dautzut alik eta ariñen; neure okerren amaia opa dot jadanik bizi-bizi ta atsedena besterik ez dot irrikatzen.

AINTZINDARI-EME.—Alperrik zabiltz billa nire inguruan, oi erregiñ! , mamu ikaragarria ostendua baita. Ez dakit gu ona etorri garean odei magalera itzuli dan arin-aringa; alderrai dabilkizu bear bada, gaztelu zardain onen naspillean galdua, askotariko beronen neurri ta ederrean, errege-gaiari zor yaken omenaldia eskintzeko jaunaren billa apika. Baiña jaso zeure begitua gorantz: zerbitzari talde aundiak diraki sollairuan, balkoietan eta ate-buru azpjetan. Danak diragarte arrera ona ta prestua.

ABESBATZA.-SOr ta lor dot arima. Ikus, zelako ibilkera eder, guren eta jasezkoan agertzen yakun gaztedi samur orren jarraigo neurtua. Nok jarri ete dau olako neurria eta ain ederto lerrotu

erri gazte onen burnioak? Ez dakit zer miretsi geiago, euren ibilli jaso ala euren ule-adats kizkurtuak bekoki argi **ala euren** matrail muxika lez gorriak, eta eurak lez batera gozo balusatuak. Aginka egingo neuskiez jozik euretan, baiña ez, ez dot nai, orduan bada agoa —izugarri da esatea be— eutsez beteko litzateke.

Baiña or nun datorren aurrerantz gaztedi ori. Zer dakar beragaz? Errege-aurkirako maillak, oin-azpikoa, bururdikoak, errezelak eta txosnarako bear dan guztia; au antolaturik, odei-zintzilikaz esitzen dabe gure erregiñaren burua, Elena bada erregearen oin-aulki ondoan jarteko deitua izan da. Jaso egizue bakaulki goigoira, maillaz mail; lerro zaitze zuok ospez eta aundi! Duin duin eratu dana, irukoz duin-duin, arrera dedutsua izan dadin.

(Abesbatzak esana zezatz-zeatz egiñaz doa. Faust dator gero; aldeko ta eskutariak andik eta emendik jatsi diranean erreskada luzeetan, orduantxe agertzen da zurubi puntan, Erdi-Aroko itxurran zaldun-soiñekoz dotore jantzia, eta bera be beera jasten da astiro ta ospetsu).

AINTZINDARI-EME.—(Adi-adi *begira*), Danak ondo ur tengo dautso gizon oni, bai gudua beste gizasemeakaz eta baita burruka txikienak be emakume ederrakaz, jainkoak izten ba'dautsoe egun batzuetarako —eurak egin oi dauen lez sarri— mirets-era duin ori, itxura guren ori ta azkai eder maitagarri ori. Nik obetzat ori, egiaz, nire begiak argarri euki ebezan beste asko baiño obetzat noski. Eta or nun datorren aurreratuz errege-gaia astiro ta ospe aunditan, agurrera deitua ba'litzan. So atzera, oi erregiñ!

FAUST.—(*Bere ondoan loturik daukan gizon bategaz, aurrerratuaz*). Onakoetan oi dan agur aintzatsuaren ordez, eta ondo-etorri gurenaren ordez, emen dakartzut, katez zamatua, morroi duin-ez au, bere bearkuna ez beterik, nirea be orain betea galazoten daustana. Jar zaitetz belauniko emakume garai onen aurrean eta autor egiozu zeure okerra. Or daukazu, erregiñ argia!, begi zorrotzdun gizona, torrerik garaienaren gaiñean jagole dana; beronen bearra da begiak zorrotz zeru zabalera ta lur edatura ixurtzea emen eta an urreko muiñoetan eta gure gaztelua zaintzen dauan ibarrean zirkin dagiana jaso ta iragarteko. Orobat iragarri bear dau abere-talde baten urreratzea naiz izkilludun giza-saldo batena, oneititik babestu ta onein aurka burrukatu daigun. Baiña gaur, oi ardura-

rik-ez baltza! , zu zatorkiguz eta ez zaitu iragarten, olan uts-emonik arrotz ain aintzatsuari zor yakon arrera txeratsua, arrera guztietatik ospetsu ta doneena. Bere bizia, bada, arriskuan ipiñi dau eretxi ariñegiz, eta onezkero bustita egon bear leuke merezitako eriotz-odoletan; baiña zeu zara bakar-bakarrik au zigor-azi bear dozuna, eta zeure naira edo-ta zeure apetara itxi daroat azkeneko erabagia.

ELENA. —Damostazun duintasuna, epaikari ta erregiñarena, aundia izanik be eta zure xede bakarra ni aztertzea ba'litzateke be, edozein epaikariren len-egikizuna, ots, errudunari entzun, orixe egingo dot. Mintza zaitetz, beraz.

LINKEU, TORRE-JAGOLE. —Itz eidazu belaunikatzen, itxi begiraten; naiz bizi naiz il, ni emakume onena naz oso-osorik, jainkoen jatorriko onena osorik!

Goiztar diztiraren zain nengoan; goiz-antzaren ibilliari begira ni, eta gesu batean, oi mirari! , eguerdi-aldetik gora etorren eguzkia.

Arantza biurtu nintzan, gaiñ-gaiñeko ikuskaria begiztatzeko osinak eta gaiñak alkartzen diran tokian, lurraren eta zeruaren uts-gunak bat datozen lekuan.

Begitu zorrotz araka nitun zugatz-buruak, baiña Jipar aretan astindu bearra ízan neban lo-zorrotik urteteko astindu bear izaten dan lez.

Ba-nekian, egiazki, nun aurkitzen nintzan? Mail-buru bat ete zan a, torre bat ala ate ertsi bat? Orduan lurrun batzuk zabukatu ziran eta, oneik urtzean, euren ondotik jalgi zan jainkosa au.

Beronen diztir bikotxaren izpi-jarioak gutartu nitun bularrez eta begiz biok makurtuz arenganantz, eta osotoro birloratu nindun, ai, ene bada! , aren edertasun itsugarriak.

Aztu nitun neure jagole-eginbearrak eta egiñiko zin-itz guztiak. Eta eriotz-zori aurkitu nintzan; edertasunak beti ezten dau asarrea.

ELENA. —Ez neuke zigor-aziko neuk egindako gaitz bat. Ene doakabe! Zer alanbear zorigaiztoko dabilkit atzetik gizasemeai beti ikara dakartsedala, ikusi-ala nik ezer ez diñotsedala ta eurak be ez niri? Erdi-jainkoak, gizurenak, jainkoak eta txerrenak eurak be neu nazala-ta bidetik aldendu baiño ez dira egin azken bako illunpetan, burruka, ebasketa ta lilluraketa sail amaigearen ostean. Itz baten, larri-ikaraz jarri izan dot mundua; obero esan, naspil-

duta itxi dor. Bi, iru edo lau itxuratan zoritxar bat beste baten gain ekarri besterik ez dot egiten. Beioa, ba, gizon au emendik, eta bedi bere buruaren jabe. Ez daitela jausi ezertariko irainik jainkoak itsutu dabenaren gainera.

FAUsT.—Arrimen aundiz dakustaz, oi erregiñ! , alkarregaz emen garaillea ta garaitua; ba-dakust baita geziak jaurti dauan uztai gizona zaurituz, eta ba-dantzudaz txistuka urgunean eta gaztelu bitan ni atzemon naita bata bestearen atzetik datozen azkonak. Nor naz onezkero? Nire morroi lepo-gogorak erasten dozuz eta nire arresi ikaragarriak suntsitzen daustazuz; bildur naz onezkero nire gudarozteak emakume gailen eta garaille bati ez ete dautson esana egingo. Zer yat geratzen neure patua ta oraindik neureak dirala uste dodazan ondasunak zeure eskuetan jartea besterik? Ona, ba, zeure oiñetan aske ta zintzo, erregiñatzat zeu ezaguturik, zeu bai, emen agertuaz bakarrik bakaulkiko ta eskualdeko ugazabancire egin zarean ori.

LINKEU (*Kutxa batekin, bezuzak dakarrezan gizonen zuzendarri*).—*Emen* naukazu onantz-aldiz barrero, ene erregiñ! Aberatsak zure begirakune bat eskatzen; ikuskatzen zaitu ta, beingoan, eskeko bat baizen txiro da oartzen eta errege-gai bat baizen aberats.

Zer nintzan ni lentxoago? Zer naz orain? Zer geiago opatzen? Zer egin hear cia? Begirakunak galdu egiten dau dizdiza, zure bakaulkian josi ezkerero.

Sortaldetik etorri gⁱñan gu, eta men-egiten ikusi genduzan Sar-kaldeko errialdeak; errien jarraigo luzea izan zan eta lenengoak ez eban azkenengoaren barririk,

Lenengoa jaustean, bigarrena geratzen zan zutik eta irugarrenak jasorik eukan bere lantzea. Bakotxak eun eukazan atzetik, eta millaka jausten ziran, inor oartu bage.

Dana inguratu genduan, danari oratu ostein. Nik gaur agintzen neban lekuan, beste bat zan biar esku-arrantza ta lapurretara emona.

Eta dana egin zan azkar be azkar: emakume ederrez jabetu etzana, iditalde bategaz geratu zan edo-ta zaldi-kopuru aundiaz.

Gauza bitxi ta ederrak ziran niretzat interesgarri, eta besteak euken guztiak bekatxa ta irrirtsa piztu-azten eusten niri.

Lortu neban altxor guztiak neuretzeko bide bat; nire begira-
kun sarkorrak garden biurtzen ebezan ziskuak eta diru-kutzak,

Olan metatu nitun urre-pilloak, eta, batez be, arri-pitxi guzti
oneik. Esmeral da bakar-bakarrik zure bular-gaiñearako argizko
duin dizdiz orlegiakaz.

Sar bediz, ba, orain zure belarri ta ao dardartian itxasoan on-
darreko tanta leiartsua. Errubiak eurak be lausotu egin oi dira
zure matraillen diztirak gerizpe dagitsenean.

Beraz, zeure aurrean jarten ditut altxorrik aundienak, baita
zure oiñetan metatu be burruka odoltsu askoren uzta.

Neugaz dakartazan kutxak asko izanik be, ba-daukadaz geiago
oraindik, Ez naizu zeure aurretik urrin-azo ta osoro beteko ditut
zure egoitzak.

Bakaulkirako maillak igon besterik, eta dagoneko, oi edertasun
bardiñik eza! , makurtzen eta apalazten dira zure aurrean, adimena,
aberastasuna ta kemena,

Emendik aurrera zeureak dituzu altxor guztiok, nik giltz-pean
naukazanok, Eurok yatazan ames eta zorion, baiña zure arpegia
ikusi dodanetik, ez dauke niretzat ezetariko baliorik.

Neukan guztia ez da jadanik bedar zirtzil ebagia ta zimeldua
baño. Emon eiozu barriz be guzti orri leen eukan balioa, zeure
begien ziztada nare batekin.

FAUST.—Laga or bertatik ain ausarti zeuganatu dozuzan kutxa
ta sortak, Bai, laga errezepe ta asarre barik, bailia baita sari barik
be, Emkume onek batera dau gaztelu osoak bere altzoan dauan
oro; olan gaiñezkakoa dala deritxot gauza baxotxa berari banan-
banan eskintzea. Metan, ba, egoki-egoki, altxorra altxor gaiñ,
eta egin irudi zoragarri bat oi-ez lalco ditziraduna, bere azpian
dirdir dagien zeru-gangak ortzirik gardenenak baizen eder. Azal
eizuz arnasa bageko bizi-atsegintegi orreik; edatu bere oinpean
lorez ereindako oial-zamauak eta azpia izan daitela eurentzat bi-
guna, amultsu. Gal bedi, azkenez, aren begikaldia dirdira bizi,
jainkoak ezik itsututen ez dabezanetan.

LINKEU.—Gitxi da jaunak agindua, eta zerbitzariak begien
itxi-edegi baten egingo dau. Edertasun zoragarri ori da, onezkero,
gure ondasun eta gure odolaz erabagitzen dauana. Ezirik dago gu-
daroztea; kamuts agertzen dira aiztoak; eguzkia bera samur ta

otz agertzen da itxura ain gorengoaren aurrean, eta betarte orren aberastasunaren atzean jadanik utsa ta ezereza geratzen dira soilki. (*Ba-doa*).

ELENA (*Fausri*).—*Itz-egin* gura neuskizu; erdu ta igon neure ondora; leku uts onek ugazaba bat ditzaro ta daska.

FAUST.—Itxi eidazu, lenen, emakume gorengo orrek, belau-niko jar naiten, eta ar eistazu, otoi, omenaldi zintzo au. Munkatu daidala, arren, zeuganaiño jaso naroan eskua, eta, nigaz zeure amai-bako agintaldiaren jaurlaritza zatikatzen baldin ba'dozu, ziurtzat euki egizu gizon baten bakarrik biltzen dozuzala morroia, jagolea ta gurtzaillea.

ELENA.—Gauza arrigarriak baiño ez dodaz ikusten, ez entzuten. Arritasunak artuta nago, eta onek milla itaun sor-erazten daustaz; baiña bein-beiñean urrengoari erantzuna besterik ez dot gura: Zertan datza gizon onen mintzoa erabat, aldi berean, niri ain bakana ta gozoa ¿zarca? Doiñua doiñuari itsatsiaz doa, eta itz batek belarria ikutu-ala beste bat datorkit xamur laztantzera.

FAUST.—Gure errien izkuntzari atsegiña artzen asten ba'zara, geiago lilluratuko zaitu euren kantuak, bear bada, eta onek jakingo dau zure belarriak eta arimea azpi-barnetaraiño zorabiatu ta suspertzen. Orain ezkerro, ba, autu kiñagarri ta erakarkor baten atsegiñetara jarri gaitzezan.

ELENA.—Esaidazu: zer eg'n bear dot izkera ain ederrez mintzatzeko?

FAUST.—EZ yatzu gatxa, ori biotzetik datorrena da-ta; gurariz gaiñezka jarten danean bularra, norbere ingurura begitu ta billa asten da.

ELENA.—Zeren billa? Nogaz zatitu geure altxorra?

FAUST.—Gogoak gero ez dau begiratzen ez aurrera, ez atzera; oraiña da bakar-bakarrik.

ELENA.—Orixe da gure zoriona.

FAUST.—Altxorrak, irabaziak, jabetzak, zer dago ori baitzeko?

ELENA.—Neure eskua.

ABESBATZA.—NOK gaizkiak esango gure erregiñ-gaia gazteluko jaunarekin maitekor agertzen dala-ta? Katiguak gareala autortu bear dogu, ba, Troia jausita gero be askotan izan gintzazan lez, geure askotariko goraberetan batez be. Gizasemeen maitasunera

eginda emakumak esateko aukeratze barik artu oi dabez naiz ar-tzain ule-gorriak naiz ule-kizkurdun basa-gizon baltzizkak; eretia eskura ezker, zabal-zabal eskiñi oi dabe eskubide bardiña euren soin-atal bizi-urdurietan. Estu-estu alkartzen dira ar-emonean gero ta geiago bilduz; bata besteari dautsola, sorbaldez sorbalda, be-launez belaun eta eskuz esku, leun-leun zabutzen dira bakaulkiko edertasun urreztatuan. Goitasunak orduan bere ixilleko pozak erriaren begi aurrean agertatzen ditu, oso-osoan.

ELENA.—Ain urrun aurkitzen naz eta aldi berean ain ur! Ez nintzake nekatuko au errepikatzen: emen nago, bai; baiña an be banago!

FAUST.—Ni barriz arnas-artu eziñik; nire itza ezpaian dago, ta dardaraz; amesa dozu guztia; aldia ta tokia itzaliak dira.

ELENA.—Bizi izan nazala ta barriro be bizi nazala begitanduten yat, beti zugaz birundatua, leial ez-ezagun bati.

FAUST.—Ez egizu azter oi-ez-lako alanbear au: bizi izatea, bearrean, txakada bateko gauzea izan da beti.

FORKIA (*oldarkoia ta txinpart* sarturik).—Maitezko abezea izkitzen diarduzue, barne-sentipenak ozt-oztan ikutuz eta zeuen buruekaz be azturik nagitasunaren asto-zuri gaiñ. Baiña ez ete dozue somatzen nola datorren guganantz ekaitz bat? Ez ete dozue entzuten adarren durundu zakarra? Gaiñ-gaiñean dago onezkero zuen ondamendia. Menelau berbera datorrela, jakizue, erri baten uiol barruan, eta gertu bearra daukazue eraso gordiña eroan al izateko. Garesti ordaindu bearco dozu andrazkoen jarraigo au garaille taldeak inguratua ta Deifobo lez murrizturik zeure burua ikusiaz. Eta erraza zoro guzti au esegia dalarik, erregiñarentzat jasoko da aizkora altara gaiñean.

FAUST.—Etendurs ausarta, zori gaiztokoa danez. Arriskuan be gogaitgarri yat bizitasun maskelua. Zorigaitzaren iragarpena itsusi biurtu oi dau mandataririk ederrena be, eta zu, emakume gorrotogarri, ez dozuz gogara ekarri oi mezu gaiztoak besterik. Oraingoz, baiña, ez dozu beteko zeure asmoa. Bete zeinkez goiak zeure aots zakarrez. Emen ez dago arriskurik, eta, egonik be, alperreko ze' mai bat bakarrik irudituko litzakit.

(*Ezaugarri ta lertzeak torreetan; askotariko txarangak eta txin-txarriak. Ondoren, guda-musika ta gudarozte aundiaren ibillaldia*).

FnUsT.—Ementxe ikusiko dozu, beingoan batuta, gizurenaren talde banandueziña; emakumeen on-eretzia, erabagiz ta ausardiz eurok babesten dakianak bakar-bakarrrik merezi dau.

(Aurrenen datozan taldeetan buru diranen nausiai, aurrera da

Oi zuok, barne dozuen suar iraunkorrek beti be garaipenera zaroazenok; Ipar-aldeko gazte-lora, Sortaldcko kemen lilluragarria!

Oi zuok, burrukalari zangarrak, burdiñez jantziok eta zeuen izkilluetan dirdaitsu; aginterri bati ta euni autsa miazkatu eragin eutson gudarozte; giza-uiola, aurrera egiterakoan, lurrari dardar eragiten eutsona, eta berau igarota gero be, lurra oraindik kurrinka izten dauana!

Eldu gara Pilos'era eta onezkero ez dago emon Nestor zarra; gure gudarozte ezi-gatzak, baiña, urratu daroaz erregeen itunben zirtzil guztiok.

Eraso bertatik arresi onein aurka datorren Menelau'ri, ta egotz egizue itxasora. Dabillela arat-onat bertan, izlapur baten gisako; orretzek izan ziran beti aren gurari ta sirats.

Zuk, Kerman, sendo-az egizuz Korinto'ko izpazter eta kolkoak; zaindu egizuz, gotor. Zuk, Goth, eun leza dituan Akaia jagongo dozu. Tartean, Esparta, erregiñaren antxiñako uria, izango yatzue zuon guztion nagusi,

Doatsu izango da bera zuok ezer be falta ez dan eskualdean batzuk eta besteok poz-atsegiñez ikustean. Zatoze, ba, uste onez bere oiñetara kargua, eskubdea ta argia billatzera.

(Faust beera dator eta nausiak aren biran alkartzen dira aginduak eta irakatsiak artzeko).

ABES BATz A.—Jantzi bedi leen-leenik zuurtaasunez ederrenaren jabe dela diñoana; lureko ondasunik bikaiñena jadetsi dau bere zori onez, baiña ez dau bakean gozatu al izango irabazi orrez; ago-zuri labanak labankeriz eta gogor-zaleak indarrez dabiltz mokoka. Batzuen eta bestetzuengandik zaindu bei arek bere burua.

Olaxe dabest kantari gure errege-gaia, beste danak baiño mai-teago dodana; geure jaun eta jabea, itunben aundiz inguratzen jakin ebana, ta gaur aaltsuak eurak be aren naia begirunez artu ta aren aginduak zintzo-zintzo betean atsegin berezia daukienak. Origaitik, erregegaiaren esker ona dabe ta aren aintza betean en-

dikide dira. Nor, ba, azartuko da ugazaba ain altsuari bere ona kentzen? Bere dau emakumea, ta guk orrela autortzen; eta errazoi bigaitik dagigu olan, bera inguruazten jakin daualako, naiz-ta arresi sendoak, gudarozte gorakari bat gainditu bear izan.

FAUST.—Aundi ta gurenak dira emon-barri doguzan ondasunak —eskualde aberats bat bakotxarentzat—. Bioaz, ba, danak eta gera gaitazan geu geure Laterrien erdian.

Eta guztiak babes zagiezala alkarren leian, bira osoan urak laztandutako lur-burua, mendi-kate arin bategaz Europa'ko pikor-arritzko azken-adarkadurakin lotual!

Danen artean errege dan eskualde au betierekoz bedi enda guztientzat egoki ta onbera, eta sortzen ikusi eban erregeña bati emona orain.

Eurota'ko larrosoondo artean sortua da bera; Leda'ren azitik jalgi zan dirdaitsu, bere ama gurena ta anai-arrebak itsuazorik.

Zugana bakarrik biurtzen da eskualde au, eta bereak ditun doairik bikaiñenak eskintzen dautzuz. Kinka onetan lurbira osoa, zeurea dozuna, baiño naiago dau zure aberria.

Eguzkiaren izpi otz batek mendi-gain zorrotza ikutu dauaneko, eta bedar-printzak atxa zulatu, auntzak laster doa jauzika jateko apurraren billa.

Iturria jalgi ta errekek bateratzen yatzuz ur-jauzi pitiñetan. Orlegiak dagoz jadanik zelaiak, pendizak eta sakonak, eta or dakusazuz aicla baten eun muiñoko lau-une aundian zear barreiatzen ule-txima garbidun abere-takleak.

Zezenak doaz aske ta zuur, urrats-bare, egal malkartsueta-rantz; an ba-daukiela ba-dakie danentzako babesleku bat, arkaitzeta sakondua berein lezatan.

Pan jainkoak jagoten ditu, baita erabat bitarte orritsuetako uts-gune argi eta ezkoz jantzietan bizi diran ninpa arnas-joriak be. Bere aleletik, eta eskualde gurenetara zabalduz, zugatzak zugatzari dautsola gota bialtzen ditu bere adar-gailliak.

Oi aspaldiko oianak! Eurotan zutitzen da artea gora-naiez, eta besanga lakarra beste adarrakaz lotzen da maiñatsu; orre zar-daiña be bardintsu gorantza doa arro ta alai bere osto-sortarekin, esne gozo joritan.

Kerizpe ixillean barna esne epela txirristatzen da maitekiro, aur iaio-barriarentzat eta bildoskoarentzat antolatua. Eta ez dago urrutiko dalako igalia, zelaiko janari gozoa, enbor barne-ustuak eskintzen dauan ezitia.

Belauneha belauneko da emen atsedena, eta poza edegi oi da agoa iduri; ilezkor da baxotxa bere lekuan eta nornai agiri da zoriotsu ta bizitasunez gaitzeka.

Era onetan doa aur samurra mutil izatera, beti garbia dan zeru azpian; eta miretsia bizi dalako, tai bage dau galdetzen: oneik, gizonak ala jainkoak dira?

Apol'ek be orrelaxe artu eban artzain itxura ta euretatik edereena antzeko eban; izan be, izadiak bere burua eskiñi daroan lekuan mundu guztia alakoan kateatuta lez agertzen. (*Elena'ren ondoan jarten da*).

Zorionak, beraz, alkartu gaitu; aztu daitela joana; eta gogotan izan, oi jainkotasunaren alaba! , lenengo mundukoa zarea.

Ez zara arresi artean atzemonia izango; guretzat ba-da oraindik alderdi zoragarri bat, Arkadi beti gaztea, Esparta'ren auzoa.

Ez zenduan egin, lur-gaiñ bedeinkatu ontara etortean, izango zurrago baterako gertatu baiño. Errege-aulkiak oian biurtzen. Zabalabedi gure zoriona, Arkadia lez!

(*Ager-tokia aldatzen da. Artzulo-sail bat agertzen da orain, osotza naasiz apaindurik, baita gain gaitzeka aurkitzen clan arkaitzeta-bururaino igonez doan ajan jori bat be, Ez dira ikusten Faust, ez Elena. Atsedenean dago Abesbatza, or eta emen etzunik*).

FORKIA.—Ez dakit zenbateko lo-aldia euki izan daben neskatxak, ezta ez dakit berebat nik neure begiakaz ikusi nebana amestute ebe; orixe dala-ta, eurak esna-eraztera noa. Izutu egingo da giza-enda gazte au, baita zuok be zarrok, or-emen jarrita zagozenok, arritu egingo zarie, arrigarriaren mamiña jakin nairik. Zutik, ba, gazte ta zarrok! Astindu zeuon kopetak, neskatxak; urrin egizue zeuon begietatik loa, eta entzuidazue begiak kliskarazi barik.

ABESBATZA.—Mintzo, esan, edatsi eiguzu jazoa dala uste dogun gauza arrigarri ori. Atsegiñez entzungo dautzugu, naiz-ta guretzat siñisgatxa izan; pozgarri izango yaku guztioi arkaitzeta onei-

tako ikuskizun bakar eta betikoaren menpe gogaikarritik alde egitea.

FORKIA.—Begiak edegi besterik ez dozue egin eta gogaituta zagoze dagoneko. Entzun, ba: Sakon oneik, artzulo oneik, zearzillo oneik babesa ta jagon-lekua eskiii eutsen gure ugazaba ta uga-zabandrearari bikote maitati artzain gisako bati.

ABESBATZA.—Jarrai.

FORKIA, —Bakarrera dei egin eusten niri munduz bananduta aurkitu ziranean, bearrik atsegiñenak egin nengioezan. Euren zerbitzuan jarri nintzan, OSO pozik, ixil-mirabe bati dagokionez, ontan eta aretan arduratzen nintzalarik. Emendik ara joan oi nintzan, oroldia, sustraiak eta azalak eurentzat billatuz, eta zer guztion indarra ezagutzera eldurik; azkenez, apurka apurka biak bakarrik geratu ziran.

ABESBATZA.—Ze ipuin dita orreik? Leza orreitan, dirudianez, mundu bateko tokiak dagoz basarte, zelai, erreka ta zingirakaz.

FORMA.—Orrelaxe da, izan be, izaki asko-jakinbakuok. Jaki-zue arakatu bako sakonak dirala, areto baiño geiago diran aretoak eta beste edozein larrain baiño gurenago diran larrainak, eta guzti au neuk aurkitua neure ausnarreko arat-onat ibiltzan... Itzetik ortzera, barre-zantzo zaratatsu batek durundu dagi usgune zabala-tan. Jeurt dagit atzerantz eta ona umetxo batek saltu egiten amaren altzotik gizonarenera; neu be arriturik gelditzen naz arein txerak, arein txantxetak, arein maitasun-jariozko adiguri ta balakuak ikusirik, bardin arein pozezko txilio ta garraxiak entzunik be. Pikor-arrizko bee gainean jeinu txiki bat agertzen da, billosik, ego bage; gorantza bialtzen dabe, ta bigarren edo irugarren salturako lezako sapaia joten dau. Bere amak orduan ardura txeratsuz oiudagitso: «Salta barrito be nai dozun beste, baiña kontuz, ez egizu egaz egin; galazoa daukazu aske egaztea». Bere aita gazteak be itz oneikaz oartzten: «Itsts lurrari gorantza bultz-dagitzun kemen azkar orri. Iku egizu beea zure beatz-puntaz eta kemen barri bat dokezu zuregan, Anteu'k, Lurra'ren semeak legez». Jeinu txiki billosa aitz baten gainean dabil, emendik gero beste batera doa, emendik ara aldaturik aizeak darabilen pelota baten antzean. Baiña ona emen, bat-batetan, amildegi izugarri zirrikituan ostenduten dar Galdutzat joten dogu; ama ai-eneka asi da errukarri, ta aitak poz-

tazi nai dau; neu be, lepoa jasoz, naigabeak artua nago larri. Baiña gaiñ datorkigu ikuskizun uste bagakoa. Zelako altxor-meta egoan an gorderik? Barriro agertzen da lorazko jantzi ñabarrez apainclua, triñu-troñu ta girgil-galartzuz beterik dakarzala bere besoak eta bularra. Urrezko lira bat dakar eskuetan eta aurrerantz dator atsegintsu, Feibu txiki bat iduri. Ez zerurako ez lurrerako gengozan, eta aren guraso zorabiotuak bata-bestearen besoetan datzaz etzunik. Baiña zer da aren bekokian dizdiz dagiana? Zek egiten eUrdir gisa orretan? Ez neuke esango. Urrezko koroï bat ete da? Edo-ta goitar izaki baten sugarra bear bada? Eskuketan dabil aurra, bere zanetan zear beti-betierako eres-uiñak dabiltzala adierazo naian. Orrela entzungo dautsazue orain guztiok; orrelaxe ikusiko dozue guztiok, eta miretsi.

ABESBATZA.—Baiña zuretzat, kretatar, miresgarri ete da ori? Ez ete zenduzan iñoiz entzun olerkarien kanta-saioak? Ez al zenduzan egundo ikasi joni ta Hela'ko ekanduak eta aoz-aozko elezarrak, gure gurasoen gauza ederrak?

Gaur jazoten dan guztia gure aurretikoen egun aintzaz beterikoen oiartzun goibel besterik ez dogu; eta gaur kanta zeinkena ezingo da iñoiz be Maia'ren semeak edesten dauskunaz bardindu, naiz-ta egi-antzeko guzurrik maitekorrena izan.

Oitura ergel bati jarraituz, zaintzaille alai pillo batek troxatu eban mundura etorri zanekoxe oial bikaiñetan, ondoren oge bigunbigun batean luma artean etzun-azorik. Baiña barrabantxoak, samur eta sendo, laster atera zituan andik bere soin-atal malgu auskorrak, eta onein ordeztatu eukan oskol urre-margozkoa itxi eban, Mitxeletak bere zintzitoil-kusku latza erantzi ta eguzkiz aseturiko goietan zear alai egoak astintzen dauazan legez, nunbait.

Olantxe egin eban dalakoak, iñok baiño azkarrago, eta bereizgarri ariñok erakusten dauskuenez, lapur, bide-ebasle ta zori-zalean eredu. Neptun'i ostu eutsan irortza, Marte'ri ezpatea. Feibu'ri uztaia ta gezia, eta Bulkan'i porrikak; eta Jupiter'i berari be oiñeztarria arrapauko leuskion suak bildurra sar ez ba'leutson, Gero Maitasunaz burrukatu zan eta irabazi eutson, eta etenbako adi-adi eukon Koiris'i gerrikoa lapurto eutson azkenez.

(*Leza-barnetik arpa-kantua dator, sarnur eta eresitsu. Arretaz*

dantzu Abesbatzak, eta biotz dardaratzen. Esan arte luzatzen da sin f oni atsegiña).

FORKIA.—Ipuñik naiko onezkero, entzun oiartzun zoragarriok; ez izan gogotan orain ez diran zeuen jainkoen aspaldiko enda ori.

Zuon gauzak ulertzen gaur ez da iñor alegintzen; salneurri jasoagoa nai dogu orain; aurrerantzean biotzetatik eme bearko eurotan agindu bearrekoak. (*Arkaitzetara baztertzen da*).

ABE SBATZA.—Zuk, izaki ikarakor orrek, oiartzun palagari orrei amor-egiñik be, gu biotz ikutuak gagoz negar-malkoak ixurtzeraiño.

Ostendu daike eguzkiaren ditzira barne-muiñean eguna jagitean; eta guk idoro geure biotzetan lurbira osoak uka dagiguna. (*Elena, Faust, Enforion agertzen dira goian esandako tankeran*).

EUFORION.—Entzun nire aur-abestiak, txit atsegin izango yatzuez-eta. Ikus nire jauzi eresitsuak, zuon ama-biotzak ain eder dítunak.

ELENA.—Maitasunak bikote guren bat alderatu oi dau lurtar atsegiñerako; baiña go:tar pozerako irutasun alaia antolatzen.

FAUsT.—Gaur-gero oro dago lortua. Ni zurea naz eta zu neure zaitut, estu be estu olkartuzik gagoz. Zelan izan leiteke bestera?

ABEsBATZA.—Mende guztien gozotasunak bikote zorionsu ontan alkartzen dira, umetxo samur baten itxurapean. Bedeinkatua bedi alkarte au!

EUFORION.—Itxi eidazue jauzi egiten, an goian zabukatu naiten, lau aizetara; bultz daragistan guraria dot.

FAUsT.—Neurrira zaitetz; ezer bez arinkeri zororik; jausiak eta ezbearrak ez dagiela txil-egin zugaz, leza barrenean ondutako giñakez, ba, geure seme kutun.

EUFoXiON.—Ez dot egon nai geiago lur gaiñean; laga nire eskuak eta neure ule panpiñak; laga eidazuez neure jantziak be; neurea da guzti ori.

ELENA.—EZ zaitetz orrela mintza. Gogora eizu geurea zarala, benetako naigabean murgiltzen gaituzula, geuretzat eta zeuretzat lorturiko ontasan gurena ondatu daroazula.

ABEsBATZA.—Bildur naz, batasuna etengo ete dan.

ELENA ETA FAUsT.—Gona, eta aul-azo goi-naiezko oldar biziok,

zeure gurasoak dautzuen maitasunarren, eta eder bekizu zelaia artzain-pozkario osasunkorretan.

EUFORIoN.—Zeulon ezetz orixe da bakar-bakarrik eusten daustana. (*Abesbatz artean zear txirrist dagi, eta dantzara daroe*). Pozik tarteratzen naz onela, enda alai. Eta orain? Ondo al dagoz igiera ta eres-doiñua?

ELENA.—Ederto dagoz. Eroaizuz ederrak dantza eresitsu batera.

FAUsT.—Bego onezkero guzti ori! Ezin daitekit atsegin izan olako jokorik.

(*Euforion eta Abesbatza, irra ta kanta, an-emen gurutzatuz*).

ABESBATZA.—Zeure beso-bikotea, zoramen -jarioka, zabu-zabu dabilatzunean; ule-adatsa bere diztira osoan kulunkatzen danean; zure oin bizkorra lur-gaiñez labantzen eta an-emen soin-atalak txibistatzen, zuk, aurtxo eder, zeure xedea jadesten, eta zure biotzak zureganantz egaz egiten. (*Geldi-une*).

EUFORtON.—Suge zoliak iduri zarie guztiok. Guazen batera joku barrietara. Ni naz eiztaria ta zuek eizea.

ABESBATZA.—ZU gu eskuratu nairik? Ez egizu, ba, indarrrik egin: guztiok ez dogu beste irrisik, barruan, zeu besarkatzea baiño, oi iduri bikain!

EUFORrON.—Oianetan, zugatzetan eta arrietan zear bakar-bakarrik. Iguin yat neke barik eskuratzen dan ona, eta poza dakarst soilki indarrez irabazten danak.

ELENA ETA FAUST.—Zoramen! Nabarmenkeri! Ez daga neurri-
ra ekarterik; adar bat dirudí ibarrean eta oianetan durundu dagia-
na. Zelako nastea! Zelako garraxiak!

ABESBATZA (*Neskatxak datoz barnera, banan-banan, arnas ba-
tean*).—*Berealaxe* aurrea artu dausku, eta, gu ao-bete agiñez itxi-
rik, orain onaxe dakar guztion arteko basatiena.

EUFORION (*Neskatxa bat besoetan dakarrela*).—*Onairio* dakart
basati txiki au, neure naikunera makur dadin. Neure poz-atsegiña
egin nai neuke bere bular gorbizia estutu eta bere ago berdanga
mosukatuaz; orrek eskatzen daust kemen-naiezko egintza bat.

NEsKATxA.—Aska nagizu. Aragizko estalki onen azpian bada
kemenik eta gogogarrik be. Ez nozu gainduko errez-errez. Zeure
katigu uste dozu? Zeure besoetan banok esana, bear bada? Ai,
ergel! Nire atsegiña, zu kiskaltzea baita, igaro bearko dozu, (*Ixe-*

tzen da ta dizdiza usgunean). Jarrai zakidaz goi ariñetan zear, lezetako troska-negarrak barruna. Atzi egizu, al ba'dozu, zeure gué rarien elburua.

EUFORION (*Azkenengo sugarrak* astinduaz).—Arkaitz-pilloa dago emen, oianen eta sasitzen artean; leku medarra, ta ito bearrean nago. Gazte ta kementsu naz. Atsegin dot aizeen ziztua entzutea ta olatuak an beean zelan irakin dirakien ikustea. Areik eta oneik belarrietan durundu dagiste. Atsegingarri litzakit euretaraño urreratzea.

(*Gero ta indartsuago zapar! dagi aitzartean zear*)

ELENA, FAUST ETA ABESBATZA.—BaSaUntZerl antzeko izan nai ete dozu? Zure jaus-zoriak bildur-ikaraz gaukaz.

EUFORION.—Gero ta gorago igongo naiatzue, gero ta osertz zabalagoa ikusi gura dot eta. Oraintxe dakit nun nagoan. Ugartearen erdi-erdian Pelops eskualdean, lurrez ta itxasoz osotzen danean.

ABESBATZA.—Ezin al dozu atsedeen-bakea idoro oianean, ez guztian? Goazen, ba, ordu onetan mats-aien orlegi billa, muñoetako igali, piku ta urrezko sagar billa. Izan zaitez maitati eskualde maitekor ontan.

EtwOMON.—Bake-egunaz ames ete? Ames egin al dauanak ames begi. Gudua da nire ikur, eta garaipena nire abesti.

ABESBATZA.—Bakean gudu-min danak, agur dagitso betikoz itxaroaren zorionari.

EUFORTION.—Lur orrek beti dakar arriskuan murgiltzeko gertu dagoan jente azarria, adore muga bakoz, odolez jori ta illunpeak urreratu-eziñiko arnasa kementsuz. Eroan bei zoriona burrukan diarduenengana!

ABESBATZA.—Begira, ígonez doa goi-goiraño, eta orain ez yaku txiki iruditzen; ondo izkillotua doa, eta gertu dago garaipenaren jabe egiteko, guztia borontzez dizditsu.

EUFMON.—Ez olatuak, ez arresiak ez dira ezertarako; aski da norbere barrunaz. Gizonaren borontzezko bularra berez yatzu gaztelu artu-eziña. Nai dozue iñok ez menderatzea? Jantzi zaitez arinki izkilloz eta murgil burruka zalapartatsuan. Emakumak gudu-andre biurtzen dira, eta aur bakotxa gizuren yatzu.

ABESBATZA.—Oi olerti done! , zeru-azpiraiño eroana zara. Igon eta dizdiz egizu urdiñean, suzko izar, gero ta gorago ta urriñago.

Baiña alperrik alegintzen zara egazean Zeru-goiak jadetsi naian; zure abots sagaratua, urrezko argi gardena lez, guganaño eltzen da beti.

EUFORION.—Ez da aur bat dakusazuena, gazte bat baiño izkillu guztiz izkillotuta. Atsegin dau sendoen, askeen eta bulartsuen al-kartea, eta onezkero bere gisa oldoztu ta egin oi dau. Aurrera,

Beti aurrera! Osertza zabal-zabal agertzen yatzu aintzarako.

ELENA ETA FAUST.—Bizitzan agertzeaz bat, argiaren ditziran aurkeztu orduko, oldartu nai dozu, zorabioak artua, naigabez bereriko zabaldira. Baiña, guk ez ete diñotzugu ezer? Amesa al da bakarrik alkartzen gaitun lokarria?

EUFORION.—EZ dozue entzun zurmur gogorra itxas-aldetik? Ibarretako oiartzunak, ain zuzen be, trumoi en dunbotsa bir-esaten dabe. Talde taldearen aurka, ur ta lur, uñetan eta autsean; eta burruka ostean, atsekabea ta triskantza, eta baita eriotza ber Orixe da nire manua; orañ dot ulertzen.

ELENA, FAUST ETA ABESBATZA.—AU zarrada! Izu-ikara! Baiña, erio al dozu lege?

EUFORION.—Urrundik ikusiaz naikotu ete naz? Guda-dei, kanpai-ots eta galzorietan esku artu bearra dot.

ELENA, FAUST ETA ABESBATZA.—Arriskua ta andi-eritxia. Ezin besteko zoria.

EUFORION.—Begira, zelan tolosgetzen yatazan ego biak. Urriñera joan gura dot, eta ba-noa. Itxi eidazue egaz egiten!

(*Gorantza doa zailu. Soiñekoak daroe lipar baten. Argi-laiñoak k.oroatzen da^{utso} burua, eta lorratz-antzera susko ildoaz izten*).

ABESBATZA,—Ikar! Ikar...! Naiko zoritxarrrik!

(*Gazte eder bat jausten da Elena'ren eta Faust'en oiñetara. Ezagunak dira aren betarteak dakarzan zeñezkoak. Gorputz au laster urtzen da eguratsean, eta bere argi-uztaia zerurantz doa izar buztanduna bai'litzan; lurrean ezta aren ezertxo geratzen txabusa, mantua te lira ezik*).

ELENA ETA FAUST.—Pozaren ondoren beti dabil naigabe izugarria!

EUFORION (*sakonetik urtendako oivak*).—Ez nagizu itxi 'aunpe onetan; ama, ez nagizu irxi bakarrik!

(*Geldi-unea*).

bada, beti usteko dogu ezautzen zaitugula. Eguzkiaren argitik al-
dendu zaizanean, ez da b'otzik izango zugandik aldendu nai daua-
nik. Doi-doi intziri dagigu; ziur egon, beti abestuko dogu zure
patua, goretsiz, egun bareetan lez egun itzaltsuetan, zure kantua
ta biotza aundi ta eder izan zirala.

Lurtar zorionerako sortua, guraso argiegandik eta kemen aun-
diko, beingoan, ai! , galdu zenduan zeure burua, gazte-lore ariñegi
igitaitua. Zeuk soilki zenkian mundua ikuskatzeko begitu sakona-
ren ezkutua, biotz-naigabe guztientzako txera gozoa, emakumerik
ederrenganako lera bizia eta kantu ozentsu ta jainkozkoaren ixilla.

Baiña zeure ausartasun ezibagearen oldarretan, zeuk zeure bu-
rua egotzi zenduan amarru eriozkiñera. Ausi zenduzan zakarki oitu-
rak eta legea; eta azken batean gogoetak zugan indarra ezi nai iza-
nik, goregonengo aintzaz jabetzeko dendatu ziñanean, alanbearrak
iruzurtu zindiazan.

Nori irribarre dagitso onek? Ona itaun its bat; onen aurrean
estaldu egin oi da alanbearra, erri odolduak ezbear-egunetan ixillik
daukaguzanean. Jo, alan be, kantu barriak, eta jaso zeuen buru ma-
kurtuak; olakoxe beste izaki batzuk sortuko dauz gure lurrak,
noiznai sortu dituan legez.

(*Geldiune orokor. Musika be ixiltzen*).

ELENA (*Faust'i*).—*Nire* erakutsiak, ai! , zuritzen dau antxiñako
esaera au: Zoriona ta Ederra ezin daitekez alkarrekin joan luzaro.
Ona emen etenik bizitzaren eta maitasunaren lokarriak; erruki
dautset barne-barnetik batari ta besteari, eta baii damotset agurrik
samiñena. Ar nagie azkenengoz zure besoak. Zuk, Persefone, se-
mea eroan daustazun orrek, eroaizu ama be.

(*Elena'k Faust besarkatzen dau, eta berealaxe gordeten aren
lur-gaia; aren jantzia ta buru-zapiak baiño ez dira gelditzen, sena-
raren besoetan*).

FORKIA (*Faust'i*).—*Ertsi* egizu estu agandik geratzen yatzuna,
eta ez itxi jantziari iges egiten. Txerrenak onezkero tiraka diardue
muturretatik, euren mundu lurpekoetara narrastu naiean. Eutsi
egiozu ondo; ez da ori galdu dozun jainkosa, baiña oraindik jain-
kozko zerbait dozu. Zagakioz orren gora jasoten zaitun mesede
neurriz-gaiñeko ta guren orri; soiñeko au daukazun bitartean aske

ibilli zaitkezk goiak zear, gauza xumeetatik urrin be urrin. Emen-dik asao alkar ikusiko dogu barriro be.

(Elena'ren jantziak odei biurtzen diva eta Faust inguratzen dabe, goi-aldeko eremuetara eroanik).

FORKIA (*Lurretik jasoten ditu Eu/orion'en soiñekoa, mantua ta lira, eta antzoki-aurrera dator, ondakin oneik erakutsiaz*):

Ona emen aurkitu dodana. Egia esateko, ostendua daugarra; bahia nik ez dot miñik ez kezkarik munduagaitik. Au naikoa da olerkariak sagaratzeko ta euren artean bekaitza sor-azteko; asma-mena emongarri ez ba'yat be, jantzia beintzat aurreratu daiket.

(Antzoki-erdian jarten da, zutoin baten ondoan).

PANTALIS.—Adi orain, neskatxak! Aske gagoz onezkero tesaliar atso zar kiskillaren lilluretatik, aske gaizto aren lakio zital izugarrietatik, baita belarriak zauritu ta barne zentzuna minduten dauskuen oiartzun burrunba ta ots makur aurkakoetatik be, Jatxi gaitzezan Hade'ra; erregiña eldua da ara, urrats-guren. Aren zerbitzari zintzoak beioaz ondorenak itxitako oiñ-atzai jarraiki. Barren-gaitzaren aginte aurkian idoroko dogu.

ABESBATZA.—Edonun dagoz ondo erregiñak, eta Hade'ko gal-tzarrean be euren goitasuna zaintzen dabe, euren antzekoakaz, Persefone'n leial kutunakaz, puzgoz alkaturik. Baiña, ze jolasgai daukagu guk irestargi ta zapa-porru alorren ondarrean, lertxun garai ots batekoen eta sarats alperren laguntasun soillean? Txilioa atera doi-doi, saguzarrak lez, ots iguingarri ta zakarrez.

AINZINDARI-EME.—Izen bat irabazten jakin ez, edo-ta ezer presturik irrikatzen ez dauana, gaien tarteko da. Goazen, bada! Neure erregiñarekin egon-naiak nauka. Irabazia ez da soilki batek zain daukana, baita zintzotasuna be.

(Ba-doaz).

DENAK.—Ona emen barriro egun-argitan; baiña ez gara orain-goiz norkiak, ezta izakiak; somatzen dogu, ez dakigun arren. Onek esan nai dau ez gareala egundo Hade'ra biurtuko, izadiak, ba, betikoz bizi danak, eskubide bete-beteak ditu gurekiko, eta guk arekiko.

ABESBATZ-ZATI BAT.—GeU gara odeien ule-zama zuriak aske jarten doguzanak, zugatz-landarak azi ta ugaritu daitezcan, canean dagozan millaka ta millaka adarren zuzu-muxu ezko ta dardar arin

gaiñez. Geu gara bardintsu adar orreitarantz bizi-iturriak dakar-guzanak, milla kimutan ugaldtu eta gero lorak ager daitezana zabal baizen pinpirin. Igaliak jalgi oi diran lez, artaldeak be zirkin dagie eta gizonak jagi-azten, guztiak bizi-miñetan; batak besteari kendu oi dautso jatekoa; batzuk besteakaz txil dagie leiatsu, eta alkarri zakar be zakar eraso ondoren, geure urrean makur-azten dira azken batean, lenengo egunetan lez.

ABESBATZAREN BESTE ZATI BAT.—Gu uren biguntasunean labantzen gara, eta eme-ernecki narrasten arkaitz sakonen ispillu samur onen gain, oiartzun meenak, txorien kantak eta gabaz kaña-berartetik aidatzen diran intziriak adi-adi jasoz. Pan'en aotsa da, izadiaren izu, erantzun ariña beti aurkitu oi dauana; zurmur ba' dagi, guk be zurmur dagigu, oiartzunetan egaz; eta goiak trumoi-tzen ba'ditu, euretan durundu egiten gure oiartzun orreik be, amar bider ozentsuago.

ABESBATZAREN BESTE ZATI BAT GEIAGO.—Guk errekaetoetan gabiltz ariñak arin, guztiz borbortsu; jakizue, ba, aitzak, aldatz eta goibera pike aberats oneitako kate azkcnbageak erakarrita. Zear-bide arin sakonetan, geure ur gardenez bustitzen doguz laua ta ibarra, bide-zidorrak eta landak, baita gerriko batek lea, egoitza txikiak esitzen dabezan baratza be. Ikuspegi onen ondorean nekostak zutitzen dabez euren adaburu txairoak; urrundik soloak eta ítxasaldea gain artzen dabezan nekostak (kiprseak), ur-ispillu aratsetan ben eta goibel oso curen buruak ikuskatzen dabezanak, ain zuzen.

ABEBATZAREN AZKEN-ZATIA.—Bebil, aitzak, orrelaxe zuen as-mamena. Guri, osterá, eder yaku muiño irribarretsuetan zear itzuli-mitzuli ibiltea, maatsa makurtzen dauan aienpean umotuz doan lekuan; eta geure begiz ikuskatu azkenez beti be garaille gertatzen dan maastizaín zintzo arduratsuaaren griña **Orain** esku-ratzen dau igitaia ta gero palea; au susterretik ateraten dau, bestea iñausi; au lotu, bestea pillou; eta aren ezpanetatik ez da iñoiz jausiko jainkoai, batez be argiaren jainkoari, zuzenduriko olesik.

Bak emetua, baiña, ezta ezertxo be kezkatzen maitasun ain betea olan eskiñi daroatson gizaseme ilkorragaitik; orbel artean bizi da gorderik, bere leza sakoneko zador artean, jauzi egitea atsegin yakon pizti maitatiaz batera. Bak'en jaiak eta bere ezpiri-

tua gozatzeko ditun ikuskari guztiak bere bakartadeko ixiltasun illunean diraue beti. Beste ja'nko guztiak, alan be, zorionez, eta batez be Helio, maats-altxorra antolatzen saiatzen dira, aize, bero ta euriaren bitartez. Orrela, maastizaiñak bere eskuz ebagi ebanak beingoan, irabioturik, arnasa artzen dau. Ostotza osoa iñarosten da, eta millaka zurru naasi doaz nainora lasterka, maats-aien tue tan barrena.

Intziri dagi otzareak, txilioz dago tangarta, pilisti-palasta, eta mats-mordoen zamapean makur-azten da zarana; mordak metatzen dira gero upeletan, eta oneitatic tx'rristaka doa ardaoa, zapaltzailleen zapart neuritsupean. Masmorda gorriak, zapaldurik eta bits-jario, ikusteak bakarrik poza damotse zentzunai, eta biotza azkortu.

Orra bertatik durundu-otsez nun-naitik txindatxin zoroak, curen borontzeko o'artzunekin. Bak'en jaietarako deja da, belarriak arri-erazten dituna; jai oneitara azkenez ateraten da Dioniso bere ezkutu sakonetik, beragaz eroanik aberetza ta onein bikoteak, esku lizunkoiz txera egiten dautselarik. Onein artean doa, urrats ausarti ta taka-taka, Sileni'ren abere, bi belarri luze-luzeduna. Une ontatik, nun-nai agertzen dira auntz-ankak, belarriak sortu ta zentzunik oro orditzen diralarik, sabel ta buru bete-beterik dagoz-eta.

Oraindik be muker agiri dira batzuk, baiña dunbotsa ta nas-
plla geitu besterik ez dabe jadesten. Orokor biurto da jaia; eta ardao barriari deduzko tokia egiteko, txatro zarrak eta suil zarrak ustuten dira.

(*Oiala beera. Forkia, antxoki 17c:fian, zutik jarten da, koturn.oa kendu, zapia ta niozorroa erantzi ta Mefistofele'ren itxuran ager-Icen da, aurreko dana, bea;' bezela, argitu ta amaitzeko*).

LAUGARREN EKITALDIA

MENDI GARAIA

(Arkaitz-arte zorrotz izugarren gaiñak; goitik doa odei bat, beerantza jasten da aranerantz, muiño gaiñez edarazi ta, azkenez alde egiten dau andik),

FAUST (*aurrean* agertuz).—Gaillur zut oneitatik zear nabil, neu-re oinpean zabaltzen diran bakartade sakonetan begiak eta or itxi dot argi gardenaren bizitokira, lur eta ur, ekarri nauan laiñozko burdia. Astiro doa au nigandik urrunduz, autsean murgil-azo barik. Sortalderantz doa biribilka dabillen pelota antzo, eta nire begitu izutuak ari jarraitzen. Aurrera egin alean saportzen dala dirudi; kulunkari dakust, zirkinka, argi-islaz ase; eta ona, beingoan. itxura artzen dau, eredu-egiñez ba'lioia. Ez, ez nau atzipetzen ikusmenak: irudi aundi bat, jainkotasun bat, zalantza bage, agertzen da eguzkiaren ditzira eratzean bustiriko lumatxa gaiñean etzunda. Nire begi izutuak emakumezko irudi gurena, apaiña ta ederra oso dakuse: Juno, adibidez, edo Leda edo Elena. Baiña, ai! , dana onda tzen da bat-batez, eta ore itxurabagea Sortalderako bidean gelditzen da, joan egunetako lpotz-zauskadak urriñeko izoztegi baten dirdiraz ba'neukoz lez. Lurrun gozoak inguratzen nau, alan be, mee ta epel; bekokia ta bularra ibitu ta gozaerazten dauz, eta gero gorantza doa dardarti itxura artu artean. Amesa ete zaitut oraindik, arpegi zoragarri ori, neure gaztaroko lenena, ainbeste denporan bakar-miñez iruditua? Barriro somatzen dodaz dardarka biotz-barrenean gorderik daroadazan altxorrek, neure leen adiñeko altxorrek. Oi, lenengo egun-sentiko maitasuna! , zatoz lasterrean egazka, ngan barriro bizi-azteko nik zabal ta sakon oar-azitako aurreneko begirakuna, doi-doi ulertua, baiña, beti iraun-azoa, beste edozein ditzira aren ondoan kolorga gertatzen dana. Arimako edertasunaren pareko, itxura gozoa gorantza doa apurtu barik, kulunkaz dago airean, eta beragaz daroast neure izatearen zatirik onena,

(Zazpi lekuko oski bat itsu-inandoka agertzen da. .Beste bat, bardin, atzetik dator jarraika. Afefistofele lurrerutzen. Oskiak igesi doaz, bizkor be bizkor).

ME,FisTorELE.—Ederto! Auxe da ibiltea. Baiña ager eidazu zeure asmoetatik pizkat, Zer dala-ta geratzen gara emen, izugarri onein erdian, arkaitz batzuen ao edegian? Ezaguna dot toki au, bere lekuan ez dagoan arren; egi-egiaz infernuan egon bear leuke.

FAusT,—Zuk txerren-ipuiñik asko dakizuz, eta oindiño be bat gelago edestu nai daustazu.

MEFISTOFELE (*OSO* ben).—Jainkoak, Jaunak —eta nik ondo dakit zegaitik— aizezko eskualde garbietatik leza sakon barre-netara, erdiko sutzar aundi baten garra bere kautan akitzen dan tokira bota ginduzanean, bertatik aurkitu giñan argitasun biziegi baten, bata besteari itsatsia moltzoturik, eta danak egoera egokizean. Orduan, diabru guztiak batera eztulka ta usinka ekiñik, sulbur, kirats eta beste surrnn garratzez bete zan infernua. Arrigarria zan gas-sunda a! Ainbeste izan be; eta tauki baten lodia izanda be, eztanda egin bear *izan* eban lur-azalak, burrundaraz. Baiña gatozan geure auzira: leen sakona zana gaur tontor dala, jakin bear dozu. An becan irasi zan gauzen egokitasuna iraultzeko bidea, eta orixe dala-ta lezako joputza ito-bearrekotik aizeko jaubetza askera igarotzen gara: agiri-agiriko ezkutua, guztiz ixillik eukia, aldikada luzeetan erriai iragarriko ez yakena.

FAusT.—Mendi-mukulu onek ixiltasun gurena dau niretzat, zelan eta zergaitik neure buruari itauntzeka. Izadia bere baitan irasi zanean, biribildu egin eban bakar-bakarrik lur-biribilla; gero eder izan yakon gaillurrak jaiki azotea, eta lezak zulatzea, eta arkaitza arkaitzaren gain eta mendia mendiaren irazo-aztea; geroago atondu zituan bizkar-gune leunak, araneko pendizak edu orretan gozaturik Emen eta areitan guztia da landaren berde-joria; pozkor eta ditzitsu agertzeko eztau bear otoz-otoko izu-ikara ta larritasun zororik,

MEns-rOFELE.—Olan uste dozue; argia baizen gardena iruditzen yatzue ori; baiña emen dagoan onek ba-daki gauzak beste era batean dirala. Ni neure lekuan nengoan orduko arri irakin urtua oxñaren erraietan sutan egoalarik, eta Molok'en mailluak, arkaitzak arkaitz gain eratuz, zingurin pikortsuz goiak goi izartzen ebazanean. Beea oindiñokarren alako arri-mokor astunez ereinda dago. Zelan azaldu orrelako jalgite erregosia? Jakintsuak ez dau ezer ulertzen; or dago arkaitza, eta itxi egin bear yako. Beraz,

alperrik gabiltz burua austen. Erri lau ta ezikasía da ondoen uler-tzen dauana, bere siñVskeretatik urrintzen itxi oi eztana noski. Al-dikada luze ostean umotua dau bere jakituria, eta mirari bat da berau Satan'i zor yakona. Bidazti onak, fedearen makuluak eus-garri ditula, ikertzen ditu, errenka, txerrenaren Arria ta deabrua-ren Zubia.

FAUST.—Alan ete guzti be, oso interesgarria da deabruak ze-lan konturatzen diran Izadiaz.

MEFISTOFELE.—Atsegin yakola edo ez yakola izadia deabrua-ri, ez dautso ardura; dedu-pitiña baiño ez da, eta an aurkitzen zala da. Onek esan nai dau gu egintza aundidun jentea gareala; gure orde, zirraparrak, indar mandoak, erabage ta astakeriak itz dagie. Guenean, argi be argi adierazo dagitzudazan gauzak, ez yatzu ezer atsegin gure azalean? Zure begiak ikusi dabez, azkenbako goialdeak zear jastean, «munduko aginerriak eta bertako uske-riak». Baiña, ats-eragiteko gaitz zareanez, ez dozu ezetariko zauz-kadarik somatu?

FAUST.—Ba-dago, egon be, zerbait aundia narakarrena. Igarri egiozu.

MEFISTOFELE.—Ederto deritxat. Nirekikoa ba'litz, ona emen nik autetsiko neuken uria: beronen ardian, burdin'arotzen baz-kari-barailla ta zalaparta, kalearte estu medarrak, oiñarri ezbar-diña, azoka, azak, arbiak, kipulak eta arakiñen mafak, agiriko aragia irunsteke euliak moltzoka batzen diran tokiak. Olakoetan, ziur, ordu guztietan idoroko dozu atsa ta zirriparra... Ostean, enparantza aundiak eta kale zabalak, olako aunditasun-itxura bi-txia eskintzeko; eta azkenez, an usgune zabalak ate batek be mu-gatzen ez dauan lekuan, begiak artu ezin dabezan lakoxe auzune azkenik bakoak. Olako uri baten pozik artuko neuke beribillen zarata, joan-etorri iskanbiltsua, txiñurrite aske baten ibilli-bear naasia; eta beti agertuko nintzake, zaldiz edo berebillez, tokiaren erdi-erdian, millaka ta millaka izakik ohoretua.

FAUST.—Olako ezek be ez ninduke beteko. Pozgarria da erria ugaritzen, bere erara pozez gaiñezka bizi izaten, antolatu ta esko-latzen ikustea; baiña gero oartzten zara, asaldari ta matxiñoak bes-terik ez dagoala.

MEFISTOFELE.—Ger0, egundaiñoko auncli ospetsu ta leku atsegingarrian, jolaserako gaztelu bat eregiko neuke, oianez, muiñoz, zela; z, ondo landutako landa ta soloz eta lorategi eder-garaiz inguratuta; bide-zidor artezak egongo litzakez oial bikaiñez iduri jantzitako orma berdeetan zear, itzaltegi-txoko ederrak antzez eratuak, eta ur-xirripak aitez aitz jausiz datozenak, eta era guztitariko ur-jauziak. Goietaraiño igongo litzake txirristaka tirakada bat, eta nun-nai milla izki-m'zki txatxar, begi-belarrien gozagarri. Azkenez, bizileku txiki batzuk jasoko neukez, bikain eta erosoak, emakumeentzat, emakume ederrentzat. An igaroko neukez biotz— zirrara berebiziko ordu azkenbageak onako bakartade lagunduan. Emakumak esan dot, bein betiko au *ad'era*zo bear dot, ba, askotariko edertasuna besterik ez dodala ulertzen.

FAusT.—Gaizto bat aiz, eta gaur-eguneko Sardanapalo,

MEFtsTOFELE.—Batek ez daki iñoiz norantz jo nai dauan: Eta alan be, ba-da gauza gurenik. Zuk, ibilte onetan illargitik ur-ur ibilhi zarean orrek, ez ete dozu somatu aŕen gaiñean kokatzeko gogorik?

FAusT.—Ez, ez neban somatu. Lurtar biribillak eskintzen dau oindiño lekua egintza aundietarako. Orreitariko bat, ez dakit zein, burutu bear dot oraindiño. Indartsu nozu oraindi indar orrein gaiñeko zerbait egiteko.

MmsTOvELE.—Aintzaz zaletua zagoz orduan? Etzara oraintsu alperrik ibihhi emakume gurenen urbil.

FAUsT.—Jabegoa menderatu nai dot; euki gura dot! Egintza da oro, eta aintza ezer ez da.

MEFisTOFEI'E.—Idoro zeinkez olerkariak zure ditzira geroari iragarri leikeoenak, eta zorakeria zorakeri berberagaz gar-azo.

FAusT.—Olako ezer ezin zeinke ulertu. Zer dakizu zuk gizarirrisai buruz? Zer dakizu zuk, izadi esker txarreko, beartzun eta garraztasunez bete orrek, gizonak bear dauanaz?

NIEFisTOFELE.—Jazo bedi dana zcuak nai bezela; baiña iragar eidazu zeure apeta eta kasketaldien neurria.

FAUsT.—Nire soa itxasoak erakarria dago, bere gaiñ makuraztean, puztu ta puz-miñak itxi dabillen itxasoak erakarria nunbait; gero ibituz doa ta bitsez koroatuko bere olatuak astintzen, an eta emen ur-ertzeko ixiltasunaz jabeturik. Baiña orrek zipla

ta zipla sutan ipiñi oi nau, guztien eskubidea lotsaz artzen dauan ezpiritu askea sutan jarri oi dauan lez, eta leraz asaldatzen dau odola, gogoaren ondoezera egotzirik. Guzti ori lenengotan ezbear bat lez artu arren, gero begiak zorroztu nituan: ona olatua lipar baten geldiazten zan, gero bere egoak zabaldu ta nai ebana jaritxi dauanaren antzera alde egiteko; ondoren, barriro itzuli ta beti barrizatzen zan joku bardiña.

MEFISTOFELE (*ikusleai begira*).--Ez dot ezer barririk ikasi; guzti ori millaka urteak dirala ezagutzen dot.

FAUST (*bere goraldian jarraituki*).—Olatua zital urreratzen da ta nun-naira daroa antzutasuna, berbera he antzu dalako. Puztu, azi, narrastu, ondar landubagearen mugak gaiñez egin...; an beean olatuak dira nausi, batzuk besteen gaiñ, erregiñak legez, eta barriro bazterten dira ezertxo be ernaldu bage. Orra or lan-tankera bat, erri-aldiraiño alperrikakoa! Orra or gai ezikatxen kemena, zentzunik bakoa! Nire ezpirituak orixegaitik edarazten ditu bere egoak, bere gaiñ jaso-azteko. Errazoi orixegaitik, burruka egin nai neuke, eta irabazi.

Izan-aalezko da dana! Ekaizkor dalarik be itxasoa, beti zir-kintzen yaku bera baiño nagusiago dan zerbaiten aurrean. Arro be arro puztu ta ibitzen da, baiña goi-mailla txikarrenak erakuts daikeo bekoki arroa eta sakontasunik pitiñenak erakar-azo jarkigaitz. Entzun, ba, nik gogotan dodan asmoa: itxaso arro orri lurbazterretik alde-eragiteak dakarren poztasun gorenengoa jadetsi nai dot, ur-zelai amaibakoaren muga barruan sartu ta bere gaiñ tolestu-eragin guztiz urruti. Dana daukat dagoneko onda be ondo asmauta. Ezta besterik nire guraria, eta zure laguntasuna nai dot.

(*Gudu-musika tanbor-abarrotsa, ikuslearen atzetik, eskumaldera*).

MEFISTOFELE.—EZ genduan onakorik uste. Entzuten ete dun-bal-otsik an beean?

FaUST.—Guda oraindik; jakintsuari, alan be, iguin damotsa burrukak.

MEFISTOFELE.—Guda edo bake, jakituria ehagune bakotxetik zerbait ateratean datza-ta. Ereti egokiari jarraitu bear yako beti, begiak zoli, zelataka. Eta ha-^yatortzu, Faust, egokiera bikaiña, zagokioz adiñonari.

FAUsT.—Laga egizuz ipuiñak, eta esaidazu argi ta garbi zertaz diarduzun. Zabal mintza zaitetz bein.

MEFI TOFELE.—Niretzat ez da ezer ezkutuan geratu ostera ornan. Kaiser gaxoa, dakizunez, estualdi larrian aurkitzen da. Guk, ondasun guzurrezkoak bere eskuetatik igaro-aziaz, jolasean genbiltzan bitartean, berea zan mundu osoa. Gazte aurkitzen zan, bakaulkian jarria, eta korapillo ta oztopoak ederki ebatzita, edonok bekaitz izateko moduan, eta egoki errege izan eta biziari guna aterateko aldi berean.

FAUsn—Oker sakona! Jaurlaritzarako dan gizonak jaurlaritzan aurkitu bear dau zorionik gorenengoena; nai-izate gurenez aseturik dauka bularra, eta olakoaren nai-izateak inok be ez ditu jakin gura izan bear. Bere uste onekoai belarrira diñotsena beinbeingoan beteten da, eta mundu guztia zurturik gelditzen da. Bera izango da beti guretarik lenena, eta aintzagarriena. Atsegiñak abere biurtzen.

MEHsTOFELE.—Ezta ori be. Atsegiñari emona bizi da, bere erreinua naspillik aundienean ondatzen danean, aundiak eta txikiak burrukan diarduelarik; anaiak alkar murriztu ta ilten dabe, maiztergoak maiztergoen aurka, uria uriaren aurka, laterriak andikien aurka, eta gotzaiña eliz-gizonakaz eta parrokiak. Gizon-ilteak dagoz elizetan, eta eurenak dagiez ate aurreetan bai merkatariak eta bai Alkarren leian aziaz doa nainun ausarlceria, bizi dala diñoanak bere burua zaintzen dauala diño-ta. Orixe da or nai emen dakusguna, begi pean dantzari.

FAUsT.—Orixe da bai begi aurrean dabilkiguna, jagi ta jausi zaratatsu, azken batean jira-biraka naste-borraste izugarrian zearaturik.

MEFISTOFELE.—Inok ez dau eskubiderik, egia esan, olako gauzakaitik ezer esateko; an izena ona euki nai dauanak euki leike, zirtzillena ba garrantzi aund¹ koduntzat artua da. Azkenez, alan eta guzti be, onenak beintzat zoro-aldi ori larregia dala konturatu-ko dira, eta bulartsuak tankez jagiko, au esateko: errege da atsedena damoskuna, baiña Ka¹ser'ak ezin daike ta eztau olakorik egin nai, aukera daigun beste nagusi bat, eta emon daiogun bizi barria errifivari; eta bakotxari bere segurantzta izkia eskintzen yakon bi-

tartean, alkar daiguzan bakea ta zuzentasuna mundu birbiztu baten.

FAUST.—Orrelaxe uste dau apaizak.

MEFISTOFELE.—Ba-dagoz apaiz batzuk be, euren zilbot urtena ondo zaintzea, beste asmorik ez daukienak; orritzek dira guztietatik geien jarten dabenak. Baiña naste iskanbilla jagia da, sagaratua izan da dagoneko biurrikeria, eta leen jolasazi genduan Kaiserra, zuurki, aldenduaz doa, bere bear bada azken burruka jokatzeko gertaketak egin naian.

FAUST.—Erruki naiako, ain dozu ona, ain adikor!

MEFISTOFELE.—Erdu, ikusi daigun. Dakusanak itxaron bear. Eta ibar estu onetara ekarriko ba'genduke? Gaizkatu ezkerro, milla bider geiago balioko. Zergaitik ez ete dabe seikoak ebazten? Menpekoak ez dautsoe utsik egingo zorionsu aurkitzean.

(Urreko mendira jauzi egiñik, ibarrean dakuse gudarozteen zerrenda egokia. Sakonetik gorantza dator dunbal-ots gogorra ta guda-musika).

MEFISTOFELE.—Ikusten dodanetik, guda-oiña ondo arturik dago. Goazen igaroz aren ondotik eta garaipena ziurra dokezu.

FAUST.—Zer itxaron ortik? Lillura, txakur-ames, itxura utsa!

MEFISTOFELE.—Burrukaldiak irabazteko guda-amarruak. Adore zaitez eta gogora daukazu asmoa. Kaiser'ari zaindu ta iraunkor egin ba'dagioguz bakaulkia ta Laterriak, belauna makurtzea baiño ez daukazu mugarik ez dauan ondartzat bat maizter lez artzeko.

FAUST.—Ez zenduzan gaizki erabagi gauzak. Ona ba, dakusgun: irabaz eizu burruketa bat.

MEFISTOFELE.—ZeU zara irabaziko dozuna, oraingoan zeu zara ba buruzagien buruzagi.

FAUST.—Dedu bidezkoa, egi-egiaz: aditzen ez yatan gauza baten agindu bear.

MEFISTOFELE.—Laga mariskalaren makillari berea egiten, mariskalarena neuk dagiket-eta. Aspaldian nator gudaren mixeriak aurrez ikusiaz, eta itun-batzar bat antolatu dot gizonaren eta mendiaren gai ta indar beiñenakaz eratu; obari naitaez biok alkartzen dakianarentzat.

FAUST.—Ze jente-gisa da izkilluakaz ikusten dodan ori? Menditarrak asaldarazi ete dozuz, gero?

MEFISTOFELE.-EZ! , baiña laguntaldeai guna ateraten jakin dot, Peter Squenz'ek egin ebanez.

(Iru Ausartak datoz aurrera).

MEFISTOFELE.-Or daukazuz nire gizonak: ez-bardiñak dira adin, jantzi ta izkilluetan. Uste dot ondo aurkituko dozula. *(Ikus-leai)*. Mundu guztia doa gaur izkillu-jantzi ta goleta atzetik, eta snbel-zuri barrabanak ba-dakie ando be onek zer esan nai dauan.

RAUFEBOLD *(gaztea izlliku-jantzi arin, baiña ñabarrez)*.—Iñok begietako zurira zorroztun ba'daustaz begiak, aoan emongo dau-tsot ikubilkada ederra; eta iges egin naita dabilken koldarrari bu-ruko uleetatik oratuko dautsat.

HABEBALD *(gizon-arpegiz, egoki ta aberats orniduta)*.—Alpe-rreko alamentu ta illetak ez dira ipuin txepel besterik, onak ain zuzen be aldia alperrik galdu-eragiteko. Etzaitzez nekegaitza izan artzeko ezpada, ta ausnar egizu beste biderik ez izatean ondo ala txarto jokatu zenduan.

HALTEFEST *(adiñekoa, onda izkilotua ta jantzi barik)*.—Ez dozu orrekin zer aundirik irabaziko. Ona, aundia izanik be, beti ezereztu oi da, bizitzako ur-lasterrak narrastua. Egia esateko, artzea ondo dago, baiña obeto artuari iraun-aztea. Laga egiten zaar perkatx oni, eta iñok ez dautzu artuko gauzarik txikiena be.

(Leza-barneetara jasten dira danak).

MENDIAREN AURREKALDEAN

(Tanbor-ots ikaragarria dator gorantz, eta guda-soiñuak. Kaisar'en guda-txabola zabal-erazoa agertzen da).

Kaiser. Buruzagi nausia. illezulariak.

BURUZAGI NAUsrA.—Erabagi txit zuurra iruditzen yat, ibar egoki ontan gudarozte osoa batutekoa. Uste dot ondorio bikaiña ekarriko dauskula onek.

KAisER.—Oraintxe ikusiko dogu zer dan gertatzekoa. Alan be, atzera egite onek min emoten daust, igesari emotea lez bait dogu.

BURUZAGI NAUsIA.—Begira geure eskoira, oi errege! Onako lur-unerik asmau be ezin leiteke egin, gudarako ustez bakar-baka-

rik sortua izan ezik; goi-be kulunka ez latzak, baiña ezta urreratu errezegiak be, guretzat ongarri ta arriskutsu etsaiarentzat; gure indarrak, gaiñera, gorderik dagoz koska ta izurmendu baten; ziur nago, zalditeria ez dala azartuko onaiño irixten.

KALSER.—Goratu bearra baiño ez daukat; besoa ta bularra emen ikusi daikeguz ederto zer balio daben.

BURUZAGI NAUSIA.—Ba ete dakusazu an larreko lautada zaba-lean zein gogotsu gertatzen dan talde-moltzoa burrukarako? Arein zikaiak dizdiz dagie airean, eguzti-islatan, goizeko gandu artean. Begⁱra zelan kulunkatzen dan lauki indartsu orren ora illuna. Millaka gizon dagoz or artega egintza aundiak burutu nairik. Giza-taldearen indarra ezagutu ta autortu bear da; onexek emongo daust geure etsaien indarra suntsitzeko lain.

KAISER.—Lenengo aldiz daukat neure begipean olako ikuski-zuna; orrelako gudarozteak bere kopuruak baiño birritan geiago balio dau.

BURUZAGI NAUSIA.—Bai, eta gure ezkerrera? Ez dot zer esanik. Or dagoz gizurenik ausartenak arkaitz gotorra zaintzen. Arri-tontor orrek, izkilluz oso josirik, mendarte estuko igarobiderik garrantzi-tsuena jagon daroa. Ortxe uste dot ondatuko dirala arerioaren indarrak, odol-eriotzazko burrukan ondatu be, eurontzat.

KAISER.—So ara beera; an datoz orreik, osaba, lengusu ta anai dei egiten dausten alkar-artu guzurrezkuok. Gero ta ausardiago euren oldar eta uste onean, euren indarrez jaur-makilla zemaitu ta bakaulkiari zor yakon begirunea baituran jartera iñoz eldu ziran; gero, euren artean banandurik, triskantza itzelak burutu zituen aginterrian, eta orain barriro alkar-arturik, gizon bat bai litzaz, nire aurka jagiten dira. Urduri dabil gizataldea, baiña azkenez ur-lasterrak eroana da.

BURUZAGI NAUSTA.—Begira; or mendian beera aringa gizaseme zintzo bat, bazterrak ikuskatzeko mezuarekin. Iriipartsu bekio zoria!

LENENGO MEZULARIA.—Ara ta ona ibilli gara, trebe ta kementsu, baiña ez dakarguz albiste ain onak. Talde aundi batek omena zin-egin nai dautzu, baita gudarozte sail zintzo batek be; orretan, orraitaiño, atxaki bat besterik ez dakusagu geldi egonari oratzeko, barne-irakite bat eta agiriko arriskua.

KAISeR.—EZ da norberekariaren oiñarri ezagutzea, ez begi ona, ez betebearra, ez dedua, norbere euspena baiño, Eta ez dozue uste, neurria beterik dagoanean, zeuen auzokoaren garrak artegatu bear zaituela?

BURUZAGI NAUSIA.—Or dator bigarren mezulari bat, Astiro dabil mendian beera, neke-neke eginda dagoala erakutsirik. Dar-daraz dakarz soin-atal guztiak.

BIGARREN MEZULARIA.—Atsegiñez idoro gendun nas-mas biurria; baiña bertatik jagi da kaiser barri bat. Lautadan zear trumilka asi da laguntaldea, ak izentatu bideetatik. Orrelaxe zabaldu diran ikurrin guzurrezkoen atzetik dabiltz danak; aari-errazakoak dira.

KAISeR.—Aurkako kaiser ori neure onerako jagi ta aurrerantz dator; oraintxe oar naz egi-egiaz Kaiser nazala. Gudariaren izkiri-lu-jantziak estutzen nau, eta asmorik aundienak be aurrera eroateko indartsu naukazue. Jai-andimandikeri ta ditzira artean, zerbait zan beti falta yatana: arriskua. Zuok guztiok, ezertariko bereizte barik, zaldun jokuak aolkatzen zeustezan, eta euretara emana izan nozue lera bizitan; gudutik baztertu ez babanintz, ni onez-kero egintza arrigarrizko aintzaz koroatua nintzakean. Neure irudia aginterriaren suan dizdizka ikusi neban une berean, neure barruan nabaitu neban buru-jaubetasunaren zantzua. Suzko gaiñ etorri yatan bere izugarrizko zer guztiakaz; lillurapen bat zan bakar-bakarrik, baiña lillurapen eder bikaiña. Nik beti ames-egin dot, naasi ta illun sainar, garaikuntza, entzutea; eta orain duin-ezik uko egin neutsonaren billa noa.

(Mezulariak Kaiser aren aurkakoari aup-egitera doaz. Faust gudajantziz apainduta, txotoa erdi-beerantz dauala. Iru indartsuak datoz ari)arraika, goian lez orniduak).

FAUsT.—Txarretsi ta gerenduko ete gaituzuen bildur barik gatoz; bear-izanak baiño aruntzago damo bere frutua aurretiko ardurak. Dakizunez, menditarrak ausnartu egin oi ditu gauzak eta irauli etenbage, izadiaren eta arri-pikorraren idatzia iragarritz. Ezpirituak, aspaldian lautik baztertuak, mendiari eskeiñiak dira oso-osorik. Ixillaren mende lan-dagie oxin-barrenetako zear-zuloe-tan, eta meatz- lurrunen gasa gurenean; eta etenbage aztertu, zatiak berezi ta bateratu nairik lan dagiela, euren adore guztiz zer-

bait barri danera joten dabe, Ezpiritu orreik, itxura gardenak daukiez goitiko euren al-izateaz batera; eta euren betiereko ixiltasunaren leiarretik begiztatzten dabez goi-munduko gertakariak.

KmsER.—Ulertzen dautzut eta atsegin izango litzakit zuri siñistutea; baiña esaidazu, gizaseme basa, zer egin bear dogu guzti onegaz?

FaUsT.—Nurtzia'ko illaztia da zure zerbitzari zintzo ta itzal-aundikoa, Zori izugarriak beiñola iruntsi nai izan eban; su-zartaka egoan dagoneko garraldia, eta lamak zorrozuz joiazan euren miñak; zulbura ta ui-pikea naasten ziran egur igar arein biran moltzotuakaz; ez gizonik, ez jainkorik, ez txerrenik etzan andik onez urtengo, eta orra, zure aunditasunak apurtu zituan ordun arein kate sutuak. Erroma'n zan. On egitera beartua daukazu a, eta zure urrats guztiak leia biziz jarraitzen ditu. Bere buruaz be aitzua dabil; zeuretzat ezik, ez dautse itaunik zuzentzen izarrai, ez leza sakonai; zuri lagun egitera etorteko esan dausku, mendiko indarrak bene-benetakoak dirana ba-daki-ta. Zer onetan askatasun oparoz jokatu oi dau izadiak; baiña ori orrela dala be, eliz-gelakoen tentelkeriak aztikerizat dauka guzti au.

KmsER.—Jai-jantzizko egunetan, geure poz-atsegiñean esku artu nairik alai datozanai bostekoa emon oi dautsegu; eta atsegin aundiz dakusgu zelan alkarri eskuak estutu ta alkar besarkatzen daben, areto luze-zabalak ia-ia estu egiten yakez eta; baiña goiz onetan be, areto ta jai barik, jazoak aundi biurtzen dabezanak noski, ondo etorria diñotsagu guri beren-bererik ekartera datorren gizakume suarrari; kinka larria da, beronen gaiñ kulunka hai alanbearraren daunbadak. Bazter-azi, orraitio, une aundi onetan ezpata artetatik zeure esku zangarra, eta ornen egiozu neure alde edo neure aurka millaka gizaseme datozan momentu guren oni. Gizona osorik beregan dago. Koroia nai dauana izan bedi berenez dedu orren duin, eta ildakoen erreñura jaurtiko dogu geuk geure eskuz gure aurka jasotako sunbilla, berak bere buruari kaiser deritxona, geure Laterrien jauna, gudarozteen duke ta geure menpeko guztien nagusi.

FAUsT.—Egintza ori burutu dagiana aintzatsu izanik be, oker zagoz zeure burua olan arriskuan ipiñiaz. Buru-oskolak ez dau hear bada kaskoa estaltzen, eta onek jagoten suarra íxiotzen dautzun

burua? Zer egin dagikee buruzagi barik? Buruak lo ba'dagi, beste guztiak be errez nasai-erazten; buruzagia zauritua ba'da, beste guztiak be mil] izaren; eta guztiak bizkortu ta sustatzen dira, buruzagia bizirik eta onik jagiten ba'da. Besoa sartu oi da orduan jokolari, ta buru-kaskoa zaintzen dauan eskutua jasoten dau; ez-pateak be bere betebearraz konturatzen dala dirudi, eta artzen dabezan zartakoak eunduta biurtzen ditu, Oiñak be, azkenez, eging-tza zorionsuan parte artzen dau, etsai azpiratuaren lepazur gainean kementsuki jarririk.

KnisER.—Nire sumiña aundi bait da, orixe egin nai neuke aren buru arroaz: oin-aulki xaloa.

MEZULARIAK (*itzuliaz*).—Or beean dedu gitxi idoro dogu, ta siñiste urri. Inri ta barre dagie gure ordezkotza prestu ta suarraz, edozein iski-miski ba'litz lez. «Zuen Kaiser'a illa da onezkero; urtu egin da oiartzuna iduri zelai medarrean, Oindiño be bera aita-tzen ba'dogu, «ba-zan beiñola...» esaten danean legez da».

FAUST.—Ori ederto datorrena da ausartenen naikunaz, sendo ta zintzo zeure alboan dirauenen gurariaz noski. Baiña ziorra auxe da: urreratuz dator arerioa, eta zureak artegaz dagoz begira; agindu eizu, ba, burruka, abagune egokiagorik ez dozu izango-ta.

KALsER.—Ondo dago. Aginpidea izten dot bertatik. (*Buruza-gi nauslari*). Erregegai, zeure eskuetan atsedeen begi zure egitekoak.

BURUZAGI NnUstA.—Betor aurrera, ba, eskoi aldea. Etsaiaren ezker aldeak amore egin bearko dau, goiak gurata orain alegintzen danarren; ez, ez dau bere azken urratsa emongo, gure gaztedi sua

FAUST.—Egizu, arren, sar dedilla gizuren gazte au bertatik zuretarren lerroan, zure guda-taldekoen artean, eta daroala burrukaldira bere oldar aaltsua.

(*Bere eskunzara eskua luzatuz*).

RAUFEBOLD (*aurrean agertuz*).—Arpegira so-dagistanak, eztau barrito egingo, albagoiñak ausita ezik. Bizkarra itzul dagidanak bertatiko baten ikusiko ditu bere sama, buru ta adats, dardaraz ta taupaka, beera jausten. Eta zure gizonak, nik lez, usu ta egoki ba'darabillez maillua ta ezpatea, itzuli-murdika doake lur-barna, gizona gizon-gaiñ, norbere odolaren uñetan murgildua. (*Ba-doa*).

BURUZAGI NAUSIA.—Datorrela urretik erdiko moltzoa, eta zuurki gogor egin daiola arerioari, baiña kemen aunditan. Ikus an begian, eskumaldera, gure gudarien adore sutsuak zelan ezezten dituan etsaiaren asmo ta burubide guztiak.

FAUST (*erdiko gizona erkiñez izentaurik*).—*Orrek* be ar daizala zure aginduak.

HABEBALD (*aurre"aturik*).—*Kaiser'en* taldean adoreari arrapakiñen egarria gaiñeratu bear vako. Ona emen guztioi aurrera dakartsedan elburua: Kaiser-aurkakoaren guda-txabola aberatsa. Ziur nago ez dala luzaroan izango bere sasi-aurkiaren jaube; neu jarten naz gudari-saillaren buruan.

EILEBEUTE (*jaki-ornilar-ia linburtu-nairik*).—*Beronegaz* ezkondu ez nazan arren, berau dot origaitik nik naien dodan laguna. Ona emen guretzat umotzen diran frutuak. Bildurgarri da emakumea artzen dauanean eta erruki bagea ostuten dauanean. Garai-penera, bada! ; dana dogu zillegi. (*Ba-doa*).

BURUZAGI NAUSIA. —Etsai eskuma, uste genduan lez, zakar be zakar amiltzen da gure ezkeraren aurka. Soñez-soin aurka egingo yako mendi-arteko txirristoki estua abondaraz artzeko saio orreri.

FAUST (*bere ezker-aldea izentaurik*).—*Neuk* beartzen zaitut, maixu; ar eizu au zeure zerbitzurako. Ez dago gaitzik indartsuak euren artean gogor jokatzean.

HALTEFEST (*aurrera etorririk*).—*Ezker* aldetik ez dago arriskurik. Ni nengoken tokian, seguru dago guda-oiña. Ezta oiñaztaririk nik daukadana oker-azteko gai danik (*Ba-doa*).

MEFISTOFELE (*mendi-ganetik jatsiaz*).—*Begira* zelan dagozan orain, alkar estutuz, arkaitz-zirrikitu bakotxaren barrenean, gizakume izkillotuak, bide-zidor medarrak beterik. Orma sendoa dagie gure bizkar buru-oskol, soin-izkillu, ezpata ta ezkutaz, eta erasotzeko zantzua besterik ez dabe bear burrukan sartzeko. (*Ixilka, jakitun dagozanai*). Nundik eta zelan dan ori, ez eidazue itandu. Ez dodala astirik jakitea naikoa dozue, eta izkillu-aretoak utsitu dodazala. Leen zutik irauten eben, euren zaldi-gaiñetan; baita esan zan lurraren jaube zerala be. Baiña antxiñako zaldun, errege ta kaiser orreitatik, gure marraskulu-oskol uts, sunbil bat baiño geiago jantzi da barregarriro, olan Erdi-Aroa piztu-azorik. Dirala

cliralakoak koko jantzita dirudien txerrentxoak, euren ondorena izango dabe ora'ngo. (*Abots zoli*). zelan asarre-azten diran aldi-aurretik, eta zelan alkar joten daben galtzairu-iskanbilletan. Gudu-oial gaiñetan ikurrin-dendelak dabiltz zabuka, aizearen ats-aldi biziak joak. Orra or erri zaar bat, burrukan zakar ta gogor esku artzeko gertu,

(*Goitik datoz txaranga soiñu biziaren arrabotsa ta naste ika-ragarri baten oiartzuna etsaiaren gudaroztean*).

FAUST.—Estalirik ozertza; an eta emen, didiz dagi bakar-ba. karrik zantzu txarrez betetako dirdira gorritzak. Naasia agiri da oro: aitz-arte, oian, egurats eta ortzua osorik.

MEFISTOFELE.—Sendo eusten dautso eskumako egoak; baiña erdian dakust Hans Raufebold dana gaiñezkatzen; erraldoi trebea, dirudienez, etsaia erasteko gertakuntzetan oso lanpetua dabil,

KAISER.—Aspuruan ez dot beso bat besterik ikusi; orain ama-bitik gora dira burrukan sarturik dabiltzanak. Orri ez deritxat be-rezkoa.

FAUST.—Ez ete dozu inoiz entzun, Sikili'ko itxas-bazter gaiñez kulunkari dabiltzan odei-moltzoz mintzatzen? Ikuskari ondo bi-txiak eukiko zeunkez an, argitasun gardenenean zear arat-onat, usgune guztietara bultz-eragiñak eta oi ez lako lurrun-bafadetan disdiratuak. An joan-etorrika diardue uriak, eta baratzak gora ta beera, euren irudia eguratsean eten-ala.

KAISER.—Gauza batek, alan he, esnarazten daustaz kezkek eta susmoak. Jauzika dakustaz zikaietatik dirdai antzeko zer ba-tzuk, gure taldekoen izkillu didzitsuetan sugartxo ariñak dantzari ba'lebiltzaz, aurki. Guzti ori ezinkizunegia yat.

FAUST.—Parka, jauna, baiña guzti ori izadi eredu galduen az-tarrenak baiño ez dira, Dioskuruen isla: oneikarren zin-egien itxastar guztiak. Ortxe dagoz alkartuta euren azken indarrak.

KAISER.—Baiña, esaidazu: noni zor dautsagu izadiak gu orre-la mirariz betete ori?

MEFISTORE,LE.—Nori, bada, zure zoria bularrean daroan mai-xu gurenari ezik? Sakon be sakon biotz-ikutua laga eben zure arerioen zema ta meatxu zakarrak, eta esker-orakutsiz gaizkatu nai zaitu, naiz-ta berak il-bearra izan.

KAIser.—Gogoan dot, ain zuzen be, egun baten mesede bat egin neutsala, ni zerbait nintzanean, eta nainun ospe aunditan artzen ninduenean. Jai bat ondatu neutsen apaizai ta geroztik ezin izan neban baragaz onezkorik egin. Baiña egia ete da orain, ainbat urte igarota gero, egintza on aren ekarria batzea?

FAUST,—On egiñak beti dakar frutua gaiñezka. So egizu gorantza. Nik uste dot, zorikeri baten ikus-agiñean gagozala. Begira, ezpabe: orrek adierazoko dautzu bertatik.

KAIser.—Arrano bat ortzipean dabil egazka, eta grifo batek jazartzen dau asarre ta odol-zale,

FAUST.—Ondo garbi dago: alegi edo ikusi-mikusia pozgarri deritxot. Grifoa alegizko abre izanik, zelan euki daike bere indarrak arrano nausi batekin neurtzeko adorea?

KAIser.—Orain begira dagoz alkarri, batak bestea zaindurik, jirabira zabalak osoturik. Baiña ikus beingoan zelan alkartu ta nas-ten diran, bularra ta samea batak besteari eratzi ta sarrastatzeko.

FAUST.—Begira zelan grifo gaixoa, azpiratua ta eioa, guda-oiñetik urtenik, bere leoi-txiki gisako buztanaz murgiltzen dan mendiaren gaiña koroatzen dauan basartean, bertan ostenduteko.

KAIser.—Bete bei alegia; nik pozik dot onartzen.

MEFISTOFELE (*eskumaldera* begiraturuz).—Atzerantz dagi etsaiak gure etengabeko zartakoen aurrean, eta, segurantza aundi bage erasorik, berbera bere eskumarantza tolestuz doa, naste betea sortu-azoz bere erdiko gorputzaren ezker-aldean. Gure taldearen buru tinkoa orduan alderdi makalerantz makurtzen da, maillu gisa jorik. Ekatzak izurturiko uin-ukaldi eskerga baten antzera, amorru bizitan agiri dira orain indar biak, ia bardintsuak, erokeriraiño eltzen dan burruka bikotxa bien artean asirik. Nok asmau zeikean gauza ederragorik? Irabaztun izan gintzazan alkar-jote aretan.

KAIser.—(*Faust'i, ezker-alderantz izentaturik*). So ara, orraitiño; kezka nauka une orrek; arriskuan dagoala begitantzen yat gure babeslekua. Ez dot arririk ikusten egan; etsaiak daukaz bealdeko mendi-tuturrak; eta dagoneko itxiak dira goi-aldeak. Or etsaia moltzoka dator onantza, gero ta urrago; onezkero berak

dauka bear bada mendi artea. Azken ederra saio donga batentzat!
Zure egilleak ez eben ezertxo be ekarri.

(*Geldi-unea*).

MEFISTOFELE. —Or datoz nire bela biak. Ze albiste ete clakars-
te. Ba leiteke ezer txarrik ez ekartea.

KAISER.—Zer gura dabe txori gogaikarri orreik? Naste iraki-
ñetik iges egin dabe ta orain geugana zuzentzen dabez euren ego-
ukaldi baltzak.

MEFISTOFELE (*beleai*).—*Jar* zaitetze nire belarri ondoan; ez
dago, itxura danez, galdua zuek jagoten zaituena, zuen aolkua zuu-
rra da-ta.

FAUST. —(*Kaiser'i*). Entzungo zenduan, euren abira janaria
ekarteko urriñetako lurraldeetatik biurtzen diran usoetaz itz-egi-
ten beti. Orain be, ba, orobat gertatzen da, alde aundi onekin,
usoak bake-garaian egin oi dabezala euren zerbitzuak, eta guduak
belak erabilten dabezala bide-mezulari lez.

MEFISTOFELE. —Ez datorkigu ondo gauzea. Begira, gure gizu-
renen duda-mudako egoera ori arkaitz rnalakartsuan. Urreko goial-
deak artuak izan dira, eta bidea urratzen saia baldin ba'dira, ezin-
bestekoa da noski andega-porrota.

KAISER.—Ona ni, ba, azken batean, zure jostailu; zeure gu-
zuresko sare artean eizatu nozu, eta ez daukat beste biderik dar-
darara jotea baiño.

MEFISTOFELE.—BiOtz on orandiño! Ez da ezer galdu oindiño.
Ar artea ta eskernio azken estutasun ontatik urten dagigun. Gau-
zak, beti be, nastu egin oi dira azkenerantza. Eta uts-eziñak do-
zuz nire mezulariak. Esaizu, luda, nik agindu daidala.

BURUZAGI NAUSIA (*bitartean aurreraturik*).—*Eurakaz* alkartu
ziñan, eta alkartze au ez da izan nire burubide osoa ondatzeko
baiño. Buru-oldeak eztau inoiz be sortu gauza on iraunkorrik. Ez
dakit neurekiko zelan aldatu burrukaldiaren mataza. Asi ebenak
azkendu dagiela; or nik lagatzen agint-makilla.

KAISER.—Eukizu une obeetarako, oraindik zoriona ekarri lei-
kegu-ta. Bildurra sar dagist lagun atsegin-ez onek eta beronek be-
lakaz daukan ar-emon barrukoak. (*114efistofele'ri*). Ezin neikizu
agint-makillarik emon, ez bait zaitut gizakume egokia, nire eri-

txiz, Orain, alde zaitez gure begi aurretik, mesedez; eta betor etorteko dana.

(*Txabolan sartzen da buruzagi nausiagaz*).

MEFI sTOFELE.—Bekio zerbaiterako daroan agint-zigorra; guri ez dausku asko balio izan. Urrean egoan, antza, gurutzearen zerbait, FAUsr—Zer egin, ba?

MEFISTOFELE.—OrO egiñik dago laster. Ona, adiskide baltzok; zagoze bizkor guri laguntzeko. Zoaze mendiaren alderdi aundira ta agur egin neurekiko Ondinai, uñak agert-azteko eskatuaz. Erneak dīta areik edozein antze-maiña emetan iñok ez eza-gutzeko, eta ondo dakie an edozein jausten dan lekuan itxura ta egia bereizten.

(*Geldi-unea*).

FAUST,—Gure mezulariak legezko txera egin bear izan dau-tee uretako erregin-gaiari. Ez da besterik an beean agertzen asten dana. Ara an, iturri ugari ta bizia sortzen da arkaitz gogor billosian. Orrek adierazten dau bide barria garaikundean.

MEFI sTOFELE.—Or daukazu arrera bakana; burrukan atzera eragiñak dira azkarren zirudienak.

FAUsT—Erreka errekeaz batzen, eta ola tuak suminkor joten ditu arkaitzaren zirrikituak. So orain uiol ori, ostarkua gaiñetik dauala; zabal gaiñ asi cling'lizka ta gero jatsiz doa, oso-osorik aparez izur, azkenean ibar-zelaian makur-azo ta lurreratzen dala. Zer itxaron gogor egite suar ta izugarritik be? Olatu altsuak oro irun-tsi nai dau; iskanbil ikaragarri onek neuri be ikarea sartzen.

MEFI sTOFE LE.—Nik ez dodaz oraingoz ur-irudiak baiño ikus-ten. Giza-begiak atzipetzeko lain lillura-joko au, baiña dantza bitxi ori jolasgarri vatala, dautort. Leiar-orepilletan doaz iraulka urak. Zozo-ergelak uste dabe itoten dagozala, lur tinkoan biriki-zabal arnasa artzen dabenean be, eta g sa itsusi-itsusian dagiez igerilariren ziñuak. Danendako naspilla orain. (*Itzuliz datoz be' leak*). jaun eta jaubeari zuetaz mintzatu nakion, bear-bearrekoa litzateke orain, danbada eder bat zuek emotea, erri xeeak nekatu barik metala ta arria lantzen diarduan burdiñ-ola ixeturantz azkar be azkar zeuon egazkada zuzendurik. Eska eiozue, zeure abots siñist-erazleenez, dizdiz egin ta txipristin-garrak jaurtzen dabezan sua, irudimen azkarrenak asmatu daikeanik eta su biziena. Bero-

tasunezko tximistak urrunean eta geure begien aurrean bizkor dabilzan izarrak, udako edozein gautan ikusten dira; baiña ez dira ain errez aurkitzen tximistak sasi nastu artean, ezta izarrak be azpi ezkoan zear narraska. Orrela, ba, baldintza orreitan, eta askorik oiñazetu bage, eskean asi zaitekeze gero agintzen amaitu al izateko.

(Ba-doaaz belak. Esana dan lez, gertatzen oro).

MEsToFELE.—Illunpe itsu-itsuetan etsaia sartu, emon daiken edozein urrats zalantzazko egiñik, eta gero lausotu bere inguruz erneko litzakezan zoro-su moltzoak ekarriko leuken bat-bateko ditziraz, zoragarria litzakigu bene-benetan; baiña guzti orri, gairera, zaratots ikaragarria erantsi bear dautsagu, ikaratu dagian.

FAU sT.—Gudarako soin-oskol utsak, areto-obietatik urtenak, bizkor-azita agertzen dira airean i ikutzean. Aldia dala ar daikegu goitik makil-jotzea, iskanbilla, musika bat arrigarrero guzurrezkoa.

MEFIsToFELE.--Zoragarria! Ez dago ezer orrei gogor egitekorik; zaldi-moltzo orreik dagoneko eguratsa beteten dabe antxiña bateko aldietan lez. Betiko matraka barriz dakusgu, kementsuki barriztua, beso-babes eta izter-jagolez ain zuzen be, guelfoen eta gibelarren antzera. Eta alderdi biok agertzen yatzuz ezin-alkartuzloak, beti gogor curen odoletiko sen tikizu ne t a n **O**nezkero entzuten da urriñera oskil-nabasa. Dana dala, alderdien ezinikusi ta asarrea da infernuko jai aundi guztietan ezbear eta zoritxarrik geien sortzen dabezana. Orain txerren lez diardut, eta surkor baizen izugarri dan zaratots onekin baliaturik, bildur-ikara gordiña ereingo dot aranean.

(Gudari-zalaparta aundia eresbatzan, eta beingoan burruka-soiñu pozkorrak).

KAISER-AURKAKOAREN TXABOLA

Aurkia, ederto apainduta.

Habebald. Ellebeute.

EILEBEUTE.--Ona emen gu lenenguok!

HABEBALD.-EZ dago belarik guk baizen arin dagianik.

EILEBEUTE.-0, emen bai altxor galanta metatuta! Nundik asiko naz! Nundik arnaitu?

HABEBALD.—Areto osoa bete-beterik dago! Ez dakit, egiaz, nundik oratzen asi.

EILEBEUTE.—Oin-azpiko au ondo vatorkit, sarri ez bait da ain ona nire oia.

HABEBALD.—Galtzairuzko mai llua dakust or dingilizka; luzaroan egona nozu olako orren antzeko bategaz.

HABEBALD (*izkillua a4uaz*).—Oro egiña da onekin: etsaia azi ta aurrerantz jo. Gauzarik asko pillatu dozuz zuk, eta, alan be, zakuan ez dozu sartu ezer balio dauanik. Laga eidazuz neuri urre-antzeko guztiok eta eroaizu kutxa oneitatik bat. Emen dago, ezpai barik, gudari-taldeentzako dirua; sabela, antza, urrez kuin-kuin egon bear dau,

arEBEUTE.—Tzugarria da onen astun aundia, Ezin daiket eroan, ezta berau jaso be.

HABEBALD.—Ia, arin, makur adi; neuk jasoko dauat bizkarrera.

EILEBEETE.-Uf! All ez dok niretzat. Guntzurrunak ondatzen yaustazak pixu onek.

(*Lwrrera doa kutxa ta apurtu egiten*).

HABEBALD.—Urre gorria agetan! Ekin beroni!

EILEBEUTE (*makurturik*).—Azkar, amantal bat!

HABEBALD.—Orixe berori dok ona. Abil arin!

(*Eilebeute zutuntzen da*),

Gu errukarriak! Zuloz beterik yagok amantala. Nainundik joan edo-ta gelditu, eurrez ereiten yoagu urrea.

MEZULARIAK (*gure Kaiser'enak*).—Zer egiten dozue santutegi ontan? Zergaitik azterka Kaiser'aren ondasunetan?

HABEBALD.—Nekez eta nekez erabilli doguzan ezkerro burrukan geure soin-atalak orain geure arrapakin-zatia, dagokiguna artzen dogu; oitura da etsaiaren txabola kapustea, eta gu be gudariak gaituzue.

MEZULARIAK.—Gure oiturak ez dabe onartzen gudari ta lapuraldi bardiñean izatea. Gure Kaiser'gana urrcratzen dan edonok godari-taldeko prestu bat izan bear dau.

HABEBALD.—Ezagun dogu zuen prestutasuna, urgazpen deritxona. Zuok guztiok eskola bat-baten aziak zarie, ta itz bat beterik ez dakizue, ogibidearen zantzua dana: emoidazu! (*Eilebeute'ri*). Gaizka adi, eta eroaik eugaz al dokana, emen ez gaituk, ba, ikusten dokanez, ondo ikusiak. (*Ba-doaaz*).

LENENGO MEZULARIA.--Zergaitik ez dauzsazu zaplada eder bat emon zital ez-egoki orri?

BIGARREN MEZULARIA.-EZ neuskizu esango: uts-egin dauste indarrak. Sunbil bat joian eurekaz.

IRUGARREN MEZULARIA.-Nik lausotuta neukazan begiak; arein aurrean dirdir egian ondo ikustea galazoten eustan ditzira.

LAUGARREN MEZULARIA.—Bitxia da; ezin dot adierazo jazoten dana: bero aundia egin dau egun guztian, eguraldi guztiz astun eta kinka larriz betean; batak gogor egian, eta bestea jausten; baita eldu dira aldi berean txil-egin eta zauritzera be. Zapla bakotxak arerio bat etzun-azten lurrean. Etziñen oartu *zelan* zabu egian odei batek zuen begi aurrean? Beingo baten sortu zan zurmur-baraila, txintxin-otsa, txistukak, milla zarata bakan. Eta ona, geuk be ez dakigu zer jaso dan.

(*Kaiser dator aurrera, lau lenengoenakaz. Mezulariak ba-doaaz*).

KARSER.—Dana dala, ez daust ardura! Garaitza geurea da; igeska doa dagoneko etsai taldeak ibar zabalean barriatuaz. Emen jasoten bakaulki itxia ta tsarte aundia beteten dau altxor xarmagarriak, oial bikaiñez estalduta, Gu orain, ospe ta deduz beterik eta geure zaingokoak *jagonda*, kaiser lez erriak bialdutakoai zain gagoz. Nainundik datorkiguz albiste onak. Jatsi bei bakea gure nausitasuna pozkarioz gaiñezka onartzen dauan aginterriaren gaiñ...! Ontan aztikeria nastau baldin ba'da, atzenean be geure buruaz ordaindu bearko dogu. Gure gudalarfen alde dago alambearra; arriak dira jausten zerutik, odol-euria dator etsaiaren gafierra eta arpe-errietatik txilio izugarriak urteten, abots indartsuak gure bularra nasaitu ta arerloarena kikiltzeko esandakoak noski. Beera doa azpiratua bere betiko lotsarako ta kantari *dago* garaillea, aintzaz beterik, babesle izan yakon jainkotasunari ereserkia abestuaz, beste guztiak be, millaka ta eztarti zoli, *Te Deum laudamas* aldarrikatzen daben bitartean, aurretiaz iñok olakorik agindu bage, ain zuzen, Baiña, nire aldetik, gorespenik gorenena

da neure izamen barrura begirada on-samurra zuzentzea, leen noiz-bera baino jazoten ez yata. Erregegai gazte batek, bizi-gozaizaille izanik be, leen egunaldiak zorakerietan irunsi arren, urteak erakutsi dagioe egun baten aldiaren eta liparraren garrantzia. Orain orixegaitI zuokaz batzen naz, duiñen zarien lauokaz, geiago luzatu barik neure etxea, jauregia ta aginterria eroaten lagundu dagistazuen. (*Lenengoari*). Zuri, leen buru! , zor dautzugu gudaroztea ain jakintsu antolatua izana, eta, unerik larrienean, zuzendaritza ausart eta kementsuena. Egin oran bakean be zertzeladak eska ala; mariskal izena damotzut, oiñetikoa dana; baita ezpatea be zeure pentzura izten dot.

MARISKAL OIÑETIKOA.—Zure gudarozte zintzoa, orain barne ari dana, zure al-izatea ta aulkia sendotzera mugetara doan daitezenen, zillegi bekigu ja'aldi aundi bat Ospatzea, guztion artean; zeure aurretikoen gazteluko areto edatueta. Jai orretan, zeure ondoan eta aurretik joanaz, aunditasunik garaienaren jagole betierekoa dan ezpaia au bilux eroan nai dot.

KAISER (*bigarrenari*).—Zuk, kemenari gozotasuna ta ardura alkartzen dakizun orrek, izan zaitez gela-zain aundi; ez yatzu erreza egitekoa. Jar zaitez gure etxeko zerbitzari guztien buru, euren arteko eztabaida ta ezin-ikusiak dirala bide, zerbitzari oso ziztrin biurtu dira-ta. Zure ikasbideak erakutsi dagioela curen jaunari, jauregiari ta guztiai atsegingarri izaren.

GELAZAIN AUNDIA.—Gure maixuaren gogai bikaiñak beteteak onai laguntzea adierazo gura dau, kalterik egin ez, ezta txarra be, eta bata-besteai argi agertu ederkatura bage ta nasai malmuzkeri barik. Ba-dakit, ene Jaun! zure soa niregan lot-erazten baldin ba'da, egiña dagoala nire aintza. Baiña antzeztu ete daike irudimenak berak beiñola jairik? Maira zoazanean neuk eroango dautzut aurrera urrezko ontzia eta neuk eukiko ur-azpilla kirtenetik, zu zeure naitara ta atsegiñez ikuz zaitezen, ni zure begituak gozatzizen nauan lakoxe poz-zoramenez.

KAISER.—Egia esateko, arduraz beteegi aurkitzen naz jaietan nrurgiltzeko. Baiña, bedi! Poztasuna be atsegin-iturri da. (*Irugarren errege-gaiari*). Zu neure jaki-banatzaille nausi egiten zaitut; zeure agindupean geratzen yatzuz eiza, eskortako egazti ta borda guztiak,

eta saia zaitetz aldi ORO ekarri daitezala atsegin yatazan janariak, urte-aro bakotxari dagokiozanak eta guri-guri, artoski gertatuak,

JAKI-BANATZAILLEA.—AraZO latz bekik niri eginkizunik atse-
gingarriena, nire eskuak zure maiara daroaken azpillak zeure on-
eritxia ta gogo beroa jaritxi dagien arte, Sukaldeko langilleak neu-
re ondoan jarri bearke dabe bitarteak laburraro ta urte-aroak aurre-
ratu dagiezan, Azpil berezko ta sendoak naiago izan daizuzala, zure
maiak illarrain-bidez euki leikezanak aiña.

KAISER (*laugarrenari*).—*arudienez*, jaiak itxi-eziñak diran
ezkero, izan zaitetz zu, O gizuren gazte! , nire edarizain. Gaurtik
aginterriko edari-ixurle nausi zaitugu, eta zeuk zaindu bearke dozuz
gure upeltegiak ardao onez orniduta kuin-kuin egon daitezcan;
baiña zeuk edan-gartxu izan bearra daukazu, eta ez zaizala abagu-
nearen lillurak legezko pozkariora baiño urrñagora jo-erazo.

EDARIZAIÑA.—Neu be, o ene errege-gai! , o gazte oro! , emen
naukazue jai aundi onen erdian. Bikain be bikain zuzendu daroat
aginterriko edari-mai bat; oro destalt tresna baliotsuz, urre ta zidar
batera; baiña zuretzat, ene jaun! , guztien artetik txol zor-erazlea
aukeratzen nik: Benetzia'ko leiar utsa, ondarrean ondo izatea ta
aukera daroazana, eta ardaoari aokera gogorraragoa damotsana, dau-
kazan gai mozkor-erazleak arindurik. Sarri igo edo kutun-indarren
pentzura itxi oi dira, geiegitan noski, gauzak. Zure jan-edan urri-
tasuna da, O jauna! , baikuntzarik onena.

KAISER.—Une garai onetan esan dautzuedana, entzun dozue
neure ao uts-eziñetik ziurtasun eta uste osoz, Kaiser'aren itzak,
altsua da-ta, berez ziur-azten dau eskintzen dauan doiaia; alan be,
eta eskumen osokoa izan dadin, oizko agergaia ta izenpea bear ditu.
Ekar eidazue gizakume aukerako bat bear dan lez jarri dagizan
baldintzok.

(*Gongotzaiña, aurreratuz*).

KAISER.—Zeru-sapaia bere giltzaren mende iztean, igitu eziña
dozu gero gizaldien gizaldietan. Or daukazuz lau erregegaiok; geu-
re kaiser-etxearen erakundeko egin ditut oraintsu. Baiña auxe nai
dot: gure aginte-erreñuak bere baitan dauan guztia bost zenba-
kian sendo-azo daitela gaurtik, Euron lurraldeak gaiñera bestee-
nak baiño aundiagoak izatea gura dot, eta oraindik beraz geitu
daroadaz euron jaubetzak geugandik banandu ta itz-jale izan ya-

kuzanen etorriakaz. Ezar barnean, bada, lagun zintzuok, lurrarele-zati on bat eta orri dagokion eskubidea berau, zelan dan, jarauntsiz, erosiz edo-ta aldatzez geitzekoa noski. Eta emon daizuela bertatik nik zuen eskuetan itxitako jaun-arazoak askaasun osoz erabiltea Ebatzi, O epajkariok! , erabagi garai sendoak, eta ezpei izan auzitegi gain-gaiñeko orren aurka gorago jotetik. Aldi berean, aginpidetzen zaituegu edozein gisatako zerga, ariel, omenaldi ta laguntzako eskubide, bide-zor, meatz, gatz naiz diru —arduraz erabagiteko; eta guzti au geure esker-ona oso-osorik erakutsi nai dautzuegulako, geure Nausitasunaren ondoren maillarik garaiena zuoi emonaz.

GONGURZAIÑA.—Gure esker emotea eldu bei zuganaiño, guztien izenean. Gu sendo ta indartsu egiñik, zeure agintea ta kementa sendotu ta azkor-azten dozuz.

KarsER.—Oraindik be duintasun gorenagoak emon nai dautzuedaz bostoi. Neure aginterriarentzat bizi naz oindiño, eta bizileraz beterik somatzen naz gaiñera; baiña neure begirakune oldozkorra jardun arretatsu ontatik alderaztera beartzen nau neure aurretikoen kateiak, gogai txarretara berau zuzen-azirik. Neu be azkenez, egunak joan egunak etorri, neure zintzoengandik bananduko naz, eta zeuen bete-bearrak orduan ondorengoia izentatzera eroango zaitue. Koroatu ostean, jaso egizue ondi sagaratura, ta ai zuzen ta bazez erabagiko ba'leu aren bakaulki inguru orro legiken ekaitza, guri oraintsu jazo yakun legetxe.

KANTZILLER NAUSIA.—Erregegai oneik, lurreko lenengoak, makur daukazuz zeure aurrean, antuste ixillez biotzak eta ziñu apalez betarteak. Gure odol zintzoak zanetan dirakian bitartean, zeure naiera baiño igitzen eztan gorputz izango gaiatzuz.

KarsER.—Olan, ba, eta amaitzeko, orainarte erabagi dogun guztia gizaldien gizaldietan lekturik geratzen da oizko egintzen bidez eta izenpearen indarrez. Baldintza bat bakar-bakarrik bear da oraindik zeuen jabegoetan izate guren, OSO ta askean sar zaitzen: zatitu-eziñak izango dirala guztiz eta emon dautzuedazan ondasunak alan edo olan geitu ba'dagizuez, leen-semeak bakar-bakarrik artu al izango dauzala ondarez, neurri berean.

KANTZILLER NAUSIA.—POZik jarriko dot oraintxe berton narrantxean erabagi garrantzitsu au, aginterriaren onerako ta geu bako-

txaren obaritan. Kantzillergoak burutu bearko dau aldakia atera ta ikurratzak jartea; eta zuk, jaun orrek! , aintzat artuko dozu egintza zeure izenpe sagaratuz sendotzea.

KAISER.—Gutziz ondo, Agurtuak zaitezze orain, bakotxak, bere kautan, egun aundi ontako gauzak ausnartu dagikezan.

(*Urrintzen dira aldiko erregegaiak*).

ELIZ-NAGUSIA (*bertan geraturik eta gartsu mintzatuz*).—*Ba-doa* kantzillerra ta gotzaiña geratzen da. Susmo astun batek nakar zuzana, ur daukazu arriskuaz oar-aztera; aŕen biotz aitakorra zurekiko arduraz gainezka dago.

KAISER.—Zer naigabek kezkarazi nengike zori oneko orduontan? Mintza zaite.

GONGOTZAINA.—Nik bai samin biziz dakustala, zori onekoa deritxazu ordu onetan, zure buru sagaratu, Satan'ekin batua! Ziur zagoz agiriz zeure errege-aulkian; baiña, ai! , Jaungoiko gure Jaunaren eta Santuaren kaltetan zagoz. Ak **zigor ikaragarria** emongo leuskizu bat-batean, eta aŕen oiñaztarriak ler-egingo leuke pekatari dan kaiser-erri au, ez bait dauka aitzurik zu zeure koroatzegunean aztruari entzindu zina. Zure buruntzatik jalgi zan lenengo esker-izpia orrelaxe eldu zan, kristautasunaren kaltetan, bere buru madarikatura. Jo egizu, ba, zeure bularra damuzko kiñuz eta emioizu santutegiari legezko ez dan bidez eldu yatzun ondasun-pillo ortatik zati eder bat, Auxe berau, muiñoz heteriko lautada au, txabola dagoen lekua, gogo txarrak zeu laguntzera datozan tokia, eta guzurraren nausiari ain errez belarriak makurtzen dautsazuzana, emon egiozu orobat, eta biur dadilla kupi-bera edozein izango done. Erantsi baita emoitze bidezko orri mendia ta oiana bere zabalera osoan, bazka betikor eta ezez estaltzen diran goi-aldeak, aintzira garden arraiñez aberats, aranera bizkor jatsiz datozen errekatxo izengabeak, eta baita landea bera be bere solo, lau ta karkabaz... Guzti ori gisa ortan zure damuaz mintzatuko da, ederra erakusten dautzularik.

KnIsER.—Zelako biotz-ikara sor daroasten barruan neure uts-egite neurribakoak! Zeu izan zaitez emoitze oni mugak ezarriko dautsozana.

GONGURZAIR:A.—Lenengo ta bein, sagara bekio Gutziz Altsuari pakatua osotu zan leku loi au. Irudimenez dakust zelan doazan

jasoaz arresi sendoak; eguzkiaren begituak gogoia bete daroa diz-tira ta arnasaz; jasoz doa etxea eta luzatuaz gurutz antzean, eta luze ta jaso ag'ri da erdiko ontzia eliztarren pozerako. Oneik datoz gero, olatu aundi bai litzan, jaierez ta fedez asetuak. Eguratsean dardar geratzen da knpaien lenengo oiartzuna, zerurantz zorrozten diran torre jagien ingurumari zabuka. Eta aurrera dator pekataria, bizitzara ber-jaio gurariker.. Askundeko egun ospetsu orretan —ai ba'letor azkar! — zure agría izango jaiaren apaindurarik cderrena.

KAIser.—Egintza aundi ori begi lekuko Jauna onesteko ta geure pekatuak ordaintzeko gurari bizi ta onak. Naiko izango da ori. Oindixek oartzen naz barruak gorantz dagistala.

GONCOTZAIÑA.—Neuk egingo ditut, kantziller nazanez, ortarako agindu ta beste garbitasunak.

KARser.—Eragidazu agiri bat bear dan lez, beronen bidez lur-alde onein jaube Eliza egin dagidan, eta atsegin aundiz izenpetuko dot.

GONGOTZAIÑA (*alde egiteko baimenaz alde-egin ondoren, barriro itzultzen*).—Ez dago zertan esanik elizari izten dautsazuzala eskualdeko urte-sariak, amarrenak eta ariel guztiak, betiren betikoz, Asko bear da olako erakunde bati eusteko, ta garestia izan oi da beti be zaingo arduratsua. Emongo dauskuzu erabat zeure euki aberatsetiko urre pizkat, olako oroigailu bat eregiko lur-zati ain zartatu, amor emon eta landu bagean. Baita bear doguz, ez dautzut ixildu nai, urrundik etorritako zura, kare, arbelki ta askotariko ga'ak. Erriaren lepo geratzen da gaiok ekarteia, eta guk irakastegitik otsegingo dogu Elizak zelan bedeinkatzen dauan beronentzat lan egiten dauana. (*Ba-doa*).

KAIser.—Aundi ta zapalkor da nire pekatua! Sorgin-erri gaiztetsi onek bai jarria nauala estualdi larrian!

GONGOTZAIÑA (*barriro itzuliz, eta itzal aunditan*).—Parka, oi Jauna ! izan txarreko gizakume batek artu dau erreñuaren itxasaldea maizter-lur lez; baiña etzaite ikaratu, erbesteratua izango da zuk, garbaturik, jaubetza orretako amarrenak, zergak, eskubideak eta maizter-diruak Elizari emon ba'dagiozuz.

KAIser (*betarte alaiz*).—Olako eskualderik ez da oindiño, itxas-ondarrea bait dau bere egoitza.

GONGURZAIÑA: Eltzen yako beti be bere eguna eskubidea ta egonarrria daukonari. Zure itzak birau beti mardul gureztat.

KAISER (bakarrik).—Ainbeste ardura dau nik kaiser-erri osoaren emotea agiriz izenpetzeak!



BOSTGARREN EKITALDIA

LURRALDE ZABALA

IBILKARIA.—Orra or ezki baltzak, euren zaar-indar osoan; arona ibilte ain luze ostean aurkitu bear nebazan ziurki! Ona baita aspaldiko enparantza be, eta olatuak, ekaitzez suminduak, ondartzara jaurti ninduenean txeraz artu ninduan txabola. Onetsi nai neukez neure salbatzailleak, bikote bikain bat noski, onezkero, uste dodanez, zaar egiñik izango diranak. Arein biotz-ontasun! Joko ete atea? Dei egingo ete! Agur zuok, arrotz-maitasunaren apostoluok, niri egin zeusten onaren jaube oindiño baldin ba'zarie!

BAUZIS (*emakume kaskar, baiña zaar bat*).—Ixillago, arrotz kutun! Txist...! Itxi, otoi, atsedan artzen nire senarrari. Lo luzeak damotso zaarrari bear dauan indarra bere bizi laburrerako.

IBILKARIA.—Esaidazu, andra: artu nai dozuz ostera be nire esker-egintzak, bein zuk eta zure senarrak gazte baten bizia salbetako egin zenduenagaitik? Etzara zu Bauzis, nire ezpan its-ubelai txera arduratsuz izatea biurtu eutsen emakume on a? (*Senarra agertzen da*). Eta zu, Filemon? Etzara zu olatuai beso kementsuz nire altxorra kendu zeuntsena? Zeure larraiñaren dirdai bizira ta zeure kanpaiaren zidar-oiartzunera urtu zan kezka larri ta ezin-egon garratza. Eta orain laga eidazue mugarik ez dauan itxasoia ikusteko aurrera nadin; laga bai belaunbiko jarri ta otoitz egin daidan, irazi ta armindua nago-ta. (*Aretxa zear abiatzen da*).

FILEMON (*Bauzis'i*).—*Zoaz* ta ipiñi maia baratx txikian, lekuri loratsuenean. Bitartean, itxi egiozu, dabillega aringa ta gauzak mirretsiz, ezin dautso-ta ikusten dauanari federik emon. (*Jarrai doakio; eta ibilkariaren ondoan jarririk*). Baratz biurtzen dozu egun aretan gaizki erabilli zinduzan gaia, uña uin gaiñ, sumin eta aparjario, eta aregan dakusazu orain atsegin-baratzeko irudia. Nire soinalak, zaarrarenak onezkero, baldar dagoz eta astuntxu. Ez nago-kizu gaur, orduan lez, bat-bateko laguntza eskeintzeko; indarrak alderatuz doakidaz, olatuak letxe. Begira, ezpabere: jakitunen zerbitzari ausartak karkabak atxurtu zituen, euskin eta lubetak jaso ebezan eta itxasoari zatiak irabazi, bertan egoitzak eraiki errege lez kokatzeko. Erabil begitua orlegi-zelai guzti orretan zear: lan-

da, larra, baratz, auzune ta basarte; leen etzan olako ezer be. Goza bete-betean ikuskariz, eguzkia gu izten doa-ta. Ikus urriñora agiri diran oial-ontziak; gauerako babestoki seguru bat billatzen dabe ezpai barik, euren abira itzultzen lekien txori antzean: aren abia kai, zureztat be barri. Oar, itz batean, zelan urrindu dan itxasoaren ertz oztiña, ta zelan geratu zan uts-une bat, ezker-eskuma, gizasemeak bizi diran lekuar

(Irurak mai inguruan, baratz txikian).

BAUzrs.—Mutu geratzen al zara? Arrituta, kopaua aoraiño jaso barik?

FILENtoN.—Gauza arrigarri orren zerbait jakin nai dozu, bear bada; esaiozu zeuk, nik baiño izketarako erreztasun geiago dozu-ta.

Bisozrs.—Gauza arrigarria da, izan be; zantzu arrigarria oin-diño be zurtzaturik naukana, guzti ori gertatu dan erea ez bah yat bape atsegin.

FaxmoN.—Obenen bat burutzen ete dau Kaiser'ak itxas-aldea eskiñiaz? Mezulari bat etorri zan ori aldarrikatzer a iskanbil ikaragarritan, eta geure are-munen ur-ur izan zan lenengo oiña —etxola ta txosnak— jarri ebezan lekua. Gero jauregi bat eregi eben sastrapa-zokoan.

BAUzIs.—Egunez lan egien langilleak, zalapartaka; kolpe ta kolpe, pikotx eta palaz; eta gabaz iñar-izpiak dirdir egien lakuan, biaramonean naza bat jagiten zan. Zikoizkeri barik ixuri zan giza-odola; antsi ta izularrien garraziak gaua asetzen eben, eta uin-ukaldi goritua etorren txurrioan itxasaldetik. Eguna argitzen zaneke ur-erreten bat agertzen yakun zabal. Auzukoaren guragarri ziran gure txabola ta oiana; auzo arriskutsu, eta guk, ak asko iruntsi arren, arpegi ona jarri bear.

EnzmoN.—Alan eta guztiz be, lur bikaiña aukeratu euskun lurralde barrian,

BAUzIs.—Ez egundo be uste onik izan ur-azpiko lurretan, eta egizu alegiñez zeure egoitza beti goialdean.

FILEmoN.—Goazen otoitegira eguzkiaren azken erraiñua ikusten! Kanpaia jo ta, belaunbikoturik, geure antxiñako Jainkoaren eskuetan itxiko doguz geure buruak.

JAUREGIA

*Zunzardi apain-zabala. Ur-erreten azken bakoa.
Faust, oso zaartua, ibilli dabil, oldozkor.*

LINKEU, TORRE-ZAIÑA (turutaz).—Beerantz doa eguzkia, ta kaira datoz txairo azkenengo ontziak. Ur-odira eltzeaz dago oial-ontzi aundi bat; dagoneko zabu-zabuka dabiltz aizetan pozez ikurrin ña' ba rak; gora dagie andinai ta gotor mastak eta zugan aintzatzen da kontramaisua. Zoriona opa dautzu, bere agurrean, urte luzeetan.

(Are-pilloan joten dau bere kanpai txikia).

FAUST (sapoztua).—Kanpai zital! Lotsakor zauritzen nozu biotzean, sasi artean ler-egindako eztanda batek lez. Neure aurrean edatzen da nire erresuma mugarik bage, eta bearrezko da, dudamuda barik, neure bizkar-aldeetik etsaiak ni zirikatzea, daukadan guztia bide txarretik etorria dala doiñu madarikatu orren bitartez niri gogorazirik. Zergaitik ez dagokit ezkien beste alderdi ori, eta etxetxo illuna, ta oroldiz estalitako jauretzea? Alderdi ontatik jo gura ba'dot, pizkat alaitzearren, ona emen, gauzarik soil-ezerezenak bildur-ikaratu nagie. Nire begientzat ez dago arantza besterik, eta nire oiñentzat elorriak. Ai, emendik urrin ba'nengo!

TORRE-ZAIÑA (ozenago).—Onantz datorkigu oial-ontzi ñabarra, arrats-aize garbi ozkirk' tan egoak zabal. Aren abiada bizkorrak oin' dixek darakusguz kutxak, kutxatillak eta zakuak.

(Sekulako ontzia, zaina aberats eta askotarikoz betea, urrin-urriñeko lurraldeetako gauza ederrakaz).

Me f isto f ele. Iru kon pai-lagun ausartak.

ABES BATZA.—

Lurrera gaitazan,
ez gOgo luzatu;
zoriona jaurle,
agur, ontzi-buru!

(Ontzitik kanpora datoz, ondasunak be lurrera ekarriaz).

MEFISTOFELE.—Emen kokatzen gara bete-betea. Doatsuk gu, ontzi-zaiñak onartzen ba'dau! Abia giñanean ontzi bi besterik ez geunkan, eta orain ogei ontzi daukaguz kaian. Zer egin dogu? Gure ontzi'zamak, iñok eta ezek baiño obeto, itz-egin daike gu-

tzaz. Itxas askeak ezpiritua jaregiten, nok daki gogarketa zer dan? Ikubil eragille batek, berak bakarrik, egin daikegu clirutza ederra; arrain bat artzen da, ontzi bat artzen da, eta iru eukiten bat egi-ten laugarrenagaz; bostgarrenari dagokionez, doakabea bera!, in-darra daukagunez, baita eskubidea be. Zergaitik itandu oi da beti, ta ez zelan. Edo-ta nik ez dakit ezer itxasketari buruz, edo gudan salerosketa ta itxaslapurreta, irukoitz dira banandu-eziñak.

IRU LAGUN AUSARTAK.—EZ esker ez osasun, ez osasun ez esker: sats-zama ba'lekargu lez! Betosko illuna dau. Ez yako atsegin, bear bada, erregeren gudakiña.

IEFISTOFELE.—EZ itxaron ezertariko saririk, baiña artu zein-kie dagokizuen zatia.

KONPAI-LAGUNAK.—Guzti ori esteku dogu bakar-bakarrik; ba-kotxak zati bardiña eskatzen dogu guztiok.

MEFISTOFELE.—Eroan, beraz, gauza ederrok, eroan ara gora meta guzti ori, eta berak adigarri ain aberatsa ikusiz, beronek zer adierazo ta zer balio dauan konturatzean, ikusiko dozue zelan ez yatzuen zikoitza, ta ontzidiari emongo dautsoz jaiak eta jaiak.

(Ontzi-zama jasoten ¿abe).

MEFISTOFELE (Faust'i).—Bekoki goibel ta begi-makur daku-sazu zeure zoriona. Burestundua izan da zure jakituri zabala, iz-pazterrak bakezkoak egin ditu itxasoarekin. Itxasoak, gaiñera, poz aundiz artu daroa ontzia, ur-laster bizian barrena bultz eragi-ñez. Autor egizu, beraz, lurbira artzen dozula zeure jauregitik; dana dozu toki onetatik asia: ementxe jaso zan lenengo etxe-mu-kulua, baita orain arraunak ura jalgi-azten dauan zuloa atxurtu be. Zure gogai garaiak eta zuretarren eragiñak jakin eben itxaso ta lurra irabazten; emendik...

FAUST.—Emen madarikatua! Orixe da, ain zuzen be, atseka-bez zapaltzen nauana. Zuri autortu bear dautzut, azal-apain egille zaranez: etenbako biotz-kolpeak artzen nago, ta ezin dot geiago. Mintzatu orduko naspil ikaragarriak inguratzen nau. Naitaezkoa litzake or beeko zaarrok ortik urrintzea; atsegin yat ezki-leku ori neure egoitzat; zugatz orrek dita, nireak, neure mundu-jaube-tzea osotzen izten ez claustenak. Nire poza litzateke, an aurkitzean, adarrak baztertu al danez urriña ikusi al daidan; bide bat ebagi neure begiai burutu dodana ikuskatu al izan dagien, soaldi batez

artu dagien giza-ezpituaren lan-eredu au, eta giza-semeen bizilekutzat irabazitako utsarte azken bakuok barrua indar-azo dagiten. Ez ete da ausaz atsekabe aundia geure ondasunen artean zerbaitek uts-egitea? Kanpai txikiaren tilin-tilinak eta ezkien usainak asetu ta ito nagie elizak eta illobiak lez. Ondar-ale pitiñean be Alguztidunaren naia agertzen. Kanpai txiki ori neugandu gura dot, nasai egon nadin.

MEFIsToFELE.—Ulertzen dot, bai, bizia edentzen dautzun narda ez txikia. Zelan uka ori? Kanpaien durunduak beti iguindu oi dauz prestuen belarriak. Tin-tan madarikatu egurats leungardena loitzen dauana, bizitzako edozein jazoeraz nastu oi da, lenengo bañutik eortz-eguneraiño, bizitzea, tin-tan batetik bestera tartean, lo utsal besterik ez ba-litz legez.

FAUsT.—Mukerkeriak eta setak edentzen dabe jauberzarik aberatsena, eta bere neke-min eta oiñazerako akitzen da bat zuzena izan nairik.

MEFIsToFELE.—Zergaitik, baiña, urduritzen zara? Ez al da sartzen zure asmoetan lurak erri biurtzea?

FAUsT.—Zoaz, eta bota egizuz zeugandik. Ezagunak dozuz zaarroi nik ekarri neutsen aukera ta ondo izatea.

MEFISTOFELE.—Ba, erauzi ta urrun eroaten dira; beste toki batean jarten dira alik ondoen, eta gero, gogorkeria jasan ondoren, leen egozan lekura itzuli nai izan leukeenean, euren egoitzaren edertasunak bake-azoko ditu. (*Txistu zolia dagi. Irurak datoz aurrera*). Zatoze, jaunaren esana egin dagizuen! Eta biar ontzi-jai aundia egingo da.

IRURAK.—Jaun zaarrak gaizki artu gaitu; jai izugarri bat zor dausku.

MEFISTOFELE (*ikusleai*).—*Emetik* aurreragokoa ez da barria, Nabot'en maastiko jazoera bera barrizturik baiño (I *Erregeen*, 21),

GAU SAKONA

LINKEU, TORRE-AIÑA (*abeska, bere zain tokian*).—Ikusteko jaio nintzan au, begiztatzeko nago emen, torre-zaintzari lotua:

pozik nago rnuenduaz. Urrunera so dagit, batzutan urretik dakus-
taz illargia ta izarrak eta beste batzutan oiana ta basauntzak.
Olaxe eldu naz betierearen apaiña danean estalgetzera. Oi
bogi-nini zorientsuak! Ezpeizue axolarik izan gauza batzuk, di-
rala diralakoak, zuok egundo ikusi ez arren: eder da guztia beti.

(*Geldi-unea*)

Baiña ez nabe neure ederrerako bakarrik toki ain garai onc-
tan ipiñi. Begira, zerbait izugarri dana ikustera noa illunpetako
mundu orren ondarrean. Dagoneko dakustaz ditzira aundi batzuk
eta txingar txiki batzuen jauzia ezkien illuntasun bikoitz artan
barruna; sute suntsikorra da, gero ta aziagotuz doana, eta aizeak
igaroz arrotzen dauana... Sutan dago orain txabolea, txabola eze
gaixoa, oroldiz beterik zut agertzen dana. Alperrik entzuten dira
laguntza-eskeko garraziak, ez bait dago onezkeru salbatzerik. Zear-
txo gaixoak, leen sua zaintzen joranez eta orain beraren opari-gai!
Biotz-ikara dakar ikusteak berak: sumiñak kizkurtuz doaz eta
oroldi-pillo beluna onezkeru purpur txingartza da bakar-bakarrik.
Jente gaixo orrek doi-doi bizirik urtengo dau olako suleza asarre-
korretik. Tximista biziak ikusten dira, gaiñera, sasitzako adar ar-
tean zear: osto idorrak dita lipar batez txingartu ta beera doaza-
nak. Zergaitik ikusi dozue ori, ene beg¹ok? Zergaitik begitu bear
dozue ain urruti? Suntsitu da orain jauretze txikia, dana batera,
apurtutako adarren pixu azpian, eta su-miin zorrotzak dardar dagie
zugatz artean, euren kukutz-gaiñetaraiño igonik. Enbor urtetsuak
be purpur-gorriaz estaltzen dira euren susterretaraiño; guzti ori
su-lamen besarkatze estuan. (*Geldiune luzca. Kantari*).

Begi-atsegingarri zan alderdi ederra gizaldiekin alkartzera joan
da.

FAUST (*bere balkoian, are-pilloetara begira*).—Goitik bai jas-
ten oi lastimagarriak! Neuganaiño datoz intziri ta garraziak.
Adiaz dago nire gau-zaiña, eta guzti onek arima barreneraiño nai-
gabetzen nau. Ezki-sailla auldua da dagoneko, ta ez da geratzen
arenetik ikazturiko enbor-meta izugarria besterik; baiña emetik
aurrena ikustoki bat eukiko dogu begiai azken-bakoan galtzen itxi-
ko dautsena. Baita ikusiko dot an urr¹ñera senar-emazte zaar orrein

bizileku **barria** be, neure errukiaren aunditasunari esker, euren azken-egunak nasai ta bare biziko dabezanena, noski.

NIEFIS TOFE LE ETA IRURAK (beean).—Ariñeketan gatoz. Parkatu, otoi. Gauzak ez gertatu guk nai bezela. Dei egin genduan atean, jo sendo ta dana alperrik, ez yakun ba zabaltzen; ordun astindu genduan, gudu-tresna bat lez aren aurka jardun genduan, eta zur zaarra erdoitua zati-zati eginda geratu zan. Ots aundiz erausita be, eun eratako iraiñak jaurtiaz, ez euskuen ulertzen ezta entzun be, Ori ikusirik, eta zure agindua alik lasterren bete gurarik, gogor-kerira jo genduan, Zaar bi areik ez eben esateko gogorrik egin, bertatik jaUSi ziran, izu-ikara itzalaren mende. An aurkitzen zan arrotz batek gogor egin nai izan euskun, eta eriotza emon geuntson; baiña burruka gogor ondoren laster ikatzak su emon eutsoen inguruan barriatuta egoan galtzuari. Su-lacnak une onetan gora joiazan aske, iruron oparirako gertautako garraldia bailitzan.

FaUsT.—Baiña gorraikin ete nago izketan? Nik aldaketa esan neban, ez arrapaketa. Zapuztu dagit nik egintza gaizto ta basati ori, ta madarikatzen dot. Zeuen artean banatu zeinkie.

ARE SBATZA.—

Itz zaarrak, itzak esana:
Indarrari makur pozik!
Ta, ausart, alde nai sistatik?
Uk etxe, sendi, zeu: dana!

(*Ba-doaz*).

FAU ST (*balkoian*).—*Izarrak*, curen izpi-dirdirak gordeten; beerago argi dagi suak, eta dardarka jarten dauan aize meeak bizi-azten dau, kea ta kiratsa nigana bialduz. Agindu bertatik emona ta bertanago betea! Zer da sunbil-itxuran niganantz datorrena?

GABERDIA

(*Urdin jantzitako lati emakume datoz aurrera*)

LENENGOA.—Naigabe deritxat.

BIGARRENA.—ZOr deritxat,

IRUGARRENA.—Kezka deritxat,

LAUGARRENA .—Bearra deritxa t.

DANAK.---EZ gaitezan sartu. Itxirik daga atea. Aberats baten egoitza da, eta eziña izango yaku berton sartzea.

NAIGABE.—Sunbil biurtzen naz,

ZoR.—Nik izatea izten,

BEARRA.—Begirada yat zear-erazten.

KEZKA.—Zuok, aitzok, ezin zarie sartu ta asartu be etzarie egiten; baiña Kezkak ba-daki malmutz txirrist egiten serraillaren hegitik.

(*Kezka ostenduten da*).

NAIGABEA.—AiZta goihelak, urrin zaiteze emendik.

ZORRA.—Ni zugaz batzen naz, zeure alboan beti ibilli nadin.

BEARRA.—Bearra joango da beti zure orpoak ikutzen,

IRURAK.—Lerroz lerro doaz odeiak, eta atzean gordeten diran izanak urrundik datozeJa dirudi. Baiña, begira, nor datorren orain: Erio gure aizta da.

FAUST (*jauregian*).—*Lau* ikusi dodaz eltzen, eta iru baiño ez ditut aurkitzen. Alperrik dendatu nagi arein izketaren muiña ulertzen, Kezka Barne-zimiko lez entzun neban esaten; eta gero ez dakit zer eriotzaz. Arein autua ito arroa zan, sunbillen abotsa lakoxea. Eta ortan saiatu nintzan arren, ex dot ezertxo be gogorutzen, Oi azti-lan! Oi sorginkeri! Zer ez neunke nik emongo i neure bidetik aldendu ta ire trukumulak betiko aiztutearren! Oi Izadia! Zure aurrean ní gizon bat, gizon lau besterik ez izatea! Orduantxe bakarrik balioko leuke biziak. Gizona! Ni izan nintzan beste garai baten, illunpetan sakondu aurretik, mundua ta neure burua madarikatu ta hiraokatu baiño leen. Baiña orain neure in guruko aizea ain kutsutua dagoen ezkerro, deahru-aztikeriz nos-
ez neuke esango zer egin igesari emoteko. Eguna dizditsu ta zur datorkigunean irribarrez, gaua yatorku bertatik aurrera ames-
mantu itsetan gu murgiltzera. Pozkarioz jarten dogu oiña landa loratsu baten, eta ona nun datorkigun heingoan txori bat karras-
ka, Zer diño aren karraskadak? A zoritxar! Argitan naiz illun-
petan sorginkeriak atzemoten gaita bere sareetan; berak artzen gaitu, berak gaukaz, berak azpiratzen gaitu eta bakarrik geratzen gana ari begira, izugarriro bakarrik geure latz-ikaraz. Baiña atea

zabaltzen da, ta ez da iñor sartzen (*bildurturik*). Ba-dago emen iñor?

KEzKA.—Baietza merezi dau itaunak.

FAUST.—Zu, nor zaitut, ba?

KEzKA.—Emen naukazu; zer geiago nai dozu?

FAUST.—Zoaz emendik!

KEzKA.—Egon bear dodan lekuan nago.

FAUST (*sumin lenengo, gero baretsuago*).—*Araka* eizu, beraz, zeure burua, ta ez arren, esan aztizko itzik.

KEzKA.—Belarriak entzun nai ez balegide be, nik ez neuke origaitik biotzen barreneraiño eltzea itxiko; bide bat baiño geiago daukadaz neure alizate izugarriak gaiña ar dagian. Idoro zenduan iñoiz, lurreko ta itxasoko bideetan, Kezka lako lagunik, billatu barik idoro ta aldi berean txeratu ta madarikatu dagionari gitxia-go txutxu-eragiten yakonik?

FaUST.—Munduan zear ibilterakoan, neure kezka ta larritasun bakotxari uleetatik oratuaz naikotu naz ni, atsegin ez yatana libre itxi beti ta aienatu naiez ebillena neugaz eukiko iñoiz be gogorrik egin bage. Nai izan neban, bete ta barriro nai izatera itzuli nintzan; orixe izan guztia, ta orrelaxe igaro zan patxadaz nire bizitzaldi dana, lenengo bizitzaldi aundi ta gotorra, eta gero maltzur eta zuurra. Otu yatan guztia, lurraren osertz guzti a eza-gutu neban, eta ez ninduan kezkarazi onen atzetik egoanak, nire ikusmena ez bait zan araiño irixten. Zentzun bakoa da begiak okertu ta arantza begitu nai dauana; ames bitartean, adibidez, bere kidekoai zero-goitasunaz eragiten dautsela uste dauanaren antzera. Lurrari itsatsi dakiola olakoa, ta ingurumari begitu. Ez da ertsia mundua gizaseme sendoarentzat; ba ete dau betiereko goi-aldeetatik ibilteko bear-izanik? Berak idoro daroana beintzat ulert-errez da, eta sunbillak ez dabe bere egunaldiaren urteera zemaitsu besterik egiten; baiña mundutik eta bzi dan unetik aienatu gura ba' leu, itzetik ortzera aurkituko dau zein zoriona zein naigabea, egundo asetasun osora eltzen ez dalarik.

KEzKA.—Munduak ez diñotsa ezer bein bakarrik nire mende egon danari; betiereko illunpeak naasiago egin oi dira olakoaren biran; eguzkia, ez urten ez sartu, ez da agertzen bere begi aurrean; eta argiak izanda be aren zentzun kanpotikoak, aren anima barruan

gaua da jaun eta jabe. Ez daki ondasunak erabili ta gozaten, eta ez dakartse axolik ez zorionak ez zoritxarrak; asetua dago ta gose da; eskuaren mende dauko atsegiña ta biaramonerako izten dau; geroaren zain-egote zurrean, ez da aurkitzen egundo be ezertarako gertu.

FAUs-r.—Naikoa, onezkero! Ez uste izan nigaz jaubetzerik, ez bait dot siñisten zure zitalkerietan. Eta zoaz emendik! Zure jas-eragin eta lotsarik ezak zentzundunenari be errazoia lausotuko leuskio azkenerako.

KEzKA.—Aurrera ala atzera egin bear dau nire oparigaiak? Ez daki egundo be, unekada guztietan erabagiak uts-egiten dautso-ta; bide erdian zalantzaz, gen-genì ta itsumustuan ezik ezin da ibilli, eta aldian bein galtzen. Beti ikusi oi dau zerbait zer guztien barna, bai beretzaz eta bai enparauetzaz, eta etenbage arnasa artu bear dau indartsu, ito ez dadin. Gai-eza da, azkenez, etsipnerako lez eroamenerako be. Aren bizia, ba, atertu bako latz-ikara ta dardara da, nagikeri samiña ta eragin ulert-eziña, gogorkeria ta morroitza lpa-tera, atsegiñezko loa ta lo-murdia; guzti onek aurrera eragiten dautso ta aldi berean bere tokian josten dau, inpernuko zoritxar izugarri guztiakaz.

FAUST —A, sunbil ga:ztetsiak! Olantxe dozue atsegiña eun eratan giza-enda oiñazetuaz; olantxe bete oi dozue naspil azaldu-eziñez, berez galdu-irabazirik ez daben egunen katea. Ondo dakit nik, deabruok! , bat ez dala zuengandik errez askatzen, zuon besarkada idurizko ta noraezeko ori ez dala iñoiz eteten. Baiña zu, o Kezka! , naiz-ta tentagarri agertu ta aginpide aundiko, nik ezetsi ta zapuzten zaitut neure gogo guztiz.

(*Kezkak putz-egiten daias()* arpegian).

KEZKA.—Ederto! Azter naizu beiñik-bein zugandik biraoka iges egiten dodan une berean. Gizakumeak, geienez, itsu diraue bizialdi osoan. Zu be, Faust! , biur zaitez itsu zeure bizitz-azkenean.

FAUST (*itsutuaz* doa).—Ona, gaba gero ta illunago egiten yat; baiña beraren erdian argi dagist dirdira jabal batek. Bete da nik uste nebana. Maixuaren iiza da bakar-bakarrik pixuduna. Zutik, ene zerbitzariok! Egizue danon artean nire gogai aurrerca burutu dadilla ospe ta aintzaz. Lanera esku oro! Eskuok, palara ta piko-

txera! Bete daitela gure asmoa; izan begie euren saria ekiñak eta egokitasunak; osa dedilla munduko egintzarik aundiena! Ezpiritu *bat* aski da millaka beso zuzentzeko.

JAUREGIKO LARRAIN AUNDIA

Tortxoak

MEFISTOFELE (*aurrean, dana aztertu nairik*).—Zatoze, sendi-sunbillok! Erdue, azurruts, soin erasi ta soin-atal dantzariok! Erdue, izaki oso-ezak, azurrez, kirioz eta zan-zurdaz egiñok!

SUNBILLAK.—Zu laguntzera gatoz: lanera, beraz. Beingo baten ulertu dogu; eskualde zabala da ainbanatzekoa. Or dagoz lekaide zorrotzak neurtzeko kateakaz. Aztua genduan onezkero, dei egin eta erreguka eskatuko euskuela.

MEFISTOFELE.—EZ da emen indarketa aundirik eskatzen; joka zeuen lege ta neurrien arauera. Luzeena eda daitela dan baizen luze; ken zatozala ingurumari oro, eta atxurtu lauki zabal bat, gure gurasoak egin ebenez. Jauregia dagoneko txiki geratzen da: ona nun amaitzen diran ergelki gauza guztiak.

SUNBILLAK (*lurra atxurtiiz, asarre-kiñuka*).—*Ni* bizi nintzanean eta maitatzen nekianean, neure gaztaroan, gozo-samurrak yatazan gauzak oro; nainun loratzen ziran larrosak eta nainun entzun be aots lilluragarriak nire oiñak eragikoi dantzarazten ebazanak. Gero, zaartzaro doakabean, inakuluakaz bakar-bakarrik ibilli al izan neban, nire oiñak il-obiaz mux egin eben arte. Zergaitik egun aretan edegi yatan niri il-obiko atea?

FAUST (*jauregitik iirtenaz eta ate-pilarrak ikutuaz*).—Pala-otsak zuzen-azi nagiala, Neuretzat lan dagi jenteak. Beronegaz alkartu da lurra, eta bion artean itxasoari mugak koskatu ta esi-barru es-tuetan eutsi ta geldia-azoa daukie.

MEFISTOFELE (*bakarrean*).—Zeu zara gurezat lan dagizuna zeure kai ta nazakaz, Neptun'i, uretako deabruari, jan-edate ikaragarria gertatuaz. Dana dala, galduak zarie: gaiak gugaz bateratu dira ta oro doa urratu ta ondagarri bidean.

FAUST.—Begirale!

MEFIsroFELE.—Biur zeure ardurak langillengana; bana neurri onez saria ta zigorra; ordain, emon lana, saka. Lanak zelan doazan jakiñean jar naizun, opa dot, gure arroilla zelan doan jakin nai dot.

MEFISTOFET.E (*bere* kautan).—TYñostena siñistera ezkeru, ez da arroillaren auzia izango, il-obiarena baiño.

FAUsT.—Mendiaren oiñean edazten da egin genduan dana kutsutzen dauan zingira; gure lank onena izango da nunbait ur-oxin atsitu ori legortzea. Utsune aundiak urratu dodaz jenteak joan eta etorri egin dagian, segurantza osoz ezpada be, bai beintzat bizi-izatearen bizkortasun azkean. O nire landa-zelai orlegi ta joriak! Muiñoaren luzeran egokitzen dira gizona ta abere-taldeak zoru barri gainean, erlauntz iskanbiltsu ta ekarkorra eraturik. Ori barnean parabisu bat dozu; eta kanpotiko ekaitza bere alperrikako oldarrean ORO suntsitu nai izatera eltzerakoan, jentea naitaez gertu egon bearlco dau zulo-ataka itxi-azoteko. Asmo oni oso-osoan emona oartzen naz, jakituri guztiren elburu danari noski. Askatasunaren eta bizitzearen du'rigarri bakarra da bakotxak jakin dagiala eurok irabazten. Era onetan daroez emen euren bizitzak, inguruko arrisku guztien artean, umeak lez adiñekoak eta agureak be. Eta nik ezin dodala ikusi orrelako jardunik, ezta bizi be neure naitara lur-zati azke baten, erri arabat azke baten babespean! Nik orori esango neuskio orduan: itxoin, zu goza nai zaitut, ederra zara-ta! Onezkero, baña, nire lurreko egunen lorratza ezin daiteke askorik luza, eta susmo orretan niretzat ez dago zoriontasun garai bat baiño, au da, esan-eziñeko une orri kea atera orain.

(*Faust lurrera jausten da, eta Sunbillak oratu te beean etzuntzen*).

MEFISTOFEL.E.-E2 dago soin-gurikeririk beteko dauanik, ez zorionik laket yakonik, eta bere zorakerian itxura jadetsi-eziñen billa ibilli baiño ez dau egiten. Zorigaitzak, barniz, alegiñak alegin saiatzen da azken-une kupibera ta uts au beroni gero ta geiago luzerazten. Eta aldiak ba-darua onezkero ain kementsu gogor dagidana: ondar gainean daukagu zaarra ta beronen bizi-orduaria gelditua da,

ABESBATZA.—Gelditu da! Gaberdian ixildu da orduaria. Jausi da orratza.

MEFISTOFELE.- ausi da. Aitua da oro.

ABEsBATzA.—Joana da.

MEFtsTOFELE.—Joana! Itz illuna. Zergaitik joana? Azkena ta ezereza bardiñak dira! Ze balio dau izadi betierekoak sOrtutako guztiak ezerezera joan bear ba'dau? «Joana da!» . Zer irakurgai dozu au? Egundo izan ezpalitz lez dogu au, ta bizitzako gauzak zirkin dagie, ta mugitzen, zeozer bai buzan! Nik gero naiago dot milla bider neure betiko utsa.

ILLETA-KANTA

SUNBILLA (*babarik*).—Nok egiten daust ain txarto egoitza au palaz ta pikaz?

SUNBILLAK (*taldean*).—*Egoitza* au ederregia da oindiño kurruzko jantxidun arrotz batentzat.

SUNBILLA.—Au bai egurats illun goibela! Nun dagoz etxe ontako txetxu ta zerak?

SUNBILLAK (*taldean*).—*Emona* zan, epea bete da ta askotxo dira artuendunak.

NIEFIstOFELE.—Gorputza dagoneko datzan ezkeru, ezpirituak bear bada igesari emon nai ba'leutso be, ager-azo daigun geure agiria odolez idatzirik. Ainbeste bide dira, ai! , izan be, arimak, ordu au eltzerakoan, deabruari iruzur egiteko! Lendik txarto erabiliak ba'giñan, orain ez gaitue obeto ikusten; alan be, beste orduz neuk bakarrik egingo neunkeana, orain norbaiten laguntasuna bear dot axe bera osotuteko.

Dana doa gaizki, gauza guztiak! Oitura ta zuzenbide, lege zaararak, eta batek ezin lei ipiñi uste onik geroaren ezertan be. Arimeak leen azken arnasarekin urteten zan; zelatan nengoan ni ta neure erpakaz atzemon oi neban arratoi bat legez. Arimea gaur zalantzan dago atera aurretik, muker agertzen da bere egoitza illun maskala izteko, gorpu itsak eskintzen dautson egoitza nazkagarria izteko, eta azkenez ustelduz doazan gaiak botaten dabe, lotsagarriro bota be. Eta nik orduak eta egunak emoten dodaz oiñaze larritan! *Nun?*, *noiz?*, *zelan?* Auxe da itaun astuna; erio zaarrak galdua dau bere kautako indarra. Baiña ilten dala, ba ete dakigu? Nik askotan begiratu dodaz griñaz egiazki gogor egozan soin-ata-

lak; baiña itxura besterik etzan. Asko luzatu bage, zirkin egien soin-atal areik,

(*Ixii-joko ta irudizko ziñuak, dunbal aundien antzean*).

Eme orain! Urrats biñakatzen...! Jaun adar zut eta adar okerdunak, egiazko deabru mota gardantzenekoak, ekar eistazuez ona arin be arin inpernuaren autzak, Inpernuak euki be ao bat baiño geiago daukaz, eta ba-daki bakotxa irunsten, dagokionez eta egoki yakonez. Alan eta guzti, egun gorenengo onetan be, geroa azkenez kezka oroz erantziko da.

(*Ezkerretara edegiten da inpernuaren ao izugarria*).

Orra or matrail-azur erdi-edegiak; suzko arri-urtu suminkorra dado leza-barrenaren sapaia, ta lurrin naasien ondarrean su bizi dan Triaren betiko inguru-orrazia dakust. Txingarretan dago sutzar gorria, eta *ango* barbailla nastu egiten da ortz-agiñen karrasketaz; igeri datoz aterantz gaitetsiak, salbamen-eske, baiña otso-tzar batek izten dautse bidea, euren su-lamazko egoitzetara biurtu-azorik. Azkenengo zirkilluetan be latz-ikarak dauko bere abia. Zenbat izugarri toki orren estuan? jokabide ederra zurea, egi-egiaz, guzti au guzur ta ipuintzat euki oi daben pekatariak buruzkoa noski.

(*Gorputz zut eta adar okerdan deabru boldroai*).

Ia zuok, barraban gilbor-aundiok, ain ederto su dagizuenok, lezako sulburez ondo koipestuta zagozen lepazur puztudon kaikutzarrok! Azter ondo or beean mixto-izpirik bear bada ikusten ete dozuen dⁱzdizka; arimea, Psiki egoduna. Lumatu beingoan, ar zirtzil eginda itxi arteiño. Nik orduan neure ikurratzez ziñatuko dot, eta inpernuko zurrunbiloetara beingo beingoan!

Begira baita azpiko eskualdeak, zaagi sakarrak eratzen dabezanak, zeuen zeregiña danez. Ez da gauza ziurra betikoz an bizi izango dana; arimea batzutan sabelean babestu oi yatzue; zaindu eizue, ba, alderdi ortatik be iges egin ez daizuen.

(*Adar luze ta makurdun deabru makarrai*).

Eta zuok, jaun argalok, zaldabai eskerga nausiok, beatu usgunea ta jar atezu atzazkalak eta erpak egazean arrapetako. Onezkero, ez dago ezpairik, gogoaz bestera dago egoitza zaarrean; jenioak beti be gora dau joera, goi-aldeko eskualdetara.

ZERUTAR TALDEA.—Goi-talde done, aingeru anai ta mezulari gorritzak, eroan bizia biotzez deika dagozan atsekabetuai. Lerra zaiteze egaz bzkorrean egurats zear ta biztazi arein buztin otza. Eta laga nainun zeuon kemen-garraren aztarna, arima orotan zeuon cloai-eskerra ixuriz.

MEHsTOFELE.—Zaratots miresgarria dantzut, eta zuzmur zakar iguingarriak; goitik dator guzti ori, argi-izpi madarikatu batekin 'patera, Enda ar-eme ori da, eliz-zaiñentzat ain agurgarri dana. Ondo dakizuenez, geure ikas-bela gaiztoetan giza-enda ondatzea izan oi dogu asmo-gai, eta elburu orri loturik iruditzen dogu beti zitalkeririk gaiztoena. Ikus zelan datozen beatz-muturretan zitalak; arima bat baiño geiago ostu euskuen orrelaxe, geuk darabilguzan izkiluekaz eraso oi gaitue-ta; azken baten eurak be aingeruak dira, baiña mozorrotuak, Oraingo burruka au galtzea betirako lotsakizun litzakigu bene-benetan; urbil zaiteze, ba, obira, eta zuur egon, zuur!

ANIGERU-TALDEA (*larrosak ereiñez*).—Euri lez jausi, larrosa argitsu irazekiak; lorak jantzi oro, aizeen mende garbi ta mutu zabuzabuka; bete bazter guztiak, murgoi orlegizko larrosa bizkorak, irritsa ta arima biurtzen dozuen suzko larrosak...! Or etzunda ikusten dozuen ori lo dago nasai-nasai; eroan beraganaiño udalen barri baten usain gozoak; ezar berari inguruan parabisuko larrosa guztiak.

MEFISTOFEL.E (*deabruai*).—Zergaitik txiki-azten zarie ta latzikaritzen? Ori al da oitura inpernuan? Iraun eizue, ba, sendo ta laga egiten. Bakotxa bere tokira! Uste dabe bear bada deabru suarrai lili-iruntz orregaz atzera eragitea. Egonarri pizkat eta guzti ori bigurtu ta urtu egingo da zuen arnas-atsezr Putz bizkor, olettako auspoak! Zuen lurrun-jarioak bertatik larutu dau moltzo osoa. Naikoa! Ez ain gogor, onezkero! Itxi zeuen ao ta surrak. Oldar geiegiz putz-egin dozue; ez al daukazue, baiña, neurriaren zentzunik? Kizkurtu baiño egin bear etziran ostoak, zimeldu, igartu ta aitzen doaz. Begira, zelan jausten dan euri-truizua gure gain sugar kutsutu orrein zimur artean. Goazen, ba, eurekana! Ertsi ta irato ando lerroak! Ikus zelan gitxitzen dan arein kemena ta zelan lagatzen ditun indarrak! Zergaitik ori? Deabruak aizatu dabelako sugar bitxi baten sunda.

AuNGERUAK.—Eroan bazter guztietara maitetasuna, lora argitsuak etaugar adu-onekoak. Ede dala emen dala en argitasuna, biotz arrituaren aurrean, arimaren itz etaugarren egurats.

MEsTOfELE.—Bira! Lotsa dakarskue olako piztiak. Orain-txe datoz urtenaz deabruak, alkar joka; baldar alenak bira egin eta inpernuan murgiltzen dira danak batera. Zoaze ta suzko bafnuak ar zagiezala pozkariotsu: ondo merezia daukazue. Nik ez dot neure lekua izten.

(*Larrosa-uiolaren erdian burrukan dagie*).

Atx, su-zoro! Dirdir, bai, dirdir zeure indar guztiz; neure eskuetan zaukadaz, lika etzaior eta arrunta. Baiña oindiño be gogor egin nairik? Iges egin nai dozu, bear bada? Nire zori txarra: lepa-zurretik oratzen daust: paca ta sulbur da.

AIINGERUAK (taldean).—Etzaiteze joan, anaiok, zeuoi dagokizuen borobillera baiño; babes zaiteze kristiñau biotza orbandu ta lausotu daroan guztitik. Arima orrek zuon abes-batzean sartu bear ba'dau, bear-bearra da guztiok, ingeru ta apostolu, begi-erne egotea. Maitasuna daroa bakar-bakarrik zeruetako erreñu santura.

MEFisToFE.LE.—Sugarretan dago nire burua; sutan daukat biotza ta odol guztia. Deabruak ezteko sortu zan gai bat en aurrean, Zergaitik orrela intziri, maitale zapuztuok, zeuon maitegaiari ainbestez zearka begiratuz lepa-korkoil gaixoz zagozenok? Eta zelan guzti au niri jazo ete leikit? Zer da orain nire begiak beste leku batera derakarzana?, ez ete nago bear bada burruka gordiñean inguratzen nauan guztiagaz...? Ona emen, beti-beti iguingarri izan yatan aingeru orrein begiratua eta une onetan, indar nabarmen bat barrura ba'letorkit lez, orain eurak ikusteak poza ta atsegiña damoste. Zek ez daust izten eurok madarikatzen? Eta nik neure burua lilluraz sorgintzen itxi ba'dagit, nor izango ete zoroa aurre-rantzean? Leen ainbeste gorroto izan nebazan izaki gaitzetsiak, orain irudi zoragarriak begitanduten yataz!

Esaidazue, kutunok! , zuok be etzarie apika Luzifer'en endako? Zuok bai ederrak! Atsegin aundiz besarkatuko zindukeedaz, eta ez da barriz onako eretik izango. Ondo bait nago, ondo be ondo bait nago zuen artean, millaka aldiz ikusi zaituedala iruditzen yat; eta kateme maiteminduari lakoxe irrika ixillak sortzen yataz ba-

rruan. Ikusiago ta ederrago aurkitzen zaituedaz. Zatoze onantza!
Begidara bat, otoi!

AINGERUAK (*taldean*).—*Emen* gatoz. Zergaitik zoaz gugandik?
Urrera gatorkizuz; gelditu zaitetz, al ba'dozu!

(*Goietan zear barreiatzen dira aingeruak*).

ME FI STOFELE (*antzoki-aurrean makur-azoaz*).—*Gogo* gaiztetsiak dei egiten dauskuzue, baiña zuok zarie egiazki sorgintza maixu benetakoak, gizona ta emakumea sorgindu oi dozue-ta. Zori doakabe! Nun dago maite-gaia! Gorputz osoa sutan daukat eta ozt-oztan oartzen ni neure garondoko beroaz. Or ta emen zabiltze egoka; jatxi zaitetze apur bat beerago; lurtarrago dan zerbaitegaz busti-ase daitezala zuon soin-atalak. Ederki yatortzue bentasuna, seriotasuna, baiña, be'n baiño ezpada be, nik bai pozik zuon ezpanetan irribarrea ikusi! Ori litzake niretzat betiereko birloratzea lez, Zuengandik ditxarot maiteminduak alkarri begiak kliskatu oi dautseezanean egin daroen ziñu edo imintzio arin ori: ezpanen tximurtura utsaren urrengoa. Zu zaitut maite batez be, lerdenena zaran ori; eder ez yatana elizaiñaren arpegi ori da; ikus dagigun alan be: bota eidazu begitu pizkat lizunkoia, Gitxiago estal zeinkiez itxurak, ori dala-ta on-eritxia galdu barik, jakiña; inguratzen zaituan atorra luze ori legezkoegia deritxat... Itzuliz datoz orain. Edu orretan be gurakor zarie!

AINGERU-ABESBATZA.—

Argia biur,
zu, maite-printza!
Eder bekizu
egi-egoitza;
poz-zori zaitetz
gaitzetik azke,
zoritsu beti
aintzaren jabe.

MEFISTOFELE (*senera etorririk*).—Zer jazo yat? Zauri uts nozu, Job'en pareko. Latz-ikara dakartsot neure buruari be; baiña, aren antzera, garaille naz neure mixerizko ikuskariaz. Neure burua ta neure enda, ez dot besterik opa. Osorik dagoz deabruaren soin-atal prestuak, maite-txingar orrek doi-doi narru-azala besterik

ez eustan ikutu ta. Itzali dira onezkero sugar gaiztetsiak, eta, neuri dagokidanez, asko zarien arren, danok batera madarikatzen zaituet!

AINGERUEN ABESBATZA.-

Suaren santu!
Onek, oi! , joa
bizira dator,
on betikoa!
Alkartuz oro,
gorantz otoizka!
Xau dago ortzia,
gogoa arnaska!

(*Gorantz doaz, Fauseen zati ezdkorra eurakaz eroanik*).

MEFISTOFELE (*bere ingurura begituz*).—*E? Zelan? Nundik igaro ziran? Atzipetu nozu, erraza etoi orrek! Zerurantz egaz doaz guztiak euren arrapakiñaz. Etzan orixe besterik illobi onen gaiñ egaz eragiten eutsena. Altxor bat daroaste, neure altxorrik bikaiñena benetan! Neuri lotua egoan arima gurena ostu egin dauste maltzurkiro. Eta nori dei egin orain uluka? Nok itzuliko daust ene ondasuna? Ziria sartu dautzue zeure adin aurreratuan; baiña jakin egizu merezi zenduala olako zerbait. Irakasle ergel antzean jokatu dot eta galdu egin naz lotsagarriro. Nola more eragin al dagikean uiñez sopindutako deabruari gurari arrunt batek, maitakeri zentzun bako batek? Eta bizi-ikasiz orren argia dan ni lako txerren bat jausi leikeala olako umekerietan! Auxe da zoroarena egiñez amaitzea deritxona.*

MENDI-KARKABAK

Oianak, landak, eremuak.

Lekarotar santuak bizi dira mendi-gaillurretan, arkaitz-zirrikietuetan gorderik.

ABES-BATZA TA OIARTZUNA.—Aizeen pentzutara beti, oianak susterrez jantzitako arkaitz gaiñ zabukatzen dirala, esau daikegu. Zugatz garai ta naas'ak koroatzen dabez mendiak, zeru-sapairaiño igon nai dabenez noski. Ura uraren billa doa ito-agiñean, eta sakon edegiten da leizearen usgunea; eta nun-naitik igaroten da, nasai

ta bakarti, toki oneitako ezkutu sagaratua —maite-misterioa-
aomentzen dauan leoi ez erdu ta ez merdua.

AITA SORGORRA (*goitik beera*, ;'orra, *doala*).—O Jainko-garra-
ren bero bizi! O suaren eta maitasunaren lokarri! Biztu bularra
min-saporez, Jainko-irrits itzal-eziñetan! Azkonak, zula nagizue
alde! Igunak, zauritu ni osotoro! Kateiak, txea nagizue!
naizue, justuriak! Eror bedi zatika, neure aragiaz, doillor eta oben-
latí dana, eta ezpei gera niretik maitasun betikoaren oiñarri dan
zeru-izar ditziranta baiño!

AITA OTOIZLARIA (*beeko lurraldea*).—Oro tankeratu ta oro ja-
naritzen dauan maitasun indartsua leza sakon gain makur-azten
dan arkaitz antzekoa da, eta uiol izugarria sort-azteko urari nasten
yakon uraren antzeko, edo-ta aizearen erasoai zirkiñik egiteke eus-
ten dautsen arte zut-zutaren pareko. Burrunbots basatia dantzut
neure bitan; azantz azken bakoa da, neurtu-eziña, basarteak era
aitz erraldoiak egina ba'litz bezela, beingo ur aundi biurturik. Alan
be, ona emen ots orren erdian maitasunez aurrera dator, ibarreran-
tza, ur azien tirain zalapartatsua, zelai ta landak erne-azo dagizan.
Zer dira, ba, goitik beera datorren ur-jauzia ta eguratsa txautu da-
gian jainkozko ekaitza ta usgunean argi-errekak izten dituna, eguna
ezkututzen dauskuen lurrun-meta naasiekin, maitasunezko mezula-
riak ez-ezik? Eurok dira, bai, indar kementsu orren otsegilleak,
beti jardun bizian, mundua biribilkatzen dauan indar orrenak nos-
ki. Betor nire bularrera be, neure ezpirtu goibel minberatura, neu-
re gogo gaixora aragi-kaiola estuan, eta kate sendoz lurrari itsa-
tsira. Goza, Jauna! , ene gogapenak! Argi bei ditzira goitarrak
illunpetan dagoan nire biotz gaixoa!

AITA SERAFINDARRA (*erdiko eskualdean*).—*Kulunka* dabil, ule-
matazak iduri, purpurazko lurruna muiñoiko izaien kukutz gainez.
Aurrez dakust, aurrez igarten ori zer dodan: aurtxo pozkarioz
aseak argitan arat-onat; Ezpirituen talde gaztea dira.

AUR POZKORREN TALDEA.—Norantza goaz? Esaiskuzu, o Aita! ,
nortzuk garan. Zoriontsu gara. Bizia bait dala leun-goza gu guz-
tiontzat!

AITA SERAFINDARRA.—Argiak erakar-ala zabaltzen izakiok! Oi
umetxo eder, gaberdian jαιο ta beingo-beingoan suntsituak! Zeuen
amaentzat galdu ta aingeruak eurengandutako aurtxok! Ez al do-

zue nabaitzen maitasunez beteriko izaki baten urretasuna? Orain ba, urbil zakidaze; zeren bildur zaitekeze? Lurreko bide latzetaz ez dakizue ezer be, urne-umetan itxi zenduen ango bizitzea. Jatsi zaiteze, ba, onaiño eta jar nagizue eskualde au zuek baizen nasai ta naro ikusi al izateko zorian.

(*Beraren gaiñ kokatzen dira guztiak*).

Ona emen zugatzak eta mendiak, gaiñak edurrez zuri ta urburrusta nun-naitik jausika ta zapartaka bideak laburtuz.

AUR POZKORRAK (*euren garuntegi barrutik*).—*Ederra* toki au benetan, baiña oso tristea; leku basatia, izua sartzen dauana. Bildur gara, ta otz, Mesedez, aita on: laga eiskuzu geure egaza usgunean bir-arten.

AITA SERAFINDARRA (*egazka asiaz*).—*Zoaze* goiko egoitzetara igonaz, argi-obo azkenengoetaraiño; igaro dana alderik alde, gero ta gorago erakarriak, onean, Jainko-jarío; berau da bakar-bakarrik arimearen bizikai eta zorabioa ixurtzen dan ontzia jaso daroan indar soilla.

AUR POZKORREN TALDEA (*mendi-gaiñ garaienen inguruan birabiraka*).—*Batu* zeuen eskuak, kurubil bat osotzeko, izaki gorritzokok! Kanta tai bage, jainkozko taldeok! Pozkario goitarrez ase zaiteze danok. Izan uste on, aurretiaz eskolatuak izan zarie-ta. Ona emen, oraintxe ikusiko dozue aingeruen erregea, zuok zeuon gortzarretan ainbeste goratu ta ospatzen dozuena; arpegiz arpegi ikusiko dozue, bere ditzira bete-betean.

AINGERUAK (*goragoko eguratsean zabuka, Faust'en zati ez-dkorrax*).—*Osasun* eta aintza! Ezpirituen eremura eldu-barri dan au, berbirtuz doa. Geuk emon geuntsan geure askespena ta orain zeru-goienetara igonaz doa ori berori lortu dagian. Zorionsuen taldeak barriz artu dau bere egadea odei sutsu gaiñez, eta ezpiritu barri onen ondo-etorria ospatzen dau, begi-biotzetan poz-jario.

AINGERU GAZTEAK.—Zuen esku zuri maitez sagaratuak erein ebezan larrosa guriak, oi kerubiñak! , lagun izan yakuz, arima au, arimen altxor dana, gar aratzetarantz eroateko, eta orain daroagu berau Santuen Santuetara. Larrosa guri orreik azpiratu eben aingeru-matxinzaleen gudaroztea, eta betiereko sutegi ta oituzko neke-miñen ordeez, deabru baltzak oraingoan maitasunaren oiñazeak sumatu ebezan. Satan'ek berak ere, jasan eban, anaiok! , zartako

ederra, axolarik-ezarena eginda be; eta aren azken-intziria leza sakonen ondar-ondarreraño be eldu zan. Garaille gara, ba! Aleluia!

AINGERU ADIÑEKOAK.—NeketSUa da giza-ondakin au oztiñean zear eroatea, lurtar danez loia da-ta. Oro sort-azi ta urtzen dauan Ezpirituaren indar neurtu-eziñak, gañak beraganatzen dauzanean mundu barri baterako, ez dago aingerurik zeruetan izate bikoitz *eta* estua ausi dagikenik, ezta bere gogara urtu dagikeanik be; maitasuna da bakar-bakarrik, betikor eta garbia, oro aska dagikena.

AINGERU GAZTEAK.—Oar nazanez, Ezpiritu moltzo bat iñarosten yat ingurumari, odeiaren lurrin bitartez eta aitz-puru biran. Orain arinduz doa pizkat laiñoa, ta eguratseko urdiñaren gardenean zear lerrotzen dan ume zorionsuen talde azkarra dakust ibilten. Taldeetan doaz moltzoturik, lurreko kateetatik aske, eta iruntzean eta goi-munduetako asikiñetan bustiten dira atsegin betean. Itxi daiegun, anaiok! , euren igote-mugaraiño eldu daitezen; igaro dagiezala askatasun osoz euretariko guztiak lenengo boro-billak.

(Faust'en zati ez-ilkorra Aur Pozkorrai emoten dautse, onekin arduratu daitezan).

AUR POZKORRAK.—Poz-pozik artzen dogu ezkabi-kusku au, aintzako laberako gertu dagoana nunbait. Zuen maitasunak damoskun bezua joria da. Tarein egizue oindiño inguratzen daben mataza ariñetatik, eta ezko bei onezkero zerutar egun-xintak bere izpi ditzirantez.

MAMAR MiusUn (*gelatxo jaso te garbienean*).—*Ikuspegi* ederra, bene-benetan, emendik ikusten dana. Lurbiraren eta betierekoaren tarte dabil ezpiritua zabu-zabuka. Garra darion odeian emakume done batzuk dakustaz, egaz zerurantz doazalarik. Euren artean bat doa ditzikor, loratan dagozan izarren koroepan. Jainkozko zaindaria da; Erregiña, dirdaizko zirt-zirt artean bikain be bikain agertzen dana.

(Birloratua).

O munduko Erregiñ, Sortzez garbia! Eidazu zure jainkozko ezkutapena irakur daidan zero edegien izar-oskolpean. Irakur daidala, bai, o Jainkoaren Ama! , zerutar suaren argitara! Barne-ikarak biotzetan jarten dauan samurtasunak berak daroaz zugana, eskariz ta zorabioz. EzIatxa da gure kemena gure erregiña zarca-

nean, Gure asarrea lokartzen da orduan, olatua ondar-ertzean lez. O Neskutz, zentzunik ederrenean! O Ama gurgarri, garbi ta santu! Erregiñ-koroiz jantzitako Erregiña, zoriotsuen artean autatua, jainko-maillan borobil argitsuetan zear zoazana! Aren biran dabiltz igeri lurrun dardartiak eta usguneko aire biguna edan daroe ildurazale gorrizken taldeak, bere belaunetara eldu daitezana grazi-billa. Bildur barik, o Erregiñ garbi, Birjiña done ta obenik eziña! , itxi, arren! , eldu daitezala zuganaiño pekatari orreik euren argaltasun eta mixeriakaz, eta lot daitezala zure ingurumenean, maitez eta fedez. Berezko sena etzan eurekan oldartu, eta gutzipean jausi bear izan eben; euren eskuak lizun-irritsaren lokarrietatik bat be-
ra be ez eben apurtu, eta euren oiña, ai! , aske ibilli zan azpi laban-
korrean; atsegiñezko begitu batek kateatu zituen, eta gorrotoaren su bizitan kiskaldu zan arein barrua.

(Ama aintzatsua goietan ibilliz).

DAMUTUEN TALDEA.—Entzun,, otoi, zerutik gure erreguak, Birjiña gurgarri orrek! Entzun, bai, zeru-goigoitik, o Birjiña bardin bagea, larrosa gorrimin eta zitori aintzatsu!

OBENLARI AUNDIA (Luka, VII, 36).—Kristo-ren oin jainkozkoak miritza santuz lez negar-malko garbiekin ornidu zituen maitasunarren, Fariseutar gaiztetsiaren irain-iseka zoroen ordezt! Anbarusaiñak batu ebazan kutxatillagaitik! Aren soin-atal sagaratuak txukatu ebazan ule-adats gorrizkagaitik!

SAMARIARRA (Jon, IV),—Abraan zarrak beiñola, bere ardi-taldekaz andik igarotean, ikuskatzen eban urtegi otzagaitik! Zure Semearen ezpan jainkozkoak busti zituan ixurki zoriotsuzko edontziagaitik! Bertatik, bere ur garden garbiaz mundu guztia ureztatuaz, jalgi zan iturburu bizi ta oparoagaitik!

MARI EIPTOARRA (Aeta Sanetorum).—Ziñopa santua egon zan arri otz odolez beteagaitik! Jauretaketik atara nindun besoagaitik! Berrogei urtez jarraian irautako damu zintzo zabalagaitik! Joan aurretik lurrean idatzi ebazan agurrakaitik.

IRURAK.—Zuk, pekatariari zeruan sartzerik iñoiz galazo ez eta damutuaren ondasunak biotz-zabal ugaritzen dozuzan orrek, ar eizu, Zaindari guren! , arima gozo ta menpetu au. Edegi eiozu zeu-

re parkamen azken bagea, bein bere bete-bearrak aaztu ba'ebazan be, ez ekian egiten eban txarra.

Margarite

EMAKUME GARBAITU BAT (*beste orduz Gretxen eritxona, apal-apal*).—*Oi Erregiñ!*, egun eder onetan, itzul eizu nigana zeure bekoki onbera! Biurtuz dago, mingostasun guztitik aske onezke-ro, nik lurrean maite izan nebana.

AUR POZKORRAK (*bira-biraka ariñ urreratuz*).—*Izatez gainezkoa da jazoten yakun guztia. Ak, zalantzik bage, anai zintzo ta duin bezela, sarituko gaitu geure ardura aundiaren truke. Gu goiztar izan gintzazan lurtar biotz gabetuak, eta beronek eskolatuko gaitu orain an beeko gauzetaz.*

EMEKUME OBENLARIA (*beñola Gratxen eritxona*).—Emakume gazte zoriontsuak uste dau amesetan dagoala Ezpirituzko talde onen erdian; airatu ta ortzian goratzen da, eta, zeruan sartuaz batera, Goi-aingeruakaz alkartzen da. Apurka apurka bere lur es-talgi-zapiak erantziten ditu, bere len-gaztaroan lez agertzen yaku, argizko soiñekoz jantzia bakar-bakarrik. Itxi eidazu, oi zeruko Ama! , maitasun garbian eskola clagidan, egun barriaren argitasunak lausotu bear dau-ta.

AMA AINTZATsUA.—Jaso zaitez gero ta geiago jainkozko boro-billerantz; berak ulertu ba'dagi, jarraituko dautzu ta.

MARIAR MAISUA (*bekokia lurrean, eskatzen*).—*Billa egizuez bere begitu salbatzailleak, zeuon biotzak obeto gerta dagizuezan. Esker onez ar daigun ain aundia dan edertasunaren doaia, eta zentzunak oro zeugana biur daitezala. O Birjiña! O Erregiña! O Ama! Erruki zakiguz, o jainkosa, zeure cliztira amai-bakoan!*

ABESBATZ MISTIKUA.—*Irudikizun eta alegi besterik ez dira Aldikoa ta Galtzorizkoa. Ona elduaz datoz Ez-naikoa, Esan-eziña ta Ulert-eziña, Betiko Emakia da zerura dei dagiskuna.*

Anaia.

AURKIBIDEA

	orr.
J. W. Goethe	5
Faust (poema)	11
Eskintza	11
Aurre-solasa antzokian	13
Zeruan itz-aurre	18

LENENGO ZATIA

Gabaz	21
Uriko ate aurrean	30
Ikasgela	39
Ikasgela bera	45
Auerbach edaritegia, Leipzig'en	56
Sorgiñaren sukaldea	65
	73
	75
Txango bat	78
Albokoaren etxea	79
Kale bat	83
Baratza . . .	85
Baratzeko txosna bat	88
Basoa ta koba-zuloa	89
Margarite'ren bizitzea	92
Marte'ren baratza	93
Iturrian	96
	97
	97
	303

Eleiz nagusia	.	101
Walpurgis-gaua	...	102
Walpurgis-gabeko amesa edo Oberon eta Titania'ren urrezko ezteguak	,	112
Egun nastua. Landa,	116
Gaba. Zelai zabala	...	117
7ieo		118

BIGARREN ZATIA

.. 125

TRAJEDIA BOST EKITALDITAN

Lenengo ekitaldia

Leku atsegiña		129
Kaiser'en jauregia	—	132
Areto luze-zabala	..	140
Ama bat eta bere alabea		143
Eskerrak	•—	145
Erioak		145
Asarreak	— —	146
jolas-baratza	..	158
Sollairu illuna	•••	163
Areto naroro argituak		166
Zaldunen aretoa		168

Bigarren ekitaldia

Godogegikerako gela bat. Sapai-jagi ta medarra		175
Lantegia		180
Walpurgis-gau jatorra	r.,	185
Peneios		191
Peneios gainean	•..	196
Egeu itxas-ondoko arkaitzetan		207

Irugarren ekitaldia

Esparta'n, Menelau'ren jauregi aurrean	218
--	-----

Laugarren ekitaldia

Mendiaren aurrekaldean	260
Kaiser aurkakoaren txabola	...,	...	270

Bostgarren ekitaldia

Lurralde zabala	...	279
jauregia		281
Gau sakona		283
Gaberdi ^q		285
Jauregiko larrain aundia	...	289
		291
Mendi-karkabak	...	296

